

EUSKALZALEEN BILTZARRA

**Arantzazu-n, 1963 irailaren 30-ean
eta urriaren 1 eta 2-an**

1963 iraillaren 30-ean eta urriaren 1 eta 2-an Arantzazu-n Euskalzaleen Biltzar bat egin zan. Gai nagusi bezela aldezarretik izendatu zan «Euskal-iztegia eta gaur eguneko bearrak», bi zatitan berezia: «Euskal-iztegiaren iturburuak» eta «Kultura itzak euskeraz».

Ainbat itzaldi ta berriketa egin ziran. Jose Maria Lojendio Euskaltzaïndiko buruzagi bezela egon zan lendabiziko egunean eta Luis Mitxelena-ri egin zion gauzak zuzentzeko eskea. Itzaldiak egin zituztenak dira: Jose Maria Lojendio, Aingeru Irigaray, Aita Luis Villasante, Gabriel Aresti, Fernando Artola, Mitxelena-k Mikel Arruza-k bialdutako lan baten berri eman zuen, Juan V. Gallastegi-k Julene Azpeitia-rena, Aita Fernando Mendizabal-ek Sabin Arrillaga-rena, Sor Maria Milagrosa, Konzezionista frantziskotarra mintzatu zan, Jose Maria Aspiroz, Aita Plazido Mujika-k egiten ari dan iztegiaren berri eman zuen, Aita Jose Azurmendi, Mitxelena-k Aita Gaizka Barandiaran-en lana irakurri zuen, Jose Basterretxea, Aita Imanol Berriatua, Mitxelena-k Anai Valentin Berriotxoaren lanaren berri eman zuen, baita Eusebio Erkiaga-k eta Euskal Kulturaren Alde-k bialdutakoena ere, Aita Joseba Intxausti, Aita Juan Goikoetxea, Aita Kandido Izagirre, Mitxelena-k Jean Haritschelhar-en lana irakurri zuen, Xabier Tolaretxi, Mitxelena-k Jose Maria Etxaburu-ren lana irakurri zuen, Aita Luis Villasante-k Aita Eugenio Agirretxe-n lana irakurri zuen, Pello Zabala anaia, Ibarrola andrea mintzatu zan ipui batzuek kontatuz Bizkaiko euskera bizi batean eta Luis Mitxelena-k bukaera eman zion berriketa luze baten ondoren.

Orietakoak dira:

SEBERO ALTUBE IZTEGI ARAZOETAN MAISU

Toki aundi ta aparteko bat eman nai diogu gure Batzarrean Altube jaunari. Joan zaigu euskaltzain prestua, Euskaltzaindi zaarreko azken adaska, azken kimua. Bizi zan bitartean egin etzitzaion gorasarre-legea orain bederen zor diogula pentsatzen det. Batzar au, gaiñera, iztegiarekikoa izanik, bete betean eta eskubide osoz sartzen da bertan Altube-ren izena. Ñor ez bezela saiatu baitzan bera iztegi-lanerako bear ditugun oiñarriko iritzi edo astapen gidariak finkatzen. Altube-ren itzala nai luke, ba, Batzar onek beretzat.

Batzar au Arantzazun egiten dan aldetik ere, ezin utzia degu Altube-ren aipua. Arantzazutarrak eta Prantziskotarrak berarekin zorretan baitkaude. An Gernikan, Agustiñoen aurrean zeukan jauregiari, «Arantzazu» izena jarri zion berak. Eta urte askotan bere arimako Aitatzat izan zuan Foru-ko gure komentuko Aita prantziskotar bat: Aita Serafin Bidaetxea bermeotarra. Bein baiño geiagotan esan zidan Altube jaunak nola zekarren biotzean Aita aren oroipena, batez ere oso maitetsu eta biotz eder baten jabea zalako. Emengo Aita Arregi musikalariaekin ere izan zituan artu-eman estuak musika-gaietan, bai bata ta bai bestea sail ortakoak ziran-da.

Altube jaunari eskeiñi nai diodan lan onek iru atal izango ditu. Leenbizikoan esango degu nolakoa zan Altube jauna gizaki bezela eta bere idazlanen kopurua aipatuko degu. Bigarreanean euskerari buruz zeuzkan kezka nagusiak aundiz aundi bederen azalduko dira, iztegiko xeetasunetan sartu baiño leen. Irugarreanean, azkenik, zeatz-meatz aztertuko ditugu euskal iztegiari buruzko iritziak.

Altube jaunaren iritzi auek jakiteko, or ditugu bere idazlanak. Oietara joko det ba nik iturburu nagusira bezela. Baiña Altube jaun berbarekin ere izan det adiskidetasun zerbait, eta ala zillegi izango al zait aren ezipaiñetatik zuzen-zuzenean jasotako itz eta esanak ere noizbait aipatzea. Bein baiño geiagotan joan nintzan bera ikustera, an Paben, Hôtel de l'Europe deritzaion ostatuan bizi zanean; eta nere lenengo liburuska, *Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak* argitaratu baiño leen, ara eraman nion, eta bere orrazketa eta oarrekin argitaratu zan. Eta

gero, Gernikara biurtu ondoren, egon dan iru etxeetan —Taberna Vascan, Asilo Calzada-n eta Arrien-enean— bisitatu izan det. Bere bizitzan zear ondo mamituta ausnartutako ideia nagusi batzuk bazituan, eta oietara itzultzen zan sarritxo.

I

ALTUBE JAUNA GIZAKI ALDETIK. AREN IDAZLANAK

Euskera, Euskaltzaindiaren agerkarian, leenbiziko zenbakian, orduko euskaltzaiñen berriak daude emanak: bizitz-xehetasun, ikaskintza, idazlan eta abar. Besteak Ikastetxe Nagusietatik igarotakoak edo goi-mailako karrerak egiñak zirala ikusten da; gure Altube-gatik, berriz, ezta auxe besterik jartzen: «Ikaskintzak: Arrasaten bertan (bere sorterrian, alegia) 1895 gn. urtetik 1902 gn. urteraino». Eta bakoitzaren ofizio, ta bizi moldeaz ari dalarik, besteen titulu, aulki eta aundi-sundezko karguak aipatzen dituan bitartean, Altube-gatik ara zer dion: «Gernikako *Alkartasuna* deritzaion su-izkil-oletako buru eta Gernikako Eres-batz eta Abes Batzaren arteztzaillea» (1).

Arma-fabrika bateko buru edo gerente izandu zan, ba, Gernikan. Europako leenbiziko gerratean irabazpide polita izan omen zuan fabrika orrek; gero, andik urte gutxira, erre egin zan.

Altube jauna etzan, ba, iñungo Unibertsidadetan ibillitako gizona. Baiña ain zuzen, orrexegatik zaigu begikoago. Bere neke ta izerdien puruz jantzi baitzuen bere burua. Bere adimenari zor zion azkurria billatzen etzan batere ajolakabe edo zabarra izan. Batez ere Linguistikako estudioetara agertu zuen gose eta zaletasun bizi-bizia. Frantses izkuntza ikasi eta Linguistikako frantses liburuak eskuratzen zituan, oetatik euskararen onerako atera zitezkean erakutsi edo argibideak xurgatu naiez. Bere idazlanetan ia etengabe ari zaigu linguista oien izenak eta esanak aipatzen: Hovelacque, Dauzat, Grégoire, Meillet, Vendryés ta abar. Berak ikusten zuan emengo euskalari, euskaltzale ta idazle geienak gramatikolari zaarren uste okerreze zeukatela burua moldatua eta ortik eldu zirela ainbeste gaitz eta makur gure euskal baratzerara. Euskaraganako maitetasuna nabari zan, bai, alde ontako euskalari ta idazleetan, baiña maitetasun itsua, askotan, eta maitetasunitsuak mesede baiño kalte geia-

(1) *Euskera*, I (1920), 1 zenbakia, 20 orrialdean.

go egin oi dio maite dan gauzari (1). Beste itzez esateko, Linguistika jakintzak eman oi duen argia eskas genuela kargutu zan, eta ori esku-ratzera jarri zan gogotik.

Linguistikarako zaletasun onek eman zion bere jite berezia Altube jaunaren nortasunari. Eta nola Espaiñi aldean gai ortaz irakurgai gutxi aurkitzen zuan, Frantzi aldera jo zuan argi eske. Ontan antzera aundia aurkitzen diot beste euskaltzain ospetsu batekin: Julio Urquijo jauna-rekin. Biak izan ziran linguistika zale aundiak. Eta bai atzerri zale ere. Estranjeri aldean estudio oitarako garai artan emanago baitziren, eta argia non nai den bear baita bildu eta etxeratu.

Linguistikako estudio oiezaz gaiñera, euskera bera dan bezela eza-gutzen eta aztertzen saiatu zala ere esan bearrik eztago. Euskera bizia batez ere, euskaldun jatorren ezpaiñetan loratzen dan bezela. Euskera bizi onen doaiak eta berezitasunak, nolakotasuna, joerak eta legeak sus-traitik eta sakon aztertu eta analizatu ditu. Or daude, nik diodan guztia egiztatzeko, bere lan aundiak: *De Sintaxis euskérica (Euskal Esnalea-n 1920-an agertua)*; *Erderismos (Euskera aldizkariaren X gn. urtea (1929) oso osorik beteaz eta Bermeo-ko Gaubeka-k 1930-ean liburu berezi bezela zabaldua)*; *El Acento Vasco en la prosa y en el verso (Euskera, XIII gn. urtea (1932), aldizkariaren urte osoa beteaz au ere)*; *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de Azkue (Euskera, XV (1934), 5-231)*. Frantzian igaro zituan urteetan ere azaldu zituan lan batzuk *Homenaje a D. Julio de Urquijo* deritzaion liburuan, eta batez ere *Eusko Jakintza* aldizkarian: *La unificación del euskera literario (E. J., III (1949). 181-204)* ta abar.

Gizaki aldetik gure Altube jauna nolakoa zan adierazteko, nik cztet aurkitzen berak iñoiz eibartar bati entzun zion itz ura baiño egokia-gorik: *gizon benetalarixa* «hombre serio, formal» (2). Alakoxea zan izan ere. Zuzena, arteza, zintzoa. Kristautasunean erro sakonak egiña, naiz sinismen naiz oituretan Eliza Amari sendo atxikia.

Altube jauna ia Euskaltzaindiaren jaiotzatik bertatik zegoen gure elkargo onen barruan. Obeki esateko, Euskaltzaindia artean jarri berria zalarik, bereala gertatu zitzaion bere leenbiziko utsunea: Domingo Agirre-rena, alegia; eta ain zuzen, onen utsunea betetzeko gure Altube jauna izan zan autatua. Leenbiziko urte onetan, eta artean sarrera-itzaldia egin gabea zala, txosten bat ekarri zuen Euskaltzaindiak Iruñean egindako batzar batera, izen onekin: «Erderatiko itzak, itz barrijak eta aintxiña-

(1) Altube, «Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia»; *Euskera* II (1921), 1 zenb., 8 eta 31 orriald.

(2) Ikus *Euskera*, II (1921), 1 zenb., 34 or.

-itzak» (1). Iruñeko batzar au 1920-ko garillaren 23-an izandu zan; eta urte orren berorren azken egunetan (abenduarien 28-an) egin zuen bere euskaltzain sarrera itzaldia onako gai ontaz: «Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia» (2). Itzaldi luze, mardul eta mamitsua, berak ain gogoko zuen gai baten inguruan.

Altube jaunak ba-du beste lan bat gutxi ezaguna eta ajola aundikoa. Nik bera bisitatzen nuanean, gogoan det bein da berriz aipatzen zidala. Ikusten zuan nunbait gizaldi berrietakoak aazturik-edo geneukala. Izan ere etzan azaldu Euskaltzaindiaren agerkarian eta nik neuk beintzat et nuan ezagutzen. Lan aundi onek onako titulu au darama :«Euskal Itz Barriak. Eurok eraltzeko erderaak zetara lagun egin bear deuskuen». Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922 gn. urtean izandako Batzar ospetsuan irakurri eta Batzar ortako idatz-bilduman agertu zan (*III Congreso de Estudios Vascos*, 78-93 or.). Euskal iztegiaren auzi au emen azaltzen du Altube jaunak sistematiko eran, zeatz, zabal eta edatsuki. Lan ortaz baliatuko gera irugarren atalean, Altube-ren iztegi-iritziak aztertzeko.

Urte batzuk geroago, dei bat egin zion Euskaltzaindiari (3), onako au eskatuaz: Euskaltzaindiak argitara eman nai zuan euskal iztegian sartu zitezela Euskalerrian lur artuta dauden erderatiko itzak, eta bai teknika itz orokarrak ere. Berak erderaz dion bezela esango det: «Los vocablos de origen erdérico de uso popular y los de carácter técnico e interlingual». Txosten au oso da laburra, baiña eztu galtzerik, eta bertan ageri da zeinen argi ikusten zuan Altube jaunak euskal iztegiaren auzi au. Tamalez, euskaltzainburu jaunak —Azkuek, alegia—, naiko zorrotz artu zuan eskabide ori eta bekosko illunez erantzun zion, ezezkoa emanik (4).

Lan oietaz gaiñera Altube jaunak ba-du itzaldi sonatu bat: «La Vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa» (5). Eta beste bat oraindik, gai ori bera erabilliz: «Más sobre la vida del euskera. Barriro euskerearen bizitzari buruz» (6).

(1) *Euskera*, I (1920), 2 zenb., 44-54.

(2) *Euskera*, II (1921), 1 zenb., 3-49.

(3) *Ikus Euskera*, XIV (1939), 263-265.

(4) Azkue, «Observaciones acerca de Euskaltzaindiari de Altube tar Seber»; *Euskera*, XVI (1935), 144-149.

(5) *Euskera*, XIV (1933), 299-397.

(6) *Euskera*, XVII (1936), 1-192.

II

ALTUBE JAUNAREN KEZKA NAGUSIAK EUSKERARI BURUZ.
IZKERAK ZAINTEZKO OIN-ARAUAK

Edozein pentsalari edo idazleren puntu xee edo partikular bat azterzen asi aurretik, betiere komeni da aren pentsakera osoa, bere zabalera guztian, ezagutzea; onek argitasun aundia egozten baitu okeilluetako zoko-moko guztietara. Puntu mear eta partikularrak pentsakera jeneraletik artzen dute beren esanai berezia. Eta nik ere orixe egin nai det Altube-ren iztegi-iritziak azaltzen asi baiño leen. Gain begiratu bat eman, alegia, aren kezka nagusiei, euskerari buruz tinko eta sakon biotzean sarturik zeuzkan ideia nagusiei. Ideia edo puntu nagusi auek ia bere idazlan guztietan nabari dira, baiña nik aren sarrera-itzaldiari jarraikiz azalduko ditut.

Ona emen bospasei puntutara bilduak:

I. Euskeraren bizitza. Au da, ezpairik gabe, Altube jaunaren leenbiziko kezka, kezka nagusia, etengabe eta nunai bere lumara agertzen dana. Izkuntzak itzegiteko dira, ezpainen erabilliak izateko. Idaztea, liburuak egitea, literatura apain eta dotore bat izatea, ori gainetik gauza bat da, itzegitearen gainetik eta urrengo datorrena. Amaika izkuntza bizitu izan dira eta iraun dute itzegite utsarekin, sekula idatziak izan ezterala; baiña itzegiteari utzi ezker, eztago izkuntzarik. Idatzi bai ta itzezin ez, ori da eriotzako bidean sartzea. Eutsi dezaiogun, ba, gauza guztien gainetik euskera biziari, ao-euskerari, ezpainetakoari.

Gure idazle eta euskalari askori badirudi orrek eztiela asko ardura. Ikusten dute euskera geroago eta gutxiago itzezin oi dala, galduaz dijoala ta ala ere, uste dute orrek ezuala ainsterañoko garrantsirik. Berak, bospasei liburu, berak asmatutako euskera moduan idatzi ezker, lasai gelditzen dira.

Eztezagun aaztu izkuntzen eriotza, beti betiko eriotza izan oi dala. Bein illez gero, eztago izkuntza bat atzera berpizterik. Or dago Irlanda-ren ikaspidia. Askatasuna ba-dute, eskolak eta nai duten guztia ere bai; saiatu dira, baiña alperrik, eztute ezer lortu. Erriak bein izkuntza galdu ezker, ezta atzera artzen. Or geldituko da, bai, liburuetan, ikasiko dute zaletu batzuk, beste edozein ikaskizun ikasten dan bezela, idatzi ere egingo dute bearbada beste zaletu batzuentzat, baiña izkuntza illa izango da betiere, eta «orrek ni ez nau asetzen» (bein baiño geiagotan entzun nizekion itz auek). Euskera eztedilla il, euskera biziari eutsi,

euskera bizia indartu: au da gure leenbiziko egitekoa. Zeregin aundi onen ondoan beste guztiak txiki gelditzen dira.

II. Izkera biziak belaunez belaun, gizaldiz gizaldi, eskutik eskura bezela pasatzen dira, gurasoak dirala bide, etxeko sukaldean. Bere itzak aipatzeko: «El lenguaje... se transmite íntegramente por ese potente rotativo de la vida familiar» (1). Or dago lantegi miragarria, etxe-familiatako izkutu sakratu ortan. Baiña ortarako bear da gurasoak, bai beren artean eta bai seme-alabekin, beti euskeraz egin dezaten. Gurasoak ontan zabarrak badira edo ume txikiai euskeraz egiñarren, beren artean erderaz egiten badute, eztieta ondorengoei izkera zimel, erkin eta makal bat baizik utziko, eta azkenik, goizago edo beranduago, erabat igartuko eta itzaliko da euskera, eskutik eskurako aldaketa egoki baten faltaz. Li-buruak eta gramatikak eztute eriotza ori eragotzeko indarrik.

III. Eskola, liburu, izparringi, itzaldi ta abar lagungarriak besterik ez dira. Etxeko ta kaleko euskeraren lagungarriak. Ortarako idatz euskerak ao euskeratik gertu samar egon bear du. Erri-izkerak eman oi dio barne izerdia eta arnasa benetazko idatz literaturari. Guk euskera biziaren etorkizunaz ajolagabeturik, asmatuko bagenu idatz euskera bat arengandik aldentuta, orrekin mesede barik kalte egingo genioke erri euskerari.

Antziña, bai, izkuntzen jakintza jaiogabea zegoelako, idatz-izkerak artzen ziran beti nagusitatz, ispillu eta eredutzat, eta ao izkera gaixoa an zebillen bere bidetik, aetatik urruti. Gramatikalariak etziran oartzen biraldakuntza lege batek agindu oi diola izkera biziari, eta lege orren eragitez aldaketa bat gertatzen bazan ao izkeran, izlari makurrak zuten beti errua. Era ortara, geroago eta zabalagoa zan ao eta idatz izkeraren arteko leize eta osiña; eta azkenik, orrela ondatu ziran idatz-izkera aiek. ao izkerari jarraitu etziotelako, alegia. Au izan da, esate baterako, latiñaren patua.

Idatz euskerak, bada, urbildik jarraitu bear dio erri euskerari. Izkera biziak ba-du bere joera, bere martxa, bere biraldakuntza legea. Orren aurka ezin joan gindezke. Txorakeria da guk idazleak erri izkerari gure legeak ezarri nai izatea; au bere bidetik joango da, guk gura ez gura. Idatz izkera erri izkeratik urruti egoteaz idatz izkerari berari datozkio kalterik aundienak.

IV. Ala ere, ao izkeraren eta idatz izkeraren artean ezberdintasunen bat egotea beti gertatu oi dan gauza da. Ezberdintasun au bi eratakoa

(1) *La Vida del Euskera*, p. 9-10.

izan ditek: 1. Idatzi era batera eta irakurri bestera. Ezberdintasun au ortografizkoa da bakarrik, beraz azalekoa, zergatik irakurri eta itzegin berdin egin ezker, idazkeraren okerrak eztu idatz-izkera ao izkeratik irudiz baiño urruntzen. Ezberdintasun au gaztelaniaz gutxiago ta frantses ta inglesezi geiago ikusten degu, baiña azalekoa bakarrik da, esan degun bezela, irakurri ta itzegin izkuntza oietan berdin egin oi da ta. 2. Txarren txarrena da idatzi ta irakurri era batera ta itzegin bestera egin oi danean. Au da benetazko ezberdintasuna, kaltegarritzkoa. Beraz, idatz-izkerak alegin guztia egin bear du ao izkeratik urbil egoten. «Erri-izkeriaren ta idatz-izkeriaren batasuna lortzeko, beronek egin bear dau alegin, erri-izkeria berekoaia, aurreralari itxua da-ta» (1).

V. «Idatz izkeriak, errikoi izanez gaiñera, batetariko izan bear dau. Beti bardin ez, baiña aldi baten, oroentzat bardin bai» (2). Idatz-izkeraren batasun edo berdintasuna: ona emen il edo biziko beste baldin-kizun bat. Badirudi oraingo lege au lengoak ezeztatzera datorrena, baiño ez. Idatz-izkera danontzat izaten da, beraz berdin izate ori eskatzen du. Erri izkera berez zatikatu eta izkelkitan banatu oi da, eta indar banakatzaille orren bestalderakoitzat, aberri-izkeria izan oi da, idatz-izkeriaz zaintzen dan izkelki nagosija (3).

Izkuntza guztiak egiten dute au, eta iritzi bateko dira ortan izkuntzalari danak. Ala ere euskaldunok itxitasun edo alkar-aitu-ezin gogorra erakutsi degu ontan ere. «Batasun onuratsu ori, beste errijetan aintxiñatik lortuta ikusiarren, guk oraindik, onuratasun ori berori ere, geure betiko ezta-baida-gaijen artean dogu» (4).

«Idatz-izkeriak, erri-jarraitzaillea alde batetik, eta bestetik orontzat bardiña izan bear dabela esan dogu. Bearkizun bi orreek, alkarren kontrakoak dira eurengez, itzez itz artu ezker; baiña ikusi daigun zelan aitu bear ditugun» (5). Idatz-izkerak bizitzarik sakon, sendo eta zabalen duten itz eta gramatikakiak aukeratu bear ditu eta nagusitzeko jokera dutenak.

«Gogoan euki daigun egi itzal au: gaur eguneko giza-artu-emonc-tarako, batasunezko eta errijaz adiskide bizi dan idatz-izkerarik euske-raan aurkitzen ezpadogu, gura nai ez, erdereetara joko dogula danok. utsune ori beteteko. Zoritxarrez, egi itzal eta samin orren ondorenak, larregi ere agiri dira, daborduko ere, euskaldunon artean» (6).

(1) «Izkuntz jakintzia», 44 or.

(2) «Izkuntz jakintzia», 44 or.

(3) «Izkuntz jakintzia», 45 or.

(4) «Izkuntz jakintzia», 45 or.

(5) «Izkuntz jakintzia», 46 or.

(6) «Izkuntz jakintzia», 48 or.

«Baztartu bada buru gogortasunok eta autu daigun geure idatz izkera batasunezko ori, orokarrori, geure izkera maiteau laister il-otzik ikusi nai ezpadogu» (1).

Puntu larria ikutu digu emen Altube jaunak. Or gabiltza ainbeste urtetan euskera berdin ortara ezin iritxiz. Euskaltzaleok maiz esan oi degu eskola gabe euskera ezin ditekeala gaurko kenka larritik bizirik atera, eta eztet esaten ori egia eztanik. Baiña eskola bagenu ere, zer moduzko euskera eramango genuke ara: euskera zatikatu ori, onek era batera eta besteak bestera idatzitakoa? Iñungo eskolatan ezta olako izkuntza bat onartzen. Eskolara eramaten diran izkerak, idatz-izkerak dira, berdintasuna lortutakoak. Berdintasun ori lortu bearra degu, ba, nai ta ez, eskolako ateak gure izkuntzari zabaltzea nai badegu.

Gaiñerakoak, Altube-k aipatu dizkigun erakutsi aundi auk denak dira Linguistikatik atereak eta edozein izkerari dagozkionak. Oiñarri-lege batzuk bezela dira. Euskeraren bizitza indartzeko gogoan izan bear ditugun oin-arauak.

Lege aundi auk gogoan arturik, «La Vida del Euskera» izeneko mintzaldian, gain begiratu bat botatzen dio Altube-k azkeneko 40 urte auetan (ala zion berak 1933 gn. urtean) gure idatz-euskerak izan duen jokabideari. Oiñarri-lege auk gorde eztirala nai du frogatu. Guztiok dakizutenez, itzaldi ortan eta bai beste zenbait idazlanetan ere, oso gogor, zorrotz eta erruki gabe salatzen ditu Altube jaunak euskal literaturan nabari diran akats aundi eta makurrak. Erri-izkeratik urrunduta dabillen idatz-euskera bat nai izan degu zabaldu, Euskalerri osoan sendo lur artuta dauden erderatiko itzak nai izan degu orpotik atera, galerazi, eta beren lekuan asmatutako itz berri batzuk sartu, itz jokatzeara eta aditz jokatzeara bera ere nai izan degu aldatu... Jokabide onekin zer irabazi degu? Idatz-euskera ulerkaitez eta iguingarri biurtu, erriari bere izkuntza txarra dalako konplejua buruan sartu eta erderara iges egiteko gogoia eman, an ezpaitago orrelako katramillarik...

Euskaltzaindiak onarturik zeukan ortografia edo idazkera bera ere errezagotu egin bear litzakeala uste zuan Altube jaunak. Eta arrazoiak: erriari oso zail eta aldapa piko egiten zitzaiolako euskal irakurgaiak idazkera orretan irakurtzea (2).

(1) «Izkuntz jakintzia», 48 or.

(2) *La Vida del Euskera*, p. 25.

III

ALTUBE JAUNAREN IRITZIAK

Euskal iztegiari buruz

Irugarren atal ontan iztegiari buruzko iritziak azaldu nai ditut. Eta ortarako, gorago aipatu dedan lan ura artuko det oiñarritzat; oni jarraituko natzaio orpoz orpo. Egia esan, Altube-k toki askotan ikutzen du puntu au eta beti adirazten ditu iritzi berberak, sendo eta sakon bere gogamenean sustraituak zeuzkanak. Egiaren jabe dan adimenduaren tinkotasuna adirazten du betiere kontu ontan.

Baiña beste lanen artean, ba-du bat goitik beera gai oni eskeiñia: «Euskel Itz Barrijak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen». Eusko-Ikaskuntzak Gernikan 1922-gn. urtean egindako Bazarrean irakurritako lana. Eta auxe artuko det nik emen iturri bezela.

Asiera-asieratik esaten digu Altube jaunak egi garratz bat: euskaldunok euskerarekiko lanetan beti geure buruz ari gerala, «izkuntz-jakintzarik ezpaltiz bezela». Ortik dator gero amaika alperriko edo kaltegarriko lanetan buruak nekatzea: adibidez, euskera goitik beera aldatu nai izatea, ta abar. Uste degu izkera guk nai degunera biurtu diteken gauza dala, baiña ori da larregi uste izatea. Izkuntzak dira diran bezelakoak, eta alaxe, diran bezela, ezagutu, artu eta maitatu bear ditugu.

Eta euskerari laguntasuna eman nai badiogu, ara zer egin bear degun gauza guztien gaiñetik: erabilli, etengabe aomiitan artu. «Atara aixetara geure izkera maitiau, erabilli beti ta beti, edonun ta edonorekin: emon orretaraxe bizija ta indarra» (1). «Beste asmokeri ta barrikerizko bideok, alperriko ta kaltegarri baiño eztira» (2).

Berrikeri oiei eskubide-antza emateko, ara zer aitzaki edo edergailu atera oi dan maiz: berrikeri ura eztala gerok asmatutakoa, ain tokitan edo ain denporatan erabilli zala edo erabiltzen dala edo erabilli zalako susmoa ba-dala, eta beraz ontzat artu bear dala.

Baiña ori ala balitz ere, emen makur aundi bat egin oi da: itzen zabalgoari ez begiratzea. Zer da *zabalgoa*? «Area de extensión de una palabra». Ba-dira itz batzuk Euskalerrri osoan edo zati zabal samarrean erabiltzen diranak, maiz eta arrunt entzuten diranak, sendo sustraituak, osasun mardulez bizi diranak. Auek dira zabalgo aundiko itzak. Beste

(1) «Euskel Itz Barrijak», 79 orriald.

(2) «Euskel Itz Barrijak», 79 orriald.

batzuk, berriz, alako toki edo txoko batean iñoiz jasotakoak. Zabalgorik txikiena dutenak naiz aundiena dutenak neurri batean ipintzea, garrantsi berdiñekotzat artzea, ori da nasteetarako laguntasun ederra. Oker bide orrekin geure izkera oni zenbatetara iñoko kalteak erakartzen dizkiongun, gaitz da neurtzen. Zeruetako edo aingeruen euskeraz amesetan ibiltzen ikasi eta lurreko au ezagutu ta ikasteko zaletasunik ez gogorik ez izatea: iñork (edo gutxiak baiño ez) ulertu eziñezko euskeraz liburu eta idatz lanak egin eta onetara irakurlerik asko uxatu ta zalegetzea. «Benetan, euskeriak burua jasoteko dituan eragozpenai lagun egiteko, ezin zitzitekan gaur bide obarik autu» (1).

«Izkera gauzetan zabalgo orreri bear dan lotsia ta garrantzija emoten ikasi ezpadaigu, eztogu sekula lan ganorazkorik egingo; eztogu euskeriau indartu ta goratzeko arloan aurrerapiderik lortuko» (2).

Izkera nai bezela aldatzeko gauza dala uste izanik, geure euskera oni erdera usaiñik duten itz eta izkeraki guztiak kentzeko asmo —ustez— eder eta aberkoiaz ames egin degu (3). Erderatiko itzei neurritz kanpoko iguiña artu diegu.

Erderatiko itzen etsaiak bi talde edo moltsotan banatzen ditu Altube-k: 1. Sustraitijak (radicales, extremistas): erderatiko itzik bat ere ontzat eman nai ez dutenak; 2. Biguntxoagotijak (Moderados): Erderatiko itzak artu genitzakela diote auek, baiña euskera bizian ikurpen berdiñekorik ezagutzen ezthanean bakarrik.

Lenengoak zein oker dabilizan frogatzeko, munduko izkuntza danei begiratu besterik eztago: izkuntza danak artu dituzte itzak kanpotik. Izkuntzalari guztiak ao batez esaten digute erderatiko itzok gorabera, iztegien arrotzazuna gorabera, izkerak eztutela galtzen beren nortasunik.

Baiña auek alde batera utzirik, Altube-ren itzaldi osoa, edo geiena beintzat, zuzen zuzenean dioja bigarren taldeko etsaiei erantzutera. Etsai biguntxoago auei, bada, esaten die Altube-k: zabalgo andiko itzik ezluketela baztartu bear. Eta arrazoa: izkuntzetan oso gutxitan aurkitzen dira ikurpen bateko, esangura berdin-berdiñeko itz bi. Erriak laister ezberdindu ta erabikotu oi ditu orretariko itzen ikurpenok. Adibidez, benetako euskaldunak arin asmatzen du *pixutsu* eta *astun* eztirala berdiñak. «Gorputz astuna» esaten degu gorputz-aldi txarra daukagula adierazteko; «gorputz pixutsua», berriz, esango degu benetako pixu andia duala adierazteko. «Pekatu astuna» erderazko «pecado grave» esateko ondo dago, baiña iñork ez luke esango «pekatu pixutsua». *Astun* itza

(1) «Euskel Itz Barrijak», 80 or.

(2) «Euskel Itz Barrijak», 80 or.

(3) «Euskel Itz Barrijak», 80 or.

arimako gauzetarako ere erabilli diteke; *pixutsu*, ez. Eta itz bi oekin gertatzen dana, beste askorekin ere berdin jazotzen da. Iztegiaren zeaztasun eta aberastasun bide ugari ugaria da erderatiko itzok orrela ekarri oi duten ikurpen banantze edo erabikotze ori.

Gaiñera erderatiko itzen kontrako burrukan irabazi al izateko, gaiztasun berezi bereziak agertzen dira sarri. Ona emen gertakun batzuk.

I gertakuna. Erderatiko itzok maiz zabalgo andikoak izan oi dira eta sustraikide askodunak. Itz batek bere sustraiak, bere erpeak zenbat eta sakonago ta gogorrago errian sartuta dituan, ainbat gaitzago izango da orpotik atera ta bazterreratzen. Bere kontrako alegiñak alper alperrikoak eta kaltegarriak izango dira. Lan orrekin idazleak zer irabazten dute? Irakurgaiak illundu ta zaingabetu, besterik ez. Adibidez, *santutasun*, *santutu*, *santulario*, *Aita Santu*, *santutxo*, ta abar. Eta berdin gertatzen da beste ainbat erderatiko itzez ere.

II gertakuna. Erderatiko itzaren ordezkotzat ipiñi nai deguna askotan esanguraz antzekoa baiño ezta izaten. Orretara baztatu nai izan dira *pekatu*, *arima*, *Santu*, *fede*, *eletrika*, *dotriña* ta beste asko, zabalgo andikoak eta bear bearrezkoak zaizkigunak. Eta oien ordezt erabilli ta sartu nai dira *Oben*, *Gogo*, *Guren*, *Siñiste*, *Tximista*, *Ikasbide* ta abar. Baiña erriarentzat *oben* eta *pekatu*, *arima* eta *gogo* eztira gauza berdiñak. Erderak ba-ditu *alma*, *espíritu*, *mente*, *ánimo* ta abar eta eztauka oietatik bat ere saltzeko. Eta gu, aberats panparroi bagiña bezela, asiko gera ba dauzkagun ondasun apurrak etxetik kanpora botatzen? Txirotasun eta atzerapide andia litzake orretariko itz bikook, bat baztartuz, batetaratzea. Adibidez, J. J. Mogelen esakun bat aipatzen du Altubek: «Arimako premiñaak goguan ondo eukirik...» Arimaren ordezt gogo esan bear bada, nola zuzendu bearko litzake esakun ori? Eta Aita Uriarteren beste bi esakun auk: «Pekatura obendu ta makurtua». «Jesusen obentasun onek...» Pekatu ta oben gauza bat eta berdiña badira, emen Aita Uriartek diona birao edo herejia bat litzake.

Beste ainbeste gertatzen da *siñiste* eta *fede* itzekin ere: eztira gauza bera. *Siñiste* edo *siñismen* erderazko «creencia» bezela da, eta *fede* erderazko «fe» bezela. «Fe» eta «creencia» antzekoak izango dira, baiña eztira gauza berdiñak eta bi bien bearrean gera. Dakizuten bezela, Azkue jaunak bere iztegitik kanpora utzi zuen *fede* itza, orren ordezt garbia badegula ta. Altube-k, jakifiña, ezin eman zezakean ontzat jokabide ori.

III gertakuna. Beste zerbait ere ba-dago. Ordezkotzat jarri nai ditugun itz garbiak sarri askotan gorputz txikikoak izan oi dirala, txatxa-

rrak, xumeak; erderatikoak, berriz, aundi xamar eta soiñutsuak. Esate baterako, *kanpo* -ren ordeztat erabili nai degu. Baiña seguru asko *kanpo* aterako da garaile; besteak beste, gorputz geiago daukalako. Eta arrazoit orregatik berregatik ezta Altube-k uste zin eta *ler* euskal itzak *juramentu* eta *piñu* erderatiko itzei lekua kenduko dietenik.

IV gertakuna. Erderatiko itzak euskeratik botatzearekin utsuneak gelditzen dira. Eta utsune oiek betetzeko, euskalari batzuk zera asmatu dute: sarritan euskal-itzak bi variante edo geiago izan oi dute, eta orduan utsunea nai dute estaldu forma bakoitzari bere esanai berezia ezarriaz. Adibidez, *ontzi* «vaso» izango litzake, *untzi* «barco», *esker* «izquierda», *Eskar* «gracia», ta abar. Baiña ori da aldakuntza txikiegiei ikurpen berezia eman nai izatea. Erriak ezta ori ontzat emango, eztuelako alde aundirik nabaritzen batetik bestera.

Ba-da alkar-erakartze lege bat itzen artean. *Utzi* ta *itxi*-ren artean antz geiegi zegoelako eta nastea sortu zitekealako, erriak berak toki batzuetan *laga* artu zuen, *utzi* baztatuaz. *Irakatsi* «enseñar» eta *erakutsi* «mostrar» erriak naastu egiten ditu; berdin *jesarri* «sentarse» eta *jarri* «ponerse». Itz bi soiñuz antzeko diranean, batak bestea erakarri ta biak berdin geratzeko arriskuan izaten dira.

Eta ikusiak ikusi ezkerok, auxe da Altube jaunak ateratzen duen ondorea: utzi ditzagula pakean erderatiko itzak, zabalgo aundikoak diranean beintzat. Jaun beraren itzekin bukatu nai det itzaldi orren lenengo atala: «Arindu daiguzan bada kanpotiko itzoen kontrako bekoki illunegijok: itxi daijogun, alegiñez, geure errijaren iztegi zabalgo andikoari bakean» (1).

Eta onekin eltzen dio bere itzaldiaren bigarren zatiri.

Erderatiko itz zabalgo aundikoak ontzat eman da gero ere, ba-ditu gure iztegiak bere utsuneak. Utsune oiek nola ornidu ta bete? Auxe da bigarren atalaren gaia.

Lendabizi, or degu gauza arrunt eta errikoien landa. Gauza oieta-rako erri euskerak uste dan baiño iztegi aberats, zeatz eta zabalgo aundiagokoa du. «Auxe, bene-benetan sinistuta diñogu, euskaldun lauai, erritarrai, sarri euren izketia entzuten pozik egon da gero» (2). Askotan geugan dago utsunea. Idazleok eztatigula euskera erriak bezin arin, txairo ta errez erabiltzen. «Gai arin eta errikoit orreetarako ezta bada euskal iztegiak utsunerik; utsuneok, geure ez-jakiñak erasortzen ditu. Errijarentzako idazten ditugun liburu, izparringi ta beste irakurgaietan,

(1) «Euskel Itz Barrijak», 85 or.

(2) «Euskel Itz Barrijak», 85 or.

naiz berari zuzenduta jaurtitteko itzaldi ta sermoietan, ez geunke bada iñoiz maixu-sundezko euskerarik erabilli bear: berari ikasitako ta berak aurrez darabilzan itz ugari, bizi, esanguratsu ta argijetatik iñora urten barik aurkitu geinkezan utsez ornidutakoa baiño» (1).

Baiña gai oietarako ezpada ere, agertzen zaizkio gure iztegiari, zoritarrez, utsunerik asko, gai astun eta gaitzago diran beste batzuk azaldu bearrean aurkitzen danean.

Utsune auek zeintzuk ditugun obekiago edo zeatzago eragertzeko, izkuntzalariek irakasten diguten izkera-atalkatzeak egingo digu lagun.

Izkera bat mintzatzen duten gizonak, beren bizimodu, langintza, opizio, zeregin, zaletasun ta abar bidetzat artuta, pillo edo talde askotan berezi ditezke. Eta pillo bakoitzean bildu ditzakegun gizonak, beren alkar arteko izkera beraria izan oi dute, batez ere iztegiari dagokionez. Elizgizonak erlijioiko autuetan, juezak auzi ta epai arazoetan, filosofilari jakitunak bere jakintzako gauza gurenetan, amak bere aurrari zuzendu oi dizkion itz samur eta biotzetikoetan, ijituak beren satorkerietan, baserritarrak bere baso, soro, landa, ta etxeko gauza ta arazo guztien izenak zeatz eta garbi izendatzeko dituanetan. Itz batez, langintza, jolasgintza, jakintza ta gizonaren beste ekinbide orok dute beren iztegi berarizkoa, ekinbide bakoitz orretan sartu ta oitutakoak baiño ondo ezagutzen ez-tutena.

Iztegi auen zabalgoa gorako erakutsi degunez beste era batera neur-tu bear da. Emen, izkera berarizkoetan, alegia, gauza bera izaten da la-gun-talde bakoitzak baiño zeatz ezagutzen eztuana; ta gauzaren izena ere, lagun-talde orrezaz kanpora, gutxi entzuna izatea, ezta arritzekoa. Gauza ezaguna dan neurrian aren izena ezaguna danean, izen ori zabalgo osokoa dala esan genezake.

Lenengo klasetako izkera berarizkoak. Euskalerrian aspalditik ber-tokotuta ditugun erlijio, langintza, jolasgintza, dendaritza, etxe-arazo-gintza ta abarrerri dagozkionak. Emen euskerak, andik edo emendik erasortuta-ko itz ugari, zeatz eta zabalgo andikoak ditu, erriagan ondo sustraituak. Eztegu ba idazleok eskubiderik iztegi berarizko oiek aldatzeko. Arazo auetan ikasle izan bear degu eta ez maixu. Ikasi euskaldun lauak beren izkera berarizkoetan darabilten benetako zabalgodun iztegia eta idatzi ortiko itzok ardura barik. «Eztago munduon orretara idatzi daikegun euskaria txartzat emon legijan izkuntzalaririk: benetako euskaria dala autortu ta egokijeneztat etsiko eztabenik» (2).

(1) «Euskel Itz Barrijak», 85 or.

(2) «Euskel Itz Barrijak», 87 or.

Eta gero beatzaz ukitzen du Altube-k gure artean nabari dan zulo lotsagarri bat. «Onetarako —dio— bear bearra dogu erri-itz-iztegi bera-
rizko bat eraltzea; iztegi berarizko au Euskalerri osuon zabalgorik gei-
jen daben itzak (erderatiko naiz euskeratiko) zeintzuk diran jakiteko
asmoz egin bear da; ez itz garbijak bakarrik (edo erdi-bakarrik) pillo-
katzeko asmoz, orain arte egin izan dan bezela» (1).

Orain arte egin izan dan bezela... Ziri au argi baiño argiago dago.
Azkue-ren iztegian utsune edo akats ori nabaritzen zuan Altube-k. Er-
deratiko itz asko gelditu dira iztegi orretatik kanpora edo lotsagarrizko
señale batekin daude an markatuak, naiz ta zabalgo aundikoak izan.

Bigarren Klasetako izkera berarizkoak. Atzeritik orain agertzen
zaizkigun makiña, erremintta, jostaillu, soñeko ta komertziotako naiz
artaz kanpoko beste tresna ta arazo guztiei dagozkionak.

Gauza auek mundu guztiko izkeretan egon oi dira erderatiko ize-
nez jositakoak, eta eztago orren kontra iñundik iñora ere ezer egiterik.
Atzeritar gauza oiek erritik errira igaro oi dira eta bakoitza bere jatorri
erritik dakarren izenaz izendatu oi da. Azkenengo bitarteko edo denda-
riak izen orretxekin artu eta orrelaxe ezagutu arazi ta saldu ere egiten
dituzte gauzok. Gauza ezagutzen dijoan neurrian berean. jatorritiko
arrotz izena ere zabaltzen eta sustraitzen doa erririk erri; ta itzok bein
sustraitu ezker, joan zan garbiak jartzeko era ta ordua. Bearbada iz-
kelzain eta idazle garbizaleak dira, sarri, orrelako gauza berri ta beren
arrotz izenak ezagutzera beranduen eltzen diranak. Ameskeri parregarria
litzake, berriz, atzerri-itzok sustraitu eztitezen, arako muga-ate edo adua-
na antzeko gauza bat imini nai izatea. Aizeari ateak imintzea bezelatsu.

Emen egin diteken gauza bakarra au da: arrotz-itzok euskaldun
jatorren belarri ta agoetarako egokitu ta samurtu, erriak berak zaindu
oi dituan fonetika-lege ta jokera jarraituz.

Arrotz-itzok euskeratzeko gaur bizia duten legerik ezagunen eta erri-
koienak, ona emen zeintzuk diran:

1. Espaiñeraz *r* letraz asten diran itzei euskerak *e*- letra jartzen die
aurretik. *Errenta*, *erramu*, *Erroma*.

2. Espaiñeraz *d* ala *r* letraz bukatzen diran izenei, euskerak *-e* ezar-
tzen die atzetik. *Mezede*, *abade*, *kolore*, *umore*.

3. Espaiñeraz *l*, *r* ala *n* letraren urrengo *s* ala *z* datorrenean, euske-
rak azkenengo biok *ts* ta *tz* biurtzen ditu. *Poltsa*, *altzau*, *bertso*, *pentsatu*,
dantza.

(1) «Euskel Itz Barrijak», 87 or.

4. Espaiñeraz *-on* bukaera duten itzak, euskeraratzean bukaera ori *-oi* egiten dute. *Jaboi, kordoi, algadoi, orfeoi, Mondragoi*. Gernikako emakume jostunak erabiltzen duten itz polit bat ere aipatzen du emen Altube-k: *aldegoi*; eta erderaz aritzen diranean, «aldegón»: «Ese vestido tiene un gran aldegón».

Baiña erderazko *-on* orrek aurretik *ni, ci, gi* ala *si* balerama, orduan azkeneko *on* orren lekuan euskerak *-o* utsik ipiñi oi du (bizkaieraz *-ño*). *Komunio, orazio, okasio, erlijio*.

5. Espaiñeraz *o* letraz amaitzen diran itzei euskerak azken letra ori *u* -tan biurtzen die. *Gobernu, bixigu, pixu*.

6. Espaiñeraz *i* letraren urrengo *l* ala *n* datorrenean, euskerak *ll* ta *ñ* -tan biurtzen ditu azkenengo biok. *Illara, eskilloi, makiña, piñu*.

7. Espaiñeraz *-ar* bukaera duten aditzak, euskerak *-atu* -kin azkentzen ditu (bizkaieraz *-au*.) *Kontatu, ernegatu, errezatu*. Espaiñeraz *-er* ala *-ir* bukaera dutenak, euskeraz *-itu* (bizkaieraz *-idu*) egiten dute. *Mo-bitu, konbentzitu, prijitu, sentitu*.

Lege auezaz gaiñera ba-dira beste aldakuntza asko, erriak arrotz-itzak euskerazko biurtukeran egiten dituenak, baiña lege-pean ezartzen eztira errezak. Idazleak aldakuntza auei kasu egin bear die, itzei euskal kolore berezia emateko.

Irugarren klasetako izkera berarizkoak. Erritar arazoez goitikoak; goi-jakintzai dagozkionak.

Ederki dio Altube jaunak barruti ontan nabari zaizkiola euskerari utsunerik aundienak.

Jakintza-iztegiak zabalgo gutxikoak dira edonun. Gizon jakitunak baiña eztituzte itz oek zeatz ezagutzen, eta jakitunak gutxi izan oi dira erri bakoitzean. Baiña mundu guztiko jakintsuak artu emanetan dira elkarrekin eta oroen arteko alkartasunari eskerrak jakintza etengabe dijoa aurrerantz. Batasun edo alkartasun orren bearrez, grezitarra eta gero latīña izan dira gizaldi luzeetan zear, jakintsuen izkera bakarrak. Baiña jakintzetarako latīña bakarrik erabiltze ori bertanbera utzi zanetik, gauzak beste modu batera atontzen dira. Orain jakintzetarako latin eta griegotiko sustraiekin iztegia eratzen da eta berau Europako alderdi onetako izkera orok artu dute, eta orrela erri askotako jakitunen alkar aitzea ederki erreztutzen dalarik.

Or degu ingelesa. Ezta latīñetiko izkera, ba-du gaiñera itz-alkartze bidez itz berriak eratzeke erreztasuna, baiña ala ta guztiz ere iguin gabe onartzen ditu latin eta griegotiko itzok, euskaldunoi ikaspide ederra ematen digula.

«Europa alderdi onetan euskaldunok geu bakarrik batasun orretatik kanpora gelditzea, ez tirudi zentzunezko ta onuratsu litzakigunik. Bestetara egin bear geunkeala deritxogu: geuretzakotu guk ere, jakintza-iztegijori, itzai euskera-antza emoteko gorago aittatu dittugun aldakuntza-legeak bear danean ezarririk» (1).

Gero alemanaren jokabidea ere aipatzen du. Alemana bere bidetik joan oi da sarritan, jakintza-itzak bere sustraetatik atereaz (ez beti, ordea, berak ere latin eta griegotiko itzak erabiltzen ditu-ta). Baiña gogoan euki bear da alemanak erri aundi bat osatzen dutela (75 milloez gora dira), Europaren erdi-erdian jarriak daudela eta eslabitar errien ondoan. Euskaldunentzat, berriz, askozaz egokiago da bakar-bide ori utzi eta ingelesaren erari lotzea. Arrazoiak: euskaldunok oso gutxi geralako; jakintzak asmatzen dituen gauza guztiei izen berriak jartzea eta izen oiei izerdia ematea oso zail izango zaigulako; alderdi guztietatik bestetara jokatzen duten erriez inguraturik bizi geralako, eta azkenik, bakar bide orrekin jakintza lana asko zailtzen dalako.

Ingelesa jartzen digu ba Altube-k guretzat eredu bezela. Ark onartzen dituen latin eta griegotiko itzak guk ere kezka gabe onartu bear genituzkeala uste du.

Aitortzen du Altube jaunak orain arte ezteguna ori egin. Alemana bera baiña ere urrunago joan gera bakar bide ortan. Eta au erakusteko, olako kultur-itzen zerrenda bat eskeintzen digu. Gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez ta alemanez berdintsu esaten dira; gure euskera gaixo au bakarrik erabilli nai degu bakar bidetik, alkartasun onetatik igeska. Ikus *Barómetro, Academia, Anarquismo...* (2).

Alemantarroi izkuntzalari askok bota oi diete arpegitara beren izkerazko bakar bide zaletasuna, larregikoa dala ta. Bada, guri, euskaldunoi, eztakit zer esan lezaiguketen!...

Eztezagun iztegi eraltze lana jolaspidetzat artu! Bakar bide ori artzea iñoizko kaltegiñena oraintxe litzaiguke. Munduon gauzak daramaten bide erari begiratu ezkeror, bear bearreko izango da (A. Meillet jakintunak iragartzen duan bezela) mundu-erri-arteko izkera orokar laguntzaile bat: jakintzetarako batez ere. Izkera orokar orren iztegia, berriz, latin eta griegotiko sustraiez eraldua izango da (3).

Arazo larri onetan maitekeriak alde bat utzi bear dira.

Jakintza-iztegien artean ba-dira oraindik iztegi bereziagoak. Kimika, Botanika, Zoologia...: jakintza oietako bakoitzak ba-du berea. Egunero

(1) «Euskal Itz Barriak», 89 or.

(2) «Euskal Itz Barriak», 90 or.

(3) «Euskal Itz Barriak», 91 or.

estalgetzen dituzte jakintsuak izen berria bear duten gauzak, eta gauza oei estalgetzailleak ezarri oi dizkieten izenak ontzat artu oi dira munduko jakintsuen artean. Baiña oso osorik, ezertxo ere aldatu gabe. Guk ere, jakiña, iguin gabe egin dezakegu ori; eta gauza orrek euskeraz izen errikoia duanean, eta egoki danean, bestearen alboan ipiñi izen ori. Gaiñera izen jakitunok eztira gutxitan baiño erriratzzen.

Laugarren klasetako izkera berarizkoa. Literatura-izkera.

Literatura izkera, bene benetako berarizkoa da. Literatulariak joke-ra berezia agertzen dute izkera osoa aberastasun eta edertasun bidetik al dan geiena beti aurrera eramateko. Izkera zeatztu, zuzendu, aberastu eta argitu: lan ontan diardu literatulariak. Baiña lan ori erri-izkeratik larregi irten gabe egin bear du; bestela, erri-izkeratik geiegi aldendutzen bada, eztu onen gaiñean bat ere eragite indarrik izango. Literaturak izkerarentzat imanak galtzaiduarentzat bezela du erakartze ta beraganatze indarra, baiña ortarako bata besteagandik gertu xamar egon bear dute.

Iztegia aberastutze lanean asko egin dezake literatulariak; baiña ortarako, erriak ia elduan dituan frutuak eratxi ta agertu baiño besterik eztu egin bear. Orrela lortutako itzok denporaz errikoi egin oi dira, eta ala, erria, literatularia ta denpora lagun dirala (eta ez bestela) aberastu oi dira iztegiak.

Orregatik euskaldun literatulariak erri-izkera lenengo, dan bezela, baiña sakon, zabal eta zeatz ezagutu bear du. «Euskaldunok —dio Altube-k— eztogu, ikaspidetzat, beste erri askok dabeen bezela, aintxiñatiko literatura benetakorik; eztogu aukeran, erri izkeria baiño, ta beronen iztegi ja artu bear oin bakartzat» (1).

«Erri euskeriaren iztegi garbi naiz erderatikoa euron zabalgoaren aunditasun edo txikitasuna, guztija asmau edo sentidu bear dau argi literatulariak bere belarri, gogo, adiñ ta bijotzian; bestela bere idatz lanok eztagikee errijaren gain ezetariko erakarte indarrik, eragite indarrik» (2).

Literatura bidez sortutako itz berriak lurra ar dezaten kondizio batzuk ere bear izaten dira: 1. Itz berriaren bear izana benetazkoa izan dedilla; itz berri ori eztedilla izan lendik ondo sustraituta bizi danaren ikurpen berdiñekoa; 2. Itz berria eratzeko aukeratu diran gaiak zabalgo aundikoak izan ditezela; 3. Gai oiek argi agiri ditezela eratu degun itz berriagan. Gero, errikoi biurtzen danean, erriak berak aldatu ta laburtuko du bearbada, baiño jaio berri degunean, sustraitu arte, garbi agiri bear ditu bere atalkiñak.

(1) «Euskel Itz Barrijak», 91 or.

(2) «Euskel Itz Barrijak», 91 or.

Eta erderatiko itzak ordeztutzen ibilli bearrean, billatu ditzagun esan-gai berriak, irudigai berriak, gogogai, asmogai ta argigai berriak (sarri beste izkeretan ez tiran bezelako itz bereziak). Zabalgorik gabeko itz garbiz iztegia betetzez utsez, ezta lortzen izkeraren aberastasuna.

Bukatzeko. Gure eginbearrak dira: bata, euskerak orain duan aberastasunari eutsi; bestea, gaur eguneko bizitza berriaren onen aurrerakuntzetarako gaitasuna lortu arte, euskal iztegi ori aberastu ta zeaztu. Egiñean bi eginbide aukeratu batetara datoz.

Bere itzaldi luzean zear, euskerak gaitasun ori nola lortu dezakean erakutsi nai izan digu Altube jaunak. Eta berak dionez, beste izkerak zer egin duten eta zerik mesede egin dien otz otzez azterkatzeak «eroan gaitu eretxi ori bidezkoztat artzera». Euskeraren garaipena —dio— ezta gauza gaitza alde onetatik.

Baiña lan oiek guk betetzearekin eztago dana egiña, ori ezta aski, «urrik emon ere» (1). Gure izkerak berantze egin barik gorantz egin dezan, goi-sundez, aundiki-sundez inguratu ta ezkotuta agertu bear du, ta ori euskotar aberats, jakitun eta aundikiak eman lezaioke. Zoritxarrez, euskotar aundikiak orretan erriari ikaspide txarra eman oi diote, eta erri lauak aundikiaren gauzak antzetzu nairik, berak ere zokondoratu egiten du euskera. Au da gure gaitzik txarrena. Gaitz onen kontra ezin gauza aundirik lortu, ez gure idazlariaren alegiñak, ez izkera zaiñen ekiñak. Erriaren jokera edo jauskera nagusi, orokar eta zabalen kontra, la-gun gutxi batzuen lanak ez tute erasote indarrik... (2).

Puntuon irakurri ditugun orri aukeratuak itzez itz aldatuak daude Altube jaunak. Gernika-ko batzarrean egindako itzaldetik. Eztira, ba, erakutsiok oraingoak. Orain dala berrogei urte an Gernika-n emanak bai-zik. Baiña beren gaurkotasun oso-oso gordetzen dute. Nik esango nuke ordukoak baiño gaurkoak diruditela geiago. Buru otz eta argiz, jakintzak eman oi duen zentzu eta neurriaz, zeñen tajuz eta egoki ikusi duen euskerari dagokion jokabide zuzena! Euskeran sustraiturik eta osasun sendoz bizi diran itz guztiak, pakean utzi, erderatikoak izan ez izan. Au baita izkuntza danetan gordetzen dan lege edo neurria. Beraz guztiz da zillegi itzok gure idazkietan erabiltzea, geure-geureak ditugulako. etxeko bihurtuak.

Badakizute nola Euskaltzaindiak 1959-gn. urtean agiri bat eman zuen euskal itzei buruz (3). Agiri orren zabaldu berrian izan nintzan ni Gernika-n Altube jaunarekin, eta auxer esan zidan: Ni erabat nago agiri

(1) «Euskal Itz Barriak», 92 or.

(2) «Euskal Itz Barriak», 93 or.

(3) Ikus *Euskera*, 1959, 214 or.

orrek dionarekin, ori da nik beti irakatsi dedana; eta ez nik, izkuntza maisu guztiak ere orixe irakasten dute... Gorago irakurri degunetik agiri da zeñen argi irakatsi zuen Altube-k ainbat urte lenago, gero Euskaltzaindiak erabaki duena. Euskeran sustraituta ta osasun sendoz ta zabalgo aundiz bizi diran erderatiko itzak, euskal itzak dira, besteak bezelaxe, eta guztiz da zillegi oiek gure iztegian sartzea eta euskeraz erabiltzea.

Orain Kontzilio giroan bizi geran ezkeru, zillegi izan bekik Kontzilio bateko gertakari bat aipatzea. Trento-ko Kontzilioan batzarkideak jarri ziran puntu garratz au erabakitza: egia jainkotiarak ia nundik artu bear zituen Elizak. Eta Trento-ko Batzar orrek erabaki zuen naiz Iskribu Santuetan naiz eskuz esku eldu zaigun Tradizioan dauden egiak *pari pietatis affectu ac reverentia suscipit et veneratur* (D 783). Nachianti jaunak, Chioggia-ko Apezpikuak, etzuen eskandalu makala artu, alajaiña, ori entzutean. Zer? Mailla berdiñean jarri Iskribu Santuak eta Tradizioa? Bai, jaunak, bai. Eta itz kontu ontan ere Euskaltzaindiak balio berdiña ematen die euskal itz garbiei eta erderatikoei, baldin sendo sustraituta eta zabalgo aundiz gure izkuntzan bizi badira. *Pari pietatis affectu ac reverentia suscipit et veneratur*. Eta Nachianti jaunaren bezelako eskandalu eta soñeko urratzeak bukatu bitez, garaia ere ba-da onezkeru ta.

Baiña erakutsi ain argiok, gramatika eta izkuntz jakintzarekin ain sendoturik datoztenok, etziran orduan geienen gogoko. Eta Euskaltzaindian bertan ere denak etziran iritzi ortakoak. Azkue bera ere ez, ez Olabide eta ez Eleizalde ere. Eta atzerapen orrekin etorri dira gure iztegi-lanok. Zenbat alper lan ezta egin erderatiko itz zabalgo aundikoak, erderatikoak dirala ta beste gabe, baztertu naiez. eta oien lekuan beste batzuk —garbiak edo garbitzakotzat dauzkagunak, baiña zabalgo txiki-koak eta osasun makalez bizi diranak— sarrarazten! Zenbat naste eta oker aditze, maisu jakintsuaren erakutsiak aintzat artu nai izan eziralako!

Gaiñerakoan, itz berrien guztiz etsaia ere ezta Altube jauna. Benetazko aberastasun bat dakarrenean batez ere, prest dago bera orrelako itz bat onartzera. Adibidez, gatzelaniazko «cielo» esateko or degu *zeru* euskal itza; au ezin ditek e iñola ere baztertu. Baiña gatzelaniak ba-du gaiñera «empíreo» itza, eta guk ere orrelako ikurpen edo matiz bereziakin erabilili dezakegu *donoki* itz berria. *Donoki* ezletorke orduan *zeru* -ren lekua betetzera, beste ikurpen berezi batekin gantzutua legoke. «Pecado» esateko, or degu *pekatu*, baztertu eziñekoa; baiña *oben* ere erabilili ditek. erderazko «delito» edo orren antzeko zerbait adierazteko. «Maestro» esateko, or degu *mais*; baiño *irakasle* ere ondo baiño obeto datorkigu erderazko «catedrático, profesor» ta abar itzultzeko. Eta berdin gertatzen

da *juez* eta *epaikari*-rekin, *eskola* eta *ikastola*-rekin, *konfesatu* eta *aitortu*-rekin, *mundu* eta *ludi*-rekin, *pagatu* eta *ordaindu*-rekin (1).

Or ditugu onako iru itz aukerak: *liburu*, *gutun*, *idazti* edo *izti*. Erderazko «libro» esateko, *liburu* erabilio bear da (au baita edatuena ta ezagunena); baiña *gutun* ere erabili ditekete «boletín» edo orrelako zerbait adierazteko; *idazti* edo *izti*, berriz, «tratado» edo jakitun usaiñeko gauzentzat egoki egokia litzake (2).

Arimetika eta *Matematika* ere artu bearrezkoak dira, noski; baiña *zenbakizti* ere onart ditekete, ez aiek duten ikurpen berberarekin, «contabilidad» edo olako zerbait adierazteko baizik. «Lo ilegítimo en todo género de literatura es (queremos recalcar bien este concepto) la sustitución, o mejor dicho, la eliminación de palabras difundidas y arraigadas, sin más razón que la de su origen» (3). Eta adibidetzat dakar *kolore* itzarekin egin nai izan dena, aren ordeaz *margo* sartu naiez. «Es necesario convenir que no es posible discurrir nada más eficaz para llevar al euskera del pueblo al descrédito y a la ruina» (4).

Daukaguna gorde arduraz eta maitekiro. Ez gera orren aberatsak etxeak ondasunak leiotik kanpora botatzen asteko ta. Eta ondasun oiek gordeaz gaiñera, iztegia aberastu, bear ditugun itzak etxeratuaz. Ortarako ikusi degu zein dan Altube-ren ustez biderik egokiena: jakintza eta kultur-arazoetan ingelesak erakusten digun bideari lotzea, latin eta griegotiko itzak onartuaz, gure inguruko izkuntzak egin oi duten antzera (5).

Itz bi edo iru elkartuz beste berri bat sortzea, edo euskal sustrai batetik atzizki bidez itz berriak eratzea, ori ere ezta berak txartzat ematen, bide ori ezta orobat baztartzan, baiña geienetan ingelesaren jokabidea gomendatzen du euskerarentzat.

(1) *La Vida del Euskera*, p. 40.

(2) «Izkuntz jakintzia»; *Euskera* I, 2 zenb., 53 or.

(3) *La Vida del Euskera*, p. 41.

(4) *La Vida del Euskera*, p. 39.

(5) Eta ez gure ingurukoak bakarrik. Orain dala bizpau urte *La Gaceta del Norte* egunkarian irakurri nuan nola arabitar izkuntza lan ori berori egiten dabilien. «Arabización gramatical. El Cairo. Los expertos de la República Árabe Unida han arabizado en el curso de los doce últimos meses 24.600 términos técnicos franceses, italianos, ingleses o de origen latino y griego a fin de unificar el vocabulario nuevo entre las dos provincias de la R.A.U., según anuncia la prensa egipcia. Este trabajo ha costado 70.000 libras egipcias, o sea, 2,8 libras por palabra y proseguirá durante cuatro años. Son los términos geológicos los que han sido primero objeto de los trabajos, así como términos zoológicos (4.500 palabras), químicos (4.750), físicos (3.800) y botánicos (3.500). Quince nuevos manuales, utilizando exclusivamente los nuevos términos árabes, han sido confeccionados por los cuidados de las cinco Universidades de la República Árabe Unida.»

«Krutwig eta zu esaten ari zeraten gauzetan nik eztet ezer berririk aurkitzen. Euskerak kultur-itzak griego eta latiñetik artu bear lituzkeala, ta abar: aspaldidanik esan nituen nik oiek danak». Au ere bota zidan Altube jaunak iñoiz; eta egia. Nik aitortu bear det orduan eznuela Altube-ren itzaldi au ezagutzen, baiña orain, arretaz aztertu dedanean, leialtasun osoz ematen diot arrazoia. Izan ere Altube jaunak 1922-gn. urtean esan zituen oiek danak, nai litzakean argitasunik eta zeaztasunik aundienaz, bizkaiera jator eta txukun batean. Nori berea.

Jokabide au —kultur itzen billa griego eta latiñetiko itzetara jo-tzea— egiñean ere zabaldu da pixka bat egungo idazleetan. Eta nere ustez ba-da bat ori oso egoki, arau jakin batzuen bidez eta euskal arima batere mindu gabe, egiten dakiana: Jon Mirande, prosaz idazten duanean. *Egan*-en agertu dituen lanei begiratu besterik eztago. Kultur eta jakintza-gaiak darabilzkianean, ba-du prosa bat gai oietan bear dan bezelakoa, otza, zeatza, normalizatua, lapurtar klasikoa oiñarritzat arturik. Au li-tzake trenbide zabaleko euskara, dialektuetako trenbide estuen gaiñetik sortu bear genukeana.

Dana dala eta ikusi danez, gure Altube-k jakin zuen gure izkuntza-ren auzia bear dan oztasunarekin aztertzen.

Bearbada gure literatura zaarrari etzion eman zor zaion aiñako ajola. Aurreko orrietan aipatu det aren esakun bat, nik ziñatuko eznukeana.

Beste sail batzuetan ere lan arrigarria burutu zuen Altube jaunak. Euskal joskeraren eta euskal azentuaren barrutian, alegia. Baiña emen iztegi-az ari gera eta eztet beste lan oitan sartzeko asmorik.

Auxe bakarrik esango det: oso zorrotza zala Altube jauna joskera-kontuan. Iztegian bezin zabala, joskera-arazoetan estua zan eta ertsia.

Bein arpegitara jaurti nion gure Ordenako idazle bikain batek esa-ten duana: Altube jaunak itzen purismua kendu digu, eta gero beste purismu bat berak sartu digu: joskeraren purismua. Eta bata ezpada onartzekoa, bestea zergatik onartu bear degu?... Uste det etziola atsegin geiegi egin ateraldi onek. Baiña joskera-kontuak eztira batzar onetakoak.

Bukatzeko: gidari seguru bat, ao betezko maisu osoa, irizpide zuur zuzenen emale, orra zer degun Altube jauna. Ildo bat urratu eta zabaldu digu. Iztegi saillean iñork ez bezela erakutsi du euskerari dagokion bidea.

Arantzazu, 1963-IX-30

Fr. Luis Villasante, O. F. M.

GURE AMA EUSKERAREN ALDE LAU IRITZI

Don Carlos Santa Maria, jaun agurgarriak, Donosti'ko *Zeruko Argia*'n esan duanez ba'da jaun bat gure Ama Euskerari amabost urteko bizia bakarrik eman diona. Ariñ ibilli bearrean gera ba Ama au maite degun euskaldun guziok berari bizia luzatu nai ba'diogu.

Berrogei urte baño geyago dira Unamuno jaunak esan zigula eleiz-kizun eder batzuek antolatzeko («funerales de 1.^a clase» esan zuela uste det) illobi bikaiñ bat gertatzeko itzal aundiz eta irabazia zuan begira-mentuz lurperatzeko, laister ill bear zuala euskerak eta.

Baña guk, Unamuno'ren esanari jaramonik egiñ gabe, gauzak ba-tekoz-bestera egiten asi gera: Illobia gertatzeari utzi alde batera, eta Ama Euskeraren berjaiotzea antolatzen ari gera, alegiñean. Eta begira, ez de-tala Euskeraren berbizkundea esaten berjayotzea baizik.

Ez dago munduan ondo jayotako pertsonik, norbere Amaren al-tzoan ikasitako mintzoa maite ez duanik. Itz bakoitzak oroitzen baitio beragaitik bizia pozik emango zuan andre ura!!

Don Carlos Santa Maria'ren lan au irakurri nuanean, bereala egiñ nuana izan zan Arrate'ko Amaren Irratian, gauza bera irakurtzea, bear bada ni bezela beste batzuek ere mogituko ziralakoan, eta gero Euske-raren alde nere lau iritzi abek idatzia, emen irakurtzeko.

Lau iritzi dakarzkiz, euskerari ene ustez asko lagunduko diotenak.

Lenengoa: Bizkai eta Gipuzkoa guztiko errietan, urteoro, Euskeraz idazten eta irakurten dakiten umeen artean sariketa bat egitea. Ez det uste Euskal-Erriko Ayuntamentuak, orretarako bear diran iru edo lau milla peseta ukatuko lituzkienik. Gañera, errietako pestetan, sariketa ori, beste gauza bat geyago izango litzake. Eta geroago ta arreta aundia-go jendeak artuko leukena, gaur bertsolariekiñ gertatzen dan bezela.

Ama Euskera ikastoletan sartu eziñ degun bitartean, umeak ikas-toletatik at irakurten eta idazten ikasten ba'dute gure izkuntzak aurrera-kuntza aundia egiñgo du. Erriak, euskeraz itz egiten duan erri guztiak, Euskeraz irakurten eta idazten jakiñ bear du Euskera biziko ba'da.

Bigarrena: Bear-bearreko beste gauza bat degu, umeentzat Euskeraz ipui politt batzuek, irratietatik esateko gertatzea.

Euskaldun ume guziak, gaur *Caperucita Roja* ta *La Cabra y los siete cabritos* eta entzuten egoten diran ume guziak, lilluraturik gindukez Euskeraz esango ba'lizkiez. Ez det esan nai ipui abek berak euskeratuta, *Caperucita Roja* ta abek buruz dakizkite. Beste batzuek esan nai det euskaldun umeentzat egiñak *ad hoc*, eurentzat egiñak.

Irugarrena: Au ere umeentzat.

Beste leku batzuetan bezela gure Euskal-Errian ere, ba'degu oitura berri bat. Umeak lenengo Jaunartzea duten egunean Irratietatik, zorionak emateko abesti bat kantatzea. Mayatzaren lenengo egunetatik, garagarriaren azkenengo egunak bitartean Bilbao, Donosti, Arrate ta Loyola'ko irratiak, milla bider abestu dute *La Primera Comunión por Paco Romero*.

Bergara'n, Amezketa baserriko Juanatxo'ri, bere lenengo Jaunartzean.

Askisu'n Zabalaga baserriko Joxe Mari'ri bere lenengo Jaunartzean.

Elgoibar'ko, Zumaya'ko, Ispaster'ko, Mungia'ko ta Euskal-Erri guztiko umeeri Paco Romero'n abesti ori eskeintzen diote.

Ni negarrari eutsi eziñik egoten naiz, gauza abek irratian entzuten ditudanean. Ba'dirudi euskaldunok ez degula ez erlijiorik ez eleiz abestirik ez umeen psikolojiaren berririk ez zentzunik...

Oar bat. Ez det abesti orren aurka ezer esan nai, ez eta ere emen gauden iñor minberatu nai. Abesti ori Andalusia'ko umeentzat ondo biilatzen det. Baña... Larrabetzu, Oyartzun eta Ondarrukoentzat...

Bear-bearrekoa deritzat bada beste abesti batzuek, egun orretarako *ad hoc* egiñak. Ba'ditugu olerkariak, baita ere musikalaria Jaunari eskerrak ugari Euskal-Errian. Ez al dezute iñoiz entzun zeuen eleiza nagusian Jaunartze aundiak diranean abesti ukigarri au?

«Ostian bizi zera

Gau ta egun nigaitik...?»

Edo beste au:

«Or zaude Jesus aldarean

Gorde nai zaitut biotzean?»

Edo ta:

«Intzik ez dutenean

Loretxoak

Laister gelditzen dira

Igartuak...»

Aiñ samurrak, aiñ geureak eta aiñ egokiak.

Berdiñ diot lenengo seme-alabaxoen bateorako. Egun orretarako ere sartu zaigu bada Paco Romero gure irratietan.

Laugarrena: Beste oitura berri bat ere ba'degu irratietan. Ezkontza egunetan ezkongayari, disko baten bitartez zorionak opatzea. Askok euskerazko diskoak opatzen dizkiote, baña beste askok erderaz. Eta zelako abestiak!!! Arrateko Ama'ren irratian, lengo egun baten, euskeraz esan zuten nori eskeintzen zioten diskoa, nork eskeintzen zuan eta zergaitik. Biaramonean ezkontzen ziralako alegia. Aurretik euskera aĩñ jatoriki zetorren ezkerro, poztu nintzan, eta uste izan nuan euskerazko abesti eder bat entzungo nuala. Ainbeste ta ainbeste abesti eder, maitetasunari dagozkion abesti xamur egokiak ditugu bada euskeraz!!! Baña, bai zera!!

La Virgen no quiso que yo fuera mataó... eta ortik aurrera.

Euskal-Erriko ezkongayak, abesti abekaz euren ezkontzak jaitu nai dituztela ikusirik, esaten det nere baitan: Ez ote dauka arrazoa, Euskerari amabost urteko bizia eman dion jaun orrek?

Nai-ta-naiezkoa degu bada, euskaldun ezkonberrientzat, berarizko abesti eder bat disko batean egitea. Letra atera liteke Lizardi aundiaren olerkietatik edo Lauaxeta'renetatik, edo bizi diran ainbeste olerkari onetatik.

Zer ederra izango litzakean euskaldun bikote denari, euren ezkontza egunean onelako disko eder bat irratietan ipintzea!!! *Marcha nupcial de Mendelsson* beziñ ezaguna izatera eldu arteraño.

Nere lau iritzi abek Euskaltzaindiak ontzat artzen ba'ditu, Euskal-Erriko Udaletxe guztietara (Euskeraz itz egiten dan guztietara beintzat) zuzendu bear luke idatziz, erriko pestetan, lenengo iritzian esan detan bezela, ume euskaldunen artean sariketa oyek egiteko eskatuaz. Errietako Ayuntamentuak, begi onez artuko dute, ondo eta onez-onean egingdako eskabide au, eta gañera Euskaltzaindia eskertu egingo dute eurakiñ oroitu dalako eta aintzat artu ditualako.

Disko berri batzuek egiñ bear dira, gutxienez sei bat umeen ipuienez, bat umeen lenengo jaunartze egunerako, bat lenengo seme-alabaxoen bateorako eta beste bat edo geyago ezkontza egunetarako. Disko oyetarako gayak erraz batu gentzakezala uste det. Ni neuk ipui batzuek egingo nituzke pozik, beste askok ere egin lezazke eta Euskaltzaindiak aukeratu ditzala onenak, ez mintzoari buruz bakarrik, baita musikari buruz ere eta Pedagogiari buruz batez ere.

Eta onela Dn. Carlos Santa Maria jaunak, asieran aipatu detan lan orretan dion bezela: egiñ eta egiñ; ekiñ eta jarrai egiten ba'degu euskera biziko da.

Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene.

AZKUE JAUNAREN IZTEGIA OSATZEKO, NAPARROAKO LEITZE-N BILDUTAKO ITZ-BILDUMA

Jaun andreak:

Zeruko argia-n irakurririk jakin nuen Euskaltzaindiak Arantzazu-n batzar bat eratzen zuela. Izamen ziren izketaldien gaia: «Euskal-iztegia eta gaur eguneko bearrak».

Duela denbora franko ba-nuen eskuartean lan txiki bat: Leitzeko errian egun guziz edozeinek ibiltzen dituen eta Azkue jaunaren iztegian ez dauden itzak biltzea.

Egokiera ederra Arantzazuko batzar au, nere lantxoaren lenbaileen bukatzeko eta Euskal-iztegia osatzeko zerbait balio ba-du, zuen aurrean irakurtzeko.

Baño leenik oar zenbait egin nai nuke. Leitze-ko itz-bilduma ontan orotariko itzak ba-dira: 1) Azkue jaunaren iztegian ez daudenak. 2) Daudenak, baño beste esanera batekin. 3) Esanera ber-beraikin baño al-dakuntza edo variante bezela. 4) Sortzez, euskera garbia direnak. 5) Erderatik artuak izanik ere, euskal usaia darietenak; erriak, noiznai erabilliaz, mami berezi batez jantzi baititu.

Eztut betarik aski izan bildutako langai guziaz bear bezela aztertzeko. Batzarre ontarako tarrapataka bukatu dedana, irakurriko dut.

Eta gure euskal-iztegi berria osatzeko on ba-da, ongi baño obekigo.

ABAR. Pródigo. Malgastador de dinero. *Gizon abarra da ori.*

ABAZABAL. Bostezo.

ABAZABALKA. Bostezando.

ABIDURI. (Azk. ABIADURA.) Velocidad. *Abiduri gaitze deamaki.*

ABODO. Adobe. *Txerri puskek abodoan yarri ditugu.*

ADABAKITU. Remendar. *Atorra adabakitzen ari naiz.*

ADAKITU. Hacer leña matakán de ramas gruesas. *Pago adarrak adakittu ditut.*

ADIKE. (De ADI, «grito».) Aullando, gimiendo. Se aplica al aullido de perro solamente. *Zakurra adike dago.*

ADINDU. Entrar en años. *Adindu ondoan, basoan lan eittea, triste da.*

ADINGABE. Se dice del que no tiene edad suficiente para algo. *Mendi lanerako, oraindik adin gabea da aur ori.*

AIENDU. Brotársele los pámpanos. *Banabarrak aiendu dire. Arbatu bearrak daude.*

AIZE EROA. Viento huracanado.

AIZEAK SALDU. Pasar apuros. *Azkeneko gerraten aizeak saldu nittun.*

AIZEAK SALDUAZI. Hacerle pasar apuros. *Azkeneko gerraten aizeak salduazi zizkidaten.*

AJE. Enfermedad interior. Tisis.

AJETU. Enfermarse interiormente. Ponerse tuberculoso.

AKALDU. Adelgazar excesivamente. *Bei ori dena akaldu de.*

ALATU. Sacar el ganado de la cuadra o establo al monte o pastizal para que paste. (Azk. Pastar.) *Ardi oyek alatu bearko dituzu.*

ALATXARI. Pañuelo negro y grande que las ancianas de nuestros pueblos se visten en la cabeza.

ALBOTO. Sobresalto. *Alboto ederra artu du.*

ALBOTATU. Sobresaltar. Sobresaltarse. *Albotatu ninduten. Albotatu naiz.*

ALDAKETA. Acción de plantar; meter en tierra un vegetal para que arraigue. *Lizar aldaetatik eldu gera.*

ALDARO. Bandazo de quien no puede tenerse en pie.

ALDAROKA. Dando bandazos. *Ostatutik atera ta or yoan da aldaroka.*

ALDATU. Plantar.

ALDE-ALDE. Bastante. *Alde-alde yan degu.*

ALDEAURRERATU. Adelantarse. Cogerle la delantera. *Aldeaurreratu nitzen. Aldeaurreratu nion.*

ALDIN-ALDIN. De vez en cuando. *Aldin-aldin yoaten naiz Donostira.*

ALDIN-ALDIKOA. En cada momento lo del momento. *Aldin aldikoa eiten dut.*

ALMAIZESKU. La mano del almiraz.

ANTSI. Quejido.

ANTSIKA. Quejándose. *Antsike dago.*

ALPERTU. Acción de deshacer terrones del campo con cierto instrumento de labranza.

ALPERRA. Instrumento de labranza para deshacer los terrones del campo.

ALPETA. Respiración rápida y fatigosa.

ANDAITZ. Balancín rústico.

ANDURA. Cierta planta.

ANKA EGIN. Escaparse. *Anka egin dik orrek, motell.*

ANO. Provisiones, víveres para toda la semana que lleva el pastor a la cabaña.

ANKALEPOKA. A horcajadas.

AOLEOR. Especie de capa que se les forma a los niños recién nacidos y que les afecta a los labios, lengua y toda la boca.

ARBATU. Poner palos a las alubias. *Banabarrak arbatu bearrak daude.*

ARDANGAI. Yesca.

ARDOTEGI. Bodega de vino.

ARFAN. Sierra grande para serrar troncos.

ARGIEZKIL. El toque de campanas del alba. *Argiezkille yo do.*

ARGITXINTX. El romper del alba. *Argitxintxen yeiki naiz.*

ARIERA. Manera de estar haciendo una cosa. *Ori elurraren ariera!*
«¡Qué manera de nevar!»

ARKUPE. Cubierto rodeado de arcos.

ARPUXI. (De *ardi-buxi*.) Tijera para la esquila de las ovejas.

ARRETA. Habilidad, maña. *Zurgintzarako arretarik ez du.*

ARTALANGA. Madero de donde se cuelgan las rastras de maíz para que se sequen.

ARTESI. Grietas en la tierra, producidas por sequía persistente.

ARRIKISKILL. Piedra menuda.

ARRIKOSKOZ. Pedrusco.

ARRITXINGAR. Piedra menuda.

ARRIURRINEN. Violentamente. *Arriurrinen bialdu ninduten.*

ARRODI. Escorpión (?). Azk., ARROBI y ARROGI.

ARTRAKA. Contre. de ARRITARTEKA. Fisura entre dos piedras.

ASAIKE. Tosiendo. (De ASAI, «gran tos». (S. c.)

ASKABE. Sofoco.

ASMALAK ESAN. Decir disparates, perrerías. *Asmalak esan dazkio.*

ASPAITU. Cansarse de llorar. *Aur ori dena aspaitua dago.*

ASTONTZI. El paño, la arpillera donde se coloca la ceniza para hacer la colada.

ATARI. Exterior próximo de un lugar. *Etxeatari*, «la calle de junto a casa». *Elizatari*, «calle de junto a la iglesia».

- ATEKOLA. Los maderos horizontales del portillo o cancilla.
- ATZAMAR. Arañazo.
- AUNDITSU. Hinchazón.
- AURKI. Probablemente. *Aurki etorriko da.*
- AUSARO. Ventisca, nieve arrastrada por el viento.
- AXKA. Expresión para azuzar los perros.
- AXKATU. Azuzar los perros.
- AZALAK IZAN. Ser carota, atrevido. Tener cara.
- AZARKIN. Remiendo de las abarcas de cuero.
- AZARKINDU. Remendar las abarcas de cuero.
- AZMAR. Rumia.
- AZMARTU. Rumiar.
- AZPILDU. Tajar las castañas para que cuezan mejor.
- AZKALANGA. Tronco delgado y bastante largo que colocan los pastores a una altura prudencial del suelo para que se rasguen las ovejas.
- AZKANAI. Picor. Rasquera. *Besoan azkanaia daukat.*
- AZKATU. Frotarse el picor, la rasquera. *Besoa azkatu dut.*
- AZPIERRE. Se dice de hierba que está a punto para que sea segada.
- AZTALKA. Esfuerzo grande de los animales de tiro con las patas.
- AZTALUAL. Correa ancha de cuero que haciendo tope en las nalgas de caballerías, impide que se les venga encima del cuello.
- AZTARRIKETU. Escarbar. *Olloak baratza aztarrikatu dute.*
- AZTARRIKA. 1) Acción de escarbar. 2) Escarbando. 3) Actividad extraordinaria, empeño.
- AZTIN. Hace un momento. *Aztin etorri da.*
- ALETU. Granar. *Artoa aletu da*, «ha granado el maíz».
- ALASE. Las piezas laterales de la cama del carro.
- ARTXIRRI. Estiércol menudo de oveja. Contr. de ARDITXIRRI? ARDITXIRRI en Azk.: cagarruta de oveja. B-a-o.
- AINATU. Apartarse. Será var. de AIENATU? desaparecer, ahuyentar.
- BADA TA EZPADA. Quieras o no quieras. *Bada ta ezpada etorri bear dezu.*
- BADESPADA. Por si acaso.
- BALDARKA IBILLI. Andar dificultosamente, torpemente.
- BALDARTU. Entorpecérsele los movimientos del cuerpo.
- BALEKEBALE. Por si acaso.
- BARANDA. Pasamanos. *Eskallea baranda*, «pasamano de la escalera».
- BASASTO. Ampolla en los labios. *Ezpañak basastoz beterik dauzka.*

BASITU. Pasarse por la humedad. *Aurtengo eurite onek artoak eta gariak basitu ditu.*

BEALE. Ganas de evacuar.

BEGIONDOKO. Bofetada.

BELARRA. MAYATZ BELARRA, «hierba de mayo». BIBELARRA, «el segundo corte de hierba». URRIBELARRA, «el hierbín de octubre».

BELARRIZALDEKOA. Bofetada.

BERDOL. La envoltura fina, interior de la castaña.

BEREZKO. Panadizo.

BEREZKUNTZE. Discriminación. Aceptación de personas.

BERRIKETA. Tontería. Cosa de poca monta. *Berriketan ari*, «hacer tonterías». *Berriketak esan*, «decir tonterías».

BERRIRO. Hace poco tiempo. *Berriro gertatu zen*, «sucedió hace poco tiempo».

BERNE. Tobillo. *Bernea autsi omen du.*

BESABIUR. Rama con que se ata la pata de cualquier animal para que no se mueva.

BETE. Fajo. *Betebelarra*, «fajo de hierba».

BIUKAI. Ramas de roble para hacer con ellas ataduras para fajos v. g. de hierba, llamadas BIUR.

BURUZPIDE. Gestión a hacer para conseguir algo. *Iruñen izandu naiz, aita Hospitalen sartzeko buruzpidek egiten.*

BUPIDE. (Vid. *Buruzpide*.)

BURUPE. (Vid. *Buruzpide*.)

BONBOLLO. Hinchazón producida por golpe. *Pareta gaiñetik erori naiz eta burûn bonbollo bat atera zait.*

BURUKATE. Rodete para llevar la herrada.

BURRUNTZALI. Cazo. *Arrazu zopa burruntzalikin.*

BUZI. Tijeras.

BUXI. Tijeras.

BUZTINDU. Mancharse de arcilla.

BAL TSA. *Elur baltsa*, «nieve medio derretida».

DALDALAKO. Temblor en el cuerpo.

DALDALATU. Temblar. *Etxe guzia daldalatu da.*

DARIO. Fuga, pérdida. *Ontzi onek darioa du.*

DINDAI. Calor del sol que luce a intervalos. *Otz egin du gaur, baño dindai goxoak ere egin ditu.*

DRAKA. Pendiente muy fuerte en los caminos.

DESGARAI. Deshora. *Aurrek desgaraïen etxeratzea, ez dago ongi.*

DESGARAIETU. Pasársele la hora. Hacerse tarde.

DIRUGOSEA. Ansia inmoderada de dinero.

DIRUGOSETU. Tener ansia inmoderada de dinero.

DOMINISTIKU. Estornudo.

DRANGO. Onomat., que indica el balanceo del carro y ruido de sus ruedas, producidos al pasar por caminos con baches profundos.

EDADETU. Entrar en años.

EGIETAFEDEA. Especie de juramento empleado por los niños para afirmar o prometer algo.

EGISTE. Pequeña ladera.

EGOKI. Bonito, de buena presencia. *Lan egokia egin*, «hacer un trabajo bonito». 2) adv. Apañadamente; bien. *Lana egoki egiten du*, «hace el trabajo bonitamente, apañadamente».

EGOKIERA. Oportunidad. *Egokierarik ez dut izan.*

EGOKITU. Tener oportunidad. *Iruñera yoateko, automobil bat egokitu zait.*

EGUNTXINTX. El comienzo mismo del alba.

EIRE. Pocilga. (Azk. *Ei.*) *Txerria eirean dago.*

ENASA. Sucio. Se dice del que hace sus necesidades en cualquier sitio, sin miramiento alguno.

ENBOLOKATU. Encubrir.

ENPO. Saciedad. ENPOA EGIN, «saciarse». ENPOA YAN, «comer hasta saciarse». ENPOA EDAN, «beber hasta saciarse».

EOSKOR. Se dice de la persona de temperamento duro y voluble.

EPAI. El corte previo que se hace con el hacha al árbol que va a ser derribado al tronzado con la sierra, para facilitar la dirección de la caída.

EPURDIKO. 1) Golpe en el trasero. 2) Pérdida económica.

EPURPOTO. Orinal.

EPURTATS.

ERABAKIZUN. Determinación.

ERABAKITU. Tomar una determinación. *Zer erabakitu dezu?*

ERAN. A mano.

ERASTALDI. Leña, hierba, helecho que sobre unas ramas se trae arras-trando.

ERATU. Tener ocasión, oportunidad. *Mendira yoatea etzait eratu.*

ERBILDU. Pulverizar con el mazo de madera llamado *erbil* los terro-res del campo.

ERENEGUN ONTZI. Trasanteayer.

- ERETA. Ruido, griterío confuso producido por las voces de personas que hablan al mismo tiempo.
- EROSO. Cerca. *Erria eroso dago*, «el pueblo está cerca». 2) De acceso fácil. *Lan eroso*, «trabajo de acceso fácil».
- ERPA. La extremidad de cualquier prenda de vestir.
- ERRABI. Rabia.
- ERRABIATU. Rabiar.
- ERRALO. Fuego que se hace en las piezas con la hierba y maleza del campo.
- ERREFIGURE. Fiebre.
- ERREIÑU. Sombra de personas y animales (no de plantas) pero de noche a la luz, v. g., de la luna.
- ERREKUS. Res de ganado que no se ha vendido por algún defecto.
- ERRESPOLDO. Banqueta con tres patas.
- ERRETOLIKE. Monólogo de la persona enfadada en voz puesta.
- ERRETXIN. Irascible. *Gizon erretxiña*, «hombre irascible».
- ERRETXINDU. Ponerse de mal genio, irascible.
- ERREZELATU. Sospechar.
- ERREZELO. Sospecha.
- ERRISTA. Riña. Reconvención.
- ERRISTATU. Reñir. Reconvenir.
- ERROMALL. Soga recia.
- ERROMALLETU. Atar con soga recia.
- ESANGILL. Obediente.
- ESKALLEABURU. Descansillo al fin de la escalera.
- ESKALLEATRANPA. Descansillo de la escalera.
- ESTALI. Cubierto, tejado. *Etxe berriari estalia eman diogu*.
- ESTALTZALLE. Encubridor.
- ESTARTA. Camino poco transitado que discurre entre paredes y zarzales.
- ETORRI. Aptitud natural; facilidad innata para algo.
- ETSI. Fin, terminación. ETSIA EMAN, «dar fin». *Arta yorrari etsia eman diogu*.
- EURITU. Llover.
- EUTATU (Contrac. de EUTERATU?) Ventilar, solear. *Ideki ganbarako leioak, euta dain*.
- EZAUNTZA. Conocimiento. Conocidos. *Donostian ezauntza asko ditu*.
- EZEZTATU. Quedarse indeciso, dudando. *Ezeztaturik gelditu nintzan*.
- EZINSOPRITU. Tener envidia.
- EZINSOPRITTUKERI. Envidia.
- EZKAMI. Láminas radiales del sombrero del hongo.

EZKATARI. Hilo que emplean los zapateros para la costura de la suela de zapatos.

GAINIAR. Arbol con las ramas superiores secas.

GAINBERO. Calor pesado y molesto con cielo nublado.

GAIZKIA. Mal. Cosa mala moralmente.

GALDATXIN. Reverberación del sol.

GALLENDU. Envalentonarse.

GANBARAGAIN. La parte superior del desván.

GANDUTU. Nublarse el cielo, el tiempo. *Eguraldia txartuko du; zerue gandutzen asi baitu.*

GAUEZKILL. Toque de campanas del Angelus de la noche.

GAZTAZAPI. Colador de paño para colar la leche y hacer queso.

GOALE. Ganas de vomitar.

GOIZEZKIL. Toque de campana del amanecer.

GURDIZESTO. La caja del carro, hecha de mimbre.

GURDIZUR. La parte de madera de la rueda del carro.

IARRI. Conocer de antemano con bastante probabilidad, no con certeza.
(Azk.: IGARRI, «acertar, adivinar».)

IDURIPEN. Obsesión. Idea fija.

IE. Papilla.

ILLAKI. Tizón. (Azk.: *Illati, Illeti.*)

ILLAUN. Polvillo de ceniza que flota en el aire. Pavesa.

INDARUSTU. Perder fuerzas. *Eri egondu naiz, eta indarustuta gelditu.*

INKARI. Acción que llama la atención por lo extraordinaria.

INTZURE. Lugar pantanoso.

IÑARISATSA. Escobón de brezo.

IPAR. Niebla que en verano proviene del mar. *Iparra kiriketan dago.*

IPAR AIZE. Brisa que en verano trae consigo niebla.

IRABAZKI. Colador.

IRAINDU. Acudir la leche en abundancia. *Txerria iraindu da.*

IRAKINDU. Hervir. *Esneak irakindu du.*

IRAO. Pasar. (Azk.: *Igaro.*) *Tolosarako automobilla irao da.*

IRANGITU. Experimentar cansancio con dolor en los brazos por un trabajo físico agotador. *Gaurko lan zakarrakin, besoak irangitu zaizkit.*

IRAUZI. Trabajo de roturación de monte para convertirlo en terreno cultivable. 2) Varear, v. g., castañas, avellanas.

IRISPOBE. Ambicioso. *Gizon irispobea da ori.*

IRURI. Polvillo que queda en las carboneras después de haber cocido el carbón.

IRRI. Terreno resbaladizo. *Egin duen euriakin, bideetan irri aundia dago.*

IRRITU. Resbalar. *Bordarako bidean, irritu ta erori nintzan.*

ISASMOTZ. Escoba pequeña.

ISTIRETU. Impacientarse.

ISTOR. Helecho.

ISTORLEKU. Helechal.

ISTORMETA. Montón de helecho en forma de cono.

ISURI. Fuga, pérdida. *Ontzi onek ixuria ba-du.*

ITOKORREN. Apuradamente.

ITOALE. Sofoco, ahogo, fatiga.

ITXASKATE. Cadena larga.

ITXIOLA. Helecho cortado en verde, y una vez seco, para comida de yeguas y ovejas en invierno.

ITXITU. 1) Campo cercado, cerrado. 2) Cerco, cerrado del campo.

ITXOIN. Esperar. (*Azk. Itxon. Itxoon. Itxoron.*)

ITXOKA. La segunda pareja de vacas de tiro, cuando la primera es insuficiente.

IXTINGE. Fuerza que hacen las vacas en las cuestas abajo para sujetar la presión del carro cargado.

IZPIDE. Motivo, causa de la discusión.

IZPIDETU. Discutir. *Ama alabak izpidetu omen dira.*

YOANERA. Ida, salida.

YOSTAILLU. Juguete.

YOSTAIRU. Juguetón.

KABI. Mazo de madera.

KABIDOI. Milano.

KABITU. Golpear el lino con el mazo de madera llamado *kabi*.

KAKERI. Excremento licuoso.

KALENTURA. Fiebre.

KALMA. Cielo con niebla. *Eguraldi ona dago? Kalma dago.*

KALMATU. Nublarse. *Au eguraldi txarra! Berriz kalmatu du.*

KAMIO. Carretera.

KANKARRA. Torpe.

KANKARTU. Entorpecérsele los movimientos.

KARGUDUN. Autoridad.

KARRAMISTA. Grito.

KARRAMISTEKA. A gritos.

KARRAPE. Cubiertos del Ayuntamiento de Leiza.

KASKAIL. Pendenciero, lioso.

KASKARABILLO. Cascabel.

KASKARRA. Revoltoso, de mal carácter.

KASKARONDOKO. Coscorrón.

KASKETA. Capricho.

KASKETOSO. Caprichoso.

KATETU. Atar con cadenas. *Gurdia katetu*.

KATSU. Tuerto.

KATSUTU. Perder un ojo. No ver de un ojo.

KIKI (Leng. infan.). Diente.

KIMATU. Deshojar las ramas.

KIMA. La hoja arrancada de la rama, dada al ganado para comida.

KIRRINKILLO. Haro de hierro.

KIRTEN. Mango. *Aitzur-kirten* «mango de azada».

KIZKITU. Encogido. Acurrucado. *Otzak kizkitua zegon*.

KOLASHTU. Ponerse tísico. *Ardiak kolashtu zaizkio*.

KOLATXA. Enfermo tuberculoso. *Ardi kolatxa*.

KOLORTXAR. Descolorido.

KOLORTXARTU. Ponerse descolorido.

KONDOTX. Corazón de la fruta.

KOSKOLLO. Testículo.

KURTE. Pesebre de las ovejas.

KURTEDE. La parte del yugo forrada con tiras de cuero donde se sujeta la vara del carro.

KURTETXE. Cama del carro.

KURTITX. Tejido de varillas de que se rodea el carro por los lados.

KUTXATEL. Arquilla pequeña dentro de un arca grande.

KUZKUR. Humilde, silencioso.

KULUNK. Cencerro grande.

KUZKURRALDI. Humillación.

KUZKURTU. Humillar. Humillarse.

LAMADA. Vaho.

LANGARTU. Lloviznar.

LAÑEZA. Engreimiento.

LAPASHTA. *Elur lapashta* «capa delgada de nieve». *Elur lapashta bat egin du*.

LARDAKA. Revoltijo desordenado.

LARRETU. Sacar el ganado al pastizal.

LARRIALDI. Apuro, congoja.

LASTARGI (*Lastoargi*). Antorcha de manojo de paja de trigo.

LASTOZUZI. La punta negra que queda después de apagada la antorcha del manojo de paja.

LARDAI. Camino para el arrastre de leña.

LAUANKAN. A cuatro patas. A galope.

LAUGAIN. Galope.

LAUSO. Temor, miedo.

LEAKUME. Contraventana interior.

LEATERA.

LEATILL. Ventanuca en las contraventanas.

LEBRI. Medida.

LEBRITTU. Medir.

LEKABIUR. Vara para desgranar alubias.

LER. Mucho. *Ler ibilli naiz*.

LER EGIN. Cansarse. Agotarse de cansancio.

LERGARRI. Agotador. *Lan lergarria*.

LIMETA. Botella.

LIÑAPUTZU. Pozo en que remoja el lino.

LIPITZ. Brizna.

LIRDIKE. Baba.

LIRDIKETU. Babear.

LISTATU. Alistarse (los quintos).

LIXU. Colada. *Lixua egin* «hacer la colada».

LIXUETU. Hacer la colada. *Arropak lixuetzen ari naiz*.

LIZT. Hilo fuerte.

LIZTAMI. Gusano largo y delgado.

LO GALDU. Sueño retrasado. *Lo galdua nago* «estoy con sueño retrasado».

LORKATE. Cadena empleada para el arrastre en general.

LOXINTX. Halago. *Loxintxa egiten ikasi du*.

LOXINTXETU. Halagar. *Loxintxa zazu aur ori, mutur baitago*.

LO ZARTU. Sueño retrasado. *Lo zartua nago*.

LURGOSE. Tierra pobre, no abonada.

MAKETSA. Desafilado. *Aizkora maketsa daukazu*.

MAKESTU. Desafilar. *Aizkora makestu zaitzu*.

MAKOTU. Remover la tierra con el horcón.

MANETU. Arreglar. *Alorra manetu* «arreglar la pieza hasta en los más pequeños detalles, v. g., caminos, sendas, una vez que ha sido sembrada». *Eltzea manetu* «arreglar el cocido con los últimos detalles de la sal, aceite». *Zakarrak manetu* «quemar las hierbas que han sido arrancadas en la pieza.

MANDATARI. Recadista.

MARTXOLAÑO. Niebla de marzo.

MATXURETU. Averiar-se la máquina.

MELLA. Impresión. *Aita il zitzaion eta etzion mellarik egin.*

MENDEBAL. Tiempo húmedo con niebla.

MENDEBALDU. Ponerse el tiempo húmedo y con niebla. *Eguraldia mendebaldu du.*

MENDOLATZA. Una variedad de castaña.

MENGELDU. Debilitarse.

METABIURRE. Rama de roble, llamada *biur* para atar por la extremidad superior las pilas o montones de maíz con su planta.

METAMUTIL. Gavilla grande de maíz, atada por la extremidad superior, alrededor de la cual se coloca el maíz para formar la criba.

METONDO. El lugar donde ha estado la meta o pila de maíz, trigo, helecho, etc.

MILLABIRGIN. Berbiquí.

MIZKE. Vicio.

MOLDAKAITZ. Difícil de arreglar. *Matxure au moldakaitze da* «esta avería es difícil de arreglar, de arreglo difícil».

MOLDAKIZUN. Arreglo. *Moldakizun ona du* «tiene buen arreglo».

MOTXIKAI. Estaca para setos, cierres.

MOTZARITZ. Roble pequeño, de poca altura, porque se le cortan las ramas cada dos años para deshojarlas para comida del ganado.

MOZKERA. El arreglo hecho a los troncos por una punta para que no puedan hincarse en la tierra en su arrastre.

MOTZKERI. Desprecio.

MUKER. Esquivo, huraño.

MUKERTU. Ponerse huraño, esquivo.

MURRUXKA. Gruñido del cerdo.

MUTURLUR. Tierra levantada por los cerdos con el hocico.

NABARITU. Sobresalir. Distinguirse.

NASLARI. Embustero.

NASTEKATZAILE. Embustero.

NEGARGARRIKERI. Desgracia.

NEGARGARRITZA. Desgracia.

NEKABIUR. Ataduras de ramas de roble, para sujetar los palos verticales del carro.

OKER.

OKONDO. Codo (del brazo).

OLLOZULO. Agujero pequeño en las puertas de las cuadras para que puedan pasar las gallinas.

ONDATU. Desaparecer de la vista. *Onda adi emendik, mutikoa!*

ORBERATU. Cojear (los animales) por recalentamiento y cansancio de las patas.

ORIZTO. Peca.

ORRAZE. Peine.

ORRAZKERA. Peinado.

OSPA EGIN. Escaparse. *Orrek ospa egin dik.*

OSTROPOTZ. Tropiezo. 2) *Ostropoz egin* «tropezar». 3) *Ostropozka* «tropezando».

OTAS. Pan de calidad inferior hecho con harinilla.

ONDOREKO. La leña que se arrastra tras el carro cargado con helecho.

OÑAL. Orinal.

OZITU. Germinar cualquier grano, pero sin sembrar, por la humedad y lluvias persistentes. Tiene lugar cuando no puede recogerse la cosecha de grano por la humedad.

PAGAMENTA. Paga. Salario.

PALDA. Extensión de terreno.

PANPANO. Clase de alubia.

PANPANOARBA. Los palos que se colocan a las alubias.

PARRAGARRITZ. Ridiculez.

PASTAYOA. Herida producida por el baste.

PATTAL. Medianamente (se dice del enfermo).

PATTALDU. Ponerse medianamente (del enfermo).

PERDES. Paso indeciso, con titubeos, propio sobre todo de borrachos.

PERDESKA. Tambaleándose.

PERLESIATU. Ser atacado de perlesía.

PERRIL. Rueda.

PESKITZ. Espera impaciente, por lo indecisa y dudosa.

PETRAL.

PIKA. Osca en el corte de un instrumento.

PIKATU. Afinar el filo de la guadaña y de la hoz a golpes de martillo sobre un yunque.

PIKO. Empinado, de mucha pendiente.

PLAMERA. Tiras de hierro exteriores en la rueda de madera del carro.

PODORIOAN. A fuerza de... *Yanaren podorioan bizi da* «vive a fuerza de comer». *Esanaren podorioan lan egiten du.*

POZOBEB. Veneno.

POZOBETU. Envenenar.

PROALDI. Prueba deportiva.

PURRUSKATU. Deshacer, destrozar.

PURRUKATUA. Superlativo con cualquier adjetivo. *On purrukatua da. Gaisto purrukatua da.*

PURRUSTI. Maneras fuertes, violentas, de mal genio al hacer algo.

PURTE. Especie de mesa con agujeros en la base por donde cae el grano de maíz desgranado a golpes de palo.

PUSKA LEORRA. Comida en frío.

SAIATERA. Ventana pequeña de las cuadras.

SAKATS. Revoltoso.

SAPAI. Ventanas y huecos de las paredes de las casas de labranza de debajo del tejado, para la ventilación del granero.

SARDEKA. Horquilla de dos púas.

SATAIN. Ratón de campo.

SEIZIO. La comitiva que se organiza en los entierros desde la casa mortuoria hasta la iglesia, y terminado el funeral y aniversario, desde la iglesia hasta la casa mortuoria.

SOLAIRU. Desván.

SOSKOR. Mazorca desgranada de maíz. 2) Terrón de tierra.

SUERTATU. Coincidir inopinadamente en algún sitio. *Menditik eldu giñela, elkarrekin suertatu giñan.*

SUSTRAI. Rastro, pista.

TAIU. Parecido. *Bi anayek taiu aundia dute* «los dos hermanos se parecen mucho; tienen mucho parecido».

TAKETA. Los palos verticales que se colocan en el carro para cargar leña.

TAKETU. Reforzar, sujetar con cuñas el poste metido en tierra.

TALOBURNI. Plancha de metal con mango para cocer la torta de maíz.

TIOSO. Superlativo de OSO. Muy enteramente. *Tioso ederra* «muy hermoso».

TIRAPERRA. Especie de herradura (otras veces especie de cuña) que se incrusta en la punta de los troncos, donde se engancha la cadena para el arrastre.

TRIPAZAIKERI. Glotonería.

TXAKIL. El aro de la extremidad de la cadena.

TXANDATU. Turnarse.

TXERTOKI. La rama preparada para el injerto.

TXINTXE. Ruido pequeñísimo. *Ez da txintxik aitzen* «no se oye absolutamente nada».

TXIOR. Estrecho. Se emplea solamente en *bide txior* «camino estrecho, senderillo».

TXOATIL. 1) Molinillo movido por una mano para retorcer el hilo de lana de oveja. 2) Persona de temperamento un tanto alocado.

TXORTI. Pedúnculo.

TXOSNE. Pan muy delgado y alargado.

TXOSTE. Lazo.

TXOSTOR. *Erreka txostor* «río pequeño, riachuelo».

TXUIKIN. Hoja de la mazorca de maíz.

ULTZI. *Ultzia* yo «refñir. Discutir».

URRINTZU. Maloliente.

URTABE. Año agrícola. *Aurten urtabe ona* «este año, buen año». *Urtabe txarra* «mal año».

USAITZU. Oliente.

USTEKABEKERI. Acción realizada inadvertidamente.

USU DEMONIO. Rapidísimamente.

UTSKERI. Desatención. Descortesía.

UXATU. Ahuyentar. *Uxa itzatzu txori oyek baratzatik.*

UZKALDI. Paliza. *Uzkaldi ederra eman dio.*

UZTARRILARRU. Piel de oveja que se coloca encima del yugo.

UZTARRIMOTZA. Yugo para una vaca.

UZTARRIOKERRA.

ZALKATU. Apretar. Apretujar.

ZAKAR. La hierba que se arranca en las piezas antes de sembrarlas.

ZAKARARETU. Pasar la narria para arrancar las hierbas.

ZIMITTERIO. Claustro de la iglesia.

ZIORTU. Castigar con golpes de vara.

ZIPOTZA. De mal genio. De mala calidad. *Gizon zipotza* «hombre de mal carácter». *Lur zipotza* «tierra de mala calidad».

ZIPOZTU. 1) Ponerse de mal genio. *Aurra zipoztu da.* 2) Enconar.
Eskuko zauria zipoztu zaio.
 ZIPLATU. Gastar dinero. *Diru guzia ziplatu du.*
 ZIRIBUZZAN. Ligero de carácter. *Gizon ziribuztana* «hombre ligero».
 ZIRIBUZZANKA. Dando saltos. *Ziribuztanka erori da.*
 ZIRRI. Cremallera.
 ZIRRIZZAN. A ras del suelo.
 ZORABILLO. Mareo.
 ZORABILLOTU. Marearse.
 ZORABILDU. Marearse.
 ZORTON. Tallo de cualquier planta.
 ZURMUR. Rumor.
 ZURRUBILLO. Remolino.
 ZURROBILLOTU. Arremolinar.
 ZUZKI. Escoba.

A P E N D I C E

ADAR. 1) Impresión, señal. *Adar txarra* «mala señal, mala impresión».
Adar txarra eman nion «me produjo mala impresión». Lit.: «Le di mala señal». 2) *Adarrak yo* «comenzar a tronar». *Adarrak yo dio* «ha comenzado a tronar».
 AGONIOKO. Toque de campana para anunciar la defunción de alguna persona.
 AIZEGORDELEKU. Lugar abrigado de los vientos.
 AIZELEKU. Lugar castigado por los vientos.
 ALAJAÑE. Así pues... Eufemismo de *Ala Jainkoa* (?).
 ALBAITERO. Veterinario.
 ALDIZKA. De vez en cuando.
 AOTZ. Paja de caña de trigo trillada.
 APEO. Puntal, madero que sirve de sostén.
 APETU. Apuntalar.
 ATALANGA. Cancilla, puerta de los campos.
 ATSALDEGIRO. Tiempo atmosférico durante la tarde.
 ATXO. Disfrazado en Carnaval. *Atxo asko dire aurten.*
 ATXOATU. Disfrazarse en Carnaval. *Yende asko atxoatu da aurten.*
 ATZAPAR. Manaza.
 BARRA-BARRA. Abundantemente, con profusión, sin escatimar. *Dirua, barra-barra, nola nahi, gastatzen du.*
 BARRETU. Esparcir.
 BATZARRESALA. Sala de juntas del Ayuntamiento.

BURUSTU. Descubrirse la cabeza. (De *buruutsik*.)

BURUZAKU. Saco que se cuelga de la cabeza para defenderse de la lluvia.

BUSTI. Salsa. Caldo de la legumbre.

DANBORE. Tamboril para asar castañas.

DANBOR. Tambor.

EOSKOR. Tozudo.

EOSKORTU. Ponerse tozudo.

ERABAT. 1) Definitivamente, para siempre. *Soldadusketik erabat etorri da*. 2) De una vez; de un tirón. *Lan ori erabat egin bear dezu*.

EUNGIRO. Tiempo atmosférico durante el día. *Eungiro txarra ari du*.

EZ BESTEAK. Todos menos... *Ni ezbesteak etorri ziren* «vinieron todos menos yo». *Nik ezbesteak yan zuten* «comieron todos menos yo».

EZEZE... ERE. No solo, sino que también. *Ni ezeze, besteak ere etorri ziren* «no solo yo, sino que también los demás vinieron». *Nik ezeze besteak ere yan zuten* «no solo yo, sino que los demás comieron».

EZTARRI. *Kontrako eztarri*.

GALDURPESTA. Fiesta que celebran los operarios al poner el armazón del tejado de una casa en construcción.

GOIZGIRO. Tiempo atmosférico durante la mañana.

IRAUSALDI. Duración del estado de celo de la marrana.

IRAUSTU. Estar de alta la marrana. *Txerria iraustu da*.

ITZATZI. Grietas de la piel.

ITZATZITU. Agrietarse la piel. *Aurpegia itzatzitu zait*.

IURTZI. 1) Frotar. 2) Frote.

IZOTZ-AIZE. Viento glacial.

IZURRATU. Fastidiarse.

KANDELA. Subasta pública.

KANDELATU. Subastar.

KATXO. Zurdo.

KEDA. Toque especial de campana a las seis de la mañana, tres de la tarde y once de la noche.

KOIPETU. Engrasar. *Gurdi ardatza koipetu zazu*.

LANGINTZA. Trabajo.

LARRUGORRITU. Desnudar. Desnudarse.

LEPAZAKU. Saco que se coloca entre el cuello y el hombro para no lastimarlos con el objeto que se lleva en ellos.

MAKUSTU. Ponerse en mangas de camisa. (De *makutsik*.)

MAKUTSIK. En mangas de camisa.

MALLETU. Recoger la hierba en hileras.

MARKA. *Arto marka*. Especie de rastrillo grande de madera para señalar el sitio donde se ha de sembrar el maíz, cuando se hace a mano.

MASUSTE. (Moral. Mora.) Persona emotiva, que llora fácilmente.

MAURI. Fresa.

MEASASKI. (De *mea* «mineral» y *saski* «cesto».) Cesto terrero.

MINTEGI. Vivero.

MODORRATU. Podar árboles. *Lizarrak modorratu ditugu*.

MODORRO. Rama, tronco podado; desgajado después de podado. *Lizarrak modorratu ditugu, ta gurdia modorroz kargatzen ari gera*.

MOZORROTU. Disfrazarse.

MUTURREKO. Aro pequeño de alambre que se coloca a los cerdos en el hocico).

NAIGABE. Desmayo. *Amari naigabea egin zayo*.

NAIGABETU. Desmayarse.

NEGUGIRO. Tiempo atmosférico durante el invierno.

NEGUTE. Temporada de invierno. *Negute ona. Negute txarra*.

OBIKOZKOR. Corrusco de pan.

PARDEL. Hato de ropa.

PERRATU. Herrar.

PERRATOKI. Lugar destinado para herrar.

PRIMABERAGIRO. Tiempo atmosférico durante la primavera.

PURRUSTEKA. A volea, a pulsos. *Purrusteka erein*.

PUTRE. Buitre.

SAKE. Apetito.

SAUNKATU. Ladrar.

SOLDADUSKE. Servicio militar. *Soldaduskea egiña du*.

SUSALDI. Duración del estado de celo de la vaca.

TATULU. Taladro, instrumento de carpintería.

TATULUTU. Taladrar.

TENTEKAI. Puntal, tentemozo.

TENTETU. Ponerse de pie.

TRIPAZAKI. Comilón, glotón.

TURMOBE. 1) Trueno. 2) *Turmobeak* yo «comenzar a tronar». 3)
Turmobe adarra «nube de tormenta».

TURMOBETU. Formarse tormenta.

TXILIBITU. Silbato hecho con la corteza de algún vegetal. generalmente fresno.

TXIPU. Chopo.

TXIS. Orina.

TXORROTU. (Dim. de *Zorroitu*.) Retorcerse la hoja de maíz a causa del calor, en forma de barquillo. *Ze beroa! Artoak txorroturik daude*.

TXULOKA. *Txuloka erein* «sembrar en agujeros».

UDAGIRO. Tiempo atmosférico durante el verano.

UDATE. Temporada de verano. *Udate euritsua. Udate leorra*.

UDAZKENGIRO. Tiempo atmosférico durante el otoño.

UDILLO. Cierta enfermedad del maíz.

UDILLOTU. Enfermarse con la enfermedad llamada *udillo*. *Udillotu-tako arto asko ba-dago gure alorrear*.

USTETSU. Creidillo. Soberbio.

USTEOSO. Creidillo. Soberbio.

XAGUXAR. Murciélago.

ZAMARRADA. Golpe fuerte de enfermedad.

ZIMURTZI. Pellizco.

ZIMURTZITU. Pellizcar.

ZINTZUREZUR.

ZOMORROTU. Disfrazarse.

ZORRO. Pasador, colador. *Kafezorroa* «colador, pasador de café».

ZUTIKAI. Pilar.

Jose M.^a Aspiroz.

JAKIN: EUSKAL KULTURAREN BIDEAK LANTZEN

*Jakinlari ta Jakin-lagun guzoi
eskeintzen dizuet lan au.*

Biltzarre onetarako lan bat eskatu zidatenean ezetz erantzun nuen. Ni ez naiz iñor. Gero, ordea, ta denak nik egindakoa egiten bazuten majo geundela pentsatuaz, asi nintzan zerbait egiteko asmoz *Jakin* errebistak astiro astiro irakurtzen, ta pixkana, emendik orain ta gero andik, lan baterako baiño askoz ere material geiago inguratu nuelarik aurkitu nintzan.

Emen daukazute nik egin ahal izan dudana. Testimonio bat da: *Jakin*-ena ezpada, bai nire lan luze ta pazientziatsuarena. Zuen da ia, batez ere, billera onetan etziñaten Jakinlari adiskideona. Ta zuen kritikak espero ditut. Beti egia ta argia ta euskeraren ona billatu ditugu. Artan saiatu naiz ni ere. Orain, zuen eskuetan daukazuten au, *Jakin*-en irudi zintzoa al da?

Gure errebistak erabilitako kultur-itzak bildu ditut. Ikusiko dut zertan gelditzen den lan penagarri au...

Bitartean, ta ixiltasun obligatu luze onen luzean, elkaturik segi dezagula. Ta aurki arte, beti lanerako prest.

Jakin-en asmoak eta inportantzia.

1956-ko udazkenean agertu zen *Jakin*-en lehenengo zenbakia. Aza-lean argitzen zaigunez «teologilarien yardunak dira» jasotzen dituen gaiak, eta errebista bat izateko asmoa dakar. «1-gn. zenbakia» (Teologi-saila, Philosophi-saila, Kultur-saila, Antze ta Elerti, Saski-Naski ta Alkar Izketa.) Amairu amalau firma. Firma oien artean ba-dira jesuitak, beneditanoak, pasionistak, eta baita ere frantziskotarrak. Azkeneko oen artean loratua dugu batez ere *Jakin*, euskerazko kultura errebista, sortzeko asmoa. Ta bestean laguntzaren giro gozoak egin zuen frutu lorea.

Mamian sartu gabe, asmoak-eta ikus ditzagun aurrenik.

Jakin-ek bere eginkizunaren eta etorkizunaren iritzi optimista dauka: udazkenean, ta aireak orbelak airatzen dituenean, «zugaitz bat loretan, zugaitz bat udaberriz» dela. Alegia, euskera den arbola zaharrari «mentu berri bat txerta diote». Kultur-mentua. Auxe dela, aitortzen digu Ataria-k, *Jakin*: euskera kultura barrutietara ekartzeko, «gure euskera kultur-yoera ta kultur ats guzi guzietan» murgiltzeko. Au lehenengo.

Ta bigarren: apaiz eta frailleen elkartasuna lortu nai du. Artu emanak estutu. Odol bat eta bokazio berdiña ditugun euskaldun apaizgai ikasleok, batasunean eraman nai gintuzke jomugaraiño.

Atarian enteratzen geranez *Jakin* urtean iru aldiz ateratzekoa da, «Yainkoa lagun». Euskera garbian gure burutapen ta sentimendu «baitarakoenak» agertzeko ere eskatzen zaigu bertan. Ta errebistak dituen saillen esplikazio laburra ematen zaigu.

Ataria bera «aldizkariaren arnas-biltze bat besterik ezta izango», esaten digu Bastarrika dirudien atezaiak. Editorial moduzko zerbait, agian. Eta kulturaz eta euskera garbiaz gaiñera besterik ere gomendatzen digu, asiera asieratik, atezai arduratsu onek: gaurkotasuna, egungotasuna, gogoan eukitzeko, ta bixi bixi izkiriatu bearra. Itz batean, irakurgarritasuna eskatzen digu. Naski, irakurria izateko idazten baitzen... Abixu au gerora dexente ahaztu dugu, ta zenbaitek *Jakin* ezpezializazioaren tontor laiña-tuetan erabilli nai lukete, tormenta denean deabrua ibilli omen oi den bezala... Ta asierako asmo au indartzenago du oraindik: «Edertu dezagun gure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu. Saia gaitezen edotariko gai ta arazo euskeraz erabiltzen». Beraz, bulgarizazioa asierako asmoa da, ta ez azkenaldiko desbiazioa.

Gaur ez da izango euskal erri Egoalde-koetan *Jakin* ikustez eta irakurtzez, sikan entzutez, ezagutzen ez duenik. Alare, ain noizean bein agertzen zen-eta, esan genezake, oso gutxik daukatela beraren ezagueragokirik.

Euskal kultura egitearen eta zabaltzearen arazoan zeregin apartekoa izan zuela —ta izango duela, noski— pentsatzen dudalako, 15 banako aiegan erabillitako itz kulturalen (kultur-itzen, esango zuketen *Jakin*-en barneko eztabaidetan) bilduma bat egiten saiatu naiz, ta aietaz baliaturik, *Jakin*-en beraren sakona, ondoa istudiatzen.

Nire analisi au guziz erlatibua izango da, esan gabe konpreni ditezkean arrazoi ximpleengatik. *Jakin* ez da, ez liburu bat, ez autore bakarraren obra, ezta denpora ta giro bateko emaitza ere. Ez du ritmorik, ez du batasunik (guziz axalekoa ezpada) ta billa billatzen ibilli dabillana zora-

tzeko lain ugaritasun bai. Baldintza onen argitara juzgatu bearko da, ba, *Jakin*, eta baita lan au ere.

Esan ditudan asmo ta elburuekin abiatu ziren *Jakin*-eko «teologilarien yardunak». Asieratik asi zitzaizkigun; gauzak egiten diren bezala: problema argi planteatzetik. Prolema ezagun au ta beronen sustraiak Axular ta lehenagoko Mosen d'Echepare ta lehenagotik ere ta Jainkoak daki noiz ezkerro, beti esamiñatzen eta sekula santa ezin ezaguturik —ez nai, nunbait— ari gera. Echepare-k gaitza tapatu ta erremedioa eman zigun, baiña kasorik etzaio egin, ta orregatik gabiltza beti saiotan. *Jakin* saio edo esperimentu bat geiago besterik ez da, nolabaiteko jokabideen kalbarioan, merezimendu ohoregarriena irabazi duena, iñork ausardiarik etzuenean ekin ziolako: «euskeraz orainaldi ontararte ikutu ez ditugun jardun goitarrak» (Yon Etxaide), jakintzaren lur, gurean arantza ta larrez josia, maneatzan oldartu baita.

Jakin-en inguruan diren gazte kementsu denak konbizio gogor bat euki dute sendo tinkatuta: euskerak bizi egin bear duela, eta onetarako, derrigor, euskal kultura berezi bat (neurrizko berezitasunez) iritxi bearko dugula. Euskera serioki artu bear dela, ots, izkuntza bezala, ta ez jolaserako, pirtxilkeria ta jostaillutan luzitzeko. Dantzariaren fintasunak ez baiño trenaren estazioko maliobrak bear ditugu, kultura europeanoaren burni bideetan sartzeko.

Espresso euskal kulturaz tratatzen duen lan bat ba-da *Jakin*-en VIII-garrenean, Elkar-izketako sailean eta Urrestarazu-tar Andoni «Umandi»-k firmatua. Bertan esplikatzen digu gramatikagille onek, daukagun ikastolen bearra, premia gorria, euskera salbatuko bada. Ez dauzkagu, ordea. Ta alare, ba-geneuzka bezalaxe teorizatzen du. Planoak egiñaz asi bear dugu, estadistikak egiñaz, etxegintza zuhurrean egiten den arabera. Ta auxe, bene benetan komeni zaigu ikastea, alegia, euskeraren aldeko gure alegiñak bateratzea ta oek enquestaren pulamentuan oiñarritzea. Euskeraren errealdadea ezagutu. «Etxe bat eraikitzeo arkitektoa asten zaigu bere asmoari buruzko planoak egiten; eta ez ori bakarrik, ordea; etxe orrek izango dituen gaiki ta zati ta atal guziak nolakoak izango diran bearrak eta dana zenbatean lortu diteken (Euskaldunok ere ez dugu ezer lortuko debalde, *gratis et amore*), arreta audienaz ikusi ta begiratzen du orrelako lan bat egiteko abiatzen danean.»

Bai esku liburuak ateratzekoan ta bai eskolak eramatekoan batasuna ta koordinazioa eskatzen du Umandi-k. Denon intereseko den puntu onetan jaun onek duen iritzia zeazkiago jakin nai duenak, ikus beza VIII-garrena.

Ahal zuen neurrian kultura au egiten eta zabaltzen saiatu da *Jakin*. Aldizkariaren sortzailleak, eta gero andik pasatu geran guziok, presente izan dugu beti elburu au: euskal kultura. Batzuek euskal erriarena egitea billatu dute, bestetzu, akaso, erri onekin ahaztu xamarturik jardun dira. Pauso okerrak, eta gaiztoak, eta alperrak, ordea, ibilli dabillanak bakarrik eman ditzake. Geldi dagoena, pauso okerrik eman gabe, ez da oso urruti allegatuko. Nik, batez ere, pauso gaizki eman oek aztertu nai ditut, berriz heroietxetan ez gaitezen, ez geu ta ez besterik, eror. Pauso zuzenak aipatzea, bego bestendako.

Aurreneko amar zenbakieta «Teologilarien jardunak» ezartzen zioten lema edo buru. Andik aurrera, egiazko errealidadeari ta asmoei zintzoago tajutzen zitzaion beste au jarri zaio: «kultura jardunak». Ta azkeneko bi aleetan (XIV, XV) inprimatuetan alegia, beste irugarren au: «euskal gaztedia kultura bideetan».

XIV-garren onen azaleko erretratoak gazte bat erakusten digu, bidxka batean aurrera, berealaxe arkaitz gorri tontor bati ekiteko. Aurrera doa... Urrengoan, XV-garrenean, Barandiaran-i San Martin-ek egindako fotografiak zera sinbolizatzen digu: Jakinlariak —guk esaten dugun bezala— euskal kulturaren errai barrukoenaren edertasunak eta sakontasunak ikusten eta ikasten dituztela. Eta esaten zaigu Atarian: «leenari begira, geroari ekin». Ori nai zuen ta ori nai du *Jakin*-ek. Kondairaren altura argiraiño igo —euskerarekin eta erlijioarekin— eta emen zutik iraun.

Jakin-ek, obrak baiño asmoak askozaz ditu ederragoak eta altuagoak. Asmo utsak ez baiño ba-ditu frutuak ere, ordea: X-garren zengakian presentatzen zaio irakurleari ordurarte egindakoaren eskema:

52 idazle,

111 lan,

9 ordena liferentetako idazlek egindako.

«Ara lan baten egia, errealitatea» esklamatzen zuen pozez Kepa Enbeita-k. Ta pozgarria zen, gero, izan ere, amar zenbaki soilletan alako idazle sorta presentatu ahal izatea. Etzagun ahaztu, idazle oiek, erabat den denak euskal literaturarentzat *Jakin*-ek sortu zituela. Ez baitira 52 oien artean Elkar-izketa-ko kolaborazioak sartzen. Ta enkuetak biltzen ez dutena: gaur ba-dira Jakinlarien artean karrera bukaturik dotoradu ta lizentziatura dirdaitsuak bereganatu dituztenak, ta baita ere, Jakinlari bat Euskaltzaindiaren urgazletzara jasoa izan da. Joseba Intxausti-ren ospe au *Jakin* osoarena da ta bere *Jakin*-eko adiskide guziona.

Ta uztza eder eta promesagarria Euskalerrri ta Euskaltzaindiari eskeintzen die Kepa-k: «Tori beza Euskalerrriak eta Euskaltzaindiak gazte auek beren biotzik onenarekin egin duten lan eder au» (X, 90).

Prolemaren konzientzia agiri askoan zeukan beraz, *Jakin*-ek, ta bere indarren neurrian saiatu da sendabidean. Orain, soluzioetan, metodoetan asmatu duen ala ez, beste kontubat da. *Jakin*-en inportantziaren erdia bai gutxienez, konzientzia onek dauka: beronek egiten duela posible bideetan asmatzea, ta onekin, goiz edo berandu, aurkitu egingo dala ziur-ziur bideea ere. Konzientzia onen ejenplorako, permitituko zait Arnaud Erdozaincy Etchart-en euskera gozotik ttintta bat kopiatzea: «Ikusten dugu zonbat behar giren ernatu eskual-kulturaren eragintzeari, ezen kulturaren barnean beita hazten gizonaren gogo, pizten haren adimendua; gizonari emaiten munduaren eta lurraren gainean bizi diren guzien behatzeko manera. Kulturaren barnean beita ere loretzen gizonaren izaitea, sustut eskual-kultura bezala girixtino biziaz bizitua delarik».

Entzuleak beste aldeko eskuara zela antzeman orduko pentsatu duen kokka topatzen dugu emen: euskal kultura ez dagoela ifarreko anaietatik aparte biribiltzea pentsatzerik. Orrexegatik eskatzen du Erdozaincy-k: «Halere uste dut hobekiago litakela zazpi probintzietako eskualdunek gehixago elgar adi bagindeza, gure indarrak sobera debaldetan enplegatu gabe». Ta Elissanburu kopiatzen:

«Jartzen bagine guziak bat
lehenago bezala!»

Konzientzia bai, asmoak bai. Lot eskuak lanari, mutillak!...

Lehenengo entsegua lan zitala ta amorratua bezain nekagarria zan. Esan diteke Jakinlariak ezerezetik asten zirela puntu onetan. Langileen kondizioak —gazte, istudiante ta beste ixiltzea obe diren alako makiña bat— gogoan arturik, gezur aundi gabe esan diteke deusezetik asi zela *Jakin* (1).

Gure aldizkariaren fundatzaileak ederki portatu zitzaizkigun: lau ordena liferentetako firmak ba-ziren elkar arturik, egiñalean, errebista berria sortzen. Ta III-garrenerako, arro arro kofesa dezaigukete Lazkao-ko beneditarretan dauden lankideek: «21 idazle berri esnatzea ta elkar-tzea izan da noski, *Jakin*-en egitekorik nagusia».

(1) Eugenio d'Ors, *Novísimo Glosario*-ko «Del Vocabulario Filosófico Español» glosan, espaiñola filosofian praube delako lamentatzen da. Ez omen dalako izan espaiñolez idatzi duen filosofilari aundirik. Guk zer esan bearko ote dugu? Ta zer esan bearrago ote genuke euskerari inguruko izkuntzek presta lezaioleten aberastasuna ukatuko bagenio?

Zuzendariak berak arrituta gelditu ziren, agi denean: «Gure asmo ametsak baiño arcago jo dute euskal apaiz ta praillegaien kemen adorea. Ixillean zetorkion gure euskerari idazle talde bikaiña! Erlijio-mota guziak bildu gera oraintxe ekinaldi bakar batean». Eta besteen arritzapenaz poztuagorik eta puztuagorik: «Asko arritu dira gure batasunaz». Ta oraindik, pozaren geiegiaz zoratu bearrean: «Denak onartu ta goraipatu dute euskal gazteon ausardi ta asmotasuna».

Batasun au predikatzen arituko zaigu XI-garrenean oraindik, ta bileraren izenean, Pernando Mendizabal: «Batasunaren, elkartasunaren bearra sentitzen dugu Euskalerriko elizgizonak... Problema geiegi somatzen ditugu indarrak bakarka alperrik galtzen edo, beintzat, ler-egiten ibiltzeko». Ta zeiniek ez daki nola lortu den batasun au euskal apaiz ikastetxeen artean?

Bai, *Jakin*, bai: konzientzia ta asmoekin, baita frutuak ere! Ez dizute ba txalo zartako gutxi jaso-ta...

«Nik gaur Arantzazu Euskal-Universidade baten asiera bezala ikusten dut, eta ez kaxkarra, bere Revista eder eta guzti. Noiz egin nekazen gure egun otarako olako ametsik?» Onela idazten zigun Orixe-k, V-garrenean. Eta Caracas-etik, Ibinagabeitia-tar Andima-k: «Bizitz erpiñera iritxita ama lurraren magal ozpeler lerratzen asi geranok, nola poztu ez? Simeon-enak ioteko garaira ez naiz oraindik eldu, ala ere Euskal-Mesia berri au eskuartean jaso dudanean alako *nunc dimittis*... eder bat oiuztatzeko gogo bizia sortu zait. Ez naiz geiegikeriz ari» (IV, 78).

E-tar Y-k (Etxaide) zera dio: «Mamiz, muiñez alegia, bikain bikaiña zuen aldizkaria, gai ernegarri ta mardulak erabiltzen ta arrotzen baidituzute, euskeraz orainaldi ontararte ikutu ez ditugun jardun goitarrak» (VI, 101).

Orobat Jauregi-tar Koldobika-k, Aita Onaindia-k, Zaitegi-k, berriz Andima-k *Euzko Gogoa*-n eta beste askok ez dute dudarik izan *Jakin* goratzeko. Guzion itzak biltzea luzeegi litzaidake. Ta labur bearrez, noan Zaitegi-ren gorespena zear: «Orrela iarraitzekotan, atzean utziko gaitute gazteok alabearrez...» Luis Mitxelena-k *Egan*-en (3-4, 1957, 241 or.) idatzitakoarekin bukatzera: «Txalotzekoa benetan Arantzazu-ko teologik-ikasleek, beste ordenetako ikasle ta apaizgaien laguntzarekin, artu duten eta betetzen ari diran asmoa. Etzekaketen bide oberik aukera, bai beren jakitea geitzeko eta sendotzeko, bai gure izkuntza indartzeko ta lanitzeko... Ikasbide ederra ematen digu guztioi.»

Errebista baten judiziorako irakurleak daukate botoa. Onen jakinñaren gainean, *Jakin*-en zuzendariak enkuesta bat errealizatu zuten arpi-

dedunen artean, guziz akordu onarekin. One emen delako enkuetak emandako argitasunak, *Jakin* XIII-garrenetik artuta:

- Banatutako 400 orrritatiek 98-k erantzun zuten (24,5 %).
- Erantzun dutenetatik 88 % atsegin du *Jakin*-en, ta disgusto duen bat bakarra da, erantzun dutenen artean.
- Erantzuleetan 100 % irakurri egiten du.
- Dena erabat irakurtzen ez duten aietatik, 27 %-en zergatikoa euskera da; eta gaiak, 36 %-ena.
- Atalik irakurriena Elkar-izketa da, ta urrengo Kultura sailla. Filosofia ta Teologia azkeneko lekuan gelditzen dira.

Gaietan, teologiarekin asten banaiz, aurkitzen ditugu emen milla klasetako lanak: sakramentologia, mariologia (Mariztia! demontre...), eklesiologia ta beste milla puntu. Filosofian, orobat, joera aise desberdiñetakoak: esistenzialismoa (izaten aburua zer den ez dakit nik) kantismoa, kartesianismoa, ta —Jesukristo bedekatuaren izenean!— eskolatika zoritxarrekoa... Ta ezin baztertuko ditugu psikologia, soziologia, zineaz, astronautikaz, poesiaz, estetikaz, litugiak eta amaika bestelako jakintza gaiez egiñak.

Obeagotzen eta meioratzen joateko leian beti zabal zabalik euki ditu atea aldizkari onek, edozein sujerentzia, kritika edo zena zela onartzeko. Zabalik ezeze, noizpait leiora irten ere da, kalean pasatzen zirenei otsegiteko, tentatzeko, ziria sartzeko, kritika ta sujerentzia eske. Au lehenengo banakoan ikus genezake, ta bigarrengoan ezti utsa ez baiño kritika sana eskatuaz irikitzen digute Elkar-izketa: «Ia urrena ezti ozpin pixkatekin naasten dezuten, gozoegi gerta ez dedin» (II, 172). Eta azkenekoan berebat (XV, 46) biziro errekeritzen zaizkigu sujerentziak: «Sujerentziak bear ditugu. Bai, bear... Irakurle: idaroki iguzu nai eta uste duzun guztia, ez dugu besterik nai-ta. Idaroki *Jakin* eder dezaken edozer gauza.»

Izan dezadan aski, azkenekoz, onen moduko beste eskari bat, au Pernando Mendizabal-ena, aipatzeaz: «Oso pozik jasoko genituzke guk beste edozein euskaltzaleek gure aldizkari ontaz euki ditzaketen iritziak. Eta nola obeagotu ditekenez esan edo idarokiko baligukete, pozik baiño pozikago eskertuko genieke. Esan, ba, bildurrikan gabe» (VII, 107).

Eta kritikak ba-zetozen... Batzu mingarri gertatu omen dira, garratz, kaltegarri. Apenas inola ebite zitekean au, alare. Ateak irikitzen diren momentutik onekin kontatu bearra zegoen. Eta norbaitek eskatzen zuen arako ura, alegia, aserretzen zenari aldizkariaren sarrera debekatzeko, idealista zerutarren batena. teillatuzalaren batena zen inundik ere. Onekin ez dut esan nai kritikak aserrearekin eta amenazoeekin nahas-

tuak, konsiderazio gabeak ta askomoduzko kirtenkeriak ameti bear genituzkeanik. Baiña kasu konkretu bakoitzean, zeinék erabaki «au bai» ala «au ez»? Tribunale bat jarriko al da? Ba-da euskalzaleentzat bestela ere tribunalerik asko...

Euskera lagundu nai onengatik Intxausti-k «izkuntza-formalismua» deitzen duen leize artan amildu izatea, buruz behera, zilipurdika, ez da arritzekoegia. Guk pekatu egin genuen... ta konbersioa ta bide oneratzea trabatu ta nekezagotu nai diguten ainbeste inguruan sentitzea amorragarri da. Ta betiko kontua: maite dutenean neskatz bat, euskaldunek, iñundik ere illeengatik maitatuko dute; beintzat errebista baten kritika egitean, dena ahaztu ta aren euskera gora ta behera jarduten zaizkizu.

Ta esan nai dut emen zerbait: *Jakin*-ek, bizitzak ezarri dion bidea eramán du. Derrigorrak eramán du. Ta *Jakin*-entzat, garbitasunean segitzen tematzea bere burua Sisifo-ren lanetan, alper-alperrik gaiñera, ukatzea, ler egitea, litzake. Gaur mordoillo bada —ta ori irakurleak esango du— bizitzak ekarri du orretara. Ta bizitzak eramaten badu garbitasunera, izan dedilla zorionean berriz aldatua. Ez gaitezen bizitzaren kontra enpeiñatu. Ez da ba bizitza nai genukena? Nolako bizitza, bizitzari kasorik egin gabe ari bagera...

Jakin kultura bideetan: Garbitasunaz...

Gure aldizkariaren jatorrizko destinoa ta joera da kultura. Asiera asieratik, orrelaxe ikusten du bere burua: Euskera zaharrari txertaturiko mentu berria; kultur mentua, alegia. «Gure euskera, kultur-yoera ta kultur-ats guzi-guzietan murgil ez bitartean, aizea orrazten ari gera», kofesatzen digu lehenbiziko Ataria-ren idazle orrek. Beraz, euskera kulturaren itsaso oparoetan murgildu bear omen dugu... (Atari-gille au guztiz murgildu zalea da: lautan murgiltzen du zerbait. Igarian azkar ez den irakurlea, orratio, oraingoan ito egiten ez bada, larri ibilli...). Ta oraindik esan-berritzen digu: «Edertu dezagun geure izkuntza. Egungo arazoetara egokitu.»

Asmo onekin argitu zitzaigun, 1956-ko udazken poetiko aren altzo, sestrakatxo au loretan. «Goiruntz begira; bekoki zabalez, elburu goitiaren lilluraz».

Kultura euskaldunen Euskalerriratu nai dugu. Kultura osoa, beronen alderdi guztiekin. Kultura, Teologia elburuagandik apartatu gabe, ta zer esanik ez filosofiarengandik ezetzago, aldizkarian sail oiek aparte dauzkagun arren.

Jakin, basamortuan oiu bat da, euskaldun entzungor zenbaiti gaztedi kartsuak —ez dezagun «asmotsuak» esan— egiten dion deadar amorratua. «Esna gaitezen euskaltzaleok ere. Ez dakiela euskaldun berrieri lotsagarri gerta gure izkuntza. Ez lotsa ta ez enbazo. Moldatu dezagun lenbailen gizabide berri ontara, gure euskerak dagozkion eskubide-mailak iritxi ditzan, landu dezagun eta kulturbideratu tresna zartxo au.» Onela predikatzen digute VI-gnko. Atari-tik.

Jakin-en elburu onekin mundu guztia (?) zegoen konforme. Itzarekin, ordea, «kultura» itz bedeinkatu onekin, etzen beste ainbeste gertatuko. Nola demontre izango zen ba ori posible!... *Jakin*-ek beretzat auke-ratutako bidea euskera garbiarena zen: «Saia gaitezen geure burutapen, geure sentimendu baitarakoienak euskera garbian agertzen» (I-goaren Ataria). Baiña aitor dezagun etzaigula agertu garbitasun au mugatzen dakienik euskal erri triste otan, gaurkoz. Kristorenak eta bost abantatu dituen euskera malapartatu au, beti zikiña baitago norbaitentzat... Eta «kultura» itzaren kontra Orixe agertu zen, V, 90: «Erdal-itx asko ezin eman ditugu bat-batean, baiña beste asko, bai. Esaterako: zer da k..., idatzi nai ere ez dedan itz nardagarri ori? *Humanismo ta civilización*, beste bi aizpa oriekin, ori da nik gorrotorik aundiena diodan itza». Orixe-k, bere arrazoiak dauzka orretarako, ta aurrenekoa, kulturak kristautasun jatorrari berari lekua kendu nai izan diolakoa. Baita ere, «nik euskeraz gizon landugabea lenago irakurri nun, erderaz *hombre inculto* baiño» (J. B. Agirre, Eracusaldia). Ta latin klasikoan ere ezin konprenituzko modu tajugabez moldatua omen delako. «Kikeron-ek ez luke konprenituko.»

Bere arrazoiak zeuzkan Orixe-k, baiña Jakinlariak, Orixe zaletasun faltarik izan ezta era, *kultura* itza etzuten bein emandako aulkitik despatxatu. Ta *kultura* itza ederki portatu da Jakinlariekin: ez die serbizio makala egin.

Jakin-ek egin nai duena ez da kultura bat sortzea, ba-den kultura sartaldetarra euskal errien eta euskeraren soroetako urbideetan botatzea baiño. Kanalak ba-ditugu —euskera— baiña ditugu zulo, jario, ta zartatuz josita. Izkuntza, gaitasun jatorrekoa omen da: baiña proba zazu, ta denontzat agirian dagoen zerbaitegatik, jakin ba-dakizunaren urak ez dizu kanal orretan korritu nai, ta bearbada, beste mintzairaren batean goxo goxo irristatzen zaizu. Au da, gure kulturak eta euskerak ez dute sekula santa guzian elkar saludatu. Eta lesikoan eskrupuloso zeralako, euskera komentuan preso sartu ta garbitasuneko boto espantagarria egi-tera beartu baduzu, ez dizut ezer esaten...

Jakin-en aritu izan geranon handicap astunena kultura iztegia izan da. Ta ez euskera sintetikoa dela, ta aldamenekoak analitiko, ta antzeko beste traste oiek. Itzak, itzak... Lehen lehenengo zenbakitik asita, ba-dauzkagu an, Sabin Berasaluze ta Fernando Mendizabal-en artikulo bi, euskera poliki desberdiñetan idatziak. Oien ondoren, errebistak zera galdetzen digu: «Au ta aurreko lana bi euskera mota ezberdiñetan idatzirik dituzu. Zein argigo?» Fernando-ren lanak, azpitik, 50 itzen esplikazioa bear izan zuen, «ia guztiok egilleak asmatuak».

Eta arrigarria bada ere Pernado-ren bidetik ekin zioten, idazle geienak denporaldi bateko. Eta 1957-ko billeran saltsa filosofiko aldrebes oni nunbaitetik eldu ahal izateko, erabaki zuten «norberak idazten dituan lanetan erabillitako kultur-itzak bildu eta artikuloarekin batera Arantzazu-ra bidaltzea *Jakin*-en izenean».

Billera onek eman zuen beste ideia obeagorik: Kultur-iztegi arazoan eginda dagoena biltzea, fitxero batean sartu ta gero *Jakin*-en argitaratzeko. Lan au, dextente aurreratua dabil, edo dago. Gaur egon baitago, geldi asko.

Zeero kultura bidetik, ala poesia, elertia eta abar ere ametitu bear lituzke *Jakin*-ek? Onetarako iritzi asko ziren.

Antze ta Elerti saillaren inguruan eman zen lehenengo iritzien kontrariotasuna. Azkenean baztertu egin da, batez ere bi arrazoiengatik: beste euskal aldizkarien kanpoan muturra ez sartzeagatik, eta idazleari errezenera makurtzeko tentaldia ukatzeko. Bigarrena, geure etxe-barruko errebisten esperientzian eskarmentaturik oso arrazoi gaiztoa izan da aipaturiko Antze ta Elerti saillaren kontra. (Ikus batez ere II eta III bana-koetan elkar-izketara bidalitako iritzi ugariak.)

Urrengo puntua betiko prolema zail bat izan zen. Zaila, esaten dut, zeatz erabakitzeko. Onela formulatzen dizkigu Fernando Mendizabal-ek 1958-ko billeraren kronikan (VII, 104-105) eztabaidaren alderdi biak: «Batzuen ustez, irakurleari begiratu bear dio geienbat *Jakin*-ek...; (eta irakurleek) askotan naiago dituzte gauza atsegiñak, lan ariñak eta adierrezak, gai sakonak baiño». Portaera onen iturburua: askok ez dutela euskera bear bezela ezagutzen, eta ez daudela, gaiñera, jakintza-gaietan jaiotuak. Doble arrazoi.

«Beste batzuen ustez *Jakin*-ek ez luke bere goi-mailla ortatik jetxi bear, *Jakin*-en jomuga ezta irakurlearentzat izatea bakarrik.» Baiña bai euskerari jakintzarako bideak irikitzea ere. Euskera, nunbait, bere kasa eta irakurleek eraman gabe, gauza da, berez, kulturaren erreñura irixteko.

Ta berriz arritzekoa —ta berriz arrigarri— bigarren joerak irten zuen garaille, teorian ezpada obretan.

Ez joera orri ta ez garbizaleenari, etzitzaien luzarorako bizitza gelditzen, alare. Ba-zetorren, azkeneko mallukada ta elizakoak, eskatuak ala eskatu gabeak, emango zizkiena.

Prolema guziotan *Jakin* irakurle guzien bistan jardun da, izkutuko tranparik egin gabe. «Begirune aundia euki bear zaio publikoari» (VII, 104).

Kultur-itzak: jakintitzak, jakintza-itzak, jakintizenak, jakintz-izenak, jakintz-mintzaira...

Sar nadin garbitasunaren arazo biurrian. Irakurle ta entzule guzioi, Jakinlariok emango lidaketen tolerantzia eskatzen dizuet. Nik, nire partetik, lan onetan, ahalik objetiboena izan nai nuke. Ez daukat esan bearrik, ala ere, nai ta naiez, objetibotasun au sujetoak sortua izango den ezkerro, ez dela izango objetibo utsa.

Jakin-ek, sortu zen une beretik dakar «euskera garbian» izkiriatzeko leia. Baiña aurren zenbakiko Ataria-ren idazleak, eta goierritar edozein batek, edo gure Nafarro aldeko basoetan dabiltzan askomoduzko langille euskaltasunaren aldetik jatorrek, ez diote gauza berberari deituko «euskera garbia». Ezta *Jakin*-en lehenengo ta azkeneko Ataria-k idatzi zituztenek ere. «Egia zer da?» aren moduan, «euskera garbia zer da?» gal-detuko genuke.

Au definitzea erabat inposiblea litzake. Ta ez dugunez premia larri-rik, definitze orrenik, utz dezagun bere orretan lo.

Jakin-en lehenengo zenbakian, garai artan gure ikastetxeetan izan zitezkean bi joera nabarmentzen dira. Berasaluze alde batetik, lumaren puntan dituela, *revelaziñoa*, *kreaziñoa*, *kriterioa*, *objetivu*, *phisiko*, *razionalista*, *efekto*, *sujeto*, *valio*, *systemata*, *naturalista*, *atheismua*, *posibilitate*, *magisterio*, *thesi*, *theologi*, *relativo*, *veneragarri*, *interventu*. (*Aleun*, *sorkari*, *daskeinguzenak*, *daskeinkigu*, *izadi*, *zergait* (;utsa?) *zergati*?). ta onelakoak ere ez dute atzera botatzen gure idazle irregular eta olerkaria.

Pernando Mendizabal-ek euskera garbiaren konzetua bestaldekoexea dauka. Onek, «indar-neurketa bat bezala» egiten digu bere artikuluan. «Ia zenbateraiño erabili dezakedan nik jakintza gauza bat alik eta geien euskeraz.» «Onetarako gutxi-asko itz berriak asmatu ere egin ditut.» Lan onen azpian, 50 itzen azalpena ematen zaigu, gorago aipatu dudan oarra-rekin: «Itzok ia guziok egilleak asmatuak dituzu.»

Ezepzioak aparte, asierako *Jakin* jeneralean garbizaleegia zela esan-go genuke gaur. Ta ori, orduan joera orretatik zebiltzan Jakinlariek berak aitortzen dizute. Artean, asierako suaren keak paisajea lausotzen zien, iñundik ere.

III-garren alean, Iñaki Bastarrika-k eberkera, hebreoa, jartzen du euskeraren eredu. Bertan, garbitasunerako joera (1) azaltzen digu ta esaten du goiz edo berandu eberkerako itz mordollo denak jorratzekotan dabiltzala juduak. Oraingoz, nahasian bide darabilte izkuntza garbi naiz mordollo, kultura errebistetan bezela egunkarietan. Itz mordolloaren aldemenean, beti josten omen diote berria, garbia, irakurleak oitu ditezten artean.

Urte batzuek gerora, Intxausti-k eta nik, orrelako zerbait egin genuen, konbizioak baiño bearrak obligatuagorik. XIV-garren zenbakiari 80-garren orrian, iztegitxo bat ezarri genionean, erabillitako itz zaillenen itzulpenarekin.

Bastarrika-k erdiko bidea nai luke. «Zergatik aria ertzetatik eldu bear au? —galdetzen du—. Geienik erditik joan oi da egia. Berdin ere deritzait arlo ontan.» Askabide au, teorian ederra delako, askok onartua (ta eztabaidarekin nazkatuta zeudenak Te Deum kantatzeko lain pozez) izan da. Praktikan ez du ezertarako balio: ba-diteke praktikan erdiko bidea oso ezkerretik, edo eskubitik, joatea-ta. Esate baterako, B deituko dugun bat A ta D-ren erdian egon liteke; baiña erdi ori guztiz nolabaitekoa izango duk baldin A Arantzazu-n ta D Donosti-an egonda, B Brinkola-n badago. Berdin, garbitasunaren kontuan ez dago erdibide absoluturik, oso erlatibuak baiño. Iñork ez baitu pentsatzen, erdiko bidearekin konformatzen direnetan ere, erderatiko itz bakoitzeko, gutxi gora behera, neolojismo bat asma dezakegula. Oar onekin, ez du iñor izutuko esaera onek: Erdiko bidea bear dugu; baiña erdiko bidea ezkerretik doa... Ezkerragotik bai baitoa beste bide bat, nirea baiño erderara geiago makurtzen dena, esate baterako. Dena dela, erdiko bidea sofisma koskor bat izanda ere, sesio luze onetan pixka bat atsegiteko lain tregua beñepein formulatzen du, ta bego dagoenean.

Baiña, *Jakin*-en —gazte sugarrak izan— etzeuden treguatan pentsatzeko, ta erdiko bideak ez du fama onik izan. «Gu nondik?» itaun au egin zuen Bastarrika-k. Eta berak erantzun: «Erditik uste.» Baiña Bastarrika-ren erdiko bidea etzitzaion irudituko ain erditik zebillela Txillar-

(1) Ez ordea batere amorratua. Bastarrika-ren ideia oei, zalekeria desegokien garramura kiratsik ez darie. Nire ustean Bastarrika-k berak etzuen Txillardegi-ren egurra merezi.

degi-ri. Denok uste izaten dugu norbera sustraitzen dela egiazko arrazoi eta errealdadeetan.

Jakin-en amaika neolojismo (1) sortu izan da. Batzuek, niretzat, ederki, edo ez ain gaizki. Neolojismo elaboratzeko ez da egin sufijoen iturria iriki besterik. Trebeenak berria, sufijoak ez baiña kimika naiago zuten. Idazleon formazioa —bai morfolojiaren eta bai fonetikaren alde-tik— eskasa zelako, neolojismoak formatu ez baiño deformatu egin ditugu askotan. Geroago aterako ditut ejenploen batzuek.

Baiña aurretik, sar gaitzen *Jakin*-en purismoaz, garbitasunaz, izandako eztabaida famatu artan.

(Oarra: eztabaida onen notizia objetiboa emateagatik, banakoz banako joango naiz nire azterketa onetan. Eta aspergarriago bada, zeatzago izango delako, askotan eztabaidan ari direnei utziko diet itza, nik kopiatu besterik egingo ez diedala.)

Eztabaidaren prehistoria esan genezakeanetik asiko naiz. Gauza ja-kiña ta agirikoa da *Jakin*-en asierako garbizaletasuna. 1957-ko agorraren 11-12-etan izan zuten Arantzazu-n elkar ezagutzeko ta *Jakin*-en arloez mintzatzeko billera. Billera onetan garbitasunaren korapilloa askagaitza zela-ta, etzuten ezer erabakiko. Erabaki zuten, ordea, «Kultur-iztegi arazoan eginda dagon lana» biltzea. Onek, asmazioaren bidetik ibilli zebillena gure literaturaren tradizio jatorrenean txerta zezakean, apika. Kronika au IV-garrenean aurkitzen da.

Urrengo zenbakian, V-garrenean, idazten du Orixe-k: «Betiko izan-go dira garbizale amorratuak eta mordolozale alperak. Agertu dira garbizale amorratuak *Jakin*-en ere.» Eta beheraxeago: «Gizaldi berria asmatu nai duten oiek, gure gañetik pasa bearko dute. Bestalde, gogor joko da oraindik garbikerira. Geroa lekuko. Zenbaitek euskerarentzat etorkizunerako dituzten ametsak egi gerta balediz, Orixe au ere mordollo zaleen artean agertu bearko ote dun idurituak artu nau.»

Ez dira denak ideia berdiñekoak. Txillardegik bestelako ustea ager-tzen digu VI-garrenean: «Baiñan azkenean bide zuzenetik abia gaitzen esperantza aundia badut.» Lehenengo beste puntuarekin ere etzeuden oro konforme. Aita Onaindia-k itz-biltzeari baiño itz berri asmatzeari obe deritza, agian. Beintzat, biltzeko asmoari beste zerbait gaiñeratzen dio: «Komeni litzake, guztion artean, teologi ta filosofi iztegitxo bat

(1) «El nacimiento de una palabra es indicio del descubrimiento de una reali-dad, o, al menos, de un nuevo aspecto de ella», José Luis Aranguren. Nola justifikatu orduan errealdadea naiz izena guziz zabalduak daudenean, oien orde iz berriak asmatu ta zabaltzeko batzuei agiri zaien amorrazioa.

osatzea: orretarako, erderaz edo lateraz, izen-zerrenda aundi-aundi bat egin, izen oiek zerbait azaldurik, eta gure Orixe maixuari bialtzea egoki litzaizueke.» Iritzi au Txillardegi asmatzearen kontrario purrukatu agertu ostekoa denez, ondo jakiniaren gañean idatzia dela esatera beartuak aurkitzen gera.

Iñaki Bastarrika etzen bildurtia. V-garren zenbakian «Txillardegi jaunari» karta agiri bat izkiriatu zion, idazle onen «Leturia-ren Egunkari Ezkutua» aitzaki artuta aren lanaren kritika egiñaz. Lanak ezezik, Txillardegi-ren zaharren aldeko jokabide osoa kritikatzon zion, areago. «Euskera-arazoa joera batek edo bestek askatuko dulakoan al ago apika? Arkitu al duk joera ori? Arraiopola! Barreia zak lau aizetara.» Oek eta onelako esaera zenbait geiagok piztu zuten etzabaida. *Jakin*-ek irikita eskeitzen zizkion ateetatik, abagune au alperrik pasatzen utzi nai ez-ta, gogor eraso zion Bastarrika gizajoari Txillardegi-k. «Zerorrek ikus deza-kezunez, etzenidan alperrik idatzi...», asi zitzaion Txillardegi erantzunean, maliziatia, ortzak erakusten bezala (VI).

Arrapostu latza Txillardegi-rena. Bastarrika-renari erantzun ezeze, fraille onek idatzitakoen kritika xehe ta zorrotza ere egiten zion. Txillardegi-k, euskera ikasi egin bear dela esaten, birresaten ta berriz esaten du lan osoaren luzaroan. Emendik eta andik ikasi. Erriari, euskal-erriari, Axular-i, Lartzabal, Xenpelar ta Mendiburu-ri, baserritarrei... «Zuek baztertu zerate bidetik ez gu.»

Eta euskeraren bizi-biderako (akaso ilberritzeko), errezetatzen dio: «Iru gauza bear dira euskera salbatzeko: Ikasi, ikasi eta ikasi. Eta beste iru baztertu bear: Asmatu, asmatu eta asmatu.» Txillardegi izkuntzarekiko laboratorio lanari alerjiko zaio: ametitzen du alare zerbait asma-tzea, euskera biziaren eta jatorraren arabera izate ezkeroran.

Zearo mallatuta utzi zuen Bastarrika:

«Zu, Bastarrika, euskeraren eriotzaren bidetik ari zera» (88).

«Zuk —eta zu bezelako guziak— euskera il nai duzute, zuen lagun-tzarik gabe ere arrixkuan ez balego bezela; eta asmo gaiztoz eta apropos ari zeratela pentsa liteke, euskera akabatzekotan noski!... Ezjakin utsak bakarrik eutsi ditzake zuen txorakeriak» (89).

«Zuk ez dakizu oraindik, gezurra badirudi ere, izkuntza bat ez dela jeometria» (89).

«Zuk, Bastarrika, euskeraren eriotza nai duzu oarkabea, eta bere galeraren bidean barrena zoaz» (91).

«Eta orrela erditzen dituzute gero geiegi ezagutzen ditugun zuen mamutzar otz eta iguingarri oiek» (91).

«Zuk ortaz, euskera egiazkoaren garaipena opa baduzu, zeure mordollo orren akabera eskatu bearrean zera» (91).

«...Ikasi egin bear dugu. Eta auxe da, dirudianez, zuk gogoko ez duzuna. Askoz ere errexago baitzaizu komentuko gelan sartu, eta asma-zio erotan astea. Noski!» (92).

«Zuek lur-jotzen ba duzute, euskera salbatu dela esan dezakegu; zuek garaituko ba zenute, berriz, egingo luke euskerarenak...» (93).

Orrelako bigunkeriaz ta leguntasunez errepikatu zion Txillardegik, zuka, Bastarrika-ren ika egindako idazki agiriari...

Artikulu-arrapostu onek berealakoan zalapartatu zuen ollategia: ta garbi naiz illun, gogor naiz biguntxeago, zuzen naiz zearka, auzi onetan eskua sartuta zipriztindu direnak asko izan dira; Bastarrika-ren erantzunaz gainera, konta ditzagun, Luis Mari Muxika, Aita Onaindia, Juan San Martin, Aurraitz, Ibinagabeitia-tar Andima, Orixe... Baiña jarri dezagun aparte ta denak baiño gorago: Joseba Intxausti.

VI-garren zenbakian bertan erantzuten zion Bastarrika-k arrezkero, gaurdaino, mutu gelditzeko. «Naiago nuke erabat ixildu eta gauzak geiago arrotu gabe utzi», asten zitzaion erantzun onetan. «Nik onekin amaitzeko asmoa dut».

Bastarrika-ren erantzunean, frasetxo onek arritzen gaitu: «Neri baiño beste norbaiti erantzuten ez ote diozun nago...» Eta orixe bera pentsarazten dit niri: «Asmatu, asmatu ta asmatu» orrek zerako au baitakarkit kaskora: «Itzok ia guztiok egilleak asmatuak dituzu» (I, 28). Gelako asmazio eroek «objeto ta kizun»-az saski naski ura, edo baita «Euskal filosofia tantoka»-n kausalidadea ta lau kausa kerak adierazteko euskerak dauzkan bideen azterketa xeble ura, eta abar. Bastarrika-renak ez baiño besteren batenak ditugunak. Txillardegik *Jakin* osoari idazten ziola esaten atrebituko nintzake. Eta nik, eskerrak emango nizkioke, ala balitz.

Eztabaida onek *Jakin* aldizkaritik landa izan zituen ondorenak bazterrera utziko ditugu, gure asmoa *Jakin* istudiatzea denez.

Nik uste dut Txillardegik, bere kontrako reazioa kausatu zuela lehenengoan, bere zakartasun eta gogortasunarekin. Reazio natural au indartzenago zuen oraindik Bastarrika-ren erantzun apal eta egokiak. Esana dudana Ibinagabeitia-ren antzera pentsatuko zuten askok. Ta Onaindia-k, entzungor egiñaz, kasorik egin gabe segitu zuen. Entzungor ala apropos? Bigarrena, nik uste, taktikaz, xehe-xehe. Ez entzuna egiteko trumoi borobillegia baitzen Txillardegirena. Au etzen asierako zalaparta nabarmen-dua baizik. Baiña kiebratik salbatu zuena Intxausti izan da. Kritika ura kanpotik zetorren-eta, Jakinlariak, geientsuenak, Bastarrika-ren alde ja-

rriko ziren. Tiro-soiñua etxe barruan sentitu zenean, berriz, beste kontu bat zen.

Laister muntatu zen bigarren billera, 1958-ko agorraren 10-ean; oraingoan majo astindu zituzten garbitasunaren eta Txillardegi-ren ganihetak ebakitako puntuak. Billera au, Txillardegi-ren iritzikoa ez baiño kontrako xamarra zela uste dut: «Jakintza-arazoa erabakiko bada, berriz, naitaez itz berriak erabilli bearra dago». Alare, esaera onek ba-ditu neurriak. Garbizaletasun, orain arte *Jakin*-en esparruetan soberano ta nagusi zebilkigunaren kontrako erreboluzioa asi da. Geroxeago garbizaleen frenteko trintxeramenduak atzera egiten asiko zaizkigu, nagusi zirenak morroi biurtzeraño. Txillardegi-k asi zuen *Jakin*-en tirotea. Gogorregi asi zuela? *Bear zen gogorregiaz, gogorregi bear zen-eta. Jakinlarien belarriak arras gogortuak baitzeuden.*

Garbitasunaz oraindik

Gure plazetan, aizkolariak marka ausiaz ebaki duenean enborra, ikusleak arriturik inguratzen dute tronko ebakia. Ta baten batek, kari-zia bezala, aizkorakadaren bat eman... Au gogoratu zidan Luis Mari Muxika-ren idazlan «Literatura bidean» VIII-garrenean argitutakoak. Lan onetan olerkari sakramentino onek euskal literatura europear literatura-ko joera ta korrienteei inkorpora dezaiegula eskatzen digu. (Txillardegi-k, VI, 87-88, esanaren bidetik, dudarik gabe.)

Leunago idazten du Muxika-k besteak baiño. Alare, jomuga berera irixteko: «Ez gaitezen zalekeri itxuaz, gure euskeraren zigortzailleak... Euskera ez da literaturarentzat, literatura baizik euskerarentzako... Gizartea bat besteren artuemanaz bizi da.»

Batez ere literatura airosoa nai luke Muxika-k, ta onetarako trabak apurtu egin bearko ditugu. «Zenbat bider ikusten ditugu xamurtasun gabeko idazlan zakar ta totelak. Idazkera orren erdoiak, gaurko irakurleari euskeraganako naskagura galgarri bat sortu oi dio». Bai, trabak apurtu: «Gauz egokiagoa da iru edo lau idea mamitsuzko idazlan txukun, dotorea, beste ogeita zazpiko illun ta gogorra baiño.»

Mogimendua martxan jarrita dago, ta *in crescendo* joango da, laister, Intxausti-rekin, gaillurrean bandera jaiki arte. Txillardegi-rena erreboluzioaren lertzea izan zen —*Jakin*-en diot—, ta onek argitzen digu ain kaskarreko gogorren zergatikoa. Txillardegi bere konzientziaren inperatibo bati jarraiturik portatu zen portatu bezala. «Arreta aundia merezi

du zure eskutitzak. Gaizki dabil gure izkuntza maitea zure itzai jaramonik ez egiteko.» (VI, 85)

Eta bukatzekoan: «Gogor artu zaitut, badakit. Eta pena ematen dit euskaltzaleen artean onela ibilli beararak. Bañan onelaxe egingo ez banu, eta egin dudan bezin zakar gaiñera, neure buruari egingo nioke saldukeria. Eta euskerari azkenik».

Erabat sinets dezaiokegu orrelakoxea dela kritiku zorrotz onen pena ta tragedia txikia. Nekez eta kostata artzen dena da erabakia: «Eta nik beintzat, emendik aurrera bigunkeria ta sasi-diplomazia guziai utzirik naspil iguingarri orri ez diot euskera deituko».

Joseba Intxausti-k biurtuko zuen erreboluzioa gerra formal.

Intxausti-ren erasoa. Jakin-en barnetik sortzen da argia.

Intxausti, ez da dudarik, etzen bakarrik sentitzen. Ba-zekien orduko dexente zirela konzientzia erne ta bixi bixi zeukatenak. Ta lurpean zebillen indar au batu ta *Jakin*-en etorkizunean indar egin zezakean bretxan eraso bear zela pentsatu zuen. Eta ongi pentsatu, ausnartu ta neurtu ondoren, asi zuen bere ofensiba IX-garren zenbakian. Ain zuzen, lankideen laugarren batzarrea bildu aurreko errebistaren argitaraldian.

«Illobira bultzaka» tituloarekin agertu zen bukaera bildurgarritzko artikulo sonatu ta ondorenetan jori au: «euskal-idazle: *ixil zaite*, zure euskera odeitarrez, euskal irakurleak urritu ta gure izkuntzari semeak kentzen saiatu nai baduzu. Arren!!!»

Noizpait kontatu didate operazio oso zailak eta arriskosoak egiten dituztenean, medikuak sekulako maldizio soñuan egoten direla kirofanoan, nerbioen ezinegona karraxietan ustu nairik-edo. Eta au, medikuei on zaie ta on zaielako medikuei, baita gaixoari ere...

Jakin-en bizitza laburrean pubertadea (barka, jaunak!) ta gizon egitea seiñalatu bearko banitu, ta aurtzarotik banatu, ezertxo ere dudatu gabe jarriko nuke momentu au Txillardegirekin suspertu ta Intxausti-k eutsi, jaso ta superatutako krisian.

Ez ditut emen pubertadearen azalpenak *Jakin*-en prolemara aldutuko, gauza kuriosoa izango balitz ere auxe. Esango dit norbaitek, bana-keta au arbitrario ez ote litzakean, eta nik erantzungo diot baietz, arrazoia duela, arbitrario litzakeala. Baiña gizonaren bizitzan ba-den bezalaxe, nire ustean ba-dela *Jakin*-en bizitzan ere diodan banaketa au markatzeko arrazoi ta oiñarririk, naiz mintzaira edo idazkeraren aldetik begitu ta

juzgatu, naiz gaien edo temarioarenetik egin. Eta *Jakin*-en bere denpora guzian neurri bat, eskeleto bat, izpiritu bat (bein esan, jomuga bat) izan duela esaten datorkidanari, orobat, baietz errepikatuko nioke, baiña gizonaren konsistentzia, batasuna ta batasunaren iraupena izan arren, denok ametitzen dugula arentzat partitze ori, zergatik-eta banaketa onek —ez baitu batasunik urratzen—, ez dioen begiratzen esentziari, bai ordea, moduari.

Joseba Intxausti da *Jakin*-en garbizaletasunari (keriari?) sekula santako pasara-egurra ta milla koloretako jorratua eman dizkiona, IX-garreneko ta urrengoetako saioekin. IX-garrenean aitortzen digunez, noizpait kontrako bidetik ibillia dugu. Ta konbertituaren karrez ekin dio, titulutik asita aldenik aldean azkeneko puntaraiño terrorismoaren kea darion lanarekin.

Idazlan onek amaikatxo erre-min kausatu bide zuen bazterretan. Ta akaso, Intxausti bera, latzegi portatuaren kezka gelditu da. Akaso, diot.

Alare —ta frutuengatik neurtzen dut— jokabide oni guztiz konprengarria deritzat, eta txit zuzenbidezkoa (eta nire kolkorako, probidentziala). Intxausti-k orduan zuen ikuspegia duen batentzat (alegia, garbizaleek euskera illobira bultzaka zeramakigutela) ez da kabitzen beste jardukizunik. Denok entenitzen dugu apreziaziño onek merezi ta bost zuela aserre on bat. Bi urte geroago, ta beste zerbaitez mintzatzen delarik, Intxausti-ren jokabideari arrazoia ematera dator Txillardegi zerako au idazten duenean (XIV, 52): «Euskaltzaleon artean, eta euskera iltzeko zorian dugularik, ez dugu eskubiderik egia alkarri orraztutzen edo izkutatzen ibiltzeko. Jakin egin bear dugu euskaltzaleok nun gauden, zertan geran, eta euskeraren aldeko gure alegiñak zein maillatakoak diran».

Intxausti-ren idazlana zenbateraiño izan zen ongarri, ikastetxeetan emanerazi dituen frutuengatik bakarrik neurtu ahal izango litzake, seguraski. Baiña au, ezin neurtu da. Andik sortutako eztabaida, eskatima ta armoniak erre zuten, eta auts xehe biurtu, frantziskotar ikasleonean artean beñepein, garbizaletasun guzia. Gaur ez da arrastorik ere.

Intxausti-ren arrazoiak: illobira bultzaka ari zerate!

Artikulo onetako aunitz ideia, orijinalak izan ez arren, argumentatze osoko gorputzaren atal izateko jator elkartuta daudelako, indar berezi batez kargatzen ditu Intxausti-k. Orregatik, eta orijinaltasunak emen ardura aundirik ematen ez digulako, ez naiz seiñalatzen arituko, au Txillardegiri zor dio, beste ori Villasante-ri, edo angou ura zerako zerari. Txillardegirekin, geixeago, eztabaidaren batasun aria ikus dedin.

«Ba-dakit lantxo onek norbait baiño geiago zauritu dezakeana: ixildu egingo aal naiz, ordea? Ez, euskerak bestela eskatzen duela uste bai-

dut»... (Apostoluek presondegi osteko auzitegian ziotena gogoratzen digu: *non possumus non loqui.*)

Intxausti-k, erretxin, asarre ta iskanbilla guzien gaiñetik, itzegitera bearturik ikusten du bere burua, «Terenzio-ren ura beteko bada ere: *veritus odium parit*». Onetan, ez da bakarra izan, Orixe-k ere berdin berdin egiten baitzuen (XV, 47): «Adiskide Autorek, adiskide Altube, adiskide Lekuona, adiskide erria: baiña adiskidego egia», zionean, Aristoteles-i erasten zaiona beretuaz.

Eta ez du balio denok borondate onez gabiltzala esateak. (Andima Ibinagabeitia-k VII-garrenean zion: «Garakoak eta bestelakoak, ez ote dugu berdin xamar maitatzen gure euskera errukarri au?») Ezen ez baitu borondate onak ezer egiten, adimen egian jasoak gidatzen ez duenean. «Borondateak egiaren serbitzari izan bear du», eta borondaterik onenak edozein ezbear zital erakar lezaiguke —borondate onenarekin!— egiaren kontra dabillenean. Eta zitalkeriazko ezbearrik negargarriena auxa da: euskal literaturaren jauregia, «barrua txukun eta garbi gorde dedin, biztanleak —euskaldunak— uxatu egin ditugu, eta jauregi dirdaitsua museo biurtzeko asmoa artu»... Eta museoak ez baiño fabrikak eta laboratorioak eskatzen ditu Intxuasti-k: «bizitza, bizitza bear da» (Txillardegik, VI, 88: «Gu ez gera, zorionez, Añemendian dantzan ari den erria. Ezta gutxiagorik ere».)

1. «Erritar euskal-literaturak ez du euskera salbatuko» (85). Double arrazoi dauzka Intxausti-k au esateko: praktikutasunaren eta mimetismuaren bi legeak. (Naiago nuke nik praktikutasuna idatzi, baiña praktikutasuna idatziko dut beti, irakurlea bi moduok nahasiaz nahastuko nukealako. Intxausti-k praktikutasuna baitio berean.) Azal ditzadan biok laburki: gure munduak praktiko etzaion guzia bazterreratzen du, ta euskera garbi konserbatu naiaz uretan pasatzen badugu momentu bakoitzeko, erreuma artuko digu artu ez badigu dagoeneko, ta orduan erriak traste zaharren zokoan ahaztuko du, egiten ari den bezala. Bigarren: jende arruntak «señor don»-en itxurak segitzen dituzte, au da mimetismua.

2. Euskeraz idatzi dugunean zer egin dugu? «Zenbait idazleok euskera, puxka bat ikasi ta idazteko prest geundela uste izan dugu. Zer idatzi, ordea? Euskera? Onatx izkuntza-formalismua deitu izan dana» (86). (Txillardegik: «Askoren ustez, euskeraz izkiriatzekoan, izkuntza landutzeko idatzi bear omen da. Alderantziz diot nik: zerbait esateko idatzi bear dela». VI, 88)

3. Izkuntza bera balio absolutu biurtze faltso onek egin digu kulturaren alde egindako apurra gaizki egiña izatea. Kulturaren alde egin-

dakoa, gutxi, oso gutxi, da Intxuasti-rentzat (eta edozeinentzat), eta gaizki, oso gaizki (84).

4. Kultura egiteko ez da naiko idaztea, irakurri egin bear da. Baiñan gauza jakiña denez, gu ez gaituzte irakurtzen euskaldunak, ezin gaituzte ulertu-ta (87).

5. Euskal literaturan monopolioa ta sibaritismua akusatzen ditu Intxausti-k: «Nere ustez, euskalzaleentzat idatzi oi da eta euskaldunok ez dugu ia euskal kultura idazlerik: euskera, alor ontan, euskalzaleen monopolioa da. Euskalzale auek izkuntza-sibarita batzuk baiño ez ditugu».

6. «Ba-dira gerorako lanean ari gerala esaten dutenak ere». Arrazoi ustel au onela artzen du Intxausti-k: «...orduan —binbitartean euskerazko kulturarik izan ez badugu—, euskaldunik izango aal da munduan?» (87).

Euskalzale guziok bat gatoz kultura prexixo bear dugula aitortzean (1). Oinarrri onen gaiñean eraikitzen du Intxausti-k euskera erreza-ren aldeko argumentazioa. Sei puntutan laburtuko dut nik.

1. «Kultura egin nai badezagu, irakurleak ugaritu bear ditugu leenen (86). «Ez da aski idaztea, kultura sortzeko: irakurleak bear dira orretarako erruz» (87).

«Ta au lortzeko euskera erreza bear da: erreza, erreza...»

2. Euskera altu altuegiak, «odeitarrak», irakurleak urritzen eta bakantzen ditu, beraz euskeraren etsai da, kulturaren etsai delako (83, eta lana zear nunai).

(1) Orixe ez besteak. *Jakin*, XIV, 33-34, dio orixe-k: «Edozer iakite-gai erabilteak emanen diola euskerari bizia ta bizkortasuna? Zozokeri galanta! Literaturak ere ez. Zoazte Grezi-ra, ta olako filosofia ta olako literatura ukan arren, bizkortu al da erri izkera? Nola utzi dute kaxkartzen eta endakatzen? Naigabe emaiten du gaurko ori entzuteak.»

Orixe-k ordea, gauza bat izkutatzen edo ixiltzen du: Grezia-k duen gaurko izkuntza, eta filosofia ta literatura goresgarri oietakoa, bizi-urrunetik eta desberdindurik daudela. Beraz, Grezia-ko mintzairaren mixeria, izkuntza aberats eta arrokeriaz bete arek erri gizajoaren eboluzioa jarraitu nai ez izatetik sortu da. Gaurko griegoak, guk bezalaxe, garbitasunaren prolema daukate, ta aiekin literatura goi-goizaleak izkuntza agonian edo ortxe ortxe jarri bazuen, guk begiak iriki ta ikusteko gauza da orixe. Entzun dudanez Niko Kazantzakis idazlea, mundu guzian bere idazkera paregabeagatik goratua den bezain beheratua da bere Grezia-n, garbizaleek beheratua, alegia. Eta orra: inglesak Kazantzakis-ek Grezia-ko erro izkuntzak omen dituen turko ta mordollo guziak tipi tapa artu ta literaturan sartu dituelako txalo zartaka... Ta onek bai, bai orixe ta bai Orixe, bizkortzen du erri izkuntza, enteratuak esaten digutenez, ta gaiñera prestijioa ematen dio izkuntza bati. Talentuak asko moduzko lurretan ez dute erretzerik, eta simaurretan ereiten dituzte beren buruak...

3. Euskera garbi, txukun orrek ez digu bizitzarako gaitasunik eskeintzen, seiñorita alakoa, beti zikindu bildurrez baitabil, onelako ta alakotan eskuak sartzeko izuz. Etxe-gauzetako bai, baiña «cashero» ez diren gauza askotarako bear dugu euskera. Plazarako. «Bizitzaz, lantegiz, laboratorioz, jakintzaz» bete bear dugu euskeraren erreñua (83).

4. Izkuntza elkar ulertzeko da, ta perogrullokeria au, ahaztu egi-ten dugu. Izkuntza da «lagun urkoari gure barnea erakusteko daukagun bide bat eta bideetan egokien eta errezena» (84).

Premisa oni bidezko ondorenez eratsi ta atera genezaioke au: «Izkuntzak ez du balio absoluturik; berez, erlatibua da». Ta onek bere inportantzia dauka Intxausti-ren arrazoiketan.

5. Erlatibutasun onen ariak praktikutasunarenekin konektatzen dira, ta aietatik artzen dute argia ta indarra. «Kultura-praktikutasunak bakarrik salba dezake gure euskera, ta idazkera ulertezin ta nekezak nola emango ote dio praktikutasun ori iltzeaz daukagun izkuntzari?» (88).

6. Erri baten izpiritua ta izkuntza «alkar itsatsi ta josiak» daude. Ta izkuntza orrek bere eginkizunari ta naturalezari berari traizio egin gabe, ezin planto egin lezake, kondairaren momentu batean, erriaren ebo-luzioari ta kondizioei egokitu nai ez duela-ta. (Argumentu au praktiku-tasunaren besteaz nahastu xamartuta dakar Intxausti-k.)

Premisa oek guziek ondorena berez dakarte:

1. «Euskera kulturaz bakarrik salba dezakegu» (84).

2. «Kultura au lortzeko: Gaiak gaurkoak eta euskera errez-erre-za» (86).

Au probatu ostean, Intxausti-k bere burua konzientziak eskatzen dion eginkizun mingarrira botatzen du: «Ortik jarraitu nai badugu, ixildu gaitezen bein betiko, euskerari egundoko mesedea egingo baitiogu. Ixil gaitezen!» (87)

Emen presentatzen dudau au ez da eskemaren ezurra besterik. Irakurleak ondo egingo luke, ahal dezanean, Intxausti-ren beraren lana irakurriko balu, bere saltsatan dituen ezker, an, argumentu ta objezioen erantzun eta gaiñuntzeko.

Intxausti labe-zaitza lanean.

Aldi bateko zeregiña ba-zuen Intxausti-k «Illobira bultzaka» zorione-ko idazlanarekin asitako betekizuna burutu arte. Berriro urrengoz gai beronen gaiñera itzulirik, zenbait arrazoi geiago jaulkitzen dizkigu X eta XI-garrenetan. Artikulu au Urretxu-ko pasionisten Euskal-Akademian denporaldi bateko eztabaiden mamia izan omen zen.

«Ortega-ren bizitz-errazoimena» saio filosofiku⁴ idatzi zuen Intxausti-k «Illobira bultzaka»-ren urrengo. Teorizatu duena egiztatu, gauzatu nai du. Ta, «Ortega, beraz, gaurkoa da», asten zaigu. «Gaurkoa baduk, zergatik esan? Ez legokek esan bearrik», kontra esango lioke norbaitek. Delakoak Intxausti-ren egiazko motiboa ahaztuko luke, edo ez luke ondo konprenituko. «Ortega, beraz, gaurkoa dugu», esanaz, au esaten baitu azpitik (seguruena konturatu gabe): eskatzen nuen gaurkotasunaren konplimentuz idazten dut au; eta esan gabe: euskera erreza egin nai ere dut. Muestra bat presentatzen zigun, beraz.

Euskera garbiarekin Intxausti-k zer eskatzen zuen lehendik zeukan agertuta. Ala, X-garren banakoan Orixe-k, Intxausti-ren IX-garreneko «Izatearen azterketan» lanari («Illobira bultzaka»-rekin batera argitaratu zen au, biak IX-garrenean.) kritika batekin erantzun zezaiokean, oartxo batekin bukatzeko erantzuna. (Eztabaida onek *Egan*-en jarraitu zuen.) Orixe-ren oarra, eginda zegoen errespeto ta gozotasunagatik Intxausti-renaren aldean, kontrastez, destakatzenago zen: «Barkatu, A. Intxausti, baiña, zergatik ez saiatu, euskeraz ditugun itz ederrak erabilten, erderaz-ko itz arri elkortu edo fosil zantar oiek alde batera utzirik? Euskera garbiz, euskera garbi amorratura io gabe, esan ditezke eunetik lauorgei ta emezortzi».

Orixe-k au billatuko zuen ala etzuen, ez dakit. Baiña Intxausti-ren lana deuseztatzeko manierarik egokiena auxa zen. Bentaja asko baitauzka maliziak, aingeru jazten denean.

Intxausti etzen bildurtu ta bere jokabidea errealdadean zimentatzen dela probatzen saiatu zitzaion.

1. Nik onela idatzi bear dut. Euskerarik ez dakidala esango didazu, ta orregatik dela, ta egia diozu. Baiñan beste orrenbeste gertatzen zaie «euskera ikasten urteak daramazkiten eta erri-errian bizi diran beste batzuei ere».

2. Eskolarik ez daukagu, ta falta au idazleak bete bearko du ala ez du iñork beteko. «Ba al dugu izan bear luken, baiña iñun ez dan goiko euskera ori iñori eskatzeko eskubiderik?» (X, 72)

3. Auzi onetan Euskaltzaindia jartzen du judikatzaile Intxausti-k. «Ni ez naiz nor ezer erabakitzeke, Jainkoari eskerrak ontarako ba-dugu Euskaltzaindi bat». Ta orrengana apelatzen du.

Urte artako billeran sekulako iskanbilla, zalaparta, istillu ta demonioa franko ibilli izan bear du, antza denez...

Euskaltzaindiari egindako rekursoa etzen Orixe-rentzat baliagarri. Orixe-ren iritzian, *Jakin*-en IX-garrenean azaltzen digunean beintzat, Euskaltzaindia lardaskazale batzuen dela baitirudi (90-91). Gaiñera, *Jakin* X-garrena Euskaltzaindiari eskeiñia zegoen, ta aren Atarian esandakoen kontra jaiki zen XI-garrenean. Ikusagun. «Betoza norma zuzentzaileak. (Euskaltzaindiaren euskal itzei buruz ateratako norma aien denporakoa da.) Yarraiz zure maixutza ortan, entzun-guraz gauzkazu-ta», zion *Jakin*-ek.

XI-garrenean Orixe Euskaltzaindiaren eginbearra ori ez dela probatzen saiatzen da. Onen egitekoak mugatzen ditu, gero «il zan Academiak» eta Akademi-semeek egindako lanak aipatzeko. Euskera zailla egiten omen zutelakoa saiestera dator urrengo («Ez *Yakin*-en bezain zailla»): *Jakin*-en bidea beraietxena dela ta ez besterik, esanaz bukatzeko: «Gure bidetik zoazte nai ez ba'duzute ere, bide ortan pauso berdiñak ematen ez badituzute ere» (84) (1).

Intxausti asitako lanean leiatzen da, beti aurrera. 1959-ko EUSKERA-tiko Villasante-ren «Bizitzatik urbil» eta Txillardegiren «Batasunaren bidea» laburtuaz aprobetxatzen du okasioa XI-garrenean.

Txillardegiren jasotako usuarioaz dioenari oartxo bat. «Irizpide zuzen bakarra: *usadioa*». Orixe-k berriz (ez Intxausti-ri zuzenduta), XV, 47-an: «...Beste arrazoi bat atera dezake (Altube-k) alegia, errian oso sarturik dagoela, ta gaugerero ez ditekela kendu; eta beste izkuntzetan gerta oi dana, oker sarturiko itzak eta esaerak ere, lege berri baten bidez gainzuritzen dirala: *el imperio del uso*... Nik au erantzuten dut: *error corrigitur ubi deprehenditur*, au da, arkitzen dan une berean zuzendu bedi okerra.»

(1) Etzuen beti onela pentsatu Orixe-k. Bi zenbaki lehenago beste au idazten zuen: «Ba-dira gazte bakar batzu, gizaldi berri ontan, euskerari lotsarik ematen ez diotenak; baiña kuku beste lardaskazale oriek!... Abismua, firmamentua, reptila, realidadea, aktibidadea, positibua, negatibua... zer da ori? Euskeraz ederki esan ditezken gauzak.»

Txillardegiren kritikak Bastarrika etzen norbait gogoratzen zidala esan dut. Ba Orixe-ren itz oek, an nionaren lan batetik artuak dira.

(Laburtzapen onen bitartez elkarri urbildu ziren Txillardegi ta Intxausti XII-garrenean elkarrekin agertuko zaizkigu: «Txillardegi-rekin solasean» interview onetako ideia geienak ezagunak ditugu dagoeneko ta ez ditut berrituko.)

Bere jokaera burubidetzen eta esplikatzen duen zati au kopiatzen dio Txillardegi-ri, laburtzapena egiten ari zaiola: «Alegia, pakea egin bear omen dugu gure artean, pakea bakarrik... Urteak pasata ikusiko omen da zeïnek zuen arrazoia... Zalaparta gorri bat ikusita ta ura tajutu naiean, nork esango luke: «utz, utz, zeïnek duen arrazoia geroak esanen?» Iñork ez. Gure artean, ordea, askok» (88).

Beti donostiar nobelista gaztearena laburtzen, teoria ta apriorismuen ordezk datoak eta errealidadeko egiak nai ditu (1).

Eztabaida aurrera doa, ta zabaltzenago ere. «Zeintzuk dira euskal itzak?», galdetzen du Kamiñazpi-k XIII-garreneko idazlan batean. Au prest dago, bai neolojismo asmatzeko ta bai erderatik artzeko, ala komeni zaigunean.

Ez dago konforme euskal irakurleen urritzearen kulpaz garbizaleei bizkarreratzeko orrekin, «arrazoi aundirik agertu barik».

Ezta Bidaso-z andikoak eskeiñi dizkiguten ereduak garbizale griñarik ez omen daukatelakoak ere, ez du asetzen. «Ango euskalzaleen jokera orri gora-bera, an be galtzen doa euskeraz».

Turkoa jarri digu eredu, Bastarrika-k eberkera bezala. Onekin probatu nai digu nola izkuntza onetan sustraitu dituzten bai ideia berrien azaltzeko itz frantsesetik artuak, bai neolojismo ta lokalismuak. Oar bat alare, Kamiñazpi: ez duzu pentsatzen turkoak gobernuaren laguntza ta eskola ofizial bearrezkoa ba-zeuzkala euki oiñarriztat?... Gaiñuntzekoz, zuk «atolondradua», «avarua» ta oietzaz argia baiño arrazoi argiagok diozuna J. M. Moguel-en *Peru Abarka*-ko «culto casero» xelebrearen sakea gogoratzen dit: «Ze berba da desberguenza? Nik ez dakit. Esan gurako dozu lotsagabekerija. Egizu bada berba euskeraz». (Diálogo Primero.)

Garbitasunaren inguruko eztabaidak errebistaren orain arteko bizi-tzak baiño geiago iraun nai du. Azkeneko bi banakoetan Aurraitz gogor

(1) «Los grandes sabios tienen siempre una profunda honradez intelectual. Si-guen a la realidad a donde ésta les lleva. Nunca tratan de sustituir sus propios deseos por hechos, o de ocultar estos hechos cuando resultan enfadosos. El hombre que desee contemplar la verdad tiene que establecer la paz en su interior... No obstante, las actividades afectivas son indispensables al progreso de la inteligencia. Pero sólo deben consistir en entusiasmo, esa pasión que Pasteur llamaba «el dios interior». El pensa-miento no brota sino dentro de aquellos que son capaces de amor y de odio. Requiere la ayuda del cuerpo entero, junto a la de las demás funciones mentales.» Alexis Carrel, *La incógnita del hombre*, «Las actividades mentales», IV, 6.

jardun zaigu «mordoilutzale euskera-zikintzaileen» kontra. Ta XIV-garreanean baino XV-garreanean gogorrago: «Nora eroan gura gozuez?» izenburu aldrebeseko lan bixi-bixi batean. Emen, aitatzen ez duen bilbotar jaun baten kontra errabiatzen da (bistan da zein den). Villasante-ri ere botatzen dio bere eztenkada, «nola» anaforiko bat mediante ta komedian-te: «zer dala-ta, ze zentzuaz baztertu, ba, adiskide, geure errietan ikasi genduan joskera garbi ta jatorra, benetako euskeldun zintzoez ulertu ez daikien beste lorrin eta motz orren orde, antxiña txarto idatzitako idaz-tien batzuetan aurkitu dozuela-ta?». Luis Mitxelena-ren aurka itzultzen du, azkenik, bere erretolikaren bulketa: «*Deun* asmakizuna danik ez daus-tazu esango, gizona... Obarik asmetan dabe lorrinzaleak!»

Kerexeta jartzen digu eredu, «olerkari goenengo onen idazkerea». Ta maixu kontuen bidetik, Orixe-ren zita bat dakar: «Arriandiaga ta A. Urrutia ur gardena dira zuen aldean» (XV, 73).

Ezer garbitu al da? Baietz esango nuke nik. Jakinlari geranon ar-tean —au da, *Jakin*-en jaio ta pittin bat bizitakoetan—, garbizaletasunak zeregin gutxitxo ez ote daukan nago. Gure gaurko postura Juan Azur-mendi-ren «Desarmeari begira» reportajeak daraman sarreran ageri da:

1. Gaiaren aldetik: gaurkotasuna.

2. Izkuntzaren aldetik: erreztasuna.

«Gaurkotasun aundiko gaia iruditut zait... Itz berriak asmatzen ez naiz batere saiatu. Errex ulertzeko moduan jardun naiz» (XV, 52). Ez al da auxe Intxausti-k eskatzen zuena?

Garbiak ala zikiñak gora, ta errezak eta nekezak behera, makiña bat esaera muturbeltz eta serio bota bada, azkenean ba-dirudi alimoak zer-bait lasaitu direla. Kontu-jario onen lepotik parre egiten digu Olaberria-k: «Garbi esan, *errealismu sozialista* (nola esan au euskera errexean?...)

Ni neu, Txillardegi-ren aurretiko *Jakin*-etan garbizaletasuna bigun-tzen doalakoan nago. Berez eta naturalki egiten ari zen eboluzioa. Orain, Txillardegi-k Bastarrika-ri —*Jakin* osoari— emandako kaskarreko latzak bizkortu ta azkartu erazi zuen eboluzioa. Ta Txillardegi-ri berari ainbeste zor zaion eboluzio au, berberak ere nabarmen ikusten du lehenengoetatik azkenekoetara (XII, 81).

Jarrai beza *Jakin*-ek aurkitu duen bidetik. Ta segi dezaiola Orixe-ren dei ari: «Segi aurrera, *Jakin*-eko idazle gazteok... Ekin, autsi, urratu!»

Teknika ta kultura itzen kontua

Jakin-en firma asko agertu dira. Inoiz zerbait ba-zela tristuraz gogoratzan duen Jauregi-tar Koldobika edo Zaitegi-rekin asi, ta Orixegandik aurrera, oni apaltasun gozoz erantzuten dion Kamiñazpi-ren grazia paregaberaíño, bide aundia dago, ta bidazti askoren atzak.

Orain, oiek denak alde batera utziko ditut nik. Noizean bein aipatuko ditut, egitekotan, bakarrik.

Jakin kultura errebista bat zen ezkerro, kultura itzen prolema bixi bixian eraman du, ta jakiña, kultura itz asko erabilli bearrean aurkitu da. Batzu neolojismo, bestetzu, erderatik artutako. Nundik asi?

Koskarik nabarmenena eskapismoari deritzat, neolojismo asmazioen defektorik okerren auxe baita *Jakin* guziaren utsik traketsena ere. Uts onetan geienok erori gera noizpait. Ari gera idazten, ta ba-datorkigu lumaren puntara itz bat... eta, erdera kolorea daukala-ta, beste baten billa joaten gera. Konforme, ez dagoela beti gaizki, literatura izkuntza landu ta aukeratua dela ta ori denarekin, konforme. Baiña beste askotan egiten dugunarekin, ez. Itz elastiko ala-olako bat aukeratu, edo asmatu, ta ospa zailtasunaren pasaizotik. Baiña itz ori ondo estu mugatu nai duzunean, zeatz ulertu nai duzunean, orduan kito!

Mamia, ta *muíña* ta *gunea* ta *esentzia*, izenkideak ote ditugu, sinonimoak? Ba, joan zaitez, joan, baten bati zenbat gustatzen zaion *mamia*! *Esentzia*, ordea, ez da jateko ona. Ta *mailla*-rekin naiz *bide*-rekin, zenbait estualdi ez ote ditugu erremediatu.

Beste zenbait itzek ba-dirudite zernaitarako egoki direla... Ona emen esanai zeatzik gabe erabilli ditugun itz batzuek:

Zuzenbide: principio, justicia, exactitud, dirección, legitimidad.

Gizatasun: humanismo, personalidad, humanidad (Jainkotasunaren aldean).

Argibide: ejemplo, demostración, explicación.

Aurkakizun: objeción, adversidad, dificultad.

Edo berdin gertatzen zaizu *azaluskeria*, «hipocresía» zela (?) uste zenuen orri zer eta «superficialidad» ulertu erazi nai dizutenean (Gaztañaga, III, 60). Ta *azaluskeriaz* diodana berritu nezake *gotzaintzaz* (IV, 8): «pastoral», ta ez «episcopado». *Gotzain* «obispo»-ren asmatzailleak bazuen, aren arrazoiak baliatu da Balerdi. *Saletxe* ere asko altxatu digu kategorian, Daniel Bastarrika-k (XIII, 47), «comercio» esanerazten baitio gaur artean besterik esan nai zuen itz orri.

Adimenzale-ren bitartez esan ditugu bi gauza elkarrengandik urbil bezain urrun dabiltzanak: «*intelectual*», «*racionalista*».

Gotzai ta *gongotzai*, onez ala kaltez, baiña dextente zabalduak daude. Baiña Aranzadi-ri etzaio atsegin inñundik ere bigarren modu au, ta *Goi-gotzai* biurtu digu, zirujia estetika abil batean. Ta ez dirudi kopia uts, ezen, birritan idazten baitu orrelaxe, zerbaitegatik izango da.

Zer-izana, *izana*, *izatea*, *gauzaki*, *izaki*, *gauzatasun*... oiekin zer esan nai dugun definitzeko garaian, eskolastikaren «*distinguo*» xorrotx aien ortzetan, gaizki zukutzen dira. Itzak, idazleak bezala, beren biografia dute, ta onen falta nekez salba ditek: neolojismoak daukaten beaztoporik agian okerrenera berauxe izango da. *Gizarte-arazo*, esate baterako —ta onek ba-du kondaira pixka bat besteen aldean lujo aundia permiti lezaiokeana— larri larri pasatzen da erderazko «*cuestión social*»-aren ondoan. Norbaitek edozein gizarteko arazotarako erabili du, ta zeiniek esan ari ezer.

Ba-nengoen bein Rikardo Arregi-ren «*Kant eta Balmes jakinduria-ren asieran*» irakurtzen eta bukatu bezain laister ekin nion urrengo zetorren Eusebi Osa-ren «*Elizarenak egin ote du?*» artikuloiari. Txundituaren txundituz gogortuta gelditu nintzan, grazia analitiko misteriotso batekin topatu nintzalako ustean. Au idazle moderno amorraturen bat diagu, pentsatu nuen nik nire artean. Baiña zera! Osa-k *esker banatzaillea* esatean, eskerrak banatzen dituen esan nai zuen. Baiña ni Arregi-renean *banatzaille* itzarekin *analitiko* (Kant-en judizio analitikoak) ulertzen oiturik netorren, ta ori kontua...

Edo zer esango zenidakete dela *eginkizun*? Arantza-rentzako posible da, ta ezin ukatuko diogu jeneralean eginkizunak posibleak izaten direla. Onen moduan, *ikasgarri*, *ikusgai* ta *ikuskizun*, denak nahasian dabilta ibilli zarpa jario, sufijoen esanaia bear bezala ezagutzen ez dugulako. Ta gauza batzuetan aberatsak ez bagera, beste zenbaitetan erregalatzeko lain daukagu. *Infiel* adierazteko, ta sustrai bakarrekoak baiño ez kontatzeko, ona sail bat: *sinisgabe*, *sinisgabeko*, *siñisge*, *siñistegabeko*, *sinismengabeko*... Eta ezin ahaztuko dut Joan Gurutz Eizagirre-k darabillkigun *ziñezko* arraroa. Egia, parentesi artean esplikazioa —pagano— aldemeneratzen dioela.

Eundaka ejemplo atera nitzake, baiña naiko izango ditugu zeaztasun falta erabatekoaren ejemplo bi: *egige*, Aranzadi-k «*falso*» (II, 68) baiña Joxe Austin-ek «*patiens*» (II, 73). *Aldakorra*, askok, «*mudable*»; Otaegi-k, «*relativo*» (II, 85). Uts au garbizaletasuna bigundu ala —ta garbizaletasunarekin asmazioetako grifa—, gutxiagotzen joan da.

II-garreanean, idatzitako lanari, ondotik, erabilitako itzen azalpen iztegitxo bat erantsi zion Joxe Austin-ek, oar onekin: «*Idatz-lan sorotik*

atera ezkero itz auek beren indar guztia galdu lezakete». Emen oiñarrituta, jokabide au zenbateraiño zaigun kaltegarri ikusirik, III-garrenean «Jakintitzak» titulorekin kritika bat agertu zuen Pernando Mendizabal-ek: jakintzan ez dagoela au egiterik, esaten digu bertan, eta euskerazko itzik ez badaukagu, alakoak asmatu ez baiño erderatik lasai lasai artu egin bear ditugula.

Gutxi gora beherako itz ok ugariegitu zirelako, ta belar txarra sus-traitik ateratzeko, Jakinlarien lehenbiziko billera (IV, 89) erabaki zu-ten, idazkera batuko bada premiazkoa dela-ta, idazle bakoitzak, erabiltzen dituan itzei beti esanai berdiña emateko. «Gertatu ere askotan gertatzen baita, artikulua bertan itz bat esanai askokin erabiltzea». Ta nork ulertu babel ura.

Azkue-ri parre eragiten omen zion *zergati*, «causa, razón», adieraz-teko erabiltzeak. *Jakin*-ek filosofia lanentzat sail berezia zeukalarik, bis-tan da arrazoitazuna ta kausatasuna ager zezaten itzak parra parra bear zituela. Ta itz oetan erabilliena *zergati-zergaiti* izan da: Joxe Austin, Da-maso, Pernando, Ulazia, Intxausti, Gaztañaga, Eiheraberri, Lukax Dorron-soro, Bereziartua, Felipe Izagirre, ta nik uste, bear zuten denak baliatu dira *zergatiaz*. Rikardo Arregi-k «zergatik'a» esaten du (XV, 40) ta nik «zergatikoa» (XIII, 70) memoriak laguntzen badit Txillardegri-ri iraku-rritakoa.

Erderatik ekarri ditugun itzak era askotara sartu dira *Jakin*-en mos-tradoreetan. Komeni litzake onetan norma bakarra ezartzea, ta noizpait, bearbada, egingo da, batasunaren onerako.

absoluto, absolutu, asolutu (Berdin *astrato*...).

presenzia, presentzia.

arrazoi, errazoi (ta oetatik atereak).

extasis, estasi (*Krisis, krisi*).

konzeziño, konzepziño, konzeptu, konzetu, konzepto.

sentido, sentidu (Leizarraga-ren *sensua* ez dut beññere aurkitu).

prolema, problema.

kualidade, koalidade (Joannes d'Etcheberry ta beste gure zaharren *kalitatea* ezta agiri).

diferente, liferente.

aproxatzaille, probetxu, protxu, probetxugarri.

natura, naturaleza (latiñetik ala espaiñoletik artu).

entenditu, entenitu.

Lista au azkengabea egingo genuke erdal jatorriko euskal sufijoaz euskeratuak aipatzen asiko banintz: *sentikor, sentigarri: erlatibitate, erla-tibutasun*...

Fonetika

Jatorrizko moduari albait geien eutsi nai ziotenak *agresivitate* (?), *intellektual* (Etxebeste), *Universidade* (Bastarrika) *problema*, *brevilineo* (Daniel Bastarrika), *inventatu* (Etxebeste) idatzi dituzte.

Felix Aranzadi-k (II) *philosophia* idazten du, ta lehenengo zenbakian asko irakurtzen dira onelako *philosophi*, *theologi*, *systemata*, *phisi*, eta abar.

Alare, Jakin-en ia denok idatzi ditugu *filosofia*, *teologia*, *metafisika*...

Ba-da bereizkuntzarik: *pilosopi*, *pilosopu*, *pilosopukiro*, esango lizukete Gaztañaga batek, Luis Mari Muxika batek edo (*pilosopu* ordez *jakin*zale naiago duen arren) A. Albizuri batek.

Orixe-k *metapisika* (*metafisika* ere) idazten du. Ta *revista*. Gaztañaga-k *pilosopi* ta *metapisika* bai, baiña *forma*, *fenomenu* ta *filologu*. Adorador Goikoetxea-k *pilosopi* ta *pilosopo* esateko ez du kezkarik izan, baiña ez digu *sopista* idatzi alare, ta bai *sofiste*, bientzat *sophia* bakarrean bazuen ere sustraia.

Errerekin (*r*) asitako itzak asko ditugu: *reinzidente*, *reakziño*, *responsabilitate*, *realismo* (Gaztañaga), *reboluzio* (Yokin Dorronsoro) *razionalista* (Juan Azurmendi, Arantza) *radio* (Errupin Muxika) *ritual* (A. Bittor) *realidade* (Juan Azurmendi) *reflejo* (Esnaola) *refraktatu*, *reptil* (Pernando) *ritmo* (Mikel Santiago)...

Onen kontrario asko azaldu zaizkigu sesio billa. Alare *r* au ez dugu atzo goizeko etsaia. Leizarraga-k *rezebitu* (Axular, Joannes d'Etcheberry: *erezibitu*), *resuma*, *razoina* (beste ia denak *erresuma*, *arrazoina*) *reedifikatu*, *rebel*, *regina*, *replikatu*... ba-darabilzki (1). Eta Axular-ek berak, ez daukat eskuan zein orrialdetan, *reskatatu* dio.

Erderaz *ción* bukatzen direnentzako ez dugu norma jakiñik. Euskeraz berdintsu utzi ditugunean *-zio*, *ziño*, *zione*, eman dizkiegu akabera.

Irakurleak itzen batzuek, idazleak naigabez agian baiña derrigor usatu zituelako-edo, komilla-arteturik aurkitzen ditu. «Humanismu», «ofi-

(1) Leizarraga-k bezala egiten omen du Sauguis-ek ere. Ona emen arrazoia. Mitxelena-k esplikatzen digunez: «pero algún autor (Leizarraga, Sauguis) ha prescindido de escribir la vocal, sin duda por cultismo». *Fonética Histórica Vasca*, 8.1. Dударik eztago *Jakin*-en beste orrenbestegatik egin dela, kultismoa zelako alegia, askorentzat pekatu lotsagarria den euskal fonetikaren auste au. Fonetikaren kontrakoak direlako baiña geiago mintzen ditu alakoak, nik uste. autoreek, jokabide onekin, niek euskal sikologiaren inguruan asmatu dizkiguten teoriak pikutara bialtzen dituztela agertzen dutelako. Euskal fonetika, gertaera bat ez baiña teoria bat balitz bezala.

zina», «mekanika», «gregarismo»... (Gaztañaga) Ondo esitu ta markatuak, juduen izar kondenatu aren moduko zerbaitez, irakurleak azkarrago ta begi bakarrarekin irakurriaz pasa ditezen jarrita. Itz lepradunak otsegin genitzake, ta dexente dabilta *Jakin*-eko plaza ta kaleetan. Labakak, erabat euskalduntasuna ukatzeko, «maniqueo» idazten du, ta ez da bakarra. Jokabide onek lotsa tonto bat besterik ez digu azaltzen, nire ustean. Artzen bada, eztago zergatik orrela markatzen eta bereizten ibilirik.

Oar ditzadan, anaforikoetan sartu aurretik, *erregin*, *gauz*, *eliz*, eta antzekoak ez ditugula komeni litzakeanez erabili. *Gudu* apenas aurki liteke iñun, *guda* berriz, nunai. Dena kaxkar gelditzen da alare «grin» desonest aren parean...

Kultura aldizkari batean naturala denez, anaforikoen edo aien ordezkio jatorren premia gorrian aurkitu gerala, ez dago esan bearrik, tratatu nai izan ditugun gaietan. Au, gure izkuntzaren ingurukoetan alakoak ba-direlako (emen izkuntza analitikoen zera oiek!) ta gure istudioak oro izkuntza aietan zirelarik anaforikoekin batera berotu dugulako, kaskarpeko kabia onetan dugun jakinduria apurra. Bein berriz, erderen igesi joan gera. Gure zaharrek artez eta doble artez usuario korrientean zerabilzkiten anaforikoak desterruan utzi ditugu.

«Ba-dira zenbait prolema, eta batez ere gogoaren bizitzari datxizkionetakoak, zeintzuen aurrean gure adimen kamutsa beti makal aurkituko da...» Txiripa baten pasatu ez badut au da erlatibua joskera onekin moldatutako kasu bakarra. Erabiltzeko apenas zuen idazleak bearrik, baiña jarri egin zuen alare, ta gaur komenentzia presentatuko balitzaio, beste orrenbeste egingo luke. Ez dauka faltatzat, orrezkero: aren eta entzuten duzutenaren idazlea bat bera da. *Zein*, *zeren*, *zergatik*, euskal letren errepublikako pertsona izateko eskubide guzien jabe ditugu, ta ez nolanaiko erritar gero, baiñan bai probetxugarrienetako. Zer demontre saltsa gozotan nai dugu oiek baiño oberik?

Nolakoa izan ote zen nire arritzapena ta poza, gure arteko milla eztabaidaren ondoren, «Platon-eneko atarian» irakurtzen ari nintzala, lehenbiziko kapituluan eta 12-garren orrialdean aurkitu nionean Zaitegi-ri berari: «Platon-ek are gutxiago, zerren-eta berau baitzan ikaslerik kutunena ta argiena.»

Intxausti-k, XI-garreneko 90-ean ikus dezakegunez, errezelez begiratzten dio *zeren* jende orri ta kastakoei. Uste dut, dagoeneko, adiskide-tuko zitzaiela.

Aditzak, oi ez direnak ere, konjugatzeko ez dugu Jakinlariok alako lotsarik euki. Apizio gaizto ta zatar au —etzen usuario izateraino allegatu,

Jainkoari eskerrak— asko galdu da Txillardegiren orruak eta jipoiak ezkerok. Onetan, beste gauza askotan legez, «egiten diren teorian oso kontuz ibilli bear dugu, zeren teoria guztiak gure buruaren kreaziño uts batzuk baizik ezpaitira, lanean eta ezagupidean jarraitu aal izateko, eta aietan ez betiko deskantsua eta pakea artu aal izateko, fedeko artikuluetan bezala» (A. Irigoyen, IV, 71). «Gure burutik kanpo gauzak diren bezala dira». (Id.)

Lehenago esan dut *mailla*, *bide* ta *olakoak* zenbateraiño aprobetxatu ditugun. Ona emen *bide*-ren ejenploak: *itxaropide*, *adibide*, *lanbide*, *eliz-lanbide*, *bide* «medio», *dirubide*, *ogibide*, *eginbide*, *irabazbide*, *kaltebide*, *pozibide*, *zorionbide*, *agerbide*, *ikasbide*, *bidetu* «adaptar»... Norbaitek pentsatuko du: gaizki ote daude ba? Nik ez dut gaizki daudenik esaten. Baiña bai, esaten dut, *bide* orren bidez, *bide* luzetxoan argitzen dugula gure illuntea. Aipaturiko itz oiek den denak artikulo batean bakarrean bildu ditut. Eta ba-zeuden oien artean esan berrituak ere: *lanbide*, esate baterako, lau aldiz. Ta au praubezia ez ezik mixeria dugu.

Goi ere ez dabil alper: *goi-esker*, *goi-aingeru*, *goi-argi*, *goi-argitu*, *goi-erabaki* «definir», *goi-izkutu*, *goi-maitasun*, *goi-grazi*, *goi-jatorri*, *goi-agerpen*, Ta esana dut norbaitek *goi-gotzai* nai zuela.

Sufijoez

1959-ko EUSKERA-n, Bilbo-ko Euskalzaleen Biltzarrean irakurritako lan «Batasunaren bidean» irakurtzen diot Txillardegiri: «*Ismo* ta *ista*, esate baterako, gure ondoko izkuntza guzietan erabiltzen dira, eta euskeran ere sartu egin bear diralakoa nago. Orrelako beste zenbait ere ar ditezke, nere ustez.»

Jakin-en —eta Txillardegiren au ezagutzeke, noski— erruz erabilli ditugu.

-ISMO, -ISTA

Estetizismo, *subjetivismo*, *realismo*, *umanismo*, *inpresionismo*, *inpresionista*, *idealismo* (*ista*) *materialismo*, *marxismo* (ta oen *istak*) *eskotista*, *linguista*, *egoismo*, *altruismo*, *egozentrismo*, *sikoanalista*... Norbaitek sufijoa doblatu du: *naz-ista-rrak*. Onek berak esaten zuen *estoikarrak*, doblatuaz emen ere.

Ismo ala *ismu* erabilli bearko genuke?

-AL, -AR

Pastorala, morala (Adjetiboa. Sustantiboa geiago), *naturala, orijinala, artifiziala, internazionala, interkontinental, unibersala, liberala, zentrala, radikala, ofiziala, elemental, militarra, partikularra...*

Emen, *mortala* ta *arrazoin naturala* ta *virtute teologala* esaten jakin ba-zekiten gure zaharrak (Axular, Agirre Asteasukoa...), eta *leiala* bereganatu duen erriaren bidetik joan gera.

Suerte makurragoak lagundurik, alajaiñetan, kaskamotzago irten gera erderazko adjetiboak euskal sufijazioz moldatu nai izan ditugunean —nai izan ditugun batzuetan, noski—, ikus ditekenez.

-ZKO

Filosofiazko ikuskera, misteriozko izakera, filosofizko gogo irakulketa, gogozko Ama, mobimentuzko argazkia (inglesetik, nunbait), *errukizko erabakia, eragiñezko parte artzea* (agian, «participación activa» esan nai zuen. Ulertu, orde, «participación obligada» ulertu uste du bategen lehenengoan), *sortzezko lege*.

Kiriozko anormaliak (Iñaki Etxebeste), *Semezko maitasuna* («filial», Bereziartua), *Amazko xamurtasuna* («maternal», Errupin Muxika).

Ederrez, gutxi asko eder izatea ba-liteke, gusto kontuan ez baitiogu iñori legerik gaiñeratuko, ta praktiku ere, bai, ba-dira. *Obra iustiziazko ta obligazionezkoak*, edo *borondatezko zerak*, ezagun genituen, Axular-en predikuetatik, eta berdin Mendiburu-ren *puntuzko* ta Leizarraga-ren *ardurazko* ta beste milla. Ez nuke esango, oster, *semezko* ta *amazko* oiek beñepein, kasta berdiñekoak ditugunik, isatsaren itxurak gora behera.

Niri arrotz egiten zaizkit —ta gusto arras txarreko iruditu— *emakumezko ille*, Bastarrika-rena ta *egokizko eziera* Oiarbide-rena (*egoki* soillarekin listo zegoena). Gauza miresgarririk irakurri dugu-ta, kontsola gaitzen: «Toma Deunak Areopagitar Dunixi du eredu aingeru-lan ontan».

Onen aldean bestelakoxe segurantzia eraman digute gauzak *Nagusi* motorrarekin muntatu dituztenak: *Batzar Nagusi* «Concilio», *Ikastetxe Nagusi* «Universidad» *Auzitegi Nagusi* «Tribunal Supremo» *Idazki Nagusi* (emen *kozka*): «enziklika» ala «konstituzioa» ala «karta» ala... askotxotarako usatu baita), *Elburu Nagusi* «último fin». *Nagusi* geiegitxo.

Lurkoia, esanekoia: «terrenal» ta «obediente» dituzu. Baiña oso abilla izan bear da *sentsukoi*-arekin «sensible» ulertzeko. (-*koi*: «sufijo derivativo que denota afición, tendencia», erakusten digu Azkue-k.) Erderazko -*ico* bukaeradun adjetiboak, akaso belarriak eskatuta, -*kor* sufijatuaz etxeratu dizkigu Ayestaran-ek: «somático»: *somatikor*; «morfológico»: *morfolojikor*.

Esnaola-k ez: *atomistiko, personalistika, idealistiko, armoniko, organiko, karakteristika*. Ba-daki -*tiar* erabiltzen ere. Ikus frase onetan: «Gizatiar personalidadea auxa da: gizonagan arkitzen ditugun biziztiar eta arimiztiar gaien batasuna armonikoa.»

Azkue-k bere *Morfología*-n: «*Or (kor)*. También este derivativo pasional indica propensión, tendencia». *Jakin*-en beste askoren artean oek bildu ditut: *irratikor* «radioactivo», *sentikor* «sentimental», *adimenkor* «intelectivo», *baikor*, *ezkor* «optimista, pesimista». Batek, gutxitxo iruditurik, -*zale* erantsi die bioi: *baikorzale...*, *eztikor* («dulce»? V, 22) *betikor* «eterno».

-KI

Ki, sufijo adberbiala, adjetiboekin bakarrik erabil liteke, Azkue-k erakusten digunez, edo geienez ere, «con algún raro sustantivo en sentido adjetival». Azkeneko modu onetara esan digu Balerdi-k *maisuki*. Gogorrago dira beste oek: *ametski* «soñando» (I, Ataria.), *ondorioki* «consecuentemente» (Pernando, VI, 31 ta 32) ta Intxausti-ren «*arrazoikiro* jokatu bear da» (XIII, 33).

RE-

Ba-da erderetan prepozizio bildurgarri bat, bapo estutu gaituena: *re-*, berritzea adierazten duena. Onentzat, euskeraz bi modu ditugu, *Jakin*-en asko idatziak: *ber* ta *bir*. *Berrideki, birjaiokunde, Berrerospen, Birre-rospen*. Frantziatik ekarri digute irugarren merkaduria: *erre*. «Orduan Jainkoak hasi du gizakentearen erreberritzea» (IV, 24. Arnaud Erdozaincy Etchart.) Ta iñork ez du orrengatik xentimorik eman nai.

Baten batzu nai dituzten bereizkuntzak ondo gorde dira *Jakin*-en ia beti: *alegia, men* «facultad», *pen* «acto»; *tasun* «cualidad virtuosa», *keri* «defectuosa, moral o físicamente». Onelako bereizkuntzak, errealdadean

oiñarrituak ala gabeak izan —or konpon, jaunak!— ez genituzkeala bazterrerara bear, pentsatzen dut. Onuragarri baitzaizkio idazleari, ta argitasun ta laguntza berebizikoa ematen diotenak izkiriatuari. Gaiñera, zabalduxeak dauzkagu (literaturan), eta egunean egunean zabaltzenago doaz. Txarrik ez duten ezkerro (baldin badute derrefente ixilduko naiz), ta beti ezezpiaoak ametituaz, ondo legoke pakean uztea, daramatela artu duten bidea.

-ARI, -LARI

Atzizki au guziz aproposa izan dugu edozertarako. Ain egokia ta aproposa, nolanai manejatu dugu ba:

Ari, naiz *lari*, substantiboei bakarrik erants omen dakieke. Sekula santa ez aditzari. Kasu aundirik egin gabe utzi dugun erregela. *Abeslari* ta *pentsalari*, bi Txillardegik zigortutako normen txikizioak, desaide jarraitu dute idazle onen VI-garrenekoaren atzetik. *Jakin*-eko plazetan, *ableslari*, *pentsalari*, *zuzendari*, *idazlari* ta besteren bat, dotore asko dabil-tza gaur ere, kritika-polizien bildur aundirik agertu gabe.

Usarioa? Usarioak gainzuritu ez baiño beltzagotu egiten duela pekatua, pentsatuko du bearbada Txillardegik. Fraille moralistak ordea, ze pekatu ta pekatu ondo, beren axioan jarraitu dute. Oek aparte, beste ari pixtiak, Txillardegiren zaparrada otsak entzun zirenean izkutatu ziren zirrikituren batean, ta arrezkero, oso noizean bein ezpada ez dute agertu geiago muturrik. Despabilatu zituen, noski!

Pentsalari ta *ableslari*-ren kontra joango al gera? Ez dakit. Orduan, galdetu egin naiko nuke nik, galdetu: orduan, Euskaltzaindia-ren agirian, euskal itzei buruz argitaratutakoan, zergatik erabiltzen da *idazlari* potxolo ura?

-TZAZ

Bukatzeko. Ez dut ejenplorik ekarriko, millaka izango lirake-ta. Uste dut Jakinlari den denok erabilli dugula noiz edo noiz. Ta jakin, jakinda ere jatorregia ez omen dela, ezaguna dela-ta («garakoen» artez ta partez izango da apika, baiña... aien ondoren gatoz gu-ta), dena dela, temoso xamar egon gera, bearbada, utzi nai ezta. Bitartean, *gain*, *gaiñean*, *gai-xuok* kanpotik zebiltzan, noiz festara deituko genien, zai. Ta guk, batere ez deitu, egin diegu.

Tzaz delakoari buruz, gordeta, argitaratzeko asmotan, Yon Etxaide-koak eta izena gorde nai duen jaun batek elkarrekin izandako eskutitz oso interesgarriak dauzkagu *Jakin*-en. Baita A. Irigoyen-en artikulo-kartatxo bat ere.

Eztabaida martxan zegoela ixildu giñan, alabearrez, beste bat arte. Bestela jakingarria izango zen, garbitasunarekiko auzia bezala, zertan bukatzen zen au ikustea.

Yon Etxaide-koak altxatu zuen erbia, XV-garrenean, Aurraitz-i zuzendutako erantzun agirian. Prantatu zituzten eskupetak, ta puntu artantxe —alazankoa!—, tximista batean, izkutatu zen bistatik... Ez erbia. Errebista.

Jakin-en lezioa

Biltzarre onen asmoari gagozkiola, zer erakusten digu *Jakin*-en esprentzi txiki onek? Zazpi puntutan laburtuko dut, nire ustez ematen digun lezioa. Baiña aurretik, permiti zaidazute aitzaki bat agertzea: emen esanak ez dira dogma, noski, ta iñor ez dago aiek onestera obligaturik. Ta dogma ez badira, ez dira gauza seguruak ere sikan. Ta zuzendu nai didanak, zuzentzeko baimen guziak izango ditu.

Ona puntu oek.

1. Kultura zabaltzeko kulturadunak bear dira, ta ez bakarrik euskera ederki menderatzen dutenak. Kultura ta euskera dakitenak bear dira. Ta euskeran, nire ustez, sufijazioa ondo, oso ondo.

2. Lan egin bear dela, egin. Lekutan gelditu zaigu itzetan labur eta obretan luze omen geralako ura. Euskeraren etorkizunik eza ta eriotza benetan sinisten baditugu, ez da konprenitzen ikusten diren makiña bat gauzen errai zikiña. Lan egin: ta lan egiteko, pertsonak errespetatu —lan-kideak, alegia—, ta ez ahal den guzietan mutur joka asi. Pertsonak eta iritziak. Eta bear denean, barkatu. Ahal bada.

3. Bakoitza bere bidetik ibilli bagabiltz indarrak sakabanatu besterik ez dugu egingo. *Jakin*-ek bereen artean iritxi zuen batasuna, euskaltzale kulturadun guzien arteko elkar lotura izateraiño irixten ezpada, biderdian ildako asmo ames utsa izango da. Ejenplo eman dugu. «Zuek zerate gure eredu; emen gabiltz gu ezertarako batu eziñik», idazten zigun Zaitegi-k.

4. Garbi nai mizkiñez ez daukagu ezer egiterik. *Jakin*-en esperentzi agiriena auxe izan da. *Jakin*-ek kaskarreko galantekin ikasi duen lezio onek gogoan artzea merezi duelakoan nago. «Praktiko primero: errege», esan bearko dugu gure erresuman, edo akabo dena.

5. Lanarekin, batasunarekin eta praktikutasunarekin: kritika. Norbere jardunaren beroan albokoaren kritikari ateak zabaldu nai ez dizkionak laister izango du bere barruan illuntea. Bakoitzaren ideia utsak, batek uste baiño bonbilla tristeagoak izaten dira, ta bikaiñak izanda ere, ariak dakarren indarra —kanpotik datorrena— ukatzen bazaio, itzali egiten dira. Orduan, barruko argi guzia, seta utsarena izango da. Ta ingura zakizkio alakoari... *Jakin*-ek beti izan zituen ateak zabalik edozein kritiku sar zedin: dakidala, etzitzaien iñori kritikarako eskubiderik ez ukatu ta ez moztu.

6. Batasunaren ardatza: Euskaltzaindiari obeditzea, *Jakin*-en X-garrenaren Atarian irakurtzen dugu: «Euskaltzaindiari. Gidari zaitugu... Iñora joango bagera zurekin bakarrik joan gaitezke: ez dugu beste gidaririk... Euskaldunak, burrukaldi gogor ontan, batasuna, ta gidaritza bat, bear dugu, ta ori zuk bakarrik eman dezaigukezu».

Obeditzeak ez luke kritikarik ukatu bear. *Jakin* egin bear dela, ori bai, obeditzen eta kritika neurtzen...

7. Beste zerbait? Puntu bat oraindik: euskal kulturarentzat *Jakin* bezalako aldizkari batek daukan inportantzia.

Fr. Jose Azurmendi, O. F. M.

EUSKERA'REN IZTEGIA, NOLA LITZAKEN

I

Jaunak! Agur t'ardi.

Aurretik jarri ditzagun ainbat egokien oiñarri batzuek. Oiñarri bat auxe bedi: «Ez zayo inola ere ertsu bear Euskerari garbizaleen aterik.» Aurre esakun onek ez dakar gure arteko jarduketa garratzik. Bere esangura bayezkoa da bakarrik.

Euskeragintza ez da bukatu, ez da burutua izan. Gramatikaz Euskera egiña da. Baña gogaiz eta kontzeptuz eta jakinbidez eta kulturaz lan sail aundia eginbearrean gera. Giza bizitza eguneroko aldaketaz iraulka doa-ta. Euskerak gogai berriz eta itz berriz azten eta azten jardunen du. Ortan, ba, garbizaleen bidea ertsu, ta erdel itzez gure izkuntza gañezka betetzea, kaltegarri leritzake. Euskera ez litzake izanen Euskera, beste zerbait baizik. Izkuntza baita itzetan ere jarri bear da, itza gogayen ikurra da-eta. *Kontrabentania* esatea ta *aurreleyoa* esatea ez da berdin, lehengo itza ez bai-ta gogayaren euskal itza, ta bai bigarrena edo *aurreleyoa*. *Betanillia* esatea ta *leyatilla* esatea ez da, berebat, izkuntza berbera, bata erdal patua ta bestea Euskera bai-dira.

Beraz, Euskera bere errayetatik, aal dan neurrian (ta neurri bete betean, noski) lantzen eta ugaltzen sayatu bear giñake. Sayaketa ori ekiñalean burutu bear litzake.

Bestalde, itz garbiz bapatean Euskera astunduko ba'litz, orrenbeste erriarendako kaltegarri izanen litzake. Beraz, beste oiñarri bat ere jarri bearrean gera: «Erdel itzak ere aukeratu bear dira. Batez ere, euskal itz egokirik asmatuta ez dugun bitartean, eta erria orrenbeste ulertzeko atzeratuta arkitzen dan bitartean.»

Aurre esakun orrek, zeazki aztertuta, onenbesteko esangura azalduko luke: erdel itzak berez aldirako jasoko lirakela; erdel itzak aldikotzat jaso bearko lirakela. Orixe, baña, ez litzake zearo egi izango, iritzia itzez itz artuko ba'litz. Orregatik, onela samurtuko litzake eretxi au: «Berez atzerri itzak, beroyek edozein izkuntzetatik gure Iztegira erakarrira, gure artean bizi diranak, aldirako izanen lirake oiñarriz, asmoz eta

gogoz.» Ariketaz, baña, edo praktikaz orrenbesteko oiñarri ta gogoa ezi-
ñeko da, ta utsune ori edonola beste izkuntzen bidez beteko litzake. Adbz.
«comunismo, socialismo, liberalismo» ta abar erderaetatik jasota. Ba-
ñan, azkenik, gogai oneitan ere, euskel itz egokiren bat sortuko ba'litz,
Iztegian berau ere jartzea ondo legoke, bigarren maillan, bederik.

II

Talde bitan banatu gaitzke euskaltzaleok: 1) jakitun talde, ta
2) errikoi taldean.

Jakitun taldeak Euskeragintza ontan garbizale bidetik lan eginen
luke. Euskal itzez izkuntza ugaltzen, edertzen, garbitzen ariko litzake
esandako taldea. Bañan emen euskal itza zer dan galdetuko luke nor-
baitek. Gai ontaz jarduketak izan dira. Alere, ondo datorke beste izke-
taldi bat.

Emen eta orain euskal itza da erdel itza ez dana, edota arrotzetiko
izkuntzak ez emandako itza. Adbz. *urrutizkiña* euskal itza da, ta *tele-
fonua* ez da.

Norbaitzuek esaten dute: «Euskal itza aintzat artzeko, ez zayo be-
giratu bear bere etimolojiari, bere itz sorkunari.»

Bañan orren orde, obeto jarriko litzake beste oiñarri au: «Euskal
itza aintzat artzeko, geyenen bere itz sorkunari, bere etimon'i begiratu
bear zayo. Itzaren sorkuna Euskera ba'litz, euskal itza izanen litzake.»

Norbaitzuek diño: «Euskal itza aintzat artzeko, bere etimologia ba-
karrik ez da auzibidetzat artu bear.»

Bañan orren orde, obeto jarriko litzake beste oiñarri au: «Euskal
itza aintzat artzeko, berez eta Euskera lege itzaren sorkunari begiratu
bear zayo. Bañan aldiz, alabearrez eta ezin bestelakoan; Euskerak in-
darrik ez dun bitartean, bera aul bizi dan bitartean, ondorengo gaiztoz
ito agiñian arkitzen dan bitartean, Euskerak arrotz itzak ere erabiliko
ditu. Itz oriek nolabait euskel itzak dira, baña beste euskal itz jatorrak
ba'genitu, lehengo oriek kendu ere kenduko genituke.»

Ariketan edo praktikan ba liteke gorago aitatu izan diran oiñarri
biyek elkar aurkako-esakunak ez izatea, mutur joka ez aritzea. Bañan
ekiteko puntua ez da berdin biyetan, galde erantzunak ez dute argi ber-
diña, asmabide bata bestea baño jatorrago litzake-eta.

Batzuek diño: «Euskal itza etimolojiz edo sorkunez ez ezen, baita
bere erabilkuntzaz ere aintzat artu bear da.» Beraz, itza eguneroko eus-

kal iztegian aspalditik ontzat artu izan dalako, erriaren eguneroko izketan bizi dalako, zerbaiten esangura zeatza dulako, elkar aditzeko onurakorra dalako, etimolojiz euskal itza ez izan arren, bere erabilkuntzaren indarrez aintzat artu bear da.

Aburu ori ez da errondotik beera bota bear, alegia. Erriak arrotz itza ba derabillen bitartean, eta beste oberik ez dun bitartean, ez zayo berari aotik erauzi bear. Jakitunek beuren artean, elertibidez edo literaturaz, bestelango euskal itz jatorrak erabilli dezaketen arren, erriari bere itza emango zayo.

Alere, baña, gogoratu bearrean gera, noiz eta nola sartu izan diran itz oriek Euskeraren alorrean. Euskaldunek beure jakitez edo konsenziazirik gutxi edo ezer ez zutenean, sartu izan ba'ziran; Euskera egoera negargarrian, gaur dagon bezela, bazterrera bultzaka eroanda, arki danean, itzak alabearrez artu izan ba'dira, gure euskaltzaletasunak, zertan ari geran obeto dakigulako, bera edertzen sayatuko gera. Euskera ederra Euskera garbiari deretxioe erritar batzuek.

Orrenbesteko iritzia denak ez dute ontzat artuko. Denak ez, egiz, bañan ausaz geyentsuek bai artuko dute. Orain, batzuek ez dute ontzat artuko iritzi ori, baña geroko egunen batean, biar ba'da, euskaldunen egoera aldatzen danean, erantzun galdera oni: batzu oriek geyago ala gutxiago izanen dira?

Orrezkeroz, gure joera ta yomuga, gure eguneroko irritsa berez eta ekitez Euskera garbitzeko ta edertzeko izan bear da, orain oraiñetan orrenbesteko ideal ori eziña ta eskuragaitza izan arren.

Laburki esanda: Lehenik, garbizaletasuna ta Euskera ederraren zaletasuna ontzat artu bear dira. Ez dira ukatu ta ezetsi bear. Euskera garbia ta ederra izan bear litzake danen betiko yomuga, ekintza, ardura. Euskera'ren osokuntza ori, osokunde ori, batez ere, jakitunek bere bizkar jaso bear lukete. Orren erantzubearra gure gogo barrenean eta ezagueran ajola biziz iduki bear genuke. Bigarren, erdelitzak ere, orratio, erabilli bear lirake, erriak orrela Euskeraz egiten dulako, Euskera bere ondamentitik ateratzeko eta berari eusteko. Ori, berriz, ariketaz eta eginbidez. Bañan asmoz, iritiz, gogoz, ez giñake ortan geratu bear, ez genuke ori naikotzat artu bear. Irugarren, teknika ta Kultur itzak beste errietan erabiltzen diran neurrian, gerkeratik jasota ta abar, ez litzake zer esanik Euskeraz ere erabilli bear genitukela. Bañan euskal itzak ere jatorki asmatuko ba'lira, oriek ere Iztegiak batera ekarri bear lituke. Adb. *urru-tizkin, urrutikuskun...* (Doitxeraz *telephon* esan arren *urrutikuskiñ* ari ta beronen senide diran itzei, *fernsehapparar, fernsehturm* ta abar dere-

txioe). Gertakun edo kasu bakoitzean astiro aukeratu ta jarri bearko genuke itz egokia. Zera, «telescopio» esateko, ausaz ondo litzake *urru-tiazterkin*, *izarrazterkin*, *ortzeazterkin* aukeratzea, *skopeco* ta *visión* esan-gura berdiñeko ez dira-ta. Izkada edo itzen luzeeraz beerago ariko gera pitin bat, geyagorik bear ez dalako.

III

Euskaltzaindiak jarrai lezaken bide bat: Itzak aukeratzeko Euskaltzaindiak orri bat aldizka atera dezake (edota lezake). Orri ortan itz asma berri zenbait jarriko lituke. Baita ere galdetuko luke onelako ta alako gogai edo konzeptu, ta onelako ta alako erdel itza, nola asmatuko liraken Euskeraz. Orri ori Euskeraren arduraz lanean ari diranei bialduko lieke, idazle, izlari, Euskeragintzaren ajoladun diranei. Bakoitzak orri bertan agertuko luke bere aukera ta... geyenen iritzia ontzat artu. Batzuetan bi itz (edota iru) ere autetsiko lituke Euskaltzaindiak, eta beroyek Iztegian errezkadan jarri. Ortarako Euskaltzaindiak laguntalde berezi bat izentatu dezake, ta talde orrek baetuko lituke itzak eta auteskunak.

Euskera, ba, gerauneik nai dugun bezela izanen da. Itzak gizonak berak aukeratzan ditu gogayen ikur edo señaletzat. Lantze ori berez etorri daiteke, erriak gizaldiz gizaldi ustegabe onartuta. Baña baita orixe ere egin daiteke, alegia, gizonak batzarrean jezarri ta galdekizunak egiñik, denak gogo batez edota gogo geyenez itz auxa ta beste ori ta beste axa onarturik.

IV

Euskeraz bildur gera ta atzeratu egiten gera itz luzexeren bat jartzen dugunean. Olako sorginkeri naiko ba dugu gure artean, fobia ta irudikeri ta tabu antzeko fetitxe aunitz artean naaspillatzen gerala. Doixtarrek, ordia, ez dute olakorik ta euskaldunok baño askoz geyago ta itz luzeagoak jarri arren, ez dute susmo txarrik ortan. Itz batzuek ogetakada izkiak izaten ditute, ta ogetamarrekoak sarritan azaltzen dira. Azalbidez entzun onenbesteko mordollokeriak: *bezirkspolizeibeamter*, *bevollmächtigungsvertrag*, *bergwerkswissenschaft*, *blutschnelligkeitsmesser*, *brustbeinoberrarmmuskel*, *brustbeinschildknorpermuskel*, *brustbeinzungenbeinmus-*

kel. Ondo aal da au ala txarto? Gaur euskaldunok ez gera gai orrenbes-teko lasaitasunez euskal itzak sortzeko ta elkar lotzeko. Jakiña, batzuek olako itz luzeen orde z nayago lukete erderakada bat botatzea, orain gure belarrietatik obeto irediko litzakelako. Baña zer dan Euskera galdeka ari gera, ta nola gauzak euskeraz esan bear diran. Euskerak ere bere itz errezkadak ba ditu, ta doitxerak bezain eskubidez jo dezake bide bertatik. Ondo leritzake, doitxerak bezela, Iztegian onela jartzea itzak eta bere itsaskunak: Kanonen: *-fest* (esangura), *-mätzig...* *-feuer...* *-fieber... -herd...* *-kugel...*

Euskeraz, baña, itza luzeegi eritzi ezkerro, zatitan jarri daiteke. *Аудз. узтаиаундиемадantzариак* onela jarri: *uztaiaundi emadantzariak*. Baita onela ere: *uztai aundi ema dantzariak*. Ikasteko politago, ta irakurtzeko samurrago izango litzake.

Gure egunetan ere itz berri sortak asmatu izan ditute doitxeraz. Heidegger'ek bere gogayak azaltzeko iztegi berria sortu du. Leenagotik ba zan, adbz., *geworfen* aditza. Heidegger'ek aditz orri atzizki bat jarri dio ta sustantibo biurtu du. Onela: *geworfenheit*, «gizakiak dun jaurtia izatea, jaurtitasuna, eskutik jareginda izatea». Leen ba-zan, baitipat, *zeit*, aldia», ba-zan *zeitlich*, «aldikoa». Heidegger'ek eratxiki dio atzizki au *keit* eta *zeitlichkeit* sustantibo egin du, «aldikotasuna»

Ontan, Euskerak ere bidea zabal zabalik izan bear du, bere aal iza-tea ta egimena (potencia activa) azi ta eltzeko, bere errayetan dadukan itz elkartze aberastasuna azaltzeko ta iraultzeko.

Euskal itzak elkartzeko, ba, ta gogayak itz errezkadaz azaltzeko, jo dezakegu gerkerara, doitxerara, ingelerara... Izkuntz orien arioz edo analojiz gure Kulturbidea ez litzake ain eskuragaitza izango. Doitxerak itz aunitz *gegen* aurritziz osotzen ditu. Euskeraz askotan *aurre*, *aitzin* aurritziz, arrotz izkuntz orien gogaibideari jarraiturik, euskal itz jatorrak izanen ditugu. Baita aditzen esangura berezia berebateko bidez adierazi dezakegu: aurretik esan, atzetik jarraitu, albotik igazi, sayetsetik igaro...

V

Itzetan gogoratu bear litzake Euskeraren berezko bokal eta konsonante arteko uztardura, lotuera. Lotuera edo elkartze biguña da izki orien artean, bokal bakoitzari bere konsonante bata lotu ta elkartu bear zayo-ta. «Armonía vocálica» deritzayon oguzkera legun ori ere aintzat artu bearko litzake, bokal eta konsonanteak banan lotzeko ez ezik, baita bokal berayek ere beti berdin eta soñubateko izan ez daitezen. Aukeran

jarri bear lirake bokal oriek ere bere errezkadan, orrela oguzkera atse-
gingarriago izan dediñ. Euskerak *a* bokal aunitz bai ditu. Batzuek alda-
tuz, forma ariñagoak aukeratuz, bokal etorrera ñabarra areago autatuz,
euskal itzak datoretasun aundiago izango luke. Adbz., *asarratu* esan
bearrean *asarretu* edota *aserretu* esan daiteke; *aztarrena* esan bearrean
azterrena aukeratu daiteke; *elkar* obeto; ta ola beste itz askoetan,
beroyek ñabartzearren. Luter'ek, oi diñoenez, sajon kutsua ekarri omen
zion doitzexari. Berak jarri omen zitun doitzelitzak *e* bokalerantz etzi-
ñak. Ortik jayoko ote ziran, *ba, leben, lieben, loben* eta beste orien
bukaeraren antzeko asko?

VI

Orain, berriz, itz aunitzen esangura mugatzeko edo fijatzeko saya-
keta bat jarriko da emen. Batzuetan, *ba*, euskelgietan itzak ez dira bere-
bateko esanguraz aditzen. Ori beste zeregin bat dugu ta Euskaltzaindiak
bere ardura artu bearko luke mugatze ori. Orra or doazi itz batzuek,
beroyen esangura mugatzeko asmoz.

Erdetsi «alcanzar»;

jadetsi «alcanzar»;

iritxi «llegar a»;

ezarri, egotzi «poner echado, depositar, colocar tumbado»;

jezarri «sentarse»;

jarri «poner algo ahí, aquí, de cualquier forma»;

bear «tener que hacer de algún modo»;

auzu izan, zillegi izan «tener permiso, ser lícito (dürfen)»;

alabear, ezinbestez, alabearrez izan «tener que hacer necesariamente
con necesidad física o moral (müssen)»;

bearkuna izan «obligación moral (sollen)»;

ertsi «cerrar»; *ideki* «abrir»; *itxi, utzi* «dejar».

Doitzexaz «ciencia» esateko *wissenschaft* jartzen dute atzizki. Eus-
keraz *jakintza*? *Jainkojakintza* «teología». Baita erabiltzen dute *lehre*.
Euskeraz *irakaste*? Japondarrak *do* jartzen omen dute «jakinbide» esate-
ko. Euskeraz *bide*? *Kulturabide, Euskerabide, Ikasbide, gizartebide*...?

Izatasun «existencia (abstracta, cualidad, existencial?)»; *izate* «acto
de existir»; *izaki* «el ser concreto»; *izanide, izakide* «consustancial
—gleichsein— ómo-óusios; *izapekide*? «consustancial»; *izape*? «sustan-
cia»; *izansuzter, izanerro; zera, zerkuna, zerkuntza* «esencia»; *izangai*

«posible»; *gertagiñ*, *gertaburu* «causa»; *etorburu* «principio»; *bakoya* «individuo»; *bakoitasuna* «subsistencia»; *bakoitza*, *bakoiztasuna* (berebat); *egimen* «potencia activa»; *armen* «potencia pasiva»; *alde artuta* «absoluto»; *utsik artuta*; *formalgaya*, *materialgaya* «parte cuestión formal, parte material».

Oarrak: Ingelerazko Iztegiak bitariko itzak ekartzen ditu naastuta, sajon errotiko itzak eta latel errotikoak. Euskal itzak eta erdel itzak talde bitan jarri litezke. Euskal Erriko zokoetan oraindik itz aunitz dira. Euskaltzaindiak eskatu bear luke, beregana edonundik batutakoak bialtzeko. Erronkari'n, adbz. esaten dute *zabalko* «descansillo de la escalera»; *olastazale* «pegador»; *kala xin*, *kala gau*; Arrasate'n *albitsa* «belar latza»; ta abar. Onenbestez bukatzen det.

Beste oar bat: Laisterka ari naiz eta zati batzuek ez ditut astiro ta luzeago azaldu. Antxiñako garbizaleek utsik egin ba'zuten bere bidean, alere sayaldi bat izan zala, lehengo sayaketa bat egin zutela, gogoan artu bear litzake. Ayen yoran bizia, ta adorea, ta pizkunderako izan zuten arnasa ta giarra oso osorik ontzat artu bearko genuke. Nire gorantzi miñenak gure aurretiko euskal Kulturabidearen langilleei, ta batez ere, Arana Goiri martiriari ta bere ikasleei.

BARANDIARAN'dar GAIZKA jl.

BATASUNERAKO URHATSAK, EUSKAL - ANALPHABETISMUA TA KULTUR-HIZTEGIA

Lojendio, Mitxelena, Villasante, ta beste jaun agurgarri batzuen azken orduko eskariei ezetz esan ezinik, nere iritziz beranduegi bazan ere, egun gutti dirala hasi naiz zerbait idazten, beste zereginiek uzten didaten huts-unetan, batzar huntan irakurteko. Denbora labur laburra-gaz hasten naiz ba ideia batzu azaletik aztertu nahirik.

Batasun eta kultur-euskarazko lanekin aspalditik nabilela jakinik, baliteke baten batek galdetzea zelan izan diteken hunelako gaiak lehen-dik zearo estudiantuta ez edukitea. Hunelako galderei erantzuteko, nahi nituke ezagutarazi aurretik pentsatuta dauzkaten urhatsak litteratur euskararen batasuna lortzeko.

LEHENBIZIKO URHATSA

Zabalkundea, propaganda. Ideia oker asko zabaldu dira gure arte batasuna dala-ta. Zerbait egiten hasi orduko, beharrezkoa da ideia zaharren akatsak agerian ipini ta berriak ezagutaraztea. Beste alde batetik, systema berriarekin inoiz ere ezer idatzi etzalarik, arrotza eta akatsez bethetakoa iruditu beharko litzakio irakurleari idaz-tankera hau lehenbizik arkitzen zualarik. Eleberriak, iphuinak, eztabaidak, edozer idaztea systema berriarekin eskatzen du bada lehenbiziko urhats hunek, besteen iritziak ideia berrietara ekarteko.

Badirudi nik uste nuan baino arinago dathorrela hau. Egun gutti dirala, Satrustegi jauna Euskaltzaindian sartu zan egunean, Aita Lafitte'k erran zidan ongi dagola eurentzat systema hau, mugaz bestaldeko idazle ta irakurleentzat. Egun gutti dirala, nere systemaz idatzitako iphuin bati eman diote lehenbiziko saria Donostin. Agerian dago ba, idaz ditezkelat systema hunekin atseginez irakurten diran gauzak.

Eleberri bat ere egin dut eta uste dut asko eginen duala novela hunek besteen iritziak ideia berrietara ekarteko. Itxaropen handiarekin igurikitzen dut bukatuta egonen dala lehenbiziko urhats hau liburua argitaratu ta laster.

Lehenbiziko urhatsa bukatu gabe, eztut bada kultur-hiztegirik antolatu. Bai ordea nere idazkietan agertu zaizkidan kultur-hitz bakan batzu. Gero erranen dizuet zelan egin dudan hau eta aurretik pentsatuta daukadan guztia.

BIGARREN URHATSA

Euskalari ta idazlerik gehien iritziak systema berriarengana ekarri orduko, orthographizko hiztegi bat behar da antolatu, eta garrantzi handiko gauza bat egin hiztegi horrekin geroko utzi gabe: Euskal aldizkari guztietako zuzendariekin ados gelditu ostean, tipuski, bat-batean, sartu

gure aldizkari guztietan orthographi fijua, orthographi-hiztegia hiz bakhoitzean jarraiturik.

Bentaja bat dauka analphabetismuak. Inork ere irakurten ezturearik, nahi dugun bezelako orthographi bat ezarri dezakegu. Jendea irakurten ohituta dagolarik ezin hasi aldakuntzekin. Mugaz bestaldean eztago hunaindian besteko euskal-analphabetismurik, ezin da beraz aldatu asko hango orthographia. Huna beste arrazoi bat *h* letrea han bezela idazteko.

Izugarria da gaurko euskal-orthographiaren anarchia. Galdetzen badizkigute azken denboretako euskal eleberrien tituluak, arin bukatuko zaizkigu eztira asko ta, baina euren arte *Bide izkutua* eta *Leturiaren egunkari ezkutua* aipatu beharko ditugu. *Ezkutua* eta *izkutua* eztira hitz differenteak, hitz bat bi modutara idatzia baizik, eta tituluetan, gehien ikusten dan tokian. Berdin zaizkigu biak, baina bata gehiegizkoa dugu. Hartu edozein euskal aldizkari bat eta modu askotan idatzita ikus dezakegu hitz bakhoitza, eta horriari bira eman behar izan gabe ohar dezakegu sarri idaz-modu aldakorra. Esate baterako *Zeruko Argia*'n *eskiñi*, *eskeñi*, *eskaiñi* edo *eskaindu* eta abar. *Herria*'n *bertze* edo *beste*, *ipui*, *iphui* edo *iphuin* eta abar. *Egan*'en beste hainbeste, eta berdin beste edozein euskal aldizkari batean.

Erreza da orthographi-hiztegia egitea. Azaldu dut nik beste toki batean, nere iritiz jarraitu behar litzateken kriteriu nagusiak. Khontuz khontuz eta ahalik akatsik guttienekin egiten saiatuarren, ezin da egin akatsik gabe, gizonak egindako gauza guztiak bezela, baina apropos egin ezker be, kostatuko litzake standard-tutako hizkuntzen orthographiek dituzten beste akatsekin atheratea. Zergaitik dago ondo erderaz *exagono* *h*'rik gabe eta gaizki *hexagono* *h*'rekin? Ba danak *h*'rik gabe idaztekotan gelditu diralako. Eztu merezi hitz bakhoitzarekin eztabaidetan hastea, eztu merezi eta ezkenduke bukatuko sekula. Idaz-modu guztietatik bat hautatu ezker bethiko eginda dago orthographiaren batasuna.

Ezta erreza idazle bakhoitzari orthographi hunen tipuski irets-araztea, eta ezker hasi behar aldapaz gora iruditzen zaigun bide hortatik. Idaz dezala bakhoitzak orai arte bezela. Gizon bakhar baten lana izan ditek aldizkari bateko original guztiak orthographi-modu fijuan ipintea. Ohitu arte gizon horrek lan nahikoa izanen du hitzak banan banan hiztegian bilhatu behar izanik, baina denbora labur laburrean ikasiko du lan hau arin arin egiten hiztegia zabaldu gabe.

Ezin dugu sartu *Zeruko Argia*'n halaz ere orthographi fijua tipuski nere iritiz. Hasi horri bakhar batean esate baterako, baina danon arte horri hori ahalik irakurgarri eta errezena egiten saiatzen gerala.

Urthe batzutan, beste batasun lanak prisa handirik gabe egiten diralarik, beharrezkoa da orthographi fijua danei begietatik sarraraztea hunela. Eta aldizkari bakhoitzean oker-zuzentzale bat behar dala erakusteko, agertu zaizkigu *Zeruko Argia*'n orthographi-huts asko egiten dituzten idazleak *h* letrea edozein tokian sarturik.

HIRUGARREN URHATSA

Giltz-esakera eta giltz-hitzak erakasteko liburu bat egin behar da, euskaldun jatorrei zuzendua, ez euskaldun berrientzat, orai artekoak bezela. Ezta egin behar orai arte egin diran euskal grammatica guztiak bezela, linguistica modernuak eskeintzen dizkigun ikas-bide errezak jarraiturik baizik. Hunelako liburuak grammaticazko hitzez josiak egiten diranak baino askozaz scientificuagoak izanarren, edozeinek ulertzen ditu eta oso errezak dira ikasteko, dudarik ere eztute uzten noiz ta nola erabili behar dan esakera bakhoitza. Grammaticazko hitz garratzez josiak bezela idaztea errezagoa da, bainan hala egin ezkeror, ez litzake ikasteko gauza.

Hau dana egin ostean mila zeaztasun faltako zaizkigu, bainan hurbil hurbil egonen da euskararen batasuna. Catalanak, italianuak, deutch-tarrak eta, euren batasuna egiteko zauden denboretan bezela egonen gera eta urthe gutti barru eginda edukiko dugu guk ere. Hala izan bedi Jaungoikoaren laguntzagaz.

EUSKAL ANALPHABETISMUA

Kalte izugarri bat egin diote euskarari euskaldun berriek, borondaterik onenarekin bada be, liburu batzutan ikasitako euskarazko lau gauzatto barruan ezin gorderik, bai ta euskaldun jatorrek ere euskara esperimentalarekin. Euskal analphabetismuaren sustraiak ezarri dituzte, eta gaur eztaukagu lan makala euskal-analphabetismuaren kontrako gudua irabazteko beharrezkoa zaigun bezela euskarari bizitza emateko. Idatzitako hizkuntza ezta besterik hizkuntz mintzatuaren irudi bat baizik, eta irudirik onena, originalarekin antz handiena duana da bethi.

Orhaitzen zaizkit ondo nere euskal-analphabetismuzko denborak. Kanpoan negoala euskaraz ethorten ziran egunorokoan herriko berriak. Saiatu irakurten eta ezin ulertu! Adiskide batek irakurri ta dana klaru

klaru!... Horra zer daukan euskal alfababetu hutsak, eztio ematen entonazioa irakurten duanari eta ezin du irakurri. Hunegaitik maite ditu bertso berriak. Bertsoak kantatu egiten dira, eta eztago entonazio okerra ematerik kantatzen danean.

Bainan herriko berriak euskaldun arrunt batek idatzia ziran eta etzitzaidan kostatu asko bere gauzattoak eta egutegiaren horrietan zethoztenak irakurten ikastea. Egunorokoan horri bethe euskaraz zethorren, edo hobeto esateko, «euzkeraz», hala, zetarekin. Gureztat han zethorren euskara ona, euskara aphaína, beste batek irakurri ezker be ulertzen ez genuena. Munduan gerthatzen ziran gauzak erderaz, berri izugarriren bat egon ezker, esate baterako munduak Venus'en kontra joko zuala ta danak laster hilen gineala bazan, zeaztasun guztiak erderaz, letra handien azpian, eta euzkerazko horrian aberri arazoak, herrietako berriak, eta ulertu ezinezko olerkiak.

Bainan bakhoitzak bere herriko berriak izan ezik, euzkerazko horria etzan irakurtekoa, erdeldunei erakustekoa baizik. Ezetz arkitu erdera antzeko hitzik, esaten nion nik harro harro adiskide erdeldun bati horri hau erakusten niolarik, eta erdeldun gaixoa harrituta gelditzen zan beste munduko hizkuntz bat iruditzen zitzaiona erakusten niolarik. Azkenean bilhatu ta bilhatu, hara, arkitu zuala esaten zidan pozik, «eia nun!» eta «huna hemen» eta *baño* hitza erakusten zidan. «Zer uste duzu ba hitz horrek adierazten duala?» ta «¿Que qué significa?, pues está bien claro, *baño*, donde se baña uno». «Paaa!» egiten nion nik, «jeso significa pero!» Erdelduna lotsatuta gelditzen zan eta nik harro harro gordetan nuan «izparringia» sakelean.

Bitarikoak ziran ba horri hartan agertzen ziran gauzak, beste batek entonazio onarekin irakurri ezker edozein euskal alfababetu batek ulertzen zuana, eta ahalik ondoen irakurri ostein ere ulertzen etzana. Hauze zan gureztat euskera ona. Eztaukat orduko izparringirik adibide bat atherateko eta azkeneko denboretan argitaratutako euzkerazko liburu batetik irakurriko dizuet zathi bat entonaziorik onena ematen saiaturik. Ezta adibide on bat, zathika ulertzen baita, bainan eztaukat besterik:

«Talki ezazu...»

Euzkeratik euskararatzea ezta erreza, griegorik ere eztakit, bainan erderatik euskararatu litekela erakusteko huna zathi hau edozelan eta arin arin euskaraz idatzita:

Alperrik litzake esandako horria eta hunelako liburuak ezagutu duan euskaldun bati euskarazko liburu bat irakurteko esatea. Babak

jan ta sabeleko mina pasatu duanari berriz babak jaten komidatzea bezela litzake. Esate baterako *Kurloiak* erosten badu, ipiniko du bere liburutegian, gehien ikusten dan tokian, eta erranen du irakurri duala. Galdetzen badiozue gero eia zer iruditu zaion, «ondo dago» erantzunen dizue, «badu mamia», bainan eztu erranen ezer ere irakurri duala erakusten duenik, eztualako irakurri. Bere amaren kontrako gauza izugarriekin idatzitako liburu bat ematen badiozue be, «oso ondo dago» erranen dizue, «badu mamia», eta liburutegian ipiniko du, gehien ikusten dan tokian.

Ikasleen arte arkitzen dira nere irakurlerik gehienak. Gazte huiek eztute oraindaino ezagutu horrelako litteratura garbia eta euskarazko liburu bat erosten dutenean irakurteko eta ez gordetako erosten dute.

Inglesezko ikasleak, liburuekin eta irakasleekin urthe askotan aha-lerinak egin ostean, lotsatuta lez gelditzen dira edozein ingles baten aurrean, bere ondoan ezer ezta kitela pentsaturik. Berdin gerthatzen zaie frantsez edo beste edozein hizkuntz bat ikasten dabilenari, hizkuntz hori ttikitatik erabilten dutenen aintzinean. Nolako astoak dira euskarazko ikasleen ondoan! Munduko linguisteen arte onenak eurentzako liburuak egiten saiatu, ikasi ondo liburu hauk, entzun hizkuntza egunoro arradioz, behar bada egunoro hitz egin hizkuntz hortan ohitura hartzeko, eta haurtzarotik darabiltenen ondoan lotsatu! Txapela khendu behar dugu euskaldun berrien aurrean. Adimen sakoneko gizonak ditugu. Eztago euskaraz ikasteko liburu onik, inglezaz ikasteko asko ta asko dagozan bezela, eztute egiten euskaraz egunoro ohitura hartzeko beharrezkoa litzaken bezela eta hala ta guztiz ere baserritarrek baino askozaz gehiago dakite, maisuak dira haur-zarotik erabilten ohituta dagozenen ondoan eta libururik bikainenak egiten dizkigute. Zoritzarrez ondoegi dagoz eta ulertzeko errezak diranean ere, eztute balio beste euskaldun berrientzat baizik. Guri belarriko mina ematen digute. Euskal analphabetismua zabaltzen dute gure arte hunegaitik errezak diranean ere. Badira belarriko minik ematen eztiguten gauzak idazten dituzten euskaldun berriak, oso gutti, bainan badira. Bainan hauek eztira adimen sakoneko gizonak besteak bezela, zazpi ahaleginetan saiatuarren maisutzat dauzkate baserritarak eta.

Oso errezak behar ditugu argitaratzen ditugun liburu guztiak euskal analphabetismuaren kontrako gudua irabazi behar badugu, oso errezak eta belarriko minik ematen eztigutenetarikoa.

Indar handia dauka euskara mintzatuak euskaldunak bereganatzeko. Ikusi dugu danok nola bethetan dan areto handi bat bertsolari egunean, lekurik eztagola ta jende asko kanpoan gelditurik barruan

sartu ezinik. Ezpagendu ahaztuko euskal idazleok eztala hizkuntz idatzia hizkuntz mintzatuaren irudi bat baizik eta baldin gure liburuek abotsez irakurriak izan ezkeru euskara biziaren soinua berbera entzunaraziko balukete, jende guzti hori euskal liburuen atzetik ibiliko litzake.

Euskal analphabetismuaren kontrako burruka irabazteko tresna eder bat daukagu gaurko egunean: magnetophonua. Nik tramankulu zantar bat baino eztaukat, bainan beste magnetophonu bat erosita ta nere liburuak argitaratu baino lehen magnetophonuz ezagutarazi behar ditut. Uste dut hala egin ezkeru askok irakurriko dituztela. Magnetophonuz hitzez hartuta eduki ezkeru diskuak athera edo arradioz bota diteke.

Entzun ezazue *Peru Abarka*'ren zathi bat nere tramankuluan hartua:

KULTUR HIZTEGIA

Ehun milatik gora dira hizkuntz jakitun guztien kultur hitzak eta urthero jaiotzen dira ehuntik gora guttienez. Ezin dugu guk egin berterik, sortzen diran bezela gureganatzea baino, iturrira joan eta ezer-tarako aldakuntzik sartu gabe, danok berdin egiten ditugunak baizik.

Mathematikazko hiztegiko hitz batzu aztertuko ditugu adibide bezela. Jakintza-adar huntan gerthatzen dana gerthatzen da beste jakintza-adar guztietan.

Batzu latinetik hartuak dira:

Latinez *abacus*. Frantsesez *abaque*. Alemanez *abacus*. Inglesez *abacus*. Italianoz *abaco*. Españolez *ábaco*.

Latinez (griegotik) *diagramma*. Frantsesez *diagramme*. Alemanez *diagramm*. Inglesez *diagram*. Italianoz *diagramma*. Españolez *diagrama*.

Latinez *punctum*. Frantsesez *point*. Alemanez *punkt*. Inglesez *point* (frantsesetik). Italianoz *punto*. Españolez *punto*.

Batzutan alemanek euren hizkuntzeko sustraiekin egindako hitz batekin esaten dute besteek latinetik hartzen dutena:

Latinez *calculus*. Frantsesez *calcul*. Alemanez *rechnung*. Inglesez *calculus*. Italianoz *calcolo*. Españolez *cálculo*.

Bainan batzutan alemanek hau egiten badute, eragozpen bat baino ezta, asko komeni baita hitz jakitun guztiak mundu guztian berdinak izatea, jakintzazko liburuak edozein hizkuntz batean irakurteko erreztasuna ez galtzeko. Khontuz garbizaleok, alemanak handiak dira jakintza arazoetan eta eurei parkatzen zaiena elitzakigu parkatuko guri ta. Gainera eurek ere ezin dute egin hau bethi, eta bethi ez egiteko, hoba ez

egitea inoiz. Frantsesez *calcul différentiel*. Alemanez *Differentialrechnung*. Inglesez *differential calculus*. Italianoz *calcolo differenziale*. Españolez *cálculo diferencial*.

Batzutan asmatu zuanaren izenetik hartzen da kultur hitza: Frantsesez *jacobien*. Alemanez *jacobische*. Inglesez *jacobian*. Italianoz *jacobiano*. Españolez *jacobiano*.

Frantsesez *wronskien*. Alemanez *wronski'sch*. Inglesez *wronskian*. Italianoz *wronskiano*. Españolez *wronskiano*.

Esandako adibideetan, latinezko *us* ta *um* bukaerak *u* ipini ta beste aldakuntzik gabe idatzi behar dira. Eztira gureak eta ezkera gu inor aldatzen hasteko. Hunela izan behar litzakez ba euskaraz:

Abacu, diagramma, punctu, calçulu, calculu differenziala, jacobianu, wronskianu.

Errezagoa da kimikaki hiztegia, batez ere kimika organicuarena. *Propil-2-butanu, etanol*, eta abar hizkuntz guztientzat asmatuak diran ezkerro, euskarazkoak dira, euskara be hizkuntz bat baita.

Huna hemen euskarazko kultur-hiztegiaren lehenbiziko hitzak:

Aabam, aah, aaiba, aakendar, aakla, aal, aalendar, aalkhuaba, aalkim, aam, aasmu, aati, abab, ababan...

Eta hunela ehun mila inguru.

Parkatu entzule maiteok, lan sakonago egiteko denborarik ezpaitut izan.

OSKILLASO.

BERMEOKO ARRAINTZALEEN LEKSIKUA

Nire lan onetan Bermeoko herbak erabiliko dodaz. Aolan, asikera asikeratik ikusiko dozue zelakoa dan Bermeotarren leksikua. Orrek ez dau esan gura, Bermeotarrak legez bardin berba egingo dodana. Eurak

asko laburtuten ditue berbak, aditzaren flesiño espezialak daukez eta fonetika naikoa gatxa usetan dabe. Nik neuk berbak oso osorik esango dodaz, eta bizkaiera literarioa erabiliko dot; baiña leksikua Bermeotar utsa izango da jeneralmentean.

Nire lan onek parte bi ditu. Argi ta garbi jakin eragingo deusuet: lenengoan Bermeoko errealdadea, eta bigarreanean neure eretxia eta neure asmoak errealdade orren aurrean.

Azkenengo sei urteotan era ederra euki dot Bermeoko arraintzaleen eskuerea ikasteko. Sei negutan joan naiz eurokaz Oestafrikara atunetan. Luzaro bizi izan naiz euron artean, eta alegin aundia egin dot euron eskuerea ikasteko. Eskuera bizia; laboratorioan barik, Bermeoko portuan jaio ta azi dana; Bermeoko untzietan eten barik entzun dana, eta guga-naiño berez trasformatuta eldu dana.

Bermeoko arraintzaleak (arrantzaleak, ez arrantzaleak), itxasoan lan egiten dabenak, bi milla ta berreun dira. Euretariko geienak, Bermeon jaioak. Nire ustez, ez dira eunera eltzen kanpotik etorri direan erdaldunak. Bermeotar arraintzaleak beti egiten dabe eskuera (eskuera, ez euskeraz). Barkuetan ez da besterik entzuten. Euren arteko erdaldun banakak ez dira orregaitik keixetan. Ze erremedio! Pozik egoten dira eurakaitik noizik noizera egiten direan erderazko konbertsaziño laburraz. Erdaldun batzuk eskuera ikasten dabe, batez bere mutil gazteak. Mundakako arraintzale asko Bermeoko enbarkaziñoetan dabilta. Mundakarrak, ba dakizue, erdi galdu egin dabe eskuerea; baiña Bermeora datozen arraintzaleak laster ikasten dabe eskuera ondo egiten Bermeotarren alboan.

Bi milla arraintzale gau ta egun eskuera egiten. Joan Bermeoko tabernetara, lamerara (alameda), ziñetara, ta ikusiko dozue. Joan, batez bere, arraintzaleen Kofradiara; asistidu Junta Jeneral batera. Antxe ikusiko dozue saloi aundi bat, arraintzalez beterik, danak euren profesioño interesak defendidu ta jagoteko listo. Antxe entzungo deusazue sekretarioari, karreradun bateri, eskuera berba egiten Bermeoko arraintzaleen problema ekonomiku-sozialen gaiñean.

Baiña ez pentsa gero problema orreek txikiak direanik. Bermeoko igazko arraiñak berreun milloi pezeta balio izan dau. Espaiña guztian baixurako arraintzan Bermeok dauko flotarik aundiena. Urtean baiño urtean barku geiago egiten diardue Bermeotarrak. Barku aundiagoak, ederragoak, modernuagoak. Portuan ez dago ainbeste untzirentzako lekuri. Portu aundiagoa egin bear da. Edur fabrika kapazagoa. Orretarako dirua bear da. Milloi asko. Gobernuari eskatu bear jako. Problema ekonomiku aundiak.

Euron gaiñean berba egiten dago sekretarioa. Beti eskuera. Otsean otsean asten dira berba egiten batzarreko arraintzaleak. Beti eskuera. Eurak ez dauke edozer gauzaren gaiñean berba egiteko difikultaderik. Eskuera da euren herbabidea. Bide erreza, naturala, guztiz egokia. Eurak ez dauke leksiku problemarik. Ez deitse bapere ardura euren leksikua-ren erroak erbestekoak badira, frutua beti eskualduna da-ta. Euren ustez, euren eskuera ona da, total ona, biziteko eta gizon modernuak izateko balio deuselako.

Orra or eskualdun uri aundi bat. Amalau milla abitanteko uria. Arraintzaleak, euren familiakaz, bederatzi milla-edo dira. Beste guztiak, terrestreak. Kanpotar banaka batzuk izan ezik, erritar guztiak eskuera dakie, askotan —batezberre terrestreak— erderaz egiñarren.

Onezkero ba daukozue idea jeneral bat, zelako leksikua erabilten daben Bermeotarrak. Orain permitidu eistazue digresiño bat. Bermeoko Kofradiako Batzar Nagusira joan bazeintze, eta arraintzale bateri Madrilleko Gobernuaren kreditu nabalaren gaiñean berba egiten entzun bazengioe, seguru segurutik entusiasmuz beterik geratuko ziñakee, aren eskuerearen bizitasuna ikusita. Orain barriz, kulturazko batzar onetan, Bermeoko leksiku berorregaz egiñiko nire lan au entzuckeran, zueteriko batzuk bearbada erdi eskandalizatuta zagoze, leksiku ori paperean ipinten atrebidu naizalako. Orra or erreaziño diferente bi fenomeno linguistiku berberaren aurrean.

Eta orain segidu daigun aurrera; eta entzun eizue, sasoia da-ta, zelako leksikua darabillen Bermeotarrak itxasoan dabiltzanean.

Oraintxe urtengo dau Bermeoko portutik Oestafrikarantz «Galarrena» izeneko enbarkaziñoak. Amazazpi lagun dagoz barruan (abordo). Amairu tostarteko ta lau armadore. Euron artean nago neu-bere. Zafatu doguz txikotak. Asi gara barkua desatraketan. Korronte aundia dago portuan. Baiña gure patroiak total ondo egin dau maniobrea; lemazain leberra da, eta gaiñera gure barkua berez da maniobrosoa. (Eskuera *leber*, «activo, hábil», ingles *clever*-tik dator).

Urten dogu portutik. Goizeko bederatziak dira. Makiñisteak martxa geiago emon deitso motorrari. Gure untziak asko korrietan dau; korri aundikoa da, abilla da, martxantea da. Euri antza dago. Nordestetik dator aizea. Aize oneri mendebala deituten deitsagu. Atzean itxi doguz Izaro, Matxixako, Billanoa, Galea ta Bilbaoko Abrea. (Billanoa, artikuluagaz ta guzti.)

Amabiak inguruan, eguerdia jaten asi gara. Plato biko bazkaria atara deuskue. Jateko, platerik ez dogu usetan; tenedorerik-bere ez. Norberak bere lapikotxua dauko, eta koillarea. Naikoa da. Gaur, jatekoaren

gaiñetik, kafea emon deuskue. Gozo egon da. Mutillak larguro bota deutso azukerea. Nik neuk tola bete artu dot. (Aluminiozko basoari deituten deutsagu «tola».)

Ordu batetan, Santoñaren parera eldu gara. Kostako atx aundi bateri Fraillepe deituten deutsagu. Kosterrez goaz (atxerrez, kostearen errez, atxen errez, kostatik urre). Ordu bietan bisteratu dogu Sanandere. (Aolan deituten deutsoe Bermeotarrak Montañako uri nagusiari). Aurretik daroagu aizea. Aizearen barrura goaz. Gero ta aize berdeago dakar. Lau barku gatoz alkarren atzetik. Geure enbarkaziñoa dator aizerengo. Gure patroia radiotik berba egiten asi da aizebeetik datozen barkuakaz. «Artxanda» dator aizebeerengo. Beroneri egin deutso lenengo aupadea.

—Ea Anjel, ea emendik. Ea Anjel, ea emendik. Ea entzuten banozu. Arratsaldeon. Zeuretzat.

—Bai, Esteban, bai. Ea zer diñozun. Arratsaldeon. Zeuretzat.

—Ezer-bere ez, Anjel. Arratsaldeon emoteagaitik. Emen goaz ondo. Aize berdetxu au ez balego... Ez dot uste geituko danik baiña. Olan, etzirako itxiko dogu atzean Finisterre. Ea entzun dozun. Zeuretzat.

—Bai, Esteban, bai. Entzun deutsut. Eguraldiagaitik kasurik-bere ez. Ondo goaz. Biar, seguru, kalma zuria eukiko dogu. Emen nabil orain gonioa konprobetan. Txarto ez dago. Baiña, ba dakizu, lengo atunetean gonioagaz apurtxu bat algaretean ibilli gara-ta..., beti ikaratxua. Bueno, Esteban. Probetxu on bat danori. Agur.

—Bai, Anjel, agur.

Arratsaldeko seirak dira. Sasoia da afaltzeko. Lapiko zabal bi atara ditu mutillak. Kubertan jaten dogu jeneralmentean. Afaria baltsutik jaten dogu danok (lapikotik bertatik). Niri aolan gustetan jat geien. «A Jesus» esaten dau arraintzale batek. Auxe da jaten asteko seiñalea. Gero eskaratzera joaten gara kafea artzen. (Berba au —eskaratza— gitxi use-tan dogu. Bere orde zkoziñea esaten dogu geienetan. Lapikoak irakiten dagozan lekuari, batzuk suetea deituten deutsoe). Gure barkuko eskaratza total da txikia. Ori gorabeera, afalostean anxe batzen gara barruko geienak, ogera joan orduko. Danak dira nire lagun aundiak. Igaz ta igazlenean eurokaz joan naiz Oestafrikara. Itxi eistazue euretariko batzuen presentaziñoa egiten.

Au, nire alboko au, mutilla da. Amalau urte ditu. Datorren atunetean egingo da gizon. (Aienekoa-bere deituten deutsagu. Gauza luzea izango litzake orain espliketea, zegaitik emoten deutsagun izen politt ori).

Beste au barruko zarrena da. Kaiñabera lan egiten dau. Bede-ratzi urtegaz asi zan itxasora. Orduan, mutillak maria laurena bakarrik irabazten eben (zerrena, Bermeotarrak esaten daben legez). Gero, maria

erdia irabazten asi zirean. Orain barriz, maria osoa irabazten dabe; gizonak legez, bardin bardin.

Urrengo ori goitarra da, Lekeitiokoa. Urte asko daroaz Bermeon. Guretzako, Bermeo da kostaldearen erdiunea. Bermeotik lesterantz bizi direan arraintzaleak goitarrak dira: Lekeitiarrak, Motrikuarrak, Getariarrak eta abar. Oesterantz bizi direanak barriz, beetarrak dira: Laredotarrak, Santoñarrak eta abar. (Portugesak «leste» deituten deutsoe sortaldeari, Bermeotarrak legez).

Nire aurrean jezarrita dagoan ori sotapatroia da: arraintzale fiña, jasekoa. Patroia, momentu onetan, ez dago emen; kasetan (en el puente) dago. Bera lakorik ez dago iñor barruan: lemazain abilla, inkirnio (arranque) aundikoa, urtxakurra, aundigura bakoa, danon gustukoa.

Eta ni nor naiz? Aita Imanol deituten deuste. Orain sei urte, lenengo aldiz Oestafrikarako enbarkatu nintzanean, neure bildur zirean barruko arraintzaleak. Suberte txarra emongo neutsela uste eben danak. Barruko balbea, barkuko patua (hado siniestro) izango nintzala pentsetan eben. Gero, arraintzan asi giñeanean, aldatu egin eben euren uste txarra; gure barkua, Aita Imanol barruan egonarren, lengo besteko subertosoa zan.

Urrengo egunean eguraldi ohea egin euskun. Aizeak asko amor emon eban. Gaur-bere aizeraka goaz (aizearen barrura). Asturiasko mendi altuak ikusten asi gara. «Picos de Europa» deituten deutsee erdaldunak; guk barriz, «Tiñesak». Zeru ertzean merkante aundi bat bisteratu dogu. Doi doi ikusten da, itxasoan autsa dago-ta. Orainarte ez naiz mareatu. Mareaziño onekoa naiz. Baiña biar izango dira kontuak, Finisterrera allegetan gareanean. An ia beti egiten dau eguraldi zantarra. Aurten-bere aolan izan da.

Finisterreko farola eguerdi inguruan pasatu dogu. Aizea ekarten ekarten asi da. Aize gogorra. Ankakera emoten deusku (kostadutik). Murmoi aundia sartu da itxasoan (zarrantzi aundia, zarragoza). Ozta ozta ikusten doguz gure aizebeetik datozen barkuak. Orain brankatik (aurretik) emoten deusku aizeak. Marejada aundia dago itxasoan. Aizeari eta olatueri aurrera egin eziñik gabiltza. Itxaso aundi bat sartu jaku bodegara bertara (lo egiten dogun tokira). Iru ordu daroaguz kapan (a la capa). Bide gitxi egiten dogu. Orakan orakan goaz (beti leku baten). Jo ta tapa, jo ta tapa.

Illuntze nabarrean kalmune labur bat euki genduan; baiña laster asi zan aizea osterabere, len baiña afrontosoago. Vigora arribadan joan bear izango dogula esan dau radiotik «Artxanda»-ko patroiak. Ezetz eran-

tzun deutsoe beste patroiak, gure barkuak saiets sendoak dituela eta ainbat ariñen Canariasera eldu bear dogula-ta.

Urrengo egunean argi agertu zan zerua. Bezperako zarragoza askatu egin da. Eguzkiak geldi geldika jan egin dau aizea, eta baretu egin da itxasoa. Danok gagoz pozarren, oraindik aurrera Canariaserarte Atlantiku erditik joan bear dogu-ta. Arratsaldean poparean (popatik) asi jaku aizea. (Konturatu zaiteze aintxiñako berba onegaz: poparean, popatik). Orain ez goaz kosterrez (ez goaz atxerrez), zabaletik baiño. Ur aunditik goaz (uretik). Ez dago ondorik emen. Ur baltza becan eta zeru azula goian. Kantilletik urrun gagoz (kantilletik asago, Bermeotarrak esaten dogun legez). Geroaga ta urerago sartu gara. Gure opostetik petrolero bat dator. Andana aundia dakar. Gure baborretik pasatu da. Ugera luzea itxi dau bere atzetik.

Canariaserarte eguraldi Habana euki dogu. Las Palmasen egun bi egin doguz, edurra artzeko ta biberak erosteko. Gero, abante barriro. Orain kosterrez goaz. Lau eguneko bidea daukogu oraindiño Dakarrerarte. Lemazaiñak txitean pitean begiraturuten deutso sondeari, kostalde onetan arezko baixa asko dago-ta. Egorazka egorazka goaz (beerazka beerazka), ein bateko (intensidade bateko) aizea poparean daukogula. Singladura bi eginda gero, illuntzean Cabo Blancoko senaiean (ensenada) errekalatu dogu, karnadea egiteko; baiña ez dogu ezer atrapatu, etxada bi egiñarren. («Karnada»-ren orde, «beita» esaten dabe giputzak; baiña berba au ingles utsa da. «Etxada» kostalde guztian esaten da).

Gero ta gero-bere, allegatu gara Dakarrera; baiña ez gara portuan bertan sartu. Badian (en la bahía) geratu gara danok fondeatuta, illunduarte. Gaubeon, derrigorrean egin bear dogu amurako karnadea, atuna atrapatetan biar goizetik asiko gara-ta. Zorionez, subertosok izan gara danok: onek lenengo etxadan, arek bigarreanean, danok bete doguz hiberoguztiak sardiña ederragaz.

Urrengo goizean, egunaren sentikera jaigi gara danok. Listo gagoz faenarako. Meladea atarako deitsagu atunari. Arraintzale pillo bat korosteko tostan jezarrita dagoz, itxasoari begira, atuna noiz agertuko. (Korostari «proa» deitututen deutsoe erdaldunak. Manda batetik bestera doan jezarlekuari «tostea» esaten deitsagu eskuera. Eta mariñeruari, armadore ez danari, «tostarteko»).

Alako baten, goizeko zortziretan, patroiak ubillada bat (arrañaren saltu bat) ikusi dau eguzkipean (eguzkiak uraren gainean egiten dauan erluzean). Bertara goaz korri guztian, eta arraintzan asten gara. Danok estriborretik. Aurrean mariñeru bat dago mazi egiten (karnada bizia itxasora botetan, debaldeko arraiña atunari jaten emoten). Gero kaiña-

berako gizonak datoz. Atuna azia danean, kaiñaberakoak laguntzaille bana dauke. Laguntzaille oneek, karnada bizia amuan ipinten eta arrain torpea (aundiegia) kako bategaz itxasotik altzetan lagunduten deusee. (Bermeon kako orreri «txista» deituten deutsagu). Kaiñaberakoen erdian beste mariñeru bat egoten da, deskantsu barik txiparrari eragiten (mangera bategaz ur txaparradea itxasora botetan), atunak ikusi ez gaizan, errezala ez daiten eta eskapa ez dakigun. Kalada bi egin doguz goizeon, eta bietan arraintzu ona egin dogu.

Arratsaldean sarda ederrak ikusi doguz (itxasoa bitsetan, atunak ubilka, arrain txikia jaten). Enbarkaziño guztiak baltsu baten ibilli gara (leku baten). Baiña gitxi atrapatu dogu: atuna ez da egon jatera (jangartzu egon da). Gure untzian amar grano bakarrik josi doguz.

Gaur gaubeon karnadea egin bear dogu barrero. Atuna kantil er-tzean atrapatetan da (ur aundian, ur azian, eundaz brazako urean). Karnadea barriz, ur txikian atrapatetan da (ur meean, ur zurian, sikutan, plaiean). Karnada lekua naikoa asago dago kantilletik.

Eguzkia zarratu orduko asi gara lesteraka, plaierazka plaierazka, geldi geldika, sikutarantz. Blankura asko ikusi doguz bidean. (Karnadatarako arrain maseari emoten deutsagu izen ori, berorren kolorea egunez zuriztea dalako. Berba au kostalde guztian erabilten da).

Gauoko bederatzieta eldu gara karnada lekura. Kalma zuria egiten dau. Sondeak ogetamar braza marketan ditu. Gure barkua andana guztian dabil gora ta beera, arraiña billatuten. Alako baten iru ardor matxo ikusi doguz (iru ardor aundi). Karnadatarako arrain maseari «ardora» deituten deutsagu, gauetz botetan dauan argitasunagaitik. Berba au kostalde guztian usetan da. Lenengo etxadeagaz bihero guztiak konpletatu doguz. Karnada elegantea izan da. Arrain garbia (klase batekoa, naaste bakoa), antxoba ederra.

Urrengo egunean, kantillera eldu orduko, arraiña jo dogu. Suberto-soak izan gara. Iru orduko kalera baten bederatzireun atun txikirriño enbarkatu doguz. Nebera biak, aurrekoa ta atzekoa, arraiñez beterik daukoguz. Sasoia da errira (a tierra) joateko. Gonioagaz Freetowneko radiofaroa markatu dogu. Biar goizean zazpiretan-edo sartuko gara portuan. Freetowneko portua gatxa da sartzeko. Azkenean, sartu gara. Kanpoko moillan atrakatu dogu. Danok gagoz pozik. Pixuak amabost tonelada emon deuskuz. Mare ona egin dogu.

Entzun dozuez, jaunak. Bermeotarrak itxasoa erabilten dituen herba banaka batzuk. Onezkero ba dakizue gitxi gorabeera zelakoa dan Bermeotarren euskal leksikua. Nire lan onek 2.200 berba ditu gitxi gora-

beera. Euretarik 600-edo, diferenteak dira. Azkueren iztegiak 353 baka-
rrik dakaz. Beste guztiak (247, euneko 41) Bermeotarren agoan en-
tzuten dira: batzuk aintxiña aintxiñatik, beste batzuk ez ain aspalditik,
danak bizi bizirik baiña.

Nire ustez, Bermeotarren leksikua aberatsa da, interesantea da.
Duda barik bizia da. Nire eritxiz, gaur egunean erriaren euskerea Ber-
meokoaren antzekoa da edonon. Bermeoko fenomenoak ez da bakarrik
bertakoa, Euskalerrri guztikoa baiño, batez bere uri aundietakoa. Naita-
naiez, auxa da gure euskerea. Batzuk beste euskera bat gura izango
leukee, garbiagoa, bitxiagoa. Baiña orain bizi dan euskerea ez da orrela-
koa. Ez, ez da orrelakoa. Komentzidu gaitezana. Izkuntza baten giarrca
mintzabide izan ala ez izanean datza. Nire ustez, euskera biziaren gaiñean
egin bear dogu lan. Euskaltzaleen problema nagusia ez da izkuntzearen
bitxitasuna, garbitasuna, bere bizitasuna baiño. Auzi onetan erria da
maixua. Berak esango deusku ze euskera klase dan onena alkar ulertzeko
eta alkarregaz berba egiteko. Esan deusku Bermeoko erriak.

Aita Imanol Berriatua.

EUSKAL-ITZEN MAIZTASUNA

Bialdu zuen kartaren zatia

Lan luzeagoa eta obeto egiña bialtzeko asmoa euki det, baiña nere gaixua
dala ta, ezin izan det egin neure gustora. Zure Nere izena zan Plorentxi liburu-
tik (1), Loidi'ren Amabost egun Urgain'en polizi-nobelatik, Kirikiñoren Abarrak-
etatik, eta Altube (G. B.)'ren lan batzuetatik lana egiteko oiñarria artzekotan
nengoan, baiña ezin izan det egin. Zure liburuko itzaurrearekin bakarrik egin
det lana. Jakiña, eztago dana ondo egiña. Sufijoak eta ez ditut egiñ. Ez bial-
tzekotan ere egon naiz, ez dagolako ondo amaituta. Baiña onelako lanak egiteko
bidea. zabaldu bear degu, Pedagoji-liburuak realismo piskategaz egin nai baditugu.
Orrelako liburuak eta egiteko, jakin bear degu zeintzuk diran oraingo idazleak

(1) Aita Luis Villasante-na.

erabiltzen dituzten itzak, eta zeintzuk diran maizen erabiltzen diranak. Lan auk egiteko, apaizgaien artean eta fraidegaien artean ekipoan artu bear da lana, bestela denpora asko galtzen da batek bakarrik egiteko. Or erabakiko dezue zeintzuk (liburuak) artu leitekezan oinarriztat lan au egiteko; esate baterako, Arantzazukoek zein liburu; Seminaristek beste bat eta zein; Loiola-koek, eta abar.

Gero beste gauza bat, inportantzi aundikoa: Artu bear dituzue kriterioak nola egin bear diran lan auk.

Anai Berriotxo F. S. L.

eta	22		gure	10	
ta	2	24	gurea	1	11
ez	7		Jainkoa	3	
ezta	3		Jainkoak	2	
eztet	2		Jainkoaren	2	
eznien	1		Jainko	1	
ezpadute	1		Jainkoagandikoa	1	
eztakitenak	1		Jainkoari	1	
eztedilla	1		Jainkoarekiko	1	11
eztira	1				
eztuen	1		da	7	
eztute	1	19	dan	1	
berak	8		danean	1	9
bera	3		bat	6	
berakin	2		batean		
beraren	1		batekin	1	
beragan	1	15	batetik	1	9
ere	13	13	du	3	
egin	5		duen	1	
egiten	4		dute	3	
egiñak	2		dutela	1	
egiña	1		dutenak	1	9
egitea	1	13	bere	8	8
izan	11		zan	8	8
izanik	1	12			

bizi	3		ezagutu	2	
bizitzan	2		ezagutzen	2	
biziak	1		ezagutzeak	1	5
bizitzarik	1	7			
oiek	4		moja	3	
oiei	1		mojen	2	5
oien	1		olako	4	
oietako	1	7	olakotik	1	5
ori	4				
orixe	3	7	siñisteko	3	
			sinisteko	1	
au	5		siñisgarri	1	5
auk	1				
auetatik	1	7	ama	4	4
eman	6				
emateraiño	1	7	arrigarri	1	
			arrigarria	1	
gauza	3		arrigarritzorik	1	
gauzak	1		arritzekoa	1	4
gauzei	1				
gauzen	1	6	diteken	1	
			ditekenik	1	
izaten	3		ditezke	1	
izatea	1		ditezkenik	1	4
izatera	1				
izateraiño	1	6	elizan	1	
			elizaren	1	
badago	1		elizari	1	
badiogu	1		eliz-parrokiren	1	4
baditu	1				
badu	1		errian	1	
badute	1	5	erriko	1	
			errira	1	
baiña	5	5	erritik	1	4
bataioko	2				
bataioa	1		euskal	1	
bataioan	1		euskaldun	1	
bataioaz	1	5	euskalduna	1	
			Euskalerriko	1	4
bera	5	5			
			geiegikeriak	2	
dira	4		geiegi	1	
dirala	1	5	geiegikeri	1	4

Jauna	1		etorri	1	
Jaunak	1		etortzen	1	
Jaunaren	1		etortzean	1	3
Jaunari	1	4			
			gaur	2	
maitasunezko	2		gaurko	1	3
maitatu	1				
maitetsuaren	1	4	gera	3	3
amodio	2		guztien	2	
amodiozko	1	3	guztia	1	3
aundia	2		lagun	1	
aundiena	1	3	lagundu	1	
			laguntzen	1	3
artu-eman	1				
artu-emana	1		lenengo	3	3
artu-emanak	1	3	nai	3	3
artzen	3	3	nik	3	3
ba	3	3	onek	2	
			oni	1	3
bai	3	3			
			otoitza	2	
bear	2		otoitzak	1	3
bearrago	1	3			
			zidan	2	
batzuen	1		ziran	1	3
batzuek	1				
batzuentzat	1	3	abadesa	1	
			abadesari	1	2
begirada	2				
begiratzean	1	3	al	2	2
dala	3	3	ala	2	2
degu	2		alegia	2	2
degula	1	3			
			ara	2	2
dira	2				
diranean	1	3	artu	2	2
egia	2		arrazoia	1	
egiazkoak	1	3	arrazoirik	1	2
esan	2		asmatu	1	
esaten	1	3	asmatuak	1	2

asko	1		eraman	1	
askok	1	2	eramaten	1	2
auxe	2	2	erakutsi	1	
azi	2	2	erakusten	1	2
azken	1		erretratu	2	2
azkenik	1	2	eskatu	1	
baño	2	2	eskaturik	1	2
batez	2	2	euki	1	
bear	2	2	eukitzen	1	2
bein	2	2	gero	2	2
bere	1		grazia	1	
beren	1	2	graziatik	1	2
berri	2	2	gutxi	1	
besteen	1		gutxirekin	1	2
besteekin	1	2	ikusi	1	
beti	2	2	ikusten	1	2
dagokio	1		itza	1	
dagonean	1	2	itzaurrea	1	2
daudelako	1		izen	1	
daudenai	1	2	izena	1	2
det	2	2	kristau	2	2
dezaken	1		lan	1	
dezakenik	1	2	lanik	1	2
dion	1		mistikak	1	
diote	1	2	mistikuen	1	2
egiten	1		mundu	1	
egiteraiñoko	1	2	munduko	1	2
eldutasunera	1		nagusi	1	
eldutasunezko	1	2	nagusia	1	2
ementxe	1		nere	2	2
emendik	1	2	niola	1	
			nionean	1	2
			nola	2	2

noraiñoko	1		zor	2	2
noraiñokoa	1	2			
obra	2	2	aazkarrari	1	
oi	1		adierazten	1	
oiturak	1	2	adiskidetasun	1	
olerkari	1		agertu	1	
olerkietan	1	2	ahapaldi	1	
omen	2	2	aideekin	1	
onek	1		ain	1	
onekin	1	2	ainbeste	1	
ontan	1		aintzat	1	
ontaz	1	2	Aita Santuak	1	
orain	1		aitzakitatzat	1	
oraintxe	1	2	alaba	1	
orregatik	1		alaxe	1	
orregaitik	1	2	al-dago	1	
orrenbesteko	1		aldetatik	1	
orrenbesteraño	1	2	alea	1	
oso	2	2	alegia	1	
parroku	1		alguztiduna	1	
parrokuarekin	1	2	amestuak	1	
sartzen	1		ango	1	
sartzean	1	2	antze	1	
tokia	2	2	apaiz-gai	1	
txotxolokeriak	1		apaiz-karrera	1	
txotxolorekiak-edo	1	2	ara	1	
uste	2	2	arentzat	1	
zer	2	2	arima	1	
zerbait	2	2	aritza	1	
zeruko	2	2	ar-eman	1	
ziñez	2	2	ark	1	
zion	2	2	artan	1	
			artean	1	
			arren	1	
			asko	1	
			aul	1	
			aurrak	1	
			aurrean	1	
			ausnartzea		
			autatuena	1	
			auzi	1	
			axalekoak	1	
			azaroan	1	
			azia	1	

azkartzen	1	edo	1
azkengabea	1	eginbear	1
azpian	1	egunean	1
aztorau	1	ekarri	1
baïta	1	emakume	1
baitigute	1	entzunda	1
baitziguten	1	erabilli	1
baitzuen	1	eraman	1
banaka	1	erdi	1
barneak	1	erkiturik	1
barne-bizia	1	erregiña	1
barkaziotan	1	erregutu	1
barreiatuak	1	erriagaitik	1
bataioarrira	1	eskandalurako	1
batean	1	eskas	1
batetxo	1	eskerronezko	1
bazekian	1	eskubidea	1
bear	1	eskumiñak	1
bein	1	eskutitz	1
beraz	1	esperientzi	1
berez	1	esplikatu	1
berberean	1	estuena	1
beretzat	1	etengabeko	1
besterik	1	etxetiarrak	1
bide	1	ezaguna	1
billatzen	1	ezez	1
bitartean	1	ezin	1
biurtu	1	ezkur	1
bizia	1	ezkurra	1
burua	1	ezkuz	1
dala	1	ezpaiñetan	1
dakitenak	1	eztabaidak	1
dedilla	1	gabe	1
deituak	1	gai	1
denporan	1	gaitu	1
dezagula	1	gaiñera	1
dit	1	gandorrik	1
dituen	1	garai	1
ditut	1	garratz	1
digun	1	gauza	1
doatsuak	1	gaztea	1
duela	1	gazte-denporan	1
duenarekin	1	geiagotan	1
dute	1	gelditu	1

genuen	1	meditatzea	1
gertatu	1	mesedea	1
gizaldi	1	min	1
gizon	1	moja-etxe	1
gloria	1	moja-itxi	1
goitar	1	nekatzen	1
gogoan	1	neurrigabea	1
gogoratzeko	1	ninduten	1
gorenak	1	nuen	1
gordetzen	1	oe-ondoan	1
gorputza	1	ogeigarren	1
ibilli	1	ola	
idatzirik	1	ontan	1
ikasi-bearra	1	onartzea	1
ikasteak	1	ontasun	1
inguruan	1	oraindik	1
inportantzirik	1	oraingo	1
iñoiz	1	ordaintzen	1
iruditzen	1	orduan	1
itxi	1	ori	1
itzultzean	1	osasan	1
ixuriak	1	ote	1
izkuntza	1	otoitz-bidean	1
Jainko-fedea	1	paketsu	1
jakiña	1	paperaz	1
jayoterrira	1	pekatuakgaitik	1
jesuitetan	1	pontean	1
jetxi	1	prestatu	1
kanonigo	1	saiatzen	1
kanpoko	1	santutasuna	1
kanpo-aldera	1	salbatzeko	1
klausurako	1	seiñale	1
kontrara	1	seminarioan	1
konzezioko	1	sekuia	1
kordokatua	1	sumatu	1
korrientea	1	udako	1
kreatura	1	ukigarria	1
landare	1	uko	1
lau	1	ura	1
lehen	1	urruti	1
liburutxo	1	utsik	1
lukena	1	zaarrak	1
makiña	1	zabartasun	1
materialismuak	1	zaie	1

zaigun	1	ziola-ta	1
zaiozu	1	zion	1
zaitu	1	zituen	1
zaizkionak	1	zitzaizkidan	1
zapaldu	1	zorabioan	1
zatirik	1	zozokeri	1
zein	1	zuan	1
zerbitzuan	1	zuen	1
zeregin	1	zure	1
zertako	1	zuten	1
zidalako	1	zuzen	1

24	aldizkoak	1 =	24	3,2 %
19	"	1 =	19	2,5 %
15	"	1 =	15	2 %
13	"	2 =	26	3,5 %
12	"	1 =	12	1,6 %
11	"	2 =	22	2,9 %
9	"	3 =	27	3,6 %
8	"	2 =	16	2,1 %
7	"	5 =	35	4,7 %
6	"	2 =	12	1,6 %
5	"	9 =	45	6 %
4	"	9 =	36	4,8 %
3	"	25 =	75	10 %
2	"	69 =	138	18,5 %
1	"	240 =	240	33,6 %

742 itz danez

Anai Berriotxo Salletarra.

EUSKERAREN ALDEKO LAN OROKAR BATEN EGITARAU

Bayona'n 1963'ko iraillaren 7'n.

Euskaltzaindia

Ribera, 6

BILBAO

Agur jaunak:

Euskaltzaindiak euskaltzaleai egin dien deiari erantzun naiean, datorren illean Arantzazu'n egiteko dagoen batzarrerako, onekin batera dijoan txostena biali nai dugu, laguntza txikia eskeintzeko gogoaz.

Gure lantxo ortan ikusiko duzutenez, alde ta iritzi guzie-tako euskaltzaleak ikusi nai-izango genituzke lan berean sarrututa, guziok gure Erri ta gure izkuntzarekiko maitasunean alkarturik. Euskerarena ororen arazoa dugu ta orrengatik alik eta euskaltzale geyenak gogoz erabiltzeko artu bear dute. Beraz, naiz Erri naiz euskeraren onerako, guzien lanak ontzat artutako egitarau baten norabideetan barna eraman bear dira geron gardiz. Orrengatik noraezekoa izango zaigu aurretik guzientzat egokia izan diteken egitarau ori atontzea; ta orixe duzute, ain zuzen, gure xede berezia.

Euskeraren biziarentzat ar diteken bide bearrena, irakas-kintzarena dugu eskierki, ortan baitago eguzki pean kultura ororentzako oñarria. Guretzat ere orixe izan bear dalakoan, gure lan berezienak ortara eraman bear-izango ditugula uste dugu, egin liteken alkartasun aundienean.

Xede oietaz dijoakizue gure lana; ia bertan egokia izan diteken zerbait aurki ote dezakezuten.

Onar ezaizkiguzute, otoi, gure agurrik on eta kartsuenak
E. K. A.

Urrestarazu'tar A.

Idazkaria

Gure izkuntza onen etorkizunari buruz ajolaz beteta gaudelarik, beraren alde gaur zer egin liteken ikusteko, arlo ori erabiltzen ari-izan gera aspalditxodanik; ez dugu uste arazo erraz bat dugula ortan eta gure iritzia ba-liteke guztiz egokia ez izatea; baña euskeraren alde lane-gitea euskaldun guzcion eginbidetzat daukagula-ta, bearra iruditu zaigu gure iritzi ori agerrerazte, guri dagokigun eginbidea betetzeko lenen-goz, eta besteak egin dezaketinari laguntzaren bat emateko naiean gero.

Asmo oietaz, euskeraren aldeko lan orokar baten egitarau bat aton-du dugu ta Euskaltzaindiak Arantzazu'n aurtengo urrillean egin nai duen euskaltzaleen batzarrerako txosten bat bezela aurkezten dugu.

Ona emen geron asmo ta aburua:

Euskerari, izkuntza danezkero, bizi-izateko, gaur bizi oparoaz ager-tzen diran beste izkuntza guziak bezela ari bear-izango zaio. Izkuntza guzti oiek, berak eratu duten kulturari barna edatu dituzte beren ahal-men guztiak; kultura izan zaie bide egokiena, bearrena, alde guztietan gutxi gorabera berdin erabilli izan dana; eta orren orokartasun aundian, urte ta mendeetan erabillia izan dalarik, oso on eta egokia dala bayeztu egin bear; geyago, beste biderik ez dagoela esan genezake. Alakotz, bere burua edatu nai duen edonungo izkuntzari, euskerari ere, orrenbeste egitea dagokio, ala bearrik. Guk ere gure euskal-kultura eratu ta zabaldu bear dugu, enurarik gabe.

Kultura arazoetan, errialde guztietan gauza bera egiten dute aspal-didanik guziek bide bat, bide berbera eramaten. Eta ori ere guziena danezkero ta orren luzaroan darabiltenez, on eta egokitatzat artu bear dugu, noski. Beraz, bide ori guri ere eramatea egoki ta bearra izango zaigu.

Zein ote da bide ori? Alde guztietako kulturak —gaur kultura itzari ematen zaion zentzun zabalean— aurrak lenengo gauzak ikasten ditue-nean asten dira; beraz, bereziki, lenengo eskoletan. Oietan asitako kul-turak oro (Erri guztien kulturak), gero irakaskintza-mail guztietan bar-na indartzen eta borobiltzen dijoaz; azkenez, osoro zabaltzeko, gogoari dagozkion zelai orotara eldu ta jarduteko.

Euskal-kultura ere bide guzti oietan barna joan-erazi bear-izango dugu; euskaldun aurrak asi ta euskal-irakaskintzan barna eraman euskal-bizi oparotsuan euskal-gogoz okiturik sar dedin. Egiazko euskal-kultura izan dezagun, orixe da bidea; eta ori atontzen eta erabiltzen ezpada, eus-kerari ilko da; eta beraren alde egin ditezken beste lanak, azkenez, alpe-rrik egiñak geratuko dira, eskierki.

Egin al dezakegu geuk ori, euskal-irakaskintza antolatu, indartu ta gure Errian barna jarri? Gaur, noski, ezin. Irakaskintza guzia Ma-

drid eta Paris'etik emandako legeen pean dago Euskal-Erri guzian antolatua; tokirik ez, orrengatik, edo oso gutxi onenean, gure euskerarentzat gaurko ikastoletan. Ziur egon gaitezke, alaz ere, egunen batean antolaketan ori aldatuko dala, ta eskolaetako bidea euskerarentzat zabalduko dala. Baña ezin egon gaitezke, bide ori ustiatzeko bearra izango dan guzia aurretik atondu gabe; orixe, gañera, guri dagokigu gertutzea, guri bereziki. Alakotz, bear-bearra zaigu euskal-irakaskintzari buruz egitarau bat eratzea ta ortarako gaur bertan zer egin bear dugun ikusi, zer egin ahal dugun azterkatu ta egingarria izan diteken guzia bete.

Ikus dezagun, beraz, nola ari izan bear dugun. Ortarako, lenengoz, arazo orri buruz gaur ditugun bide, eskuarte, erraztasunak eta oztopoak zeintzuk diran jakin bear da garbi.

Bi norabide aundi auek eraman bear-izango ditu egingo dan lan guziak: Euskalerri osoari so-egitea, ta euskeraren batasuneruntz beti jozteko xedea. Batasun ori ez da berealaxe egingo, eskierki, baña berarekiko urratsak eman ditezke ta eman bear dira.

Euskelgi batzuetan barna bizi da gaur euskera, ta ortan agertzen da irakaskintzarako oztopo bat; asieran euskal-irakaskintza euskelgi ba-koitzerako antolatu bear-izango da, geron ustez, naiz eta orrela lana aunditurik izanarren; umetxoen bearra da arretaz begiratu bear dana, ta, asieran bederen, bear orrek orixe eskatzen duela dirudi.

Euskal-irakaskintza, lenengoz, euskaldunak diran errietan bereziki jarri bear-izango da; bai ta beste uri aundietan ere ortarako bertan euskaldunak aski izan ezker. Baña bide batez, Euskalerri'ko erri ta uri guztietan, euskera beste gai bezela ardura aundienaz irakasiko da.

Esan dugunetik, argi atera diteke euskal-irakaskintza osoaren asiera lenengo mallakoak izan bear duela, lenengo eskolarenak. Arazoa, lenda-biziz, orrela zedarriturik, errazagoa ere biurtzen da. Alakotz, asiera ortan, Erri osorako irakaskintza onela atontzeko: alde guztietan euskera gai bezela irakasiko da, ta euskaldun errietan ikasteko bidea bezela erabiliko. Gai bezela, beko ta goiko irakastola ta ikastetxe guztietan; bide bezela lenengo eskoletan, mintzoeraz euskaldunak diranen artean.

Euskal-irakaskintzaren antolatzea ezin utzi dizaioke, ez gizon bati ez eta bazkun bati bakarrik, naiz eta oiek jakintsuenak izan. Euskera ta Erri osoari dagokien arloa izanik, gure errialde orotako euskaltzale guziek lan ortarako beren laguntza aundiena eman bear-izango dute. Ba-dira euskelgi guztietan ari diran euskaltzale onak, izkelgiengatik ala beste edozein arrazoigatik beren iritzi bereziak dituztenak; beste aldetik, izari orokarrean, berdin ez diran jokera batzuk azaldu dira, garbitasun osoa jarraitzen duenarengandik mordolokeri larregiraño, eta mutur bi

oien artean ari izan ditezkenak. Izelgi batean egon ditezken itz, joskera edo esakun obeak ontzat artu bear dira batasunezko euskerarentzat eta kulturazko bearretarako ere; orobat guzien iritziak, zindotasunez egiñak izan ezker, onartzeko ta entzungarritzat euki bear dira, guziak askatasunez azaldu ahal izan ditezten eta elkarren artean erkatu ahal-izateko. Ortan ditugun ez berdintasun guztiengatik, ain zuzen, esan dugu len, irakaskintzaren arloa emengo ala ango gizon edo talde baten eskuetan bakarrik utzi ezin ditekela. Geron ustez, izelgietan izan ditezken aldin guziak eta bazterretan era ditezken iritziak oro ere, irakaskintzaren lanerako agerrerazi bear-izango dira. Gañera, geron gardiz, oso noraezekoa zaigu iritzi guziak ezagutzea, eta ortarako, iritzi danak agertu ahal izan ditezten, bide egokiak idekitzea bear-bearra, guziongan eta bakoitzarengan, ororena izango dugun elbururako, norberaren laguntza emateko naimena, gogo onez eta indartsuenik, sendotzeko asmoz.

Euskeraren alde egiten dan guzia ona da, txiki naiz aundia izan. Baña euskera bizi dedin, kultura-izkuntza biurtu bear danezkero —orixe ezinbesteko ta eraginkorra dan bidea, nagusiena beraz— eta kulturaren oñarri bearrezkoa irakaskintza izanik, bearrezkoa zaigu euskal-irakaskintza euskeraren aldeko lan guztien erdiko ta mami bezela artzea, orren inguruan eta ortik sortu bear-izango diran eskuarteei esker, kulturaren adar guztietara, euskal-eraz eta obekienik, igoteko. Geron iduriko, asmo ori guziona edo dugu; baña ororena izan bear duen lan batean asteko, on eta egokia izango zaigu asmo ori geron baitan berriro artu ta indartzea, asiera ortan bederen guziok bat izateko.

Ororena izango litzaken euskal-irakaskintza antolatzeko egin bear dan lanerako, euskaltzale guzien edo geienen baiespena lortu ahal-izango balitz, lan ori burutzeko egitarau egokia gertutzea izango litzake urrango urratsa.

Len, gure Errian irakaskintza antolatzeko gure asmoa adierazi dugu; jakina, berriz esango dugu, ortarako gure esku izan gaitezeneke. Orain, xede orri buruz, gaur zer egin bear ote dan noraezekoa zaigu begiratzea, orduan lanerako eskuarte egokia izan dedin.

Urratsez-urrats ari-izateko, bearrezkoa zaigu lenengoa ematen asi; eta irakaskintza guziaren asiera lenengo ikastolako izanik, orixe, len-dabiziko irakaskintza izango zaigu gure lenengo betekizuna. Gaurkotz eta bide guziaren asiera bezela, ortan zedarritu bear dugu gure lana, ororena izango dan lana. Ona emen, nola burutu genezaken lan ori:

Gaur eta gerorako, bear bi aukerak ditugu euskal-irakaskintzaren nagusienak: A) *Ikas-liburuak egitea*, ta B) *Euskal-irakasleak gertutzea*. Eta lenengo irakaskintzaz ari izan bear dugulako, lendabiziko eskoletan era-

biltzen diran gaiak izango dira ikas-liburu gaurkotz. Orrelaxe ondo mugatua izango dugu lenengo lana.

A) *Ikas-liburuak egitea*. Esandako gaien bakoitzerako liburu bat egiteko, urrats bi aukereman eman bear dirala uste dugu: 1) gai orren itz berezien bilduma eratzea; 2) liburua egiteko batzaldi zabala idekitzea.

Bearrezkoa deritzaigu, lendabizi, gai bakoitzerako bere itz berezien bilduma eratzea; ahal-izango balitz, oso ona izango litzake, batzaldira elduko liraken liburuentzat eta gerokoan idatzi litezkenentzat ere, aurrez itz-bilduma bat aukeratzea, idazle guziek onarturik; orrela mail ortan ere batasuna egiña geratuko litzake. Erreza iruditzen ezpazaigu ere, orren atzetik ibilli bear dugu, ortarako bide egokia idekitzen. Ona emen xede ortaz eta gure ustez zer egin genezaken: 1) Lanera lotu litezken guziek (taldeka baldin bada obe), lendik autatutako gaierako itz-bilduma bana aurkeztu lezakete; naiz lendik egindako beste liburuetatik itz bat edo batzuk jasoten (jakiña, nundik artu dan esanez), naiz bakoitzaren iritziz, itz berri bat edo batzuk eratzen; baña itz bakoitzaren zentzuna, itz bakoitzak adierazi nai duena, euskeraz ematen; adierazte ori iztegietan edo ikas-liburuetan ematen diranen antzeko izan liteke.

2) Lendik argitaratuta dauden beste liburuetan, iztegietan eta ikas-liburuetan, aurkitzen diran itz berezien bilduma ateratzea, egoki ta bearra ere deritzaigu, liburu oien egille bakoitzaren itz-bilduma ere izateko; noski, len bezela, itz guzien adierazpena emanik. Itz bakoitzarentzat ere españeraz eta parantzerazko itzulpenak egiñik. Orrela, iritzi guztiak bilduta izango genituzke, bat ere urruñatu gabe, ta alkarrekin argitaratzea bide egokia dugu, idazle ta irakasleentzat iturburu bat bezela izan dedin. Lan guzti ori bildu ta zuzenduko luken bazkunak, bilduma guztietatik bat esondatu lezake batasunerako bidea emateko xedeaz; ala ere idazle ta irakasleak izango lirake beti, beren iritziaz, bilduma oietatik itz batzuk ala besteak aukeratzeko jarei. Baña, berriz dagokigu esatea, bearrezkoa deritzaigu iritzi guziak bildurik eukitzea, ororentzat ezagunak izan ditezten.

Itz-bildumak eta ikas-liburuak egiteko, iru norabide auker litezke: 1) Euskaltzaindiak 1958^{garren} urtean Arantzazu'n egin zuen batzarrean aolkuz eman zuen auxe: «Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie ortarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe naiz ta nekegarriago izan» (*Eusker*a).

2) Asmo berberak erabillirik, Unesco'k 1954'garren urtean «Ama-izkuntzak irakaskintzan erabiltzea» izenaz argitaratu zuen liburu batean esaten dan au:

14'garren orrialdean: «Izkuntza-auzi nagusia ontan datza: idatzita ez dagoen izkuntza elertikoa biurtzea; lendabizi elizti ta fonetikari buruz bere izaera tinkotuz, itz-bilduma egikorra atontzen eta gero erabiltzeko egokiak izan ditezken idazkera ta ortografia ematen».

69'garren orrialdean: «Ama-izkuntza eskolan lendabiziz sartzen danean, edo lendik irakaskintza ta jakintzarako oso gutxi erabilli dan izkuntza xede oietarako sartu nai danean, itz-bildumaren edatzea kontuz atondu bear da».

70'garren orrialdean: «Lendik onartutako arauaz, itz-bilduma baten edatzea». «Geyenetan, auzia, itz-bilduma egokia ez izatea izaten da. Orduan, izkuntzari peitzen zaizkion itzez ornitzea aski da; ortarako urren-goan azaltzen diran jokerak erabilli ditezke, urrenkera ontaz onartzeko:

- a) bizi diran itzetatik berriak ateratzea, itzak eratzeko izkuntza bakoitzak dauzkan arauen bidez;
- b) atzerriko itzen antzekoak egitea eta ortarako itz oien atal bakoitzaren orde, izkuntzaren itz-bildumatik artutako aren zentzunkide izan dedin beste atal bat jaritzea;
- d) atzerriko beste izkuntzaetatik bearrezkoak izan ditezken itz batzuek arturik, fonetikari buruz, artzen dituen izkuntzaren arauetaz egokitzea».

«Azken jokera au ahal den guzian ez da erabilli bear, izkuntzaren itzorkun-oreka kordokatzeko galbidea dalako, eta, antzekoak baña iturburu batekoak izango ez diran itzak batera erabiltzeak, nasketa sorrerazi dezakelako. Gañera, beste izkuntzaetatik itzak artzea, edozein neurrian, eragozpen ontaz biurtzen da: beren itzorkunarekiko berealaxe ulertu ezin ditezken itz asko sartzen dira, eta orrela irakaskintza-lana zallagoa egiten da».

3) Pedagogia'ren bearrak.

Ikas-liburu bakoitzerako egingo litzaken batzaldira, edozein izkelgian idatzitako liburuak aurkeztu litezke; baña alik eta neurri zabalean, itz berezi berberak erabiltzeko alegiñak egiten; eta batzaldia irabaziko luken idaztia ona izango litzake gero beste izkelgietan ere argitaratzea.

Gai bakoitzerako elburua betetzeko urte bete edo ar liteke; lenengo iruillabeteak itz-bildumak jasotzeko ta urte osoa liburua egiteko. Orrela

sei edo zazpi urte barru lenengo irakaskintzarako liburu guztiak egiñak izango lirake.

Lenengo irakaskintzarako gaiak: Eliztia, Zenbakiztia, Neurtiztia, Lutelestia, Edestia, Abeldia, Landaredia ta Meadia, Gauzaen esamasiak (Eresia, Marreztia).

B) *Euskal-irakasleak gertutzea*. Oraingo giroan zallagoa agertzen da orren bearra dugun euskal-irakasleak gertutzea.

Asko da, irakasleai buruz, gure Errian aldatu bear dana. Gaur irakaskintza-mail guztietan ari diran irakasle guztiak ezpadira, geyen-geyenak bai bederen, erderaz (españeraz edo parantzeraz) ematen dituzte beren ikaskizun guziak. Orrela, ikasleen gogoa erderaz eratzen dute oso-ro; eta eskola ta ikastetxeetatik ateratzen diran gazteak erderaz oldozten dute, eta beren bizi guzirako orrela egiteko bearturik izango dira geyenetan, barnean daramaten gogo berezi orrengatik. Naiz eta euskeraz idatzi ta idazten duten idazleen lanetan ere maiz agertzen da erdal-gogo ori, itz berri ta esakunetan barna; gurean beti irakaskintza osoa erderaz egin denezkero, bidezkotzat euki bear orrela jazotzea.

Irakasleak, beraz, izkuntzai buruz asko aldatu bear-izango dira. Ezin izango zaigu, alegia, izkuntzaz zeero aldatzea; eta elebitza agertzen zaigu ar diteken bide egokiena bezela. Orrengatik gure Errian jardun bear duten irakasleak elebitza erabiltzeko izan bear ditugu aldatuta. Euskal-irakaskintza eman ahal-izateko, asmo ortaz gertu bear-izango dira irakasleak. Orrela berak izango dira euskal-gogoa obekienik gordeko dutenak, ikasleengan bear dan bezela moldaturik. Eta irakasle ororentzat lenengo urratsa euskera sakonki ta ongienik ikastea izan bear. Euskal-gogoa eusteko, euskera bide bakarra dala argi ikustean, euskaltzale sutzuak izan bear ditugu gure irakasle guztiak. Eta Erri ta ikasleen bearrak onarturik, elebitzaren bidean barna ari-izateko gertu bear-izango dute orok beren burua.

Ez da asko, egun, euskal-irakasleak gertutzeko egin ditekena. Ona buruak ematen digun zertxobait gertutze orri buruz; gutxi bada ere, egin-garri deritzaigu:

- 1) Gaur euskera ikasten eta irakasten ari diran guziengan arloaren garrantzia sarrerazi, ikasle oien artean euskal-irakaskintzarako zaletasuna sor dedin.
- 2) Len aipatu ditugun ikas-liburuak egitea, bide ona izan baititeke irakaslegai guzientzat.
- 3) Aldizkarietan arazoari buruz idazlanak argitaratu.

- 4) Nunbait, Bayona'n edo, ikastaro bereziak edo bilkura berezi batzuk gutxienez antolatu; uda-ikastaroak bezela.
- 5) Erdal-irakasleen artean euskal-irakaskintzaren asmoa zabaldu.
- 6) Euskal-pedagojiari buruz aldizkari berezi bat argitaratu; ortarako, orain agertzen dan *Ikas'ena*, artaz biur liteke.

Gaur gure Erri osoan barna irakasten ari diran geyenengan ez dago, eskierki, euskerarenganako ardurarik; inñori ez edo dio buruak ematen euskera beren irakasketan inñoi sartu bear-izango danik, gutxiago beste gaiak irakasteko bidez inñun eta inñoi erabiliko dala. Oientzat eta guzientzat bearra izango da zabalkunde egoki bat egitea, auziaren berri zeatza ta gure Erriarentzat duen garrantziarena izan ditzaten. Ortarako len aipatu dugun euskal-pedagojiari buruzko aldizkaria izango litzake berebizikoa.

Erritarren artean ere uzkur izango dira asko ta asko, euskeraren ikastea ontzat artzeko ta, Erriari bearra zaion bezela eskoletan eta ikas-tetxeetako irakaskintzan bidez erabiltzeko. Orrengatik zabalkundea asko edatu bear-izango da, elburu ta bearra, guziengan sartzeko asmoz.

Itz-bildumak eratzeko esondatzen dugun bidea, beste elburu baterako ere oñarri ona izango genuke: Euskeraz bakarrik egin bear dan iztegi aundi bat egiteko; bertan, noski, itz bakoitzak adierazten duena, ertsiki, euskeraz emateko.

Eta lenengo irakaskintzari buruz, egitarau onen lana ona izango balitz, gero bigarren irakaskintzan ere jarri liteke, bai ta beste mail eta beste gai berezietan ere.

1963'garren iraillan.

Euskal Kulturaren Alde

EUSKERA BATXILLER-MUTILLENTZAT

Nere ikasleekin zer egiten dudan agertzeko eskatu zait, eta honetara xe noa lerro hauetan. Nere iduriz, irakasleok elkarren berri behar dugu jakin, eta lan hau elkar-hizketa honen atari gerta baledi, uste dut ez litzakela lan arras alferra izango.

Egiten dudanaren alkantzua konpreni dezagun, behar dugu lehenik jakin zein jende dudan nere klasean. Hara:

— 14'tik 17 urtetarainoko mutillak. Batxilleratoko laugarren eta bosgarren urteak.

— Klase honetan denak euskaldunak dire: 18 bosgarrenean, 31 laugarrenean.

— Batzuek ez dakite euskera haundirik. Hiru urteetan zehar guziek idatzi dute zerbait. Irakurtzen ba-dakite, ta gramatika-puska bat ere bai.

— Baserritarak, 15 dire bosgarrenean; 19 laugarrenean.

— Kaletarrak, 3 dire bosgarrenean; 12 laugarrenean.

— Bizkaitarrak, 3 bosgarrenean; 4 laugarrenean.

— Gipuzkoarrak, 15 bosgarrenean; 27 laugarrenean.

(Klase-lanerako, gipuzkoar bezela kontatzen ditut bi napar: baztan-darra bata, ta lizarragatarra bestea).

BATXILLERATUAN, EUSKERA IRAKASTEKO, BEHAR-BEHARREKOA DUGU POESIA EMATEA (1)

I. ZERGATIK BEHAR DA POESIA?

1. *Giza-bideek eskatzen dutelako.*

Giza-izakia osotasun bakar bat da: adimen - irudimen - edermen - oroimen - nahimen - zentzumen... Guziok gizakiak dire ta sakabanatueziñak. Arimari ahalmen-zirrikitu batetik, hau da, gramatika hutsez, mintzatu nahi izatea zozokeria bat da, giza kontrakoa.

Gizonaren arima dantzari-taldearen idurikoa da, ta bere barne-bizitza jatorra makilla-dantza bat. Doiñu bakarrak zortzi-hamabi gizon jartzen ditu dantzan. Bakoitza guzientzat ari da, ta ez dezake iñork berekasako dantzarik asma; doiñu bakarraren deira talde osoak erantzuten du, ez denak berdin, baiña bai orok elkarrentzat. Honelatsu da giza-arima ere: ahalmenak ez dute sekula bakarkako aureskurik. Ideia batek, sentimenduak... ahalmen-talde dena jartzen du ekiñean eta batabestearen zerbitzuan. Holakoxea da giza-izaera.

(1) Poesia, ez da hemen bertso. Aipatzen duguna literaturaren argia ta ederra da: Jainko-izadien gozoa ta lillura hitzetan elurtu ta isuria. Mintzaira, poesiaren mirariz, eder bilakatzen da: horra literaturaren jatorria.

Norbaitek gure arimari dei egin nahi badezaio, ez dezala ahalmen bakarrarentzat soilik izan liteken doiñurik jo, gizonaren batasun-kontra ariko bailitzake: gure ahalmenak elkar-nahasiak daude ta, hizkuntza bat erakustean, gizon osoari begira jardun behar dugu.

Gure barnean, giza-izate osoa esnatzen da egunsentiko xori-txiuntaren deira, ideia baten sorginkeriaz: millaka burutapen zahar iratzarriko dire hitz-berritze baten eragitez. Eta sentimendu bakarrarekin ere berdintsu: lehenengoaren ondotik milla oiartzun jeikiko dire arimako ahalmen-ibar eta haranetan. Gizona, beraz, ahalmen guziekin ari da bere ekiñean: osokiro.

Giza-moldadura ta izan-modu hau ukaeziña da. Gizona ez da apalaz osatutako gela bat. Euskal-irakaskintzak gizonari begiratu behar dio, ta ez arima'barnetik larrutu ondoren, honen azalarekin, adimen-larruarekin, gelditu. Euskera ez dezakegu eraman gure arima-gelara urretxindor triste ta mutu baten antzera, kaiola itxi batean. Ideiek eta sentimenduek libre behar dute izan arima-kolkoan. Xori librearen iduriko (hizkuntzak gure gizatasunari zor dion zerbitzuan leial, gramatikakeriak ahazturik), euskerak zeru ozkarbi denak kurri behar ditu aldenik alde. Gramatikakeriak, teknika delako, barneko euskal-oiartzunak hesitu egiten ditu ta hil. Ez gaitezke, ba, hemen geldi. Hori ere bai, hori bakarrik ez. Bestela, delako euskalzaletasun batekin, euskeraren eta gizatasunaren traidore ta saltzaille izango gera.

Eziketak gizatasun-bideak iriki behar ditu. Hau da goiko horretatik datorkigun ondorioa. Gizagintza da irakasleen lana. Herriari begira ta herriari so leloturik, gizonaz ahazten denak, hau da: euskera irakatsiaz, herritasun bat gorde nahi lukela-ta, ikasleen gizatasunak herritasun-ur epeletan beratzer a doanak ez du irripar ezirik merezi. Gure edukazioak umanismo izan behar du, ots: gizaahalmenak oro ekintza bakar batean jartzen ahalegindu, ta gizona, abaniku eder baten antzera, alde orotara iriki behar du. Benetan euskal edukapenik nahi baldin badugu, ekin dezaigun giza-bide honi, baita euskera irakastean ere.

Sar dezagun euskera bein betiko ta sekula guzietarako edukazio jatorraren bideetan. Gizonok gere baitan daramakigun orkesta isil eta aberatsa esnatu behar du edukatzailleak. Eta gramatika-behatz bakarrez doiñua sortu nahi luken irakasleak zer-nolako orkesta-aidea ukanen du ikasleen arimengandik? Euskal-klaseetan ez gakizkiola mintza matematika-enteleguari bakarrik. Ez dugu oraindik aski gramatikatik, baiña bai zenbait gramatika-zarpilkerietatik.

Bai, ba-dakit. Esaten ditudanok teoria lausoak direla jaurtikiko dit norbaitek; baiña euskal-ikastoletan ibilli zeratenok konprenituko dida-

zute. Mme. Staël'entzat, eziketa jakin-sentitzeak parean aitzina eramatea da. Nik ezin ikusi, ordea, gramatika maitagarriak zein eder-sentimendu eman dezaiokeen gizonari. Honegatik dio Alba Pelayo'k: Ederraren edukazio-balioa ikusi ez duenaren itsukeria bai dela galanta; nun aurki liteke izan ere gazteria sakontasunean hobeki zuzen dezaken biderik?

Estetika ahazten duenak ez dezake inōlatan umanismo egiazkorik egin, ezta edukazio jatorrik eman ere, ezta euskaltasun zuzenik sortu ere.

Kofesa dezagun: euskerak umanismo-lana egin behar du. Euskerari sakontasuna eman behar zaio gure izpirituetan; gure mintzairari giza-goibearen neurria zor diogu, giza-leialtasunez jokatu nahi badugu beintzat. Euskalduna ez da lehenen gizon ta ondotik euskaldun, konejuak lehenbizi abere ta ondoren koneju ez diren bezelaxe. Giza-errotik bertatik dator euskalduna euskaltasunez jantzia. Ta gizatasunari dagokion sakon-zabaleko euskera eman behar zaio ikasleari. Hau nahi ez baldin bada, aitor dezagun gaurgero gure euskaltasuna, zenbait udartiarren antzera, galtza motxekin uzteko asmotan gabiltzala.

Asmoak bestelakoak baldin baditugu, berriz, on-har dezagun bertanbera umanismo-bidea. Izan ere ez da gizatasun horren neurriko euskerarik izango, gizon osoa zehar eta giza-ahalmen guziren medioz lan egiten ez bada. Giza-arimaren erdi-erdian, bihotz-bihotzean, zuzter-zuzterrean landatu behar da euskera, hortik denboraren poderioz sustraiak izpiritu guzira zabal ditzan. Honela, landareak gogo osoaren zumoa izango du, edozein gogo-izpi ikutzea euskal-zuzter bat mugitzea izango da. Orduan, euskera barnetik deserrotu nahi lukenak arima osoa oiñaze-samiñetan jarriko luke. Gure gizaera euskeraz mamitzen badugu, hizkuntza umanismo bidez eman zaigulako, ez da munduan gu deseuskaldundu gaitzaken indarrik.

Euskerak, gizatasun osoari begira dela, bete behar du bere zeregiña, ez baitezake gure gizatasunetik fitsik ere arbuia, euskaltasunaren etorkizunak berak ere horixe galdatzen baitigu.

Ta hitzak? Zer dio hitzak guk darabilkigun honezaz? Hitza beti izan da misterio. Bere baitan giza-izpirituaren beraren taupada daramaki, hitzaren erraietan bizia isuri baitu gizonak. Hitza ez da ideia soillik, ideia maitemindu ta enamoratua baiño: ideiari gizonaren sentimendu, irudipen eta intzirriak erantsi zaizkionean, hitza argitara jaio diteke.

Inōrengandik hitza jasotzean, Giotto'k eta Spagnoli'k pintatu diguten hura berritzen da. San Frantzisko'k hitz-egiten die bere xoriei ta, bukatzearekin, han doaz denak egalari munduaren lau parteetara. Honen pareko zerbait dugu guk ere izpirituetan: hitzaren ideia atzeman orduko, isilpeko sentimendu aunitz esnatu ta egadan doazkigu arimaren

urdiñean. «Ama» esango zait, baiña ama hori ez da mundura gizaki bat ekarri duen emaztekoa bakarrik. Hitzak inguru oparoa du: honela edo hala maitatu nuena da ama; egun batez eskoba-kirtena nere iztarrean hautsi zuena; bestean, gaixo ta triste nengoelarik, lau musu luze eman zizkidan emakume maitagarria... Bai, hitza sentimenduz troxaturiko ideia da, ta areago, zenbaitetan sentipen hutsa ere bai.

Gramatika sentipen-iturri izan ote da iñoiz? Euskal-aditza naiz sufijoak ikastean, bihozkada asko jaso ahal dituzue gramatiketatik. Behin egin dut gramatika-lan bat, baiño amodio-gose zeratenok ez joan, mescdez, hara.

Arrazoikeria hutsaren lejiiaz hitzak sentimendu oroez garbitzen baldin baditugu, azkenean ideia bera ere erre egingo dugu. Unamuno'rentzat hizkuntza izpirituaren odola da, ta odol hau ez dezakegu gure barne-sentimenduen lisibarako erabil. Ez. Aintzira batera bota ahal duzue iñoiz harritxo biribil bat? Hara nola joan zen barnera, ideia adimenera bezala, ta ikus nolako uhiñak uraren loan, hitzak gure ariman biztu dituen sentimenduen iduritzat.

Hizkuntzak giza-izpiritua darama bere kolkoan, ta ez zaigu zillegi aberastasun hori ideia elkor batzuetara herstea. Gaurko euskaldunok denok konprenitzen omen dugu erdera; hau dela-ta, noiznahi egin omen dakiguke erderaz: predikuetan, mintzaldietan, irratian, errezoetan... Hau xe bai dela zozokeria geometrikoa! Euskaldun arimak konzetu poligonuz egiñak ote ditugu, gero? Holako jende «pratikua-rentzat» erantzuna: bai ulertzen dugu erdera, zuek baiño langilleagoak geralako; baiña ez dugu berdin maitatu ta sentitzen, zuek bezin gizatiar baigaituzue. Ideia maite dugu, baiña areago amodioa.

Gramatika hutsak nahiz hizkuntza-teknikak eman ez dezaiguketena literaturak eskeiñi beharko digu.

Zergatik ez euskaldunon eder-sena euskeraz ezi?, galde dezakegu literaturari xuxenagoan begiratuaz. Euskaldungoa, artistaren euskaltasuna, gorde nahi bada, baitezpadakoa da hau. Guk ere, Euskal-Herrian, ba-dugu zorionean eder-sentimen bat, bere hortan iraunarazi ta bizkortu behar duguna.

Gizonak edonun idoro dezake edertasuna, ta ikaslea euskeraz ikuster a bultzatzen ez badugu, edertasun horiek denak, izaki guziak, euskeraren etsai billakatuko dire, honela erdera izango baitu edertasunak jario-bide. Ez ditzagun laga besomotz euskal-gogoak, eder senaz moztu ta irendurik. Bide honetan lanik ez egite hutsa euskaldungoari saldukeria bat egitea da. Itsumenik frauko ba-dugu lehendik ere, gehiago sortu gabe. Idek ditzagun gure leihoak ta beha eder-mundu miresgarrira!

Eder-sena euskeraz esnatzea ahazten badugu, begira zer gerta daki-guken: mutillik azkarrenak eta argienak literatura-mundurako erbestean jaioko zaizkigula. Ez pentsa, gero, hau dena nunbait, noizbait eta nola-bait jazo diteken ezbeharrak denik. Ez, zoritxarrez! Izenak ere eman litezke norbaitzuk gogoratuaz.

Labur dezaizuedan honezkero ibilli dugun bidea. *Lehenen*, giza-oso-tasun bakarraren izenean eskatu dut poesi-edukazioa, gramatikaz ez de-zakegula gizatasun hori ase-ta. *Hurrengo*, euskerarekin ezi egin behar ditugula gure mutillak esan dut, eta edukazio honen babesean literatura-bandera zabaldu dugu. *Hirugarren*, euskera umanismu-lana egitera bor-txatua dela iruditu zaigu, esan nahi baita, giza-ahalmen orori begiratu behar zaiela, ta honetarako, berriz ere, ez dela aski gramatika. *Azkenean*, ikusi da gramatika-bidea ez dela nahikoa hitzaren ondo-sakona ta mai-tasuna dastatzeko, ta hizkuntzaren haundiak zerbait goikoagorik eska-tzen digula: poesia.

Horra gure baso honetako bidetxigorrak. Gizonaren eta mintzaira-ren literaturarako deia erakusten digute gramatikaren eskasiak eta ahul-tasunak. Nolabait ere, hau dena arrazoi-bide negatibua da, baiña ba-da beste arrazoi sakonago ta jatorrago bat: eder-sentipenaren bikaiña.

Eder-sentimendu jatorrak arima-barnean duen edadura ikus deza-gun. Agian, mistika-momentu zenbait salbu, nekez idoro liteke eder-sen-timenduak baiña ahalmen gehiago ekiñera bultzatzen dituen ezer. He-mentxe ari da izpiritua oso-osorik jardunean. Rizzi'k garbi esango du: estetika-esperientzia gizon osoak, pertsona denak, atzematen du objektu osoa: zentzuek ba-dituzte kolore ta doiñu-hots, adimenak baita forma ta ideiarik, irudimenak zenbait dastagarri, maitamenak nun lilluratu... Ta hau dena egintza bakar sorgiñean! Poesiak ez ahal dizue sekula halako eziñegon zerutiar bat barnerratu? Ez zaituzte iñoiz gozamen ase ta fres-koz bete? Horra, ba, ederraren muin maitalea.

Eder-sena, instintua, ez da noiznahi bazter dezakegun zerbait. Passe-ri Pignoni'k esango digu: haurraren arima-moldaduran oiñarrizkoa da eder-sena, ta derriorrekoa mundu-ingururako bide bezala. Sen honen za-baleroa arimaren beraren edadura-parekoa da: ahalmen guzian diar-du, ta hauek denak sen horren zerbitzuan ari dire. Beraz, eder-esperien-tziaren bidez arimaren zabal-goibehe guzietan ukan dezakegu eragin gi-zatiar bat, eta guk nahi badugu, eder-esperientzia euskeraren zerbitzuan ta zerbitzurako jaio ta izan dakiguke. Baiña poesia gramatikan, hizkun-tzaren kalaberaz egiñiko presondegi horretan, ito nahi badugu, ta ikas-leak elkorkeria hauekin lotzera erabakiak baldin bagaude, beste nunbai-tetik helduko zaie poesiaren ederra, ta orduan, noizbait gure armarik

onena izan zitekena, horra etsaiaren eskuetan geure kontra ta gure ondamenditan. Ikus nola lagun dezaiguen gure itsukeriak!

Ta oraindik ba-du eder-sentimenduak balio ahaztuezin bat: izadiaganaiñoko biderik erosoena dela, jatorrena. Erlijio-sentimenduak misterioaren atarira eramaten gaitu; sentipen honen xirripak garbitu egiten dizkigu begi lausoak. Erlijio-sentipenak, materiaren behelaiñoz ikusieziñak zitzaizkigun zeru-goiak erakusten dizkigu: elkar ikusi gabe ere, esku emanda ibiltzera sakatzen ditu gizona ta misterioa.

Moral-sentimenduak gizona bere egintzeekin erlaziotzen du. Gizonagandiko egintzek ba-dute zerikusirik giza-izaerarekin, ta honen menpean neurtu behar ditugu. Eder-sentipenak, berriz, beste erlazio bat sortzen du, gizona errealidadearekin har-emanetan jartzean. Munduaren izakia bizikiro edoski dezagun, eder-sentimendua behar da.

Bai polliki esan digula Sartre'k munduaren eskasia: «Gauzak, bide-erdia bakarrik ibilli duten ideiak dire». Zugaitza, izar bat, hilargia, intza...: guziok izan ez baitire beren izangure, izan-gose, izkutuak nahi luken hainbat, eta guk, geuk, amodioz eta sentipenez osatu behar ditugu. Eginkizun honetarako bi tresna ditu gizonak: astrazioa ta estetika-sentimendua, baiña bakoitzak du bere zeregiña.

Estetika-sentipenak, izadia atzeman etaosatzean, betekizun hauek ditu:

a) Irakurleak jaso dezala olerkariaren mundu antzaldaturak objektibidade ta sugetutasun osoan.

b) Izadia, bizipen universalista batean atzeman, artea guziona ta guziontzakoa baita.

d) Ikaslea askatasun-ekintza batera behartu, artea bere izaeraz zeharo libreza baita. Honela, gizontearen libertade-eskeari irten-bide bat ematen diogu.

Lehenen bi puntu horiek ez ditezke beste medioz ardiets, eder-esperientziak ez bada. Izadiaren bizipena, ta ederraren bidezkoa hain zuzen, beharrekoa zaigu gizonari, ta eder-esperientziara bultzatzen ez dugun mutillari izaera-behar hau egarritan uzten diogu. Gizonak deika dauka mundua, baiña dei hau eder-antenaz bakarrik sar dakiguke bihotzera: antena hau zokoratu nahiz apurtzen duen maisua izadiaren eta gizonaren hiltzaillea, asesinoa, da. Sasi-maisua! (M. Dufrenne).

Eder-sentipenak munduaren esperientzia berri bat ematen digu: estilo bat, estiloa mundu-bizitzen ikus-molde berezi bat baita. Honegatik, estilorik ez duena gizon eskasa da, pobrea bere pertsonaren sakonean.

Metafisika ta psikologia-kutsuko arrazoiketaok utzita, gogora deza-gun euskaldunok ere umanismua dugula, ta izan dugula, elburu. Euskal-Herrian ba-dakigu ez dela edozein nahi bezin gizabete. Gizongaiak ideial honetara eraman behar ditu edukatzailleak, ez dugu gizaxkarik nahi iñun. Orain urte bete lagun bat joan zen, Meza Berrirako, bere herrira, ta haurtzaroko lagun batekin topo egin zuen. Hamahiru urte ziren elkar ikusi ez zutela. Harrezkero zenbait bizi-bidaia egiñak! Ta gazte harek, mirestuta, isil-une batean goi-beheak begiratu ondotik, hauxe esan zion praille lagunari: «Bai, hi gizon egin haiz».

2. *Biderik baliotsuena dugulako.*

Ederra maitagarri denez, berebiziko inportantzia du urteotan. Hamalau-hamazazpi urteko gizona maitasunera jaiotzen ari da. Bere bizitza arrosa-pilpira gorritz asean dabil, eta maitagarri orori besarkatu nahirik bizi da. Honegatik, indar eta egarri hauezaz balia gaitezen euskeraren onerako. Baiña gure euskal-klaseetan eder-maitakizun gozoen orde, gramatika-ozpiña eskeintzen badiegu, segurki ez dugu gazte-multzo haundirik irabaziko.

Eder-gose hau euskeraz asetzen bada, sekula-sekuletan maitatuko dute gure ikasleek arbasoen hizkera, eskerronez begiratuko diote. Eder-raren bidea lora-bidea da, poz-iturritz ezatua. Hementxe dario gaztetxoak behar duen lilluramendu-arno gozoa. Zillegi balitzait, edertasuna mistikuen gezi leguna dela esango nizueke. Gomuta Santa Teresa'ren gezi-zauritzea. Behin jasan duenak betiko du barnean.

Gramatikakeriak elkorrak direlako ere behar dugu literatura. Zergatik ez ditugu, ba, emango beharreko zaizkigun hizkuntza-arau horiek azukre gozotan bildurik?

Euskal-poesia oparoa da. Ez diteke idoro euskal-literaturan ezer helduagorik. Orain aipatzen dizuedan poesia, bertso-poesia da noski. Hain zuzen, urteotan, Batxilleratoan, behar dugun literatura-mota da gure artean mardulena. Ba-dago nun autaturik. Hori bai: aukeratu egin behar da, ez baitago —nik dakidanez— ikastoletarako behar litzaken antologiarik.

Mutilleri lehenbaitlehen erakutsi behar zaie gure poesia, beren go-goentzat eder-bazka nun topa dezaketen adieraziaz. Ederzale baldin bazerate, segur naiz: ba-duzue olerkari autaturen bat, zuentzat oso-osokoa dena, zuen eder-egarria asetzeko ur gardena. Nik ba-ditut nereak: Juan Ramón, Tagore, Otero, eta liburuetatik Gerardo Diego'k eratutako *Poesía*

Española Contemporánea, Antología erderazkoen artean. Euskeraz, berriaz: Aita Gandiaga'ren *Elorri* ta Josepe Azurmendi'ren poema argitaragabeak. Izpiritua erorita dudanean, arima zimeldurik daukadanean, horiek dire nere adiskide ta poz-emaille. Izadiak barnea berritu dezaigun, lehioak behar ditugu; aipatu horiek dire nereak. Idek ditzagun gazteen izpirituak, bihotz-kutxak, hor kolkoan, ederraren ditzira sar dakien. Ta bereziki, erakus dezaiegun Euskal-Herrian ditugun aberastasunak, milionarioak baigera poesian. Txunditurik geldituko zaizkigu, gaiak eskatzen duen jatortasunez agertzen badiegu.

Erderaren pareko izan gaitzen ere behar da Batxilleratuan poesia. Erderak bere ikaskaiak ditu urtean-urtean maillatuak. Euskerari itxura onik emango badiogu, jantzi berdiña nahiz hobeaz zor diogu. Bestela, gure mintzaira bigarren maillakoa gertatuko da. Honek ondorio gogorrak ditu.

Direla zenbait urte Ikastetxe bat ezagutu nuen. Ba-zen han ikasleek izkribatzen zuten aldizkari bat, euskeraz ere ematen zen zerbait. Ta euskeraren tamala!, besterik ezin zutenek euskerari heltzen zioten. Gure hizkuntza zen han eskapa-bide bakarra, edonork zezakena baitzen... Baiña urteen buruan ba-dakit gauzak aldaturik direna: ikastetxe honetako mutillik argienek —esan didatenez— euskeraz egiten dute gaur. Garai baten erbesteko lantegietara joango zirenak, orain euskeraz ari dire: euskerari begirunez eta itzalez begiratzen zaio. Ta diotenez, hau dena gramatika-husteria batzu ahaztu direlako. Euskera itxura-hobeturik dabil orain. Beste ikastetxe nagusi batean ere berdintsu: jaio zen egun batez errebista bat, eta bapatean ikusi zen han idazteko haiñakoak gutxi zirena. Harrezkero euskerak errespatorik haundiena du, intelektual prestijio bat-edo du. Eta dena mutillik argienak bertan ari zirelako. Bai, euskerak zerbait haundirik egingo badu, gizon hauen zai dago.

Bide erosoena hauxe dugu, poesiarena. Hizkuntza bere zilborrari begira ausnarketan hastean, bildurtzeko da ez ote duen itsuskeriaren bat egingo. Gutxienik narzisismua da hori. Zerbait eman-behar gorrian jartzen ez badugu, gure aholku denei galdera honekin erantzungo die ikasleak: «Ikasi, ikasi... Zer deabrutarako, gero?» Gizon haundia egiten denean gauza ederrak egingo dituelakoak ez du gehiegi urduritzen. Hor, klasean bertan, eman dezaiogun zerbait adierazi beharra, ta beharkizun hau euskeraz sortu baldin badiogu, bere zerak holaxe agertu beharrean aurkituko da. Ederra euskeraz jaioa ikusi du, euskal-jantziz bizitzen ikusi du, ta honen ondoren nola demontre eman lezake hori dena euskeraz ez bada? Gramatika ere, bide batez, ikasi egingo du. Ikusia baitu mintzaira zarpillak ez duela barnean edertasunik gordetzen. Gramatikatik

behar diren denak azter ditezke poesi-komentario on batean, geroxeago ikusiko dugun bigarrenean bereziki.

Euskera etorkizun-argipean jarri behar diegu gure ikasleeri. Ba-dela hor bide ederrik adierazo behar zaie mutillei. Zein mutikok ez du, noiz-bait, berekiko esan: «Nik idazle izan behar nikek...», ta agian gehixeago: «... kapaz nauk-eta». Ilusio hau ez da agian aitortuko, baiña bai barnean, txinbeleta maitagarri baten antzera, begira-begiratuko. Epitetu polit bat eman denean nahiz lantxo egoki baten ostean nolako poza mutilarena: zer esango ote dio, gero, maisuak?

Gastea jaioko da, bai, egun batean eder-mundura, hau ere jaiotza baita. Oi euskal-klasean izango balitz! Lehen eder-musu hau euskeraz balitz, harrezkero hor genuke izadi oso bat euskaldungoaren alde. Izan ere hain da hunkigarria memento hori!

Oraindik gogoan dut une hura. Hamasei-hamazazpi urte nituen. Hazitxo beraz. Zenbait izerdi ordurarte, nunbait bizi zen ederra ikusi ta ikutu nahirik; baiña eziñak ninduen gatigu: beti haruntzaxeago zebillen ikusieziñeko ilusioa. Ta, hara!, bapatean eskutaratu: bera etorri zitzaidan, ez nintzan ni mogitu, ta neure eskuetan nuen edertasuna! Udaberriko arratsalde bigun bat izan zen; egun haretako azken ikas-ordua. Eguzkia epel-epel erortzen Errigoiti-alde. Mutillok ikasten geunden. Ba-dakit oraindik nun nengoen eserita. Leihoak zabalik zeuden. Urte haretan baizen sakon eta misterioitsua ez zait sekula gerta primadera, ta gure gela-aurreko udare-zugaitzak orduantxe ari ziren lora-edurrak urturik, horriz jazten...: Ta instant haretantxe ikusi nuen nik hitzaren ederra ta lilluramendua. Harrezkero, nere ustez, ba-dakit nora jo behar dudan idaztean. Gehienetan ez naiz helduko, baiña norakoa eskuetan daramat.

Horixe da gure lehenen eginkizuna, gure poesia hau ematean: une paregabe hori euskal-lanean etor dakiela; han nunbaitetik ematen zaigun eder-lorategi hau euskal amantalean eskein dakigula. Esan dezala mutillak: «Hau duk nere mundua, euskal-idazle izango nauk». Baiña nola ardiets dezakegu holakorik? Lehen urrats honetarako izango da ikusiko dugun lehenbiziko komentario-bidea.

II. NOLA EMAN BEHAR DA POESIA?

Hamaika t'erdi era ta modu ba-dire edertasuna zabaldu ta aztertze-ko, baiña horietatik denak, edo gehienak, hiru hauetara erakar litezke. Bide hauek ez dire euskerari bakarrik dagozkionak, hizkuntza guzienak baiño.

Edertasun-bidean irakasbide denak ez dire mailla berekoak. Ta komentario denek ez dute zeregin ber-bera. Jar dezaizkizuedan hemen horietako hiru:

a) *Eder-gosea piztu*, ederraren zastada sentiarazi. Arestian aipatu dudan eder-sentimendu horretara heldu. Hau agitz inportantea dela uste dut, eta gero etorriko direnetarako lehenen mailla.

Orain hamar urte, fraide egin nintzanean, bizkaitar Aita Maisu jakintsu bat izan nuen. Berak beti esaten zigun zera: «Begira, senti ezazue behin Jainkoaren gozotasuna, unetxo batean bederen, eta segur zerateke salbazio-bidean». Artista-bizitzan ere berdintsu gertatu ohi da: une hunkigarri hori geugan suma bagenez, ederrera deia gure baitan dukegu betirako.

Hau beharrekoa baldin bada, ez dezatela etxekonean ediren. Ederrerako biderik erosoena euskera gerta dakiela.

b) *Ederra sortzeko teknika*: ez eder-etorria lotzeko, aurkezpen-erosotasunak emateko baizik. Betebehar honetarako egokia da benetan Correa-Lázaro'ren liburuxka. Ez da derrepente ongi ta nahi bezala erabilliko, baiña erabillaren erabilliz laister mendera ditekete. Bai egoki etorriko litzaziguke holako zerbait euskal-atalei ezarria!

d) *Izadia ezagutu ta hizkuntza aberastu*. Aita Rizzi'ren jardun-bidea aproposa da honetarako. Zoritzarrez, hau dena aurrera eramateko ez ditugu inñun, Euskal-Herrian, beharreko genituzken hiztegi ta liburuak, eta zahartu ere egingo gera dena ardietsi arte.

Honera heldu geranez gero, ikus ditzagun hiru eginbehar hauetarako erabil litezken metodoak. Lehenik, xehetasun gutxirekin, metodo bakoitzaren teknika emango dut; ondoren, hori bera komentario batean erabillia. Ez dago zeresanik: hirurok goiko poesi-urrats horiek (a, b, d) emateko hartzen ditugu.

A) LEHENEN METODUA.

a) *Mugarriak*. Lau unetan osatzen dut nik. Bakoitzak bere betekizuna du.

1. *Irakurri*. Geldiro egin behar zaie mutillei. Arreta guziz. Senti du guzia gordeaz. Behar bada ez dire denaz jabetuko, baiña hau hurrengo puntuan zuzenduko da. Hemen aski zaigu ongi irakurtzearekin.

Eta biotzak
 komentutzar au, neurea, diño,
 gogobete ta nagusikiro,
 berekaxa.

2. *Uler-arazi*. Eman dezaizkiegun behar diren hitz eta esaeren esanahiak. Adibidez hona: *Mortu* «desierto». *Zirkin* «movimiento». *Gereiza* «sombra». *Zerraldo* «yacer largo». *Datza*, = *etzanda dago*, «yace». *Jabetu* «adueñarse». *Entzumen* «oído». *Komentutzar*, = *komentu haundi*. *Gogobete* «satisfecho». *Nagusikiro* «como dueño».

3. *Poesia-mundua sortu*. Hitzez-hitz joango gera aitzina, ta pauso bakoitzean, eder-jauregi honetan, ate berriak irikiko zaizkigu. Poesia honen gaiak eskatzen digunez, klaseko isiltasuna urratu-bildurrez mintzatuko gera:

Begiratu dot: Begiak zabalik, dena begi, ikusmin, begi mirestuak arima-begietan. Gogoa kristalezko begi egin zait. Klaustroan ez naiz gorputz, fraide-arima bakarra baiño.

Ta: Arima gorpuzgabetuak bihotzaren taupada mundura luzatu du.

Ixiltasunak: Isilla ez da ezer, ez da zerbait. Astratua da hemen, ta deusezaren isilla gaiñera: isilla ezerezean murgildua.

Bakartasunez. Ezerezearen jantzia. «Bakarra» Urlia egada geldian bizi da soillik. Luma ikusieziñezko dama da bakartasuna.

Bildurik: Aize gozo-biguna bailitzaxe, maitasunak bihotza bezelaxe, bururakizun epel batek gogoa lez. Bakartasuna jantzi bihurtu da.

Nauka. Ta hortxe nauka euki ere isiltasunak bere bakartasun-sehaskan.

Klaustro: Horra klaustru hutsa, kristalezko kupulapean. Argi-makutsean dena.

Mortuan: Ez dago ezer, ez da deus ageri, desmateriatua oro: izakiak argi-labetan desegin dire.

Gelditasuna: Hitz luzea, eroria, astratua. Mortuan ba-da zerbait, ba-da norbait: gelditasuna argitan.

Aize gabeko: Aiza uraren (ikus ondotik) lagun zen, baiña desegin da arrunt, erabat: bere baitan gelditu egin baita aizea.

Ur lo bat: Tantoka-tantoka gelditasun gardena (hitzak ere tanto ta apur dire beren silababakarrean); dena bakan ezerez argitsuan. Aizerik ezak loa eman dio urari, giroari.

Dago: Aizea hil egin baita.

Ez dagi arnas: Aidearen zirkiñik kaskarrena arnasa izan liteke, ta hori ere askas du: aidea hil egin da.

Aide argiak: «Aide» ta ez «aize», gelditasuna adieraziaz. *Argiak:* argia bakarrik baita zer eta nor klaustruan.

Ezta: gelditasunaren geldia lerropetuaz.

Zirkiñik: Mogimenduetan txikiena da hori (ia beti ezezko esaera-tan erabiltzen da: ez du zirkiñik egin...). Onomatopeia-balioa: *i* horiek izkribu-eraz bezain hertsia baitire hotsez ere.

Mututasunak: Hitza luzea, aldenik aldekoa, ta *u* horiekin betetasun oparo ta jausia duena.

Noizik-beiñeko: Pausoak ez datoz jarraian, ttiki-ttaka bizian, hola-koek gelditasuna hautsiko bailukete. Aldian-aldian datoz, banaka-banaka.

Pausoak: Hitzak bezin materiatasun guti. Bokal asko, ta konsonan-teetatik *s* goxo bat.

Praille bakarra: Bakartasunaren mortua, norbait agertzean, nabar-menagotu egiten da, sentigarri bihurtzen baitu mututasunaren dardara.

Gereiza dira: *R* bigun horien neurriko gereiza. Gereiza ezin hunki ta pausoak berdin. Pauso-hotsa desmateriatu egin da berriz ere.

Gauza baiño: Pausoek ez dakarte ezer, desgauzatuak datoz banan-banan.

Aide zuri: Aidea argi egiñik: zuritasun dirdaitsu bat erori da zerutik.

Santuari: Zerutik baitator, ta garbia da: komentuko santutasuna hantxe baretu da...

Zerraldo datzan: Aidea geldi, zabal, hilda, gorputz: hor datza herio-zuritasuna.

Begirunerik: Santutegian gaude; hildako santu baten ondoan... Ber-tsoa biziki luzea da, hillak luze baitaude beti.

Sortzen ez diran berbak: Hildakoaren aurrean isiltzen goaz beti, ez da hitzik sortzen. Berba izan ez direnak, gorpuzgabeak ere, isillik daude, begirunez. Nolako begirune santua ote lukete jaioko balire hitz horiek?

Begiok emen: Hasierara gatoz berriro. Begien tokia da hau: begi-tegia. Begiak ase-asetzeko lekua hauxel: argi haundi ta betea...

Begiok... arutzagoz: Arima, begi bihurtua, hemengo materiaren axa-la eten-zulaturik harutzago joan da: bere ames-gurariak hautsi ditu, en-tzumenak kizunik, atzemangarririk, ez duen giroa atzean utzita. Materia mehetu denean, ametsak berak ere gainditu egin dire olerkariaren bi-

hotzean. Hemengo mundu-argia igaro, amets-izadia pasa, ta horra olerkaria «hirugarren» mundu misteriotsuan.

Eta biotzak...: Dena beterik, ametsen muin gozoa dastatu ondotik, komentuak bete du olerkaria: barnean du dagoneko mundu zoragarria. Gogobete dago komentuaren haundia bere baitan duela. Arima ere argiz bete da, ta dena beretzat du (berekaxa).

4. *Berriro irakurri*: Oso geld, kasik letraz-letra egiñaz. Ongi deklamatuko balitz, askozaz hobe.

B) BIGARREN METODUA (Correa-Lázaro).

a. *Mugarriak*: Sei une ditu bigarren bide honek. Ikus dezagun labur-labur dena. Emango diren lumeroek «Cómo se comenta un texto en el Bachillerato» (E. Correa Calderón y F. Lázaro. Ediciones Anaya. Apartado 371. Salamanca) liburura bialtzen dute. Zehaztasun gehiago horbertan topa ditezke, nahi izan ezker.

Metodu hau erabiltzeak ba-ditu bere izerdiak, baiña agian hortara jarrita ez litzake hain zailla. Nik, kofesatu behar dut, ez dut oraindik aski ezagutzen, eta barka bekik hemengo nere ausardia, bideak urratzen hasi behar gorrian baigau.

Analisi-metodu honek sei une ditu, ta hola banatzen dire:

1. *Irakurri arretaz*. Pauso hauek eman behar ditugu hemen:

- Ezagutzen ez ditugun hitzen esanahia billatu.
- Hitzak esanahi zenbait balitu, gure honetan egoki letorkena hartu.
- Interpretaziotan sartu gabe, izkribu-atala ongi konprenitu.
- Bosnaka-bosnaka lerro nahiz bertso denak lumeratu: 5, 10, 15...

2. *Nundikakoa ikusi, atala kondairan kokatuaz*.

- Zatia da ala testu osoa?
- Zein literatura-jenerutakoa dugu: Poesia (epika, lirika, dramatika), oratoria ala didaktika.

A) *Testu osoa balitz*, izkribatzailearen obra guzian duen leku jakina idoro beharko zaio (21, 49, 50).

B) *Atala balitz*, hiru kasu gerta litezke:

1) *Irakurria den obrakoa da*: Holakoan, izkribatzaille horrengan obra honek duen zer-ikusia agertu behar da. Ta ondoren: zein leku dagokio testu honi obra horretan?

2) *Kapitulu nahiz obra ezagunekoa da*: Idazlearen obra-barnean zein leku dagokio. Obra honen esanahia. Azal dezagun kapitulua, ta hemen zein toki du gure atalak? (64).

3) *Obra ezezagun batekoa da*: Kursoko ikas-liburua mia dezagun (euskeraz egiteko dauzkagu liburu hauek...), ta gero 1) puntuan bezela jarrai dezakegu. Deus aurkituko ez balitz ikas-liburu horretan, ez gaitzen estu. Goazen aurrera.

3. *Temaren billa* (22-28). Orraz dezagun gure atalaren asuntua xehapen guzietatik. Ez dedilla izan ezer sobranterik, ezta deus eskasik. Labur-labur dena. Billa dezagun zatiaren bihotz-hitza, sintesi-hitza, laburpen-hitza. Honetan huts-egitea, komentario guziraiko bidea galtzea da: hau dugu hemen zeregiñik inportanteena, ta zaillena.

4. *Barne-moldaduraren billa*. Esan-bideak ba-du noski hor estruktura bat. Ikus, ba.

—Metrika-neurri ta moldadurak azter ditzagun, atala bertsotan baldin badago.

—Temaren hara-honakoeak daramazkiten zatiñoak ikus ditzagun. Ahapaldiak ez dute beti holakorik erakusten. Ba-daude gaiñera honelako zatiñogabeko atalak ere (37).

—Zatiño bakoitzean temak hor izan behar du gain-egadan (30-36, 52-53).

5. *Tema-zehar forma esamiñatu*. Benetako komentarioa orain egin behar da.

Oiñarria: Testuaren tema beti ageri da testu beraren forman (38-39, 54-55).

Analisia: Hauxe erakutsi behar da: testuaren forma-era bakoitza temaren beraren halabehar batek beharturik jaio dela. Hitzak, joskera, metrika, erretorika-irudiak, t. a.: orok tema-barnean aurkitu behar dute beren izan-arrazoia. Azterketa astun honetarako ikas-liburuek lagunduko digute.

Izkribatu: Seigarren eta azken puntura pasa aurretik, oraiñartean ikusiak garbi-garbi idatziko dire (57).

6. *Amaiera* (41-55, 59-60).

—*Atzera-begirada*: Erakus dezagun funtsean, xehetasun gabe, oiñarri-legea nola bete den.

Eritzia: Eman dezagun geure uste-iritzia: egiatia, apal, irmoa, esae-
ra txanponezkorik gabea.

b. *Entsegu bat*. Ongi ezaguna den ondoko atal hau hartu dut nere honetarako.

1. *Arretaz irakurri*: Ura gizona, ura!

Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza
bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte
gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera
zimel.

5 Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren
beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zin-
doak bere bular-auspoak.

Ura = a; makal = chopo; zugatz = árbol; bezain, baizen = tanto como;
pago = haya; arte = encina; bezela = lez; trinko = denso, macizo;
gorosti = acebo; zimel = enjuto; zaintsu = de mucho nervio; azkar =
vigoroso, ligero; zindo = sano, firme; bular-auspo = pulmones; arizti =
robleal; jaurti = lanzar, arrojar; oin = pie (medida).

Hiztegitxo honekin ez dago hor iñungo euskaldunentzat misteriorik.

2. *Atalaren nundikakoa*.

Garoa nobelaren hasiera da atal hau; liburuaren lehenen kapitulu-
tik jasoa, beraz. Izkribu honen egille Txomin Agirre (1864-1920) dugu.
Gaiñerako bere obretatik *Auñamendiko Lorea* ta *Kresala* ditu aipaga-
garrienak, ta biok ere nobelak dire.

Garoa honek Zabaleta baserrikoen gora-beherak jaulkitzen ditu, ta
bertako nagusi den Joanes da eleberriarren ardatz-pertsona, protagonista.
Eleberriarren lehenen horrialdeetan horixe ematen zaigu: Joanes gorputz-

-arimaz, zabal-zabal, irakurlearen irudimenarentzat. Biziki ikusgarria zen artzain zaharra, ta benetan miresturik aurkezten digu idazleak. Mendian idorotzen du honek bere gizona ta txundituta gelditzen da haren gorputz-bikaintasunaz. Hementxe, lehenbiziko lerro hauetan, azaltzen zaigu Joanes'en gorputz irudia.

Ohar hauekin, ba-dakigu honezkero, ataltxo honi euskal-literaturan dagokion eser-lekua zein den.

(Nahi izan ezkero irakaslea mintza liteke Tx. Agirre idazleaz, honen izkribuez, baita euskal-nobelaz ere).

3. *Temaren billa.*

Idazleak zerbaitetarako izkribatu du hau. Asmo jakin bat bete nahi zuen noski. Zein da, ba, atal honen ideia-ardatza? Honatx: *Joanes zahar-raren gorputz gazteak izkribatzailleagan sortu duen mirespena deskizio-bidez ematea*. Ideia honi begira, epaitu beharko dugu orain atal osoa: aukeratu duen bidetik helburu horretara iristen bada, idazleak lortu du nahi zuena.

4. *Barne-moldaduraren billa.*

Atal hau ez dugu bertsoz egiña, ta oraingoan beintzat bazter ditzakegu neurt-hitz-legeak. Agian, hala ere, egin liteke banaketaren bat, pen-tsamendua ez baitugu bapatean ematen, maillaka baizik. Berriro irakurriaz, berealakoan ikusiko dugu ba-direla hor zenbait zatiño:

- a) Amirazio-esaera bat (1 lerroan).
- b) Artzaiñaren gorputz-aurkezpen orokorra (2-4).
- d) Epifonema bat (5).
- e) Joanes'en presentazio xehetua (6-7).

5. *Tema-zehar forma esamiñatu.*

- a) Zatia: *Ura zan gizona, ura!*

Mirespen-irudi, amirazio-figura, batekin hasten da. Temari zegokion erarik egokiena agian. Hiru balio eder aipa ditzagun hemen:

Amirazio apropos bat deskrizio baten ordeko izan diteke. Bere bidez ez zaigu ezer berezirik esaten, baiña idazlearen arima-zehar zerbait ikusi dugunaren susmoa izango dugu. Ondoren etor ditezken zertzeladei aurea harturik, aitzinetik sentipen beroz ematen zaizkigu.

Mirespen-irudiak irakurlearen jakin-gurea iratzarri egiten du. Ondotik letorkena benetan jakingarri bihurtzen da guretzat. Ta galdera xuxenean datorkigu mingain-punttara: zer zuen, ba, gizon horrek?

Esaeraren jatortasuna ere ongi euskalduna da. Erderara itzulieziña da hori. Uradun esaera oso gurea da, ta birresanez gehiago nabarmentzen da bere jatortasunean. Lorezko euskal-arkupe honetatik garamazki protagonistaganaiño izkribatzailleak.

Temaren bihotz-bihotzean dago amirazio hau: egoki baitator bai mirespena agertzeko, bai deskriziorako.

- b) *Zatia: Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodien baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.*

Zer eta nolakoa zen, ba, holako amirazioaren iturria?, galdetzen diogu gure buruari. Hona!, erantzuten digu orain idazleak. Baiña bere mirespenak bultzaka daramakiela, ezin dizkigu xehapen denak bertan-bera zabaldu. Temaren bi ideia-uneen (amirazioa ta deskrizioa) artean tiraka bat sortzen da: deskrizioa behar du, ta amirazioak begirada lausotu egiten dio idazleari.

Honegatik, gizandi haren aurrean, lehenbiziko «O!»-aren ondotik gorputz osoko erretratu bat emango digu Txomin Agirre'k bigarren zatitño honetan, mirespenak ez baitu bestetarako betarik utzi. Beraz, argi dago hemen temaren bertakotasuna, presentzia.

Aukerakoa da deskrizio hau, baita bere gonbarazioengatik ere. Izan ere, artzaiña izanik Joanes, mendiko semea ta tontorretan hezia, inguruan zuen bizi-girotik jaso beharko zituen bere giza-edergailluak. Bere bizitzari dagozkion tasunak, kalitateak, ditu gure gizonak.

Joanes euskalduna ere ba-da. Honegatik, bere giza-tankera Euskal-Herriarena da: Euskal-Herriaren azala bere jantzia. Nolako arbola, halako ezpala. Zatitxo honetan iperbolea gain-egadan dabil; ta beti euskal-tasun-sirimiria dariola.

Ikus ditzagun epitetuak eta gonbarazioak. Zugaitzetatik, gonbarazio-helburutzat, geureenak aukeratu ditu, maiteenak: makal-pago-arte-gorosti. Ta lerrotxo bat gehiago ekarri bagenu, geurekin izango genuen hari-tza ere. Ta epitetuak? Biñaka ematen zaizkigu: gonbarazio-helburuari iaeraz dagokion epiteturik aproposena ematen zaio (*Pago lodi, arte go-*

gor, gorosti heze), ta zugaitzen kalitate horiek neurriagotu egingo dire Joanes'gan gizatasunez jaztean (makala, zuzen, pagoa, zabal, artea, trin-ko, gorostia zime!). Ez ahal duzue inoiz holako gizonik ikusi: nik bai Kanpion'en *Narraciones Baskas*-eko apaingarri batean: Aitor bera zen... Eta guk, nola goraipatuko genituzke guk euskal-artzain baten gorputz-bikaintasunak?

Esan dugu, zati honetan ez dago deskrizio-xehetasunik. Ba-dakigu zergatik ere. Ez dakiguke, beraz, plastikutasun haundirik eman, zerbait haundiren susmapen miretsia baiño.

Gonbarazio asko, baiña denak arras liferenteak dire. Artzaiñari ematen zaion pintzelada bakoitzak tonalidade berezia daramaki gonbarazio-lokarrian ere: *bezain* - *baizen*, - *bezela* - *antzera*. Zinema-travering bat dela esan liteke: hara-honako honek gauza berari higidura bizia ematen dio teknika-mogimenduaren bidez.

Ikusten dugu, ba, honaiño esan direnekin, zein artezki eman digun Agirre'k bere amirazioari zegokion deskrizio-jantzia, temak berak eskatzen zuen parekoa.

d) *Zatia: Orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.*

Amirazioz beteriko epifonema bat da. Ez dezala, gero, inork zalan-tzarik ukan, holakoxea zen gure gizona-ta. Honezkero irakurleak eskatzen dituen xehetasunetarako ate irikia dugu afirmazio hau. Behin ta berriz tema begi-bistan da.

e) *Zatia: Sendoak zeuden oraindik artzai zarraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bular-auspoak.*

Sendotasuna erakutsi nahirik (hori baita lehenago ere adierazi izan nahi digun tasun bat), hasiera-hasieran jarriko da «sendoak», inkiridu-legearen bortiztasuna zorrotzagotuaz. d) Zatiaren arrazoi-oiñarria argitan jartzen du hemen: mirespena ez da batere harritzeko. Hitzak berak ere ba-duela eufoniak ematen dion sakontasun bat esan liteke: «s» hori gezi bat baita, ta «n» ta «o» horiek sendotasunaren barreneraño garamazkite.

«Zeuden» aditzak iraupena ematen digu, aldakaiztasuna. Urteak ez dute ezer ikutu, lehengoan dirau sendotasunak. Ez ahal da hau biziki txundigarria. Joanes, bere haretan egon dago: ez dio «sendoak ziran»-ik, «zeuden» baiño. Temaren uhiñak honaiño ere heldu dire. Ta ondotik datorren «oraindik» hori gogoan baldin badugu? Iraupen horren harri-garria!

Artzaiña zaharra da. Datu honek kontraste-balioa du bereziki, deskriziorako beharrekoa dela ere, mirespen-arrazoia hor baitago. Sendotasuna besoetan ikusi ohi dugu gizonok, eta Agirre'k beso zaintsuak aipa-

tzen ditu, arestiko pago lodia ezin ahazturik behar bada. Ez dire xamurrak beso horietzek! Urteek eta lanek zaildu dituzte, bai! Zain gogorrez zertuak dire. Honatx, ba; Joanes'i eman zikioken kalitaterik preziatuena: honen gain doaz, zankarteka, mirespena ta deskrizio-errealismua.

Bigarren esakunean elipsi bat daukagu: «zeuden» kendu egin da, ideiarekin arin-ariñari esaceran bertan ere lagunduaz. «Txit» aberbioak ere ez dirudi eufonia-asmorik gabe dabilenik, hitza bapatekoa baita, bizkorra: onomatopeia? Ez ahal da gelditasuna, ta geldotasuna, zahartzaroaren penarik samingarriena: ba, gure artzain zaharrak ez du honelakorik ere. Amiragarria ziñez!

Hirugarren begirada batean ere ba-da Joanes'gan zerbait berririk. Ez zen bera itxurazko gaztea bakarrik, egiazkoa baizik. Kanpo ta barne, bere gaztetasuna gorputz guzira isuria zuen. Ez zen beragan zaharren arnas-estukarik, bular-zindotasuna zuen barrutik.

Hona hiru datu laburretan oso-osorik gizona: beso -oin- bular. Gorputzeko gazte-bikaintasunik nabarmenenak hor izan ohi dire. Berezik hemen ageri da nabarmen-nabarmen ataltxo honen tema: deskrizio-amirazioak. Esaeraren hara-honakoak beti du gaiñera. zerbait berririk, betiko egoera ta ibillera berdiñak utzita: *sendo... -txit... -zindo...* esaera bakoitzak du bere hitz-ordenamendua. Artzaiñaren mendi-ibillaldien antzera, frasea ere ibiltari da.

6. Amaiera: azterketaren ondorea.

Agirre beti izan da maisu bere izkribuak euskal-arnasez biltzen, ta hemen ere bizi-bizi dauka bere balio haundia: gogora lehenen zatiñoa, hor baitago nabarmenen hizkeraren euskaltasuna; berdintsu bigarreanean ere. Agirre erromantikua dela esan da, ta lehenengo zatiñoan horrelakorik suma dezakegu, zerbait galduaren tristura alegia: *ura... ura*, esango digu. Gaurgero honelakorik ez dela, esan nahi zaigu nunbait: nostalgia, lehen-miña du izkribatzailleak bihotzean. Ta bihotz-samin hau nobelaren muiña da.

Laburki erakusten zaigu gizaki miresgarri hori: gonbarazio ames-arazlez eta zehaztasun baliotsuz. Atal honi edonundik darizkio idazlearen amirazio ta lehen-ametsa. Deskrizio dena bihotz-hunkitu honekin ondua dator.

D) HIRUGARREN METODUA (Aita Rizzi, S. J.)

Mugarriak: Oraingo hau da biderik nekezena, baiña baita baliotsuena ere. Ez dut uste gaur-egun oraindik euskeraz metodo hau erabil de-

zakegunik. Ez noski komeni ez zaigulako, behar genituzken liburu ta tresnak eskas ditugulako baiño. Honegatik ez naiz hirugarren honetan asko luzatuko. Nahi duenak, eta euskal-irakasleok nahi izan behar dugu, *Humanidades* errebistan aurki dezake, 33'gn. zenbakiaren 383'gn. horrialdean (1). Hemen gain-begiratu bat bakarrik emango diogu denari.

a) *Errealidadearen analisisia.*

- 1) *Hitz-izadia:* Izaki naturala bere ikusguneetan, aspektuetan, aztertu: ura-elurra... Hiztegian, hitzaren esanahi ta argillunak ikusi: sinonimuak, antonimuak... Esanahi berdintsuko hitzak sailka taldetu: galgal, poil-poil...
- 2) *Izpiritu izadia:* Izakiak sinbolu ere ba-dire ta sinbolutasun hori idoro behar dugu. Zein giza-errealidade ematen digute izakiek sinbolupean?: mendiak giza-irmotasuna ukan dezake sinbolutan...
- 3) *Biblia ta Liturgia-izadia:* Zer ote diote darabilkigun kreaturea honezaz bi horiek?

b) *Izkribuaren analisisia.*

Poetak errealidadea autatu egiten du, eder aldetik garbitu ta bat egin: bere goi-hatsaren eragitez, mundua ederrez baliotsu bilakatzen da. Baiña irakurleak gertu egon behar du olerkariak ematen dion izaera berri hori atzeman eta jasotzeko. Honetara, irakurlea prestatzera alegia, zuzentzen da analisi hau.

a. *Analisi-atarian.*

- 1) Idazkiaren esplikazio literala.
- 2) Idazkiaren asuntu-aurkientza (ojetua: zeru izartsua Fr. Luis'en *Noche serena*-n).
- 3) Idazkiaren tema-ideia (ojetuan begiratzen dugun ikusgune apartekoa: zeru izartsuaren ederra *Noche serena*-n).
- 4) Idazkiaren ideia poetikoa (poetaren kontenplaerak duen trazendentzia-balioa: mundutar bizitzatik besterako igo-bidea *Noche serena*-n).

(1) Comillas'ko Aita Jesuitek argitaratua.

b. *Analisia.*

- 1) Esaeraren balio-semantikoa: ojetuak (zerua, argiak, lurra...), sentimenduak (argiz apaindua, urrats isillez...), ideiak (zein patu gaiztok nauka loturik?... Hau dena *Noche serena*-n).
- 2) Esaeraren gramatika-joskerak: fonologia, morfologia, sintasia... Orain ikusi behar da poesiaren tema-ideiak ta gramatika esakerak elkarri nola laguntzen dioten.
- 3) Esaeraren estilistika: Erretorika-irudiak...
- 4) Esaeraren arkitektura: Nola iruten dire poesian perioduak, pertsonak, ojetuak. Osaki bakoitza nola kokatzen da olerkiaren barnean.

d. *Birkreazioa.*

Analisiak, poesia-gorputza zatitu, biziabaki, egin du. Baiña gure zeregiña burutuko bada, ikusia birsortu egin behar da. Gerekuntzak eta imitazioak maillaka joan behar dute: 1.º hitzak geretu ta imitatu, 2.º gramatika-usarioa, 3.º erretorika-irudiak.

d) *Osakuntza.*

Edozein izakik hamar milla sarrera-ate ditu, ta guziotatik sar gaitetzeke olermenaren laguntzaz:

- 1) *Literatura-esparruan*: aztertu dugun atalaren pareko izkribuak irakurri.
- 2) *Ikus-arteetan*: kuadruak, dokumentalak, telebista...
- 3) *Entzun-arteetan*: musika-saioak, konzertuak... Dena gure gaia-ri dagokiona.
- 4) *Naturalezaren, izadiaren, bizipenak*: ibillaldiak, ikustaldiak...

Horra hiru bide, ta hiruron bide-gurutzean gizon bat: irakaslea. Hemendik nahiz handik, maisu onak biderik izango du, baiña literaturan ume-zapitan gaudenok eskarmentuaren poderioz ikasi bearko ditugu bideok. Besterenarekin nahikoa baldin badugu, ez gera hala ere hain gaizki.

Irakasleak lillurapen-makillatxo behar du. Kreatura bakoitza eder- tu egin behar du ikasleen aurrean. Ez deztela hauek iñoiz ezer izan- makutsean ikusi: edonun ederraren zoramen-bidea topa deztela. Hone-

tarako agian irakasleak berak ere idaz-lantxoren batzuk egin beharko dizkie.

Lehenen izadiko zerbait erakutsi ta bere ederra billatzera behartu ditzagun gure mutillak, ta ondoren, behar bada eziñean eseri direnean, eder hori, mamiturik, eskuartean erakutsi, «hona hemen!» esanaz: leiho bat ez da leiho izango, ederrera igo bide baizik. Lorea ez da botanika-ikasgaia gertatuko, ederraren muin-printza baiño. Zelaia ez da belardia izango, edertasun berde-hezea izanen da. Eder-mundurako sarrera erosoagoa da izaditik, naturalezatik, gizonon arte-obretatik baiño. Ikusarazi dezaiegun mundua, gero izkribuz hori ematera behartuak gerta ditezten. Ederra atzeman duenarentzat bortitza da barnean gorde nahi izatea. Gure mutillen arimak eder-zoramenetan blai jar ditzagun, idazle bihurtu ditezten.

Esango zait behar bada harako hura: ezin liteke horrelakorik mutil-talde batekin lortu (barka dezaidatela euskal-andereñoek, nere mutillak bakarrik aipatze deitoragarria, zuentzat, euskal-nexka ponpoxa guzientzat ere ba-duzue hau-ta). Irakasleontzat ez dute dizipulu arimek hesirik alde-aurretik. Guk bide denak iriki behar dizkiegu mutillei, ta ondoren, gazteongan ahalmenik baldin bada, segi ditzatela. Gehienetan geu gera pekatari.

Gauza asko egin litezke, baiña geuk ikasi egin behar dugu lehenen. Errientsa on bat aurkitu zutenean, Puerto Rico'ko herri-eskola batean 18 olerkari jaio ziren. Nik ba-dakit gure euskal-ikasleak ez direla hain arin esnatzen eder-mundurako, baiña badute edermenik eta zortzi urte-ekin ez bada ere, Batxilleratuan bederik eman behar diegu eder-argia. Hona hemen Puerto Rico'ko eskola horretatik bi olerkari koxkorren lanak:

La Primavera

Ya llegó la primavera
con su pico de algodón.
Todos los pájaros cantan
y en el jardín todo es flor.

El campo ríe de verde
y en el campo todo es flor.
¡Ya llegó la primavera
con su pico de algodón!

Gladys Coss, 8 urte.

El Mar

Las olas del mar
vienen y van,
al son del viento
que las arrulla
con su cantar.

Y al sol brillante
sobre las aguas,
tan transparentes
como el cristal,
las olas vienen,
las olas van.

Norma Iris Rivera, 10 urte.

Ikasleek ederra izadian atzeman dezaten, maisuak ernai egon behar du gauzen edertasun hori ikusi ta erakusteko. Mutikoaren begiak hara ta hona zuzendu behar dire: atzo, gaur, bihar, orain, han, hemen, ba-soan, iturrian, karrikan... Beti ta nunahi begiak zabal: leihopeko jo-lasak, gauaren isilla, haraneko terrala, arratseko lehenen izarra, bara-tzeko lora hilla, zelai-erdiko piñu beltza, kearen gora-nai neurtua, udazkenaren heriotasuna...

Ikasleek beren lanak egiten dizkigute. Zergatik ez erabilli hauen gain gure metodoak; hirurotatik, lehenen biek beintzat balio dute hone-tarako. Hala ere, bigarrenak gehiegi desalima ditzakelako, hobe dugu lehenen metodo hori, samurragoa baita: beti aurkituko ditugu zenbait edertasun, ikaslearen lantxoak zerbait balio badu behintzat, ta horren gain sortuko dugun mundua erabat beretzat joko du ikasleak.

Idaz-teknika ikasteko, lehenengoa ez baiña, beste biak egokiagoak dire. Ez dago, ordea, dena batera ikasi beharrik, alfer-lana bailitzake: has gaitezen epitetuetatik; hitzak etorriko dire ondoren, irudiak ere bai, joskera, lanaren osotasuna...

III. ZER EMAN LITEKE LITERATURAN?

Olerkiak obeki datoz lehenen komentariorako, gehienetan poesia-trinkotasun hertsia goa ukan ohi dute-ta. Bilduma egoki batzu falta zaizkigu eskoletarako. Erderaz ba-dire antologia ederrak, baiña gu ume-oihaletan gaude oraindik. Bilduma onak, aberatsak eta merkeak behar ditugu, Bergua'k espainolez daukan horren antzekoak-edo. Izan asko baiño lan-izkribu onak hobe. Ba-ditugu zenbait izen jator ere: Etxahun, Lizardi, Lauaxeta, Mitxelena, Orixe, Elizanburu, Azurmendi (honek zoritxarrez argitaragabeak bere lanak)... Holako batzuekin olerki-bil-duma oparoa izango genuke gure zeregiñerako. Hitz-lauz ez dakit hain-bestekorik bilduko litzaken.

Deskizioaren, narrazioaren eta ideia-estiluaren teknikak ere eman beharrekoak ditugu. Honetarako Schökel'en *Formación del estilo* liburua erabilli ohi da gure ikastetxean. Liburu baliosa dela esango nuke. Tek-nika ahuek ezagutu gabe beti ibilliko dire galdu samarrak gure mu-tillak. Zalantza-uneetan jakin dezatela zeri heldu.

Zein lan eta jardukizun eman? Nere esperientzia eskasak ezer balio baldin badu, hobe da, ia beti, idazlanetarako gai hertsia bat ematea. Ta horixe hartzera behartu egin beharko da gure ikaslea, mundu ezezaguna baitu berak eta ez du ikusten nora joan liteken alde-aurretik: arbola,

hodeia, argi-printza, hil-gorputza, errekastoa, txoria, izarra, t. a. Honelako gairik ez da faltako.

Nundik nora ibil diteken ikus dezazuten, apendizean emango dizkizuet zenbait lantxo, baita gai batzuetarako, etsenplu bezala, har ditzaitezuten olerki batzu ere.

Mutilla irudi billatzera behartu behar da, eta ez du honelakorik egiten gai zabala duenean, bere horrialdetxo handik eta hemendik jasotako txutxuputxukeriekin bete baitezake. Ta horixe izan, hain zuzen, errezena! Poesia-munduan buruz behera ta ankaz gora sartu nahi badugu gure mutikoa, iges-bideak itxi egin beharko dizkiogu. Honegatixe aukeratuko dizkiogu gai jakin-jakiñak.

Lanak burutu ondoren, galdera honekin geldituko zaigu gaztea: «Nola demontre egin behar nian, ba, nere idazlan hau?» Honetarako, irakasleak berak presta dezake zerbait, edota luzagarrian aipatzen diren poesietatik auta. Nundik heldu jakin ez duten gai hori bera idazle onak nola erabilli duen ikusteak harrituta utziko ditu, ta beste hainbestetarako gosetan. Oso ikasbide ona izan liteke hau, benetako interes bizia izaten baitute holakotan idazkia ezagutzeko.

Mutikoenak berak ere irakur ditezke, tajuzkorik baldin bada behintzat, zuzendu ta hobetuaz. Ikus dezatela beren bide beretik noraiño joan ziteken.

Irudi-billa izkribuak aztertu. Hartzen da olerki bat. Hor dago hori bere osotasunean. Ba-dire hor erretorikak aipatzen dituen irudiak. Ba-dakite gazteak zein zailla den horiek sortzea; honegatik irudi horiek dauden tokian aurkitzera beharko ditugu.

Esate baterako, hemen daukagu Aita Gandiaga'ren «Xirimiri» poesia. Nere mutillak millaka aldiz ikusi ez badute, ez dute inoiz ikusi Arantzazu'ko lanbroa; batean etxe barnetik izango zen, bestean paseokoan... Urtearen erdia lanbrotan bizi du Arantzazu'k. Hara, ba, nola ikusten duen olerkariak irudi-iruditan muttiko lanbro txepela:

XIRIMIRI txanka meia,
nora barik eta bustia,
baso aldetik agertu da gaur,
artzaiek, tontoz, jaurtia.

Xirimiria muttikoa da, laxe-meia. Ez du seriotasunik, ez gizon-tasunik. Ez da benetan gizon pres-tua. Formalidade gutxi du bere hara-honakoetan, eta Urbiko artza-iek, tontotzat harturik, bota egin dute.

Horra lanbroa irudiz jantzita.

Ideiak eman eta irudiak eskatu. Irakaslearentzat lan erreza da: poesia bat hartzen du, ta bertako ideiak larrugorritan ematen dizkie ikasleeri, desirudituak. Ideia horiek irudiz beztiturik eman behar ditu orain ikasleak. Jardukizun honen ondoren, banaka-banaka galde dezaie-ke ea nola egin duten. Azkenik ideiak jasotzeko erabilli genuen olerkia irakurriko die.

Bi eratara erabil dezakegu lan-modu hau. Olerki labur bateko ideia denak xeheki-xeheki emanaz, honelatsu egingo genuke:

ARKAITZAK, elorriak,
biak gorri,
arima emon eutsen
aideari.

Gugan larritasun haundi bat
daukagu. Samingarria benetan.
Goibeldu egiten gaitu geure barru
guzian.

Arratsalde guztia
laiño busti.
Joran bat zan arima,
mendiz-mendi.

Dena tristetu zait, eta tristura
denon gain, hor dut oraindik nahi
ta gurari bat.

Bigarren era zera izango litzake. Eman funtsean, jeneralki, ideia bat-edo, eta gazteak sor dezala irudi-mundua oso-osorik. Adibidez, Aita Gandiaga'ren *Elorri*-tik «Usain, erle...» (33 orr.) diona hartuko genuke, ta haxe besterik ez genuke esango: «Lan bat egin behar didazute, ta honatx gaurko zuen gaia: ariman nahasian ditugu tristura-oiñaze-poz-ne-garrak. Ea nola adierazten duzuen hori irudiz.»

Epitetu, irudi, gonbarazioak, t. a. kendurik, poesia osarazi. Gehienek gustora egiten duten lana da hau, ez baita hain zailla. Aurkitzen dituzten pitxien ditzira argitara eman behar zaie, lehenengo komentario-metoduaren arabera zerbaiz irakasleok egiñaz. Luzagarrian ematen ditut «Gazteluaitz» poesiarekin egiñak.

Olerkariak eta poesien gaiak (deskrizioetarako bereziki) ezagunak baldin balituzte, askozaz ere interesgarriagoak gertatuko litzaizkieke. Honegatik, nik gehien erabilli ditudanak frantziskotararak izan dire: Gandiaga (nere ikasle guzien maisu izana), Azurmendi (Arantzazu'n egunero ikusi izan dutena), Mitxelena... Gaiari gagozkiola, berriaz, Arantzazu-inguruko deskrizio-gaiak inguratzen ahalegindu naiz. Txomin Agirre'k ere ba-ditu nereontzat atal egokiak.

IV. NORK IRAKAS LEZAKE LITERATURA?

Literatura-arteengan fede haundia duenak. Nolabait betetzera datorrenak ez du baliozko gauzarik egingo. Artea, giza-eginkizun sakona dela sinisten duenak bakarrik irakas dezala, gure artean franko baitire fede hau galdu ta agian inoiz izan ez dutenak. Ez diteke ezer egin itxurakeria hutsez.

Ederra sentitzen duenak, eta nolabait sentiarazteko lain denak. Eder-kreatzaille izan behar du irakasleak gutxi edo asko. Ba-liteke bera idazle ez izatea, baiña bere benetako zeregiña nekez beteko du, ederrik sortzeko ahalmengabea denak. Hori bai, ez pentsa hasi baiño lehen ezin dezakezunik, haurrak ere ez baitaki, lehenen urratsa eman aitzinetik, xuxen ibilliko denentz.

Literatura-teknikak eta kondaira ezagutzen dituenak. Ez euskaldunak soilik, baita erdaldunak ere. Hizkuntza bien jabe ta irakasle bada, hainbat hobe: bere bizitzarekin erakus beza argi ta garbi zereko hau: euskera-lanetara ez doala besterik eziñean. Ikus dezatela gazteak, euskerak ez duela inoren jakinduria murrizten, eta euskal-irakasleak badakiela gauzarik franko, bai bere alorrean eta bai besteenean.

Giza-kultura zabala duenak. Zabala ta sakona. Ahalegin bedi, honetan irakasle-lagun guzien gainekoa izaten, ez arrokeria tontoz ari dela, euskeraren prestijio ta izen onaren beharrak eraginda baiño. Ez dedilla gerta inorentzat gure mintzaira bigarren maillako zerbait, beti zarpil eta lotsatia. Euskerari bruxa kendu ta frak dotorea jantzi behar diogu, ta au euskerarekin gabiltzanok bakarrik egin dezakegu, ez dakiuzela burura, Jainkoarren, bestek egingo digunik.

Gramatika-zirrikituak ezagutzen dituenak. Baiña ez horietan galtzeko, beharreko den laguntzarako baizik. Gramatika buru-haundia tar-teko zelako, noizbait euskera gertatuta da asignaturarik gorrotatuena. Hori behin izan da, baiña ez du berriro izan behar.

Jainkoagatik eta Aren santu guziengatik, euskeraren irakaslea ez dedilla izan egun batez zertara jo ez zekielako euskerari heldu ziona. Irakasle poetak behar ditugu, irakasle ta bide batez poeta ta goimaillako karreradun direnak. Ezer jatorrik nahi bada behintzat, ez dago beste biderik: gainherako sasi-erremedio denak, ezur hautsia kamamilla-ur goxoz sendatu nahi izatea dira. Hala ere nik ez ditut ezagutzen, gure artean, gizon horiek. Ba-da bat, baiña ikusten dugunez, berari eskatzen zaio Euskal-Herri'ko ezbehar denak zuzentzeko, ta ba-dakit hamar milla

ta bosteun ta hirurogeitazortzi zeregin dituen. Ez gaitezke beraz beragana joan. Horiek horrela, ba-dut itxaropenik: kasik erabaki dugu, dirudienez, gure burugogorkeriak orma baten kontra afusilatzea, ta hau egin ondoren jaio diteke behar dugun libertadearen egun-sentia. Euskalzale guziok kaskopean daramazkigun lau tabu horietxek prejitu, erre ta zakurrei botatzen dizkiegunean, zeru santuan izango gera hil aurretik ere gure Euskal-Herri honetan.

Intelektualek, pentsalariek, jakintsuek, kulturagille guziek behar duten askatasun-giroa sortzen dugun egunetik geurekin izan ditzazkegu bestela etxekoanera joango ziraken euskal-semerik prestuenak. Batxilleratu guzirako testuak behar ditugu eta bilduma egokiak eta komentario-liburuak eta hiztegiak eta dena..., baiña hori guzia egin lezaiguketenak erakarri egin behar ditugu gurera, lanerako behar duten giro ona eskeiñiaz. A!, ta geu, geure aldetik, ikasten eta egiten, irakasten eta eragiten hasten baldin bagera, geure eginbeharrak betetzen ikasten baldin badugu, ez goaz bide gaiztoenetik. Eta zorioneko gu, egin dugun lanarentzat kritikari zorrotza aurkitzen badugu: grisa ez baita zuri, ezta beltz ere; baiña —hau ere bai—, Martin Txilibitu eizerako ta eiztari jaio zenez, mendira joan dedilla ta ondoren, gehienik ere, iges egin zion erbiaren ipuiña konta dezaigula: jakintza ta pedagogia-liburuetarako Don Lohontxo baitugu kritikari zintzoa.

Eman dizueta hemen nere pekatuen aitorpena. Orain, maisukide maiteok, zuenak entzun nahi nituzke. Beto z lehenbaitlehen.

A P E N D I Z E A K

I.—IDAZ-LAN HERTSIAK

LOINAZ, 16 urte.

Lili berria.—Goizeko argi-sentia. Zeru kiskaliaren urdin argia baso-lili gorrixkan dirdir. Lili berria gaueko illunari zabaldu zaio polliki, ixil-ixillik.

Lili txikiak irribar usain goxozkoa dauka ernetzen bere orritxo legunetan.

Gauari iriki zaio ta intz-malko zillarrezkoa utzi dio gauak bere altzo birjiñean... Antxe usaiñez bildu-bildua ta txinbeletatxo danari bere pitxi ederra erakusten daukagu...

Zeruko urdin garbia bere ixpillu txikian gordeta.

IÑAKI BERISTAIN, 15 urte.

Illerria.—Illerrian nago, bakarrik, giro larri batez bildua.

Iretargia, izarren maitea, paketsu zero urdin zabalaren zabalean.
Bere argi gardenaren izpi motelak illerrian ixiltasun dira.

Kupres itzal illunak, lurrera luze erorita, kurutzetxo erdoitueri
muin dagiete.

Orma zaarra, untzez ta gooldioz estalita, serio ta triste dago.

Aize astun bat, polliki ta nagusi, onuntz-aruntz dabil.

Ixiltasuna, illerrian ixillik, etzana, luze, zabal.

Illobi barruko ittute baten erortze makala, ontzaren negar-zotin
sorrarekin bat, entzuten da bakarrik.

Dana da
ixiltasun...
Dana da
bakartasun...

L. OLABERRIA, 14 urte.

Goiza erortzen.—Goiza gaixo, mokoti, terral emez bustia. Urbi-alde-
tik, xarpaz jantzia, errenka-errenka jetxi da.

Errekastoaren abesti oker, urratua, laiño artean ittotzen doa, larri
itizaldua, urruti.

Bere oin otzarekin ikutzean, emaratu egin da Arantzazu, oiñetara-
iñoko txapelean bilduta, laiñozko txapel xuri-zabalean.

Arkaitz artean ixiltasun luze, gogor bat etzanda dago, larrez betea.

Bide luzeetan zear ba-dator egunaren biotza, dardaraz, ozkirri.

Eta ba-doa terral ximur-negartia erreka-ondotik barrena, arrastaka.

Ba-datoz aurren argiak, kiñuka bixian, anka punttan, ttin-ttin, xal-
toka, oiñak terralean bustitzeko bildurrez bezela.

Galdu da belaiñoa Urbi'rako bidexka garbian azken arnasa emanda.

Ta berririo errekastoa xirolari.

Goiz gaixo, mokoti, terral emez bustia; Urbi'tik beera, errenka-erren-
ka, xarpa zaarrez jantzia jetxi da goiz elbarria.

II.—IZKRIBU GAIETARAKO OLERKIAK

ABEREAk: «Erbiak eta igelak» (Oxobi, *Milla Euskal-Olerki Eder*,
MEO, 963'gna). «Oillaskoa eta axeria» (Oxobi, MEO, 969). «Axeria

- eta mahatsak» (Oxobi, MEO, 970). «Igelak» (Mirande, MEO, 999). «Katuari» (Kerexeta, MEO, 649). «Usoa» (Elizondo, MEO, 676). «Mitxeleta» (Jakakortajarena, MEO, 811).
- ABERRIA: «Gernikako arbola» (Salaberry, MEO, 984). «Errimiña» (Azkue, MEO, 252). Eta beste millaka.
- ARRATSALDEA: «Arratsaldeak» (Gandiaga, *Elorri*, 96 orr.). «Ilhuntzia» (Babaki, MEO, 987). Eta *Elorri* poeman agertzen diren beste aunitz.
- EKAITZA: «Galerna bat mendian» (Barbier, MEO, 948). «Ekaitza» (Etzaniz, MEO, 873).
- ELIZAN: «Koruko» (Gandiaga, *Elorri*, 174 orr.).
- ELLORRIA: «Usain» (33 orr.). «Arkaitzeko» (32 orr.). «Udalenak» (32 orr.). Ta *Elorri*-n aurkitu ditezken beste asko.
- ELURRA: «Goizaldeko elurra» (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 122 orr.). «Edurra» (Gandiaga, *Elorri*, 188 orr.).
- GAUA: «Zorionaren» (Gandiaga, *Elorri*, 186 orr.). «Illuna» (G., *Elorri*, 178 orr.). «Gau» (G. *Elorri*, 100 orr.). «Gabeko irrintzia» (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 38 orr.). «Iretargia» (Gandiaga, *Elorri*, 107).
- HERIOTZA: «Haur hilaren arreba ta ama» (Lafitte, MEO, 978). «Xaubadin» (Lafitte, MEO, 982). «Xabierto'ren eriotza» (Lizardi, MEO, 770). «Otartxo utsa» (Lizardi, MEO, 773). «Biotzean min dut» (Lizardi, MEO, 774). «Herioa» (J. Etxeberri, MEO, 155). «Otoi, adiskide...» (Loramendi, MEO, 818).
- HILARGIA: «Ilargia» (Azkue, MEO, 253).
- ILLUNTZA: «Illuntzeko» (Gandiaga, *Elorri*, 176 orr.). «Arrats gorri» (Lizardi, MEO, 781). «Illunabarra» (Arruti, MEO, 706).
- IRRINTZIA: «Irrintzina» (Barbier, MEO, 947).
- ITURRIA: «Iturri-negarra» (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 40 orr.). «Urxirripa inhar batekin guduan» (Lafitte, MEO, 977).
- ITSASOA: «Uhainen dantza» (Lafitte, MEO, 976). «Itsasora!» (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 137 orr.). «Itsasoa» (Iratzeder, MEO, 990). «Itxasua» (Etxeita, MEO, 516).
- KEA: «Etxeko kea» (Lizardi, MEO, 782).
- LANBROA: «Xirimiri» (Gandiaga, *Elorri*, 60 orr.).
- LOREA: «Lore-buru» (Gandiaga, *Elorri*, 52 orr.). «Mao Gorri» (Lauaxeta, *Bide Barriak*, 28 orr.). «Lore igarra» (Tapia-Perurena, MEO, 888). «Lora bateri» (Errebido, MEO, 244).
- UDABERRIA: «Neskatx urdin jantzia» (Lizardi, MEO, 772). «Sagarlore» (Lizardi, MEO, 775).

UDAZKENA: «Udagoena» (Gandiaga, *Elorri*, 193 orr.). «Udagoen-usaiña» (Gandiaga, *Elorri*, 195 orr.). «Ondar gorri» (Lizardi, MEO, 775).

ZERUA: «Aidean» (Gandiaga, *Elorri*, 181 orr.).

OHARRA: Ba-dakit sasi-bilduma hau txepelkeria bat dudana; baiña horrelaxe utzi beharko da gaurkoz. Olerkari asko falta dire ta oso onak, Orixe esate baterako. Edonork ezagutzen ditu gure poeta go-renak eta beren poemetatik osa lezake hemen agertu dena. Barka, ta eskerrik asko.

III.—POESIA BESOMOTZAK OSATZEN

Gazteluaitz Arantzazu'ko arkaitz ezagun bat da. Honen sahetsean, errecondoan, praillegaien futbol-zelaia aurkitzen da. Olerkaria Josepe Azurmendi dugu. Olerkia osatuko digutenak bosgarren urteko ikasleak ditugu, euskera hobekitxoan darabilkitenak. Errima-legerik-eta gordetze-korik ez zaie eskatu.

LOINAZ (Errezil'goa)

OLERKARIAK

ARZAILLUZ (Goiaz'koa)

Gerizpeak itzaltzen
arratsarekin batera.
Argi urtu goria,
argi epel makala,
tu urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
jolas-zipriztiña,
aidea urratuaz
pozen pozak lertuak.
Nor litzaken ume...

Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru motelek pena.

Gerizpeak luzatzen
arratsarekin batera.
Argi *more biguna*,
argi *fresko leguna*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karrasi ots,
poz biurrien ezipal,
aidea ebakitzen
pozen gezi zorrotz.
Nor litzaken ume...

Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *moreen* pena.

Gazteluaitz-pean
alaitasun labe,
labeak karraxi.

Nor litzaken ume
ume alai beti.

Gerizpeak zorrotzen
arratsarekin batera.
Argi gozo *txukuna*,
argi motel *kutuna*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
egunsentiko txinparta,
aidea txulatzen
pozen arrats mingots.
Nor litzaken ume...

Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *geldo*en pena.

ZABALETA
(Legazpi'koa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *legor joanbera*,
argi *illun ilbera*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
txori nekatuen istillu,
aidea *zulatzen*
pozen *tximista oker*.
Nor litzaken ume...

Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *astunen* pena.

OIARZABAL
Andoain'goa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *urre mee*,
argi *bigun bare*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
ume-pozen altzo,
aidea *lotutzen*,
pozen *iñar biurri*.
Nor litzaken ume...

Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *tristeen* pena.

I. BERISTAIN
(Errezil'goa)

Gerizpeak *illuntzen*
arratsarekin batera.
Argi *urdin illuna*,
argi *eztitsu goxoa*,
ta urrun arrats bera.
Gazteluaitz ondotik
zantzo ta karraxi-ots,
kanpai gazteen soiñua,
aidea *jolasten*
pozen *txiñare berri-*
-emaille.

Nor litzaken ume ...
Arratsalde zauri
odol-iturri,
inguru *gorrien* pena.

Fr. JOSEBA INTXAUSTI, O. F. M.

ZERTAN DEN ESKUARA

Joan den Agorrilean, Baionako egunkari batek galdegin dee zombait eskualduner, zer zioten Eskuararen geroaz. Ihardespen horiek agertu dira beraz, *Basque Eclair* deitzen den egunkarian, eta ene ihardespena izan da lehenik agertu dena, Agorrilaren 12-an.

Erraiten nuen bezala artikulu hortan, mintzo niz eskualdun gisa eta frantses erakasle gisa.

Zertan den Eskuara 1963-an.

Begistatzen dugularik, Luis Luciano Bonapartek duela ehun urthe publikatu zuen mapa, ikus dezakegu Hego-aldeko Eskual-Herrian anhitz galdu duela Eskuarak, bereziki Alaba eta Naparroan, eta aldiz, Eskiula-

tik eta Hendaiarat, Bidaxunetik eta Baigorriat Iphar-aldeko Eskualdunek atxiki dutela beren mintzaira xaharra. Bainan ez giten hortan barazeren berdin ari baita galtzen eskuara Iphar-aldeko Euskal-Herrian. Eskuarak pairatzen duen gaitza da barne-barneko min samin eta borthitz bat.

Miatzen baginu egiazki, ikus ginezake badela gaur egunian anhitz jende mintzaira bat baizik dakitenik, eta mintzaira hori erdera. Duela ebrrogei ta hamar bat urthe Atzerrietik jinikako jende baizik ziren erdaldunak. Bertze batzuek eskuara baizik zakiten. Erran dezakegu orai eztela kasik nehor ere eskuara baizik dakienik eta, zorigaitzez, urtero, eskualdun gaztek uzten dutela eskuara eta erdaldun hilakutzen.

Lehenik aita eta ama eskualdun batzuen semek komprentzen dute eskuara bainan ez dute mintzatzen, ez kompreni ere eskuara.

Hola dira erdalduntzen gure herri eta basherriak.

Hortarat heltzeko, kausetarik haundienak dira ene iduriko:

1. *Eskola.* Eskolak du gehienik erdaldundu Eskual-Herria. Hemen, frantses erakasle gisa, nahi nuke erran, argi eta garbi, hirugarren errepublikak egin duen lana, lan eder eta baliosa dela. Eskualdunek behar dute erdara jakin, edozoin frantsesek bezembat. Eskolak eta errientek deute ikasi, eskualdun gazter, erdaraz mintzatzen. Bainan ez dute gure buruzagiek komprentitu erdararen erakastiak etzeela, eskualdun haurrer, eskuara gal-arazi behar. Frantses buruzagiek uste ukan dute behar zela erresumaren batasunaren osoki finkatzeko mintzairaren batasuna finkatu, eta bertze hizkuntzek (bretoi, okzitan, eskuarak) behar zutela hil.

2. *Familia.* Eskual-Herriko burrasoek erran dezakete egun guziz «kofesatzen nintzaio»-an erraiten duguna: ene faltaz, ene faltaz, ene falta haundiaz, zeren anhitz eskualdun burrasoek dute ahortzi beren aginbidearen osoki bethetzea, beren haurrer eskuararen erakastia.

Eskolak gal-arazten eskuara, familiak ez erakasten eskuara, horiek dira Eskual-Herria erdalduntzen dituzten bi kausa gehienak.

Nola bihurtu erdalduntzeko bide hori?

Ene iduriko, gaitza ikusi-ta, gaitzari behar zako galdegin sendagailua. Eskolak behar du izan sendagailuetan den azkarrena.

1. Eskual-Herriko lehen maileko eskola guzietan behar lukete errient eta errientsek eskuara erakatsi haurrer. (Erdaraz: «Dans toutes les écoles primaires du Pays Basque sera dispensé l'enseignement public, gratuit et obligatoire de la langue basque.»)

2. Eskual-Herriko bigarren maileko ikastetxe guzietan (Baionan, Miarritzen, Donibane-Lohitzunen...) behar litaizke finkatu Eskuarazko katedrak eta horietan ezarri eskuara erakasiko duten erakasleak. Bigarren maileko ikaslek, ikasten dituztelakoan bi hizkuntza (Angles, español, aleman...) behar ginuke ardietsi izan dadien eskuara hizkuntza horie-tarik bat, batxilleratoan presenta dezaketena.

3. Frantses gobernuak behar luke finkatu lege bat onhartua izan dadien eskuara hirugarren maileko (enseñanza superior) etsaminetan.

Gisa hortan balakikete eskualdun haurrek, beren hizkuntza xaharra zerbaitetako on ditaikela, eta ikas lezakete edozoin maileko eskoletan.

Uste dut eta bihotz-bihotzetik erraiten, salbatu behar balimbadu eskuarak, eskolak behar duela salbatu.

Bainan sendagailu hori ez da gure eskuetan, bainan bai frantses edo español gobernuen eskuetan. Beraz, behar deegu galdegin garbiki eta goraki ez dezaten utz hiltzerat munduan den mintzaira xaharretarik bat. Linguista batek zion egun batez: «hizkuntza baten galtzerat uztea zela gaxtakeri haundi baten egitea bai gizonen, bai gizontasunaren kontra». Behar dute jakin bi erresumetako buruzagiek edo zuzendariak, beren gain hartu behar dutela eskuararen geroa eta izanen direla hobendun bai Jainkoaren bai gizonen aintzinean uzten balimbadute galtzerat.

Eskualtzaindian sar-egunian, erraiten nuen ene hitzaldian Oxobiren olerkietaz mintzo nintzalarik:

«Zendako othe, La Fontaine-n alegiak dituztelarik gure haurrek eskoletan, ez ditzazkete ikas Oxobiren alegiak. Horiek dira gure eskual-kulturaren ontasunak. Behar dituguia debaldetan utzi? Eskualdun la-borariak, larre uzten ditia bere lurrak? Nahi balimbadugu gure eskual-dun eginbidea osoki bethe, aintzinekoek utzi daukuten ontasun ederrez behar gira baliatu, behar ditugu erabili. Hori ez eginez, bigarren aldikotz hilen da Oxobi eta izanen gira, gu, haren hiltzaliak.»

Ez dugu nahi hil ditene bigarren aldikotz gure literaturan diren olerkari eta idazle haundiak. Bainan eskual-buru eta bihotzetan bizitze-ko, behar dute eskualdunek ikasteko nahikundea.

Erranez garbiki eta goraki ez dela utzi behar hiltzerat eskuara, uste dut bethetzen dudala ene eginbidea.

Jean Haritschelhar

GAURKO IZLARIAK ETA EUSKERA

Oarra: Nere lanaren izenburua aldatu egin det.
Jarri diotanarekin Billera ontan esan nai detana
obetoago dijoalako.

Euskeraren bizia elizgizonen eskuetatik zintzilika dagola, esango nuke. Berak nai badute euskera biziko da eta euskeraren eriotza nai baldin badute, euskeraren eriotza gertatu egingo da. Beraz euskeraren bizia elizgizonen eskuetatik zintzilika dago. Nai ote? Geiegi esan det. Egiago da orain esatera noana: elizgizonak asko dezakete euskeraren alde; baita ere asko dezakete euskeraren ondamendirako. Baña ez, ez dira berak euskeraren bizia edo agonia zirt edo zart erabakiko dutenak edo erabaki dezaketenak. Ori erriagintaritzaren eskuetan dagola, ordea, ziur ziurki siñisten det.

Baña, berriz ere esango det, elizgizonak asko dezakete ortan. Adibidez, zenbait erritan (Euskal-Naparroako erritxo asko ditut, au esatekoan, gogoan) euskera bizirik dabill ango apaizei eskerrak; bestetan, berriz, illa dago apaiz batek euskera baztertu ta bere ordeztzaldi guztietarako erdera artu dualako.

Eta goazen arira.

I. IKUSI ZER GERTATZEN DAN

1. Eliz-izlarien aldetik: bear aña eliz-izlari euskaldunik ez dago gure artean, ez elizgizonen artean ta ez eliz-andreen artean. Eliz-izlari euskaldun izan bear luketen askok ez dute euskerarik beren itzaldietan.

a) *Beren erruz.* Bai, askotxotan. Nagikeriz edo beste zerbaitegaitik euskera-ikasteari ez diote sekulan serioki ekin. Diotenez, gure seminario oietako batean, jakiña omen zan batzuen-batzuen asmoa: euskerarik ez ikasi nai, apaiztuta gero euskaldun erritxiki oietan bizi bearrik ez izatearren. Bilbo edo Donosti inguruak naiago izaki.

b) *Seminario ta fraile-etxeen erruz* ere gertatu izandu da esaten ari geran gaitz ori. Ango ikasketa guztien artean, gure euskerak ez baitu bear bezelako lekurik eta estimatasunik izan.

c) *Entzule euskaldunen erruz.* Euskaldun askok —egia argi ta garbi esan dezagun— naiago ta maiteago izaten dute erderazko sermoia, euskerazkoa baño. Jarri itzatzute an da emen euskerazko itzaldiak eta jarri itzatzute ordu ta lekurik ederrenean. An entzule egon bear luketen asko ez dira iñolaz ere azaldu. Eta ori dala-ta euskal-izlarien biotzetan zegoan gogoa ta zaletasuna galdu egiten da.

2. Eliz izlari euskaldun diranetatik ere askok ez dute bear aña alegin egiten.

a) *Ez izkeran.* Euskeraz itzegin bear dala-ta, bost ajola zaie itzak batekoz beste esateagaitik.

b) Ezta itzaldi-gaiak aukeratzen eta bear bezela aletzen ere ez dute alegiñik egiten. Erderazko itzaldietan entzuten dituzun zenbait gai eder, mamitsu ta gaurko gaurkoak... ez dituzu zoritxarrez euskerazko itzaldietan sekulan entzungo. Ortarako burua nekatu bearra baitago ta izlariok ere askotan buru neketzeari bildur diogu.

3. Oiek orrela diralarik, zenbait euskal-aldetan, euskeraz beti —etxe ta kanpo— mintzatzen diran kristau euskaldun askok Jainkoaren itza beren jatorrizko izkuntzan eztute entzuten.

4. Jokabide oetatik kaltea ugari, bai euskera berarentzat eta bai, batezere erlijio ta Elizarentzat. Gogoratu zer gertatu zan Eliza Katolikoa bere errikoitasuna Alemani-n galdurik zebillenean, eta Lutero erri-izkuntzaren maitatzalle azaldu zanean. Ipar-Aprian noizbait izandako kristautasun zaarra, sustraitik zergaitik Mahometarren azpian galdu zan ere jakin nai nuke. Elizarrak bertako izkuntzak alboratuz jardun zirala-ko otc?

II. GERTATZEN DAN ORRI BURUZ IRITZIAK

1. Lenengo gogora ditzagun Jainkoarengandik datozkigun iritziak (siñismendun geranontzat txit aintzat artu bearrekoak noski).

a) Jesukristo gure Jaunaren jokabideari begira. Jesukristok bere itzaldietarako sasoi artan zebiltzan izkuntza nagusienetako bat artu zekanean. Baña bai zera! Ara nola bereganatu duan bere erriaren izkuntza ta bere artan emango du bere Berri on gutzia.

b) Espiritu Santua Pentekoste egunez apostoloengana sartu ta gizon oiek izketan jarri zituanean, izkuntza berezien alde benetan jainkozko errespetoa ta estimatasuna erakutsi zigun. Begira *Apostoluen Egiñak* deritzaion liburu santuaren bigarren kapituluari. Bein da bider esaten zaigu an «jendea arriturik gelditu zala Apostoloen itzaldiak bakoitzak bere izkuntzan entzuten zituala ikusita».

c) Begira Korintiotarrei Paulo Santuak ere idazten diena: «Egia esan, zuek danok baño geiago naiz ni izkerak itz egiten, eta eskerrak ematen dizkiot Jainkoari orregaitik ere; baiña Eleizan naiago ditut zuen onera bost itz ulertzeko moduan esan, erderazko izkeratan amar milla esatea baño» (I Kor. 14, 19).

d) Eta zergaitik ez aitatu emen Lourdes-en gertatutakoa ere? Jainkoaren Ama dan Andre Maria Bernardetta Soubirous-i agertu zitzaionean etzion itzezin frantzesez neskatoari, onek zekian bere errialdeko izkuntzan baizik.

2. Gogora ditzagun Elizaren buruzagitzatik, auzi oni buruz, zabaldu izandu diran zuzenbide batzuk ere:

a) Propaganda Fide'ko Kongregazioak 1774-ko maiatzaren 5-ko «Etsi Plures» dekretua:

«Aita Kardenalek uste izan dute beren esku dagoala, jentillen edo erejeen lurretan Kristo-gatik lan egiten duten guztiei eta bakoitzari era guztien bidez eta obedientzi santuaren indarrez ere agintzea, bakoitzari enkargatu zaizkion lurretara eltzen diran bezin laster, *sedulo studeant vernaculam illius gentis sermonem atque in id nervos omnes intendere.*»

b) Propaganda Fide-ko Kongregazioak 1778-ko epaillaren 7-ko dekretua:

«Gutziz ardura aundikoa baita misiotara dijoaztenak daukaten arlo aundian alperrik ez egotea, askotan erabaki izan dana da... misiolari danak eurei enkargatu izan zaizkien errietara etorri bezin laister, *sedulo studeant vernaculam illius gentis sermonem atque in nervos omnes intendere*: alegia, saiatu ditezela arretaz an bertako jendearen izkuntza ondo ikasten eta ekiñalean jarri ditezela lan ortan.»

c) Propaganda Fide-ko Kongregazioak 1920-gn. urteko Epifania-ko Istrukzioan:

«Misiolariek ez dute bere aberrietako izkuntza zabaldu bear misio-lurretako jendeen artean, jokabide orren bidez animen salbazioari haiño

euren nazioaren probetxu ta bentajai begiratzten dietela geiago aditzera eman ez dezaten; saiatu ditezela, baizik bialduak izan diran errietako izkeraren berezitasuna ikasten, eta egin bitzate beti bertako jendeen izkera ortan elizkizunak, dotriñazko erakusaldiak, eta agiriko beste itzaldi danak bai eskolatan eta bai gaiñerako zentru berdintsuetan danai aprobetxatu eta danak entzun eta entenditzeko moduan.»

«Berebat, liturjizkoak ez diran errezoak bertakoen izkera ortantxe egingo dira danak, eta ortantxe kantatuko erri-abesti ta imnu guztiak.»

d) Benedikto XV-k Begin kardenalari:

«Batez ere, jakin beza ondo ere ondo, Berorren betebearrez tratatu bear dituan arraza desberdiñetako gizonak erabiltzen duten izkera, bistan baitago bestela ezin bete al izango duala berorren egitekoarekin.»

(Kontuan artu emen izkuntza-biko erriekin ari dala, eta jendeak justu justuan beste izkera ulertzen duteneko kasuetan.)

e) Juan XXIII-ak *Mater et Magistra*-n:

«(Gai ontan) zorrotz esan bearrekoa da minoria etnikuen bizitasuna galarazteko egin dedin guztiak astun eta larri zapaltzen duala justizia, eta areago oraindik eraso oiek arrazaren beraren desegitera zuzenduta badaude.

Bestalde berriz, justiziak eskatzen duanarekin dago erabat, Erriko Agintariek minoria oien gizatasun-balore oiei benetan laguntzen saiatzea: izkuntza, kultura eta aberastasun-iturri eta aberasteko bide-sumatzeai batez ere» (3gn. atala).

3. Entzunak entzunda, ezin genezake ba iñolaz ere ontzat artu... ondo ulertzen edo ondo biotzeratzen ez duan izkuntzaz, daukana zapaldurik, erri bati predikatzea.

Eta ementxe aurreratzen zaigu, askotan arpegira botzatzen zaigun objezioa: «Gure entzuleak ba-dakite española, ba-dakite frantsesa. Zertarako ibilli bear dezu beren sukaldeko izkera ortan pulpituko edo aitorlekuko edo dotriñako itzaldiak egiten?» Amaika eztabaida eraman izan ditu Aita Agirretxe-k gai ontaz batez ere Galizia-ko apaizekin. Galizia-erri geienetako izkuntza gallegua da; baiña ez det oraindik elizgizonik ezagutu bere itzaldiak alderdi aietan españolez egiten ez dituanik. Española ulertzen dutela? Askok bai; denak ez. Eta, gañera, zenbat aldiz ez du izlariak sentimentuz entzuleen biotza bigundu bear izaten? Izlariaren eta entzulearen artean bear-bearrezko lokarria da sentimentua. Eta sentimentu ori ilda gelditzen da bere eguneroko izkuntzan entzuleari itz egiten ez dion izlariaren jardunketan.

Beste objezio bat: «Erljioa zaitu ta zabaldu ezker o bost ajola izan bear zaigu izkuntza bategaitik edo bestegaitik. Erljioa ez da izkuntzari begira egoteko.»

Ez, ez da ortarako bakarrik erljioa. Ez, ez da ortako batezere. Baña ortarako ere ba-da erljioa. Erljioak izadi guztia bere balore guztiekin konsagratu egin bear du. Eta erri-izkuntza bat balore oietako bat dalarik, erljioak lagundu egin bear dio, ederragotu dedin eta Jainko beraren aintzarako eder eta bizkor iraun dezan.

4. *Dotriña*. Dotriña aitatu det leen. Kristau-Ikasbidea edo Katezismoa kristau-bizitza guztia oen oñarria dala, esan bearrik ez dago. Zenbait lekutan gertatu dana ikusita, askok ez dutela ala pentsatzen dirudi. Euskera uts-utsean bizi bearra izango duten euskal-ume askoi elizalde batzuetan etzaie tutik ere dotriña ortatik euskeraz erakutsi. Nai izan ezker o, esan detana egia dala ikusteko, gertaera asko esango nizekizueke. Baña naiago det gaurkoz iñor ez salatu, pekatu izugarri ori gure artetik laister alderatuko dalako itxaropenarekin. Pekatu izugarria, nere iritziz izan ere, kristau bati, bere bizi guztian ibilli bearko duan izkuntzan, bear bearrezkoenak diran otoitzak ere ez erakustea.

6. Beraz euskerak erljioaren eremuan sartzeko eskubidea dauka-ba ta erljioak herriz errialde bakoitzeko izkuntza errespetatu ta erabiltzeko obligazioa.

Estaduak izkuntza bat zanpatzearekin pekatu aundia egingo baluke... nolakoa ez ote luke egingo erljioak zanpatze ortan ibilliz! Nik esango nuke erljio ori, naiz eta kristau-izena eraman, puntu ortan beintzat, elitzakela egizko erljioa izango ta eskandalo garratza ematen dabil lela ala jokatzean. Eta kontuz eskandaloarekin. Begira gero zer gertauzan Alemania-n Lutero-ren garaian.

III. EKIN. ZER EGIN BEAR DEGU?

A) *Elizgizonen aldetik*: Gai ontan gure kristau-erri euskaldunaren aurrean daukagun erantzunkizuna ondo neurtu. Eta gai ontan kapritxoza ibiltzeko ta nolanaiko jokabideak artzeko eskubiderik ez daukagula etengabe gogoratu ta gure kideko diranei gogoratu erazi.

Lanari ekin:

1. Eliz-izlari euskaldun geiago izan ditzagun. Ortarako:

a) Apaizgai ta fraillegaien ikastetxeetan beste izkuntza bearrezkoei ematen zaien lekua euskerari ere emanaz ta emanaraziaz. Euskalerrian itz egin edo irakatsi bear duten eliz-andreen artean ere beste ainbeste ta lenbaitlen lortu.

b) Ortarako euskal billera ontan esaten eta entzuten ari geran dotriña auek —batezere gure arteko Elizaren jokabidearekin zer ikusirik andiena dutenak— billera guztiaren izenean Euskalerriko Gotzai guztiei, arzipreste ta parroko guztiei, fraile ta monjenak diran ikastetxetako agintari ta zuzendari nagusienai... bein da bider bialdu ta gogoratu erazi.

2. Euskal izlariak beren izlaritzan gero ta geiago obeagotu ditezzen alegindu.

a) *Izlari geranon* aldetik: Gure izkera ona, ondo josia ta ikasia izan dedin alegindu. Euskeraz itz-egin bear degula-ta, erderazko itzaldietan nai izaten dugun txukuntasun, fintasun ta osotasun ori... batzutan euskerazkoetan ez degu izaten. Zergatik ez, ordea? Ez al degu Ebanjelioa, edozein izkuntzaren bidez esaten degularik, al dan ondoen ta ederkien azaldu bear? Bestaldetik, entzule euskaldunak ez al dira bestelakoak bezin eskubidedun beren dotriña-erakusleen aurrean?

Ori euskeraren aldetik. Eta itzaldi gaietara bagoaz, zer ikusten da askotan? Esan deguna. Gaurko publikoari atsegin ta bearrezkoak zaizkion gai asko... etzaizkiola oraindik euskeraz ematen. Esate baterako: *Mater et Magistra*-ren bear bezelako erakusketarik entzun al-degu euskeraz? Onelako beste gertaera asko esan ditezke.

Ori orrela dalarik, banoa utzi eziñezko egiteko bat esatera: Euskerazko gure euskal-izlaritza errezagotu ta obeagotu dedin... nik ortarakoxe bakarrik lan egingo luken aldizkari bat sortu-eraziko nuke. Nor-tzuk atera bear luketen? Nere iritziz, gure Seminario ta frailleen ikastetxetako teologolariak. Onek, onek dira gu sermoilari gaxoon maixu izan bear dutenak. Gure artekoak dira irakasle oietatik geienak, bai Seminarioetan bai fraile-etxetan; euskaldunak dira... baña ez euskalza-leak. Oien artean dago gogoa piztu bearra ta oiek eman bear digute —danen artean— gure predikatzeari dagokion euskaldun-aldizkari ma-mintsu ta modernu bat.

b) *Eliz-entzuleen aldetik*: Euskalerriko pulpitu askotan, batezere gure uri-buru ta erri aunditxoetan, guk izlariok poz gutxi artzen degu

entzuleengandik. Euskalzale dirala dioten asko ez ditugu euskerazko itzaldiak entzuten ikusten. Erderazkoetara dijoaz.

Zergatik ez euskerazko itzaldietara joateko moda bat sortu-erazten danok alegindu?

Baita ere beste zerbait: Gure eliz-agintariengandik euskerazko itzaldientzat ordu egokiak eskatu. Donosti-n, esate baterako, euskerazko itzaldiak entzun nai dituanak goiz-goizeko orduetan jaiki ta elizaratu bearra izaten du.

Eskari au egin bear dutenak, gure eliztar seglar euskaldunak dira. Errespeto ta begirapen guztiz, eskari ori bein da bider egin bearra dago.

c) Euskaltzaindiak ontan egin lezaken lana esango det orain:

Ba-dira gaur zenbait itz euskeraz ere askotan erabilli bear ditugunak eta ongi esan nai genituzkeanak. Ara, adibidez, batzuk emen:

Espiritualidad... ta onen antzekoak.

Cristianismo, comunismo... eta *ismo* guztiak.

Congregación, procesión... ta antzekoak.

Psicología, teología... ta antzekoak.

Auekin ta orrelako beste millaka itzekin... katramallatu egiten zai-gu gure izlari gizajoa. Berak latíñez edo erderaz dakizkin itz asko, euskeraz nola esan ezin asmatu rik dabill. Eta euskeraz itz egin bearrak ez dio pozik ematen. Edo, bestela, esakerarako alako zailtasun pixkat izan oi duten gaiak euskeraz ez ditu sekulan esango.

Orregatik euskal-izlari guztien izenean nik Euskaltzaindiari eskari auxe egiten diot: lenbaitlen izan dezagula gaurko kultura-gai guztia euskeraz esaten lagunduko digun iztegi bat. Lendabizitik iztegi osoa izango ez bada ere, bearrezkoen ta gaurkoen diran konzeptuak esaten lagunduko digun iztegi bat.

Eta jakiña, nere iritiz, ortarako euskeraz-kanpotik itz-pilla izugarria artu bearra dago. Baña ez itz artu, nola artu ta nola itz oietako bakoitzaki euskeratasun egokia eman jakiteko, maixuak bear ditugu ta maixu oiek Euskaltzaindiak izango al ditu; lan oni benetan da lenbaitlen erantzungo diotenak, alegia.

Beraz, eliz-izlari euskaldunok ere Euskaltzaindiaren zai ta itxaropenez gaude.

Eta bestaldetik erantzunkizun txit aundia degu guk izlariok ere euskeraren bizitza ta etorkizunari buruz. Geroak juzgatuko gaitu edo txaloka edo zigorka.

A. AGIRRETXE-K.